



Markesgaiak Dirua jainko

Salvador Zapiroain
"Ataño"





Salvador Zapirain “Ataño”

Salvador Zapirain Ezeiza (1913-2000), Errenteriko Bordaxar baserrian jaio zan, eta Iruñan il.

Jose Zapirain bertsolariaren semea zan, eta Juan Kruz Zapirain bertsolariaren illoba. Enborretik ezpala, beraz.

Idazle ugaria izan da, bai prosaz eta bai bertsotan ere, Baiña bere idazlanak, danak ere *Auspoa*-n plazaratuak, *Ataño* izenordearekin agertzen zituan.

Bere liburuen zerrenda: *Txantxangorri kantaria* (1979); *Txori* (1981); *San Frantziskoren bizitza* (bertsotan, 1981); *Espetxeko negarrak* eta *Zigorpéan* (1984); *Eltzaorra* (1985); *Odolkutsua* (1986); *Maitasunaren lanak* (1988); *Etorkizuna* (1988); *Maite itzazute etsaiak* (1989); *Aztia usnari* (1990); *Azkeneko saskigillea* (1991); *Lotsaren iges* (1995); *Askatasun billa* (1996); *Gorrotoa ondareztat* (2000); *Jesusen bizitza* (bertsotan, 2001); bi nobela auek: *Markesgaiak* eta *Dirua Jainko* (2002); eta denborarekin argitaratu aterako diranak.

Arrigarria benetan *Ataño* zana, bai bere ugaritasunagatik eta bai bere euskera jator, aberats eta dotoreagatik ere.



Markesgaiak



Dirua jainko



AUSPOA • SENDIA

SENDIA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendia.com

editorial@sendia.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Salbador Zapiain
"Ataño"

Markesgaiak

Dirua jainko

Auspoa Liburutegia
2002

© Salvador Zapiain "Ataño"

© SENDOA ARGITARALDIA

ISBN: 84-95378-61-2

Lege Gordailua: NA. 3176-2002

Fotokonposizioa eta imprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Lizarra (Nafarroa)

Itzaurrea

ATAÑO (Salbador Zapirain, 1913-2000) zanaren beste bi nobela eskeintzen dizkiogu gaur irakurleari: *Markesgaiak* eta *Dirua jainko*.

Leenengoan, *Markesgaiak* izenekoan, Ondarribiko aiton bati entzundako kontaera edo tradizio batean oiñarritzen da. Kontaera laburra izango zan ura, noski; baiña Atañoek txeetasunez jantzi, alkarrizketa zoragarriak erantsi eta euskera dotoreaz gauzak adieraziz, nobela biurtzen du. Joko ori bein baiño geiagotan egin zuan arek bere liburuetan.

Bigarrena, *Dirua jainko* izenekoa, gerra ondoko urte illun aietan gertatzen da. Langille-nagusien arteko arretan txorrotxak agertzen dizkigu. Aiek eziñean bizi dira; onek, berriz, dirua beste jaungoikorik ez du. Nobela ontan ez digu Atañoek iñori entzundako kontaerarik ematen; berak ikusi eta bizi izandako giroa azaltzen du.

Bein baiño geiagotan zeremonia-moduko bat egiten genduan gu biok alkarrekin: nik esku batean beraren liburu bat eskeintzen nion, argitaratu berria, labetik ateratako opil beroa balitz bezela; eta berak neri beste liburu-gai bat luzatzen zidan, beste orijinal bat alegia, inprentarako presta nezan.

Oitura ori bat-batean moztu zan, ordea, orain bost urte. Telefonoz deitu zigun, bisitatxo bat mesedez egiteko, arren. Joakin Berasategi adiskidea eta biok joan giñan, bera bizi zan etxera, Ondarribiko Amuteko komentu zaarra. Nor giñan abisatu zioten eta bereala azaldu zitzaigun, maleta aundi xamar bat berekin zuala. Onela esan zigun:

–Nere burua lanerako gauza ez da. Ala, nik idatzitako zera guziak emen dituzute, eta oiekin nai dezutena egin zazute.

Maleta xaarra idiki eta paperez beteta zegoala ikusi genduan. Orri aundiak eta makinaz idatzita.

Une goibela izan zan ura. Danok bagenekien, bai berak eta bai gu biak ere, testamentua egiten ari zala. Testamentua, bai; baiña ez munduko ondasunik ñori uzteko, baizik-eta urrearekin ere pagatu ezin ditekena gure eskue-tan jartzeko, bere azken naiaren betetzaille edo *albacea* gu izendatuz. Merezi zuala eta eguna idatzi nuan: 1997-ko otsaillaren 20-a.

Eginkizun berria bizkarreratu zigun, beraz, baiña gure gustokoa eta guretzat ondragarria: aren idazkiak argitara ematea.

Ala, 2000-garren urtean aren *Ondareztat gorrotoa* nobela kaleratu genduan. Urrengoan, *Jesusen bizitza* poema, bi milla eta berreun eta bi bertso dituana.

Gaur, berriz, leen esan degunez, aren beste bi nobela: *Markesgaiak* eta *Dirua jainko*.

Denbora berean, itza ematen det aren beste idazlanak argitara ateratzen jarraituko degula. Baiña ori ez da gure egitekoa bakarrik; bai zurea ere, irakurle. Guk sakea; zuk, berriz, errestoa.

Maleta haar artan danetik zegoan: bai prosa eta bai bertso. Orain arte argitaratu ditugun Atañoen liburuekin argi eta garbi ikusten da gizon ixil eta umil arek altxor bat utzi ziola gure erriari. Altxor ori gero eta baliotsuagoa eta arrigarriagoa egingo zaigu, aren idazlan guziak argitara ateratakoan. Zeruko Jaunak osasuna eman deigula eginkizun ori leenbaileen bete aal izateko.

Euskalzale askotxok aitatzen dizkidate *Ataño* eta bere liburuak. Olakoetan, itzbideak pauso jakiñak izaten ditu.

Leenengo, aren euskera goratzen didate: jatorra, opa-roa, aberatsa, errikoia, garbia, eredugarria... Ori ao batez aitortzen diote danak; eta ni ere aiekin batera nator. *Ataño-*

ren liburuen meriturik aundiena darabilen izkuntza dala, alegia.

Urrena, banaka batzuek beintzat, aren alkarrizketak estimatzen dituzte. Auek erdia baiño geiago betetzen dute, irakurlea bereala oartu ditekenez, Ataño-ren liburuetan. Benetan biziak eta txinpartatsuak; sagardoak bear duan bezela, alegia. Izketan ari dan bakoitza berari dagokionez mintzatzen da, bereari eutsiz eta alkarri amor eman gabe. Ori egin aal izateko, egilleak oso argi euki bear du aurretik jokoan jarri dituan lagun guzien izakera.

Bere alkarrizketen bizitazuna eta egokitasuna bertsolarietari ikasia du Ataño, nere iritzirako beintzat. Bera jaiotako txokoa bertsolari asko sortutako baratza degu. Ortaz gaiñera, bertsolari baten semea zan, eta beste baten illoba. Amaren titiarekin batera, beste iru gauza ere artu zituala esan izan det iñoiz: euskera, bertsoa eta kristau fedea. Praile sartu aurretik, zenbat aldiz entzun ote zituan arek bertsolariak, sagardotegietan eta abarretan kantuan, alkar menderatu eziñik? Euskal bertsoak eskatzen duan norgeiagoka ortan buru-belarri sartuak? Eskola orixe da, *dialektika* ori alegia, Ataño gaztetan ikasi eta gero bere liburuetan erabiltzen duana. Bertsolariak bertsoetan egiten dutena, berak prosaz agertzen digu. Orixe da alde bakarra.

Baiña Atañoaren liburuen itzaltxo bat ager dezagun. Gaiaren erabillerak geienetan badu auldaderen bat. Nobelagilleak, izan ere, kontakizuna txukun eta garbi arildu ez-ezik, kontatzen duan gertaeraren giroa eta zertzeladak ondo eta zuzen eman bear ditu. Bestela, sinisgarritasuna erren geldituko da.

Ortan, egia aitor dezagun, etzuan Ataño bear ainbat arreta artzen. *Markesgaiak* izeneko nobela, adibidez, XX mendean gertatzen da, *Titanic* itxasontzia galdu eta urteetara; eta, alakoren batean, Ingalterra eta Frantzia alkarrekin gerran dabiltzala esaten da. Baiña bi erreinu oiek, edozeiñek dakianez, XX mende ortan ez diote alkarri tirorik tira. Alkarren lagunak izan dira jo bear izan dituzten gerra guzietan.

Ataño gizon eskolatua zan, seminarioan filosofia bukatua zuan ezkerero. Baiña urrengo urtean, teolojia asi bearez, gerra piztu eta Ondarretako eta San Kristobaleko unibertsidadetara eraman zuten gizarajoa. Bere ikasketa akademikoak orduan bukatu zituan.

Gero, andik erten eta etxean ez dakit, baiñan komen-tuan bai beintzat, asko irakurri zuala neretzat dudarik ez da. Aren idazlanetan, bai prosaz eta bai bertsoan eginda-koetan, kultur kutsu aundia ikusten det nik. Geren arteko artu-emanetan ere gauza bera nabaitzen nion. Dirua, mai-tasuna eta sugarra izkutatu ezin ditezkenak omen dira. Bai kultura ere. Baiña arek irakurgai oiek bere euskera lantzearren eta obetzearren egingo zituan geien-bat; eta gutxiago kulturaren gaiñontzeko alderdiak aberastearren.

Nik, nobelagintzan ari zan ezkerero, nobela on batzuk irakurtzeko esan nion. Batean, etxeko liburutegira joan giñan Ataño, komentuko aita bat eta irurok. Nobela onik bazan an, eta aien artean Charles Dickens ospetsuaren bi edo iru. Gogoan det aietxek seiñalatu nizkiola. Irakurri ote zituan? Duda egiten det, geroztik etzidan iñoiz nobe-larik irakurri zuanik aitatu ere egin eta.

Ataño, garbi ikusten da, arretarik aundiena izkuntza rekin artzen zuan. Berak ere ondotxo zekian, bestek esan-da edo esan gabe, bere liburuen lorerik ederrena euskera zala; eta uraxe zaintzen zuan, ortantxe jartzen zuan bere biotz eta gogo guzia. Idatzi ere orretxegatik egiten zuan: gure izkuntza zaarrari eustearren.

Guk ere ikuspegi ortatik epaitu bear ditugu beraren idazlanak. Ingalterra eta Frantziaren arteko gerra ori izan bazan edo ez bazan, eta orren antzeko beste okertxo gu-ziak, ez diote itzal aundirik egiten aren prosa eder-bikai-ñari.

Sarritan esan izan da euskal bertsoa ondo egositako opilla dala; baiña euskal prosa ondu gabeko frutua. Gure prosa gauzatzen eta osatzen, mamitzen eta ornitzen, erral-doi baten lana egin zuan, bada, gorputzez txiki samarra genduan Ataño arek. Bera degu gure prosistarik oneneta-

ko bat, eta alderdi ori danok aitortu eta txalotu bear dioguna da, txapela erantzita gaiñera.

Atañoren liburuetako atari izan ditezen, itzaurre askotxo idatzita dauzkat. Oraingo ontan ere, nere adiskide ura eta beraren idazlanak gai artuta, itz aspertu bat egin det. Idaztea itz bat bestearen atzetik ezartzea omen da. Nik orixe egin det oraingo ontan, zer esan bear nuan aurretik ausnartu gabe. Baditeke emen jaulkitzen ditudan komentario batzuk onen aurreko itzaurretan ere adieraziak izatea. Ala balitz, irakurleari barkazioa eskatzen diot; eta bai ere Atañoren iturriko euskera bizi, jator eta garbi ori edanez, bere egarria asetzen leenbaileen asi dedilla.

A. Z.

Markesgaiak

Kai aldean

ONDARRIBITIK urbil xamarreko erri batean jaioa naizen arren, Errenderian alegia, ez nuen uri zoragarri au ondo ezagutzen. Txikitatik mendi aldeko joera izan baidet nik beti. Baiña bein bizitzera onuntz etorri nintzan ezkerro, emengo bazterrak, uri eta mendi geienak, ederki ikasi eta-aztertuak dauzkat. Igande eta jairik ez det utsegingo, eguraldi ona badago beiñepein, mendira edo kai aldera atera gabe.

Jaizkibel mendia oso maitea det. Ortik garbi-garbi ikusten baiditut nere sortetxearen inguruak, Bordaxar baserria alegia, Txoritokietaren oiñetan kokatua. Begiratzen zaion aldetik begiratzen zaiola, mendi zoragarria da Jaizkibel.

Batez ere Guadalupeko ermitaren inguru oiek oso atsegiñak zaizkit. Zenbat gora-beera egin ote ditut nik orrera? Baiña bere barrua nolakoa dan kontatu nezakena, kanpotik ezik ez det ezagutzen baselizatxo ori. Lapurren beldurrak orain denak itxi egiten baidituzte. Besteren jabe egille oiek ez dute ezer errespetatzen.

Eguraldi goxoa dagoenean, mendi aldera joango naiz. Baiña badaezpadako giroa baldin badago, Ondarribiko urira.

Igande batean, bada, mendirako asmoak utzita, ortxe laurak aldera, Ondarribiko bidea artu nuen, ez eguraldi txarra zegoelako, baiña ango adiskide batekin espigoian egoteko itz emana bainengoen.

Espigoia beti da leku zoragarria. Itxasoa aurrean, begien ikusmenak galtzen dira urrunera begiratzean; eta, ugiñak bata bestearen atzetik etenik gabe datozela ikuste-

an, aunditasun aren aurrean ezer gutxi geran oldozpenak datozkit burura.

Gizonak nai edo ez, itxasoko putzu zori dena nork mugierazten du? Ez baidago bein ere geldirik. «Jainkorik ez dek» diote. Nor da bada ori dena astintzen duena? Jainkoa ukatzeagatik, edozer sorginkeritan sinisten degu.

Laurak alde ortan iritxi nintzan bada espigoira. Aste guzian eguraldi bikaiña egin zuen, baiña larunbatean egundoko ekaitza bota zigun, bere ortots eta guzi.

Leku atsegiña. Igande artan ni joan nintzanean beiñe-pein, beti bezelakoa zegoen espigoia.

Itxasoa arro, oraindik erauntsiren batzuk botako ote zituen itxurakoa zegoen, baiña giro epela. Eguzkia laiño-pean sartu-erten zebillen. Odeiak abaillan zijoazen. Itzalak ere bai laiño-petik. Emakume batzuk an zebiltzan ikusi-mukusin.

Eguraldi aldakorra zegoelako, jende gutxi ageri zan, eta geienak beren aterkiñarekin, badaezbada ere. Baiña ondartzatza utsa zegoen, eta ez oso garbia. Umeak ara-onera aztarrika ari ziran, ezer balio zuenik billatzen ote zuten. Itxasoak, arroaldietan, bere burua garbitzeko, ara botatzen zizkioten zikiñak berriro jauzten zituen, ondartzara alegia, batez ere egurrezkoak eta puska ariñak. Aundi xamarrak eta astunagoak noski azpira joango zaizkio.

Laguna etorri bitarte, alderik alde aztertu nuen ondartzatza guzia. Katuren bat edo beste arkitu nituen ilda. Jauziak izango ziran noski. Bestela, katua ez du itxasoak be-realakoan arrapatuko. Bere burua babesteko bizia eta zau- lia da animala ori.

Baña espigoitik bertan, ageri-agerian, *presa-zakurra* deitzen diogun mutur motz aundi oietako bat zegoen itota, urak nonbaitik ekarria. Garbizailleak etziran oraindik iritxi. Bestela, espigoi ondoan etzuten utziko.

Bertatik bertara begira egon nintzaion, eta itota urean egunaka zeramazkien itxura artu nion: aboa zabalik, mingaiña zintzilika, begiak janak... Bere isats motz arekin, bizirik, txakur dotorea izango zan ura. Egunetan urean ze-

billena iruditu zitzaidan, bada, neri. Ori zan beiñepein nere iritzia: etzutela bizirik botako. Igari laster aterako zan ura legorrera.

Urez anpatua zegoen, bada. Bere belarri motz aiekin, etxe atarian ez dira oso goxoak izaten oiek. An umil askoa zegoen, bada; eta aren igasi ibillitakoren bat poztuko zan ura itoa ikusita.

Ura modu artan ondartzan ikusi zutenean, an zebil-tzan emakumeren batzuek, txakur oien babesleak izango ziran noski, geienak beiñepein, aserre xamar gaizki esaka somatu nituen, berak ezeren okerrik egiten ez duten aingeruak balira bezela, eta nere iritzian arrazoi izpirik gabe ala jarduteko. Nork zekien ari zer gertatu zitzaion? Emakume aiek gizonak larrutzen ari ziran, bada, baiña oso gaizki epaitzen giñuzten.

Ikusten al dezute txakur gizarajo bat ondartzan itota? –galdetu zuen batek.

–Bai; aundia eta ederra gaiñera. Itxasora nola erori ote da ori?

–Bota egingo zuten ta...

–Bizirik?

–Zergatik ez?

–Ez det sinisten.

–Gaurko gizonekin pia zaite.

–Zer dute, bada, gaurko gizonak leengoak etzutenik? Erori egingo zan. Bestela, il da gero botako zuten ta...

–Katakumeak baiño inoxenteagorik... Nere gizonak or-maren kontra jauzita lerdekatu zituen geronekoan.

–Bai, oiekin olakoa dana, emazte eta seme-alabekin goxoa izango da ura. Sudurretik katea eta ukuilluan azta-rrika ari dan zezena baiño zakarragoak ditun gizonen batzuek. Zezena bezela lotuta edukitzeko obeak.

–Eta zuk zer egingo zenduen katakume oiekin? –galdetu zuen batek.

–Senarrak egin zuena: alde batera edo bestera il –erantzun zuen besteak.

Bost-sei emakume txakurrari begira olaxe ari ziran. Aietan, bakarren bat berezi ezkerre, etzan izango noski besterik gizonen aldekorik, berak arkakoso bat iltzeko biotzik ez balute bezela. Kapoi pare eder bat emaezu, ea iñoxenteak dirala eta mendira bialtzen dituzten aske.

Jakiña, auek emakume kristau eta jatorrak izango ziran; baiña, dirudienez, gaizki esaka jardutea aientzat etzan pekatu. Ez nintzan sail artara sartu. Berak emakume errukitsuak balira bezela; baiña askotan beren emazteak aginduta egiten dituzte gizonak lan oiek.

Geldi-geldirik, bi aldeetara begiratu, eta jendeak zerabilkien atzera-aurrera ikusiz, iritxi nintzan igande arratsalde artan itxogin aldia egingo nuen lekura. Arri aundi bat zan ori, eta patxara ederrean antxe exeri nintzan, mugarik gabeko itxas zabal artara begira. Tarteka-tarteka gure etorkizuna pentsa erazteko leku ederrak izaten dira auek.

Ia eten gabeko mugira nabari zan itxasoan. Batzuk arrantzan beren kañaberekin, besteak jolasean. Ura, lasterka balebil bezela, espigoi artan zalapartatsu arri zuloetatik sartu-atera. Leenengo ugiñak gora joaten ziran, bazter guziak irensteko asmoan; baiña aurrera geiago eziñean, berriitsu leengo lekura biurtzen ziran.

Antxe geratu nintzan, bada, patxara ederrean, laster etortzekoa zan adiskide baten zai. Egun batzuek baziran egun eta ordu artarako lagun maite bat deitua neukala. Leenagotik ere bein baiño geiagotan an bertan izketan ari tuak giñan.

Nik, xaartua, ez neukan munduan zer egin aundirik. Nere laguna ere, ni bezelaxe, astindu ederrak artua. Leen egindakotik bizi zan arrantzale xaar bat zan au, euskaltzale sutua. Itxasotik atera zuen bere bizimodua eta, jakiña, maitasuna artu zion, eta ari bixitatxo bat egin gabe ezin lasaitu zan.

Ni bezela, gorriak ikusia. España aldeko lurretan astindu zuten ederki gizarajoa. Espetxerik geienetan ibilia, luzaroan eriotz zigorra bizkarrean zeramana, Madrid al-

detik Donostira zekartela iges egiña eta urte batzuak Prantzi aldean igaroa. Berak zionez, amaika piñu moztua Landesetan.

Madritik pusillatzera ekartzen omen zituzten Bidebietara. Iñoizka goizeko seiak aldera izaten ziran tiro otsak. «Orain ere euskaldun bat il ditek» esango zuten auzoak. Ura zan, bada, itzegiteko deitua neukana.

Ni exeri nintzan arri aren gaiñean berriro elkarganatzeko itzegiñak giñan. Igaz arek kontatutako ipui batekin egindako liburua neraman arentzako, eta elkar artuak geunden lan artan jardungo genduela: arek ipuiak kontatu eta nik al nuen ondoena liburu bat egin arekin. Eta igaz kontatu zidanarekin, leen esan dedanez, neraman arentzako.

Egun batzuk leenago abisu txiki bat biali nion zer gairarako espigoirra etorri, azkeneko biok itzezin genduen arri aundi artara. Berarentzat nekarren liburua nai bazuen beiñepein, an itxogingo niola.

Ni orduren bat leenagotik joana nintzan, bart ekaitzak utzitako zikinkeri eta ondamenak ikusiz.

Ni bezela bakan joaten dan batentzat, ikusgarri asko eta atsegiñak dauzka Ondarribi xaarrak. Ondartza eta karrika aietan ordu erdiren bat igarota, joan nintzan aukeratutako arri aundi artara. Ez nuen itxogin aundirik egin. Esandako ordurako txintxo an azaldu zan gure arrantzale mazala, ondartzako zikinkeriez arrituta. Izan ere, alako erauntsiak egin al zituen bezperan.

Urrutitik ikusi niñun, itxas zabal artara begira nengoe-la. Aunditasun aren aurrean ez baita bat aspertzen. Noiz-nai uste gabeko ikuskari berriak azaltzen baizaizkigu.

Bi lagunak elkarrekin

—ARRATSALDE on, Salvador —esku emanez agurtu niñun.

—Baita zuri ere, Iñaki —erantzun nion—. Txintxo etorri zera.

—Arritzekoa al da ori, ia bertan bizi naiz eta? Zu, berriz, ementxe zere baitara bildua, itxasoa irensten. Gauza askotan zabar xamarra izango naiz, baiña emateko itza betetzen txuxena. Amaika aldiz bota dit emazteak aurpegira: "Zakarra zera, baiña txintxoa ortan". Zabarrak laster galduko ditu lagunak.

—Luzaro zai egon bearra ez da atsegiña izaten, ez. Baiña baitua nauka itxasoak.

—Bai zoragarria izaten dala uraren ezin egon au. Baiña, deskuidatzen bagera, orrek bai irentsiko gaitula. Oraintxe bertan ere goxoa dabil itxas barrun ori. Orrekin erne ibili bearra dago. Orrek egindako lan gaiztoak noiznai entzuten ditugu. Gaur bertan ere bada ontzitxo bat iru gizonekin galdua. Ori purrustadaka asten zaigunean, urrutitik, segurutik alegia, ikusteko zoragarria ematen du. Beraren gaiñean ezereen eusgarririk gabe eziñean arkitzeak larria, berriz. Berak asko ematen digula ezin ukatu. Kendu ere bai, ordea, iñoiz. Amaika negar egin du onuzkero Ondarribi xaarrak, bere semeak betiko itxasoak bere sabelean irentsita. Nere gogoan ere zenbat gizon edo arrantzale ez da galdu gure erri ontan? Ala ere, zaartu eta erretiratu arte bere gaiñean ibili giñanontzat, itxasoa zoragarria da. Berrogei eta amar urte igaro ditut arrantzale bezela emen, bizitzeko eskubidea eman zidaten ezkeroztik. Larrialdi pollitak igaro ditut. Ontzia ondoratu eta kaira igari sartu

ere bai. Ez det suerte txarrik izan. Ala ere, ez uste, orrenbeste urte itxasoan igarota, orko berri ondo ikasi detanik. Beti zerbait berria arkitzen diot, ona edo txarra. Itxasoko gora-beeretan zearo ezjakiña naiz, baiña benetan zoragarria da. Orain arte, beste lurretako jendearekin itzegiteko eta artu-emanak edukitzeko, itxasoa genduen nai eta nai ezko bitartekoa; eta benetan neketsua, arraixku aundikoa eta luzeegia. Badakizu emendik Ameriketara joan-etorria egiteko zenbat denbora bear zan. Bestela, nola ikasi bear genduen mundu onen berri? Gizona sortu ezkerro, zenbat pertsona irentsi ote ditu joan-etorri ortan itxaso zakar orrek? Orain, bide ori utzi gabe, beste bat errezagoa arkitu degu ordu gutxiren buru emendik Ameriketa alderaiño irixteko. Ala ere, itxasoko txangoa zoragarriagoa izango da aidekoa baiño, eta arraixkua berdintsua. Aidekoa noski gaiztoena. Orain, telebista orrekin, etxetik bertatik ikusten degu guzia; eta, batere arraixkurik gabe, dena egiña eta lilluragarri jartzen digute.

–Egunetik egunera sortzen dizkigute ikusgai berriak. Baiña gizona ez da leen bezin lasai bizi. Aurrerapenak arraixkuak berekin dakazki. Pakean bizitzen ere ez dago errez. Sendiko batasuna ere galdu digute orrekin. Beta degun guzietan, denak utzita or gaude telebistaren aurrean. Txarrik ez duen onik ez da eta larrosik ederrenak berekin dakarzki arantzak. Ondartzan izan naiz eta zikiña dago benetan. Orko atsegintasuna aspaldi ikasi zuten. Or ibiltzen omen ziran Jaungoikoaren aunditasuna ausnartuz ara-onera. Entzuna izango dezu noski San Agustiñen izena?

–Bai; baiña izan zala besterik ez dakit.

–Oso buru argikoa omen zan, baiña gaztetan ereje samarra. Bere amaren otoitzari esker kristau egiña. Jakintsua omen zala, gaur oraindik ere ots aundikoa. Onek Jainkoa nola sortu zan eta nolakoa izan ziteken, aspaldian ori jakin naian omen zebillen. Ori bere buruan sartu. Ori ikasteko, ondartza aukerakoa iruditu zitzaion, bakar-bakarrak ango ixillunean pentsatzen jarduteko. Orain emen jendea dabillen bezela, ibiliko zan ura egurasten ondar-

tzan, beste iñor etzebillelakoan. Baiña norbaitek nabaitzen zituen bakartiaren urratsak. Bere baitara bildua, buruan ori berekin zerabilkiela, orra non ikusten duen mutil koxkor bat ondarretan txulo bat egin eta berekin zeraman ontzi batekin txulo artara ura botatzen, itxasoa ara ustu nairik. Arrituta, puska batean begira egon zitzaion; eta ondoren ala galdetu zion mutikoari, arek ari zuen lana ezin ulerturik: «Zer ari aiz, gazte?». «Itxasoa onera ustu nai nuke». «Ori izan litekena dek, motell. Ur putzua aundia dek. Egin dekan txuloa, berriz, txikia. Alperrikako lanean ari aiz». «Ezin litekena dala diozu? Zuk buruan darabilkizun ori argitu baiño leen beiñepein bai» erantzun zion, jakintsu, mutillak. Orduetik etsi omen zuen San Agustiñek benetako denbora galtzea zala buruan zerabilkien buruzbide ura argitu nairik ibiltzea.

–Aurtxoei kontatzeko ez dago gaizki asmatua -erantzun zuen.

Biok exeri giñan, bada, patxara ederrean arri txabal aren inguruan, gure begien aintziñean berdiñik ez duen itxasoa genduela, gero eta zoragarriagoko arratsalde giro ura goxatuz. Eguzkia geldi-geldi Jaizkibeleko atzean ezkutatzen ari zan ordurako, eta mendiko itzalak ezetasuna ixuriz kai aldera jexten. Odei larri batzuk azaldu ziran Aiako Arri aldetik. Ortots laiñoak ziruditen. Polliki, gero eta aurrerago. Zalantza gaiztoa artu genion leenengo ikusi aldian. Ordurako, ordea, ederki igertzen zitzaion aldaketa egin zuela illunabar ortan. Eguzkiaren sarreran oi dan bezela, nabaitzen zan bultzaka bi aizeak, goikoak eta beekoak, asi zuten burruka ixilla. Aurretik zetozen laiñoak indarrak aituz, geldi-geldi atzera zijoazen. Iparra gailendu zan.

–Ortotsa ekarriko ote du? -zion mariñelak.

–Zu arrantzalea eta ez diozu antzik ematen? Ez degu danborrik entzungo. Erretiran dijoa. Giro sargorietan denok maite degun itxas aizeak gogor egiten baidio.

Bi aitonak –ez da egi osoa noski ori, ni agurea bain aiz–, itzaurre luzetxo egin ondoren, asi genduen gure benetako elkarrizketa.

Nere erregalia

ATERA nuen sakeletik nere liburua, erregalitzat arentzat eramana.

–Gaur urte bete zuk arri onen gaiñean kontatutako ixtori arekin egin det liburua, eta emen dakart zuretzako, nai badezu beiñepein, patxaran eta pakean irakurtzeko.

Eta eskura eman nion.

–Naiko ez det, bada, liburu bat? Irakurtzeko denbora asko bear det nik. Baiña leenengo emazteak irakurriko du, nik bukatu arte irauteko pazientzirik ez du eta. Orren luzea al zan nere ipui ura? Liburu aundia da gero au.

–Bai; ez da txikia zuk emandako laburpen artatik ateratzeko.

–Zu bertsozalea zera noski? –galdetu zidan Iñakik.

–Bai, zoratua. Doai eder bat da ori. Doiñuarekin neurrian sartu eta bat-batean bukaera edo rima berdiñekin alegia kantatuz bertsoari ematen zaion grazi eta bizitasuna, ondo pentsatzen jarri ezkeru, arrigarria da. Bertsolari batek bezela egiten du liburu egilleak ere. Leenengo gaia aukeratu eta ondo pentsatu nola asi eta nola bukatu. Baiña unetxo batean bertsolariak egiten du ori. Beste gaiñerakoa nola edo ala aterako zaio. Eleberri edo nobela bat egiteko berdin: beti bere naaspilla gero eta geiago azitzen, lillura eta zoramena erantsiz, nola bukatuko duen ezin igertzeraïño, ipuiari bukaera eman arte. Bertsorik onena, jakiña, aria bezela txuxen datorrena da. Liburua ere bai. Bertsoari azken puntu onak ematen dio grazia. Nobelari ere berdin: uste gabeko bukaerak ematen dio benetako grazia edo lillura. Zuk asiera eman zenidan. Bukaera nolakoa izango zuen ere bai. Ortik aurrerakoa egillearen talentuan dago.

Idazle baten lana, ipui edo istori ori nola jantzi. Kontu txiki batekin liburu bat osatzeko, egilleak zerbait asmatu bearra dauka, eta ori egiten det nik.

–Eskerrik asko, Salbador. Emazteak letzen duenean, lasai-lasai nere alperraldietan irakurriko det dena.

–Ortarakoxe ematen dizut.

–Eta zenbat balio du?

–Zure ipuiak aiñaxe.

–Nik ezer kobratu al nizun, bada?

–Ez ta nik ere. Beste ipuirik baldin badezu, bota. Ea onekin ere beste liburu berri bat egiten degun.

–Bai. Badet aitona zanari entzuna, gogor samarra noski.

Nik kuadernotxo artu nuen, eta arek kontatu ala idatzi, bere laburpena, jakiña.

–Au ederra da. Luze samarra egiteko ere badauka gaia. Amaika olako entzun nituen nik ere, baiña geienak burutik joan zaizkit. Beste batzuak liburuetan zabalduak dauzkat. Ipui auek eta aoz ao dabiltzan zaar guziak galtzeko arraiskoan daude, ez baditugu orain biltzen. Aurki, gizaldi au bukatzean, beldur naiz gure izkuntza maite onek ere ez ote duen bide bera eramango. Oso giro gaiztoan bizi gera, eta bi etsai indartsu eta billauren mende. Gaurko euskaldun askoren dotriña oso tristea da. Abertzalerik piñenetakoak omen dira, baiña zoritxarrez ez euskaltzaleak. Errezeneko bidetik dijoaz. Dakiten askok ez dute itzegin nai. Alperrik dira Gora Euskadikako oiua eta politika gogorak. Euskadiko etorkizuna euskerak dauka. Bein da berriz egi ori zabaltzen ez naiz aspertuko.

–Bai, Salbador, bai. Arrazoi ematen dizut. Ori egi biribilla da, gure etxetik asita. Zaarrok euskeraz mintzatzen gera. Gazteak ere bai gurekin. Baiña elkarrengana biltzean, erderaz. Gu mundu ontatik joaten geranean, kito. Olako ejemplo asko ezagutzen ditut. Ala ere, euskerari ipurdikorik aundiena, nere iritzian beiñepein, sui eta errain erdaldunak eman diote. Olakoak sartu diran fameli euskal-

dunetan galdu da gure mintzoa. Oiek ez dute amorrik ematen. Maitasunez artu dituzten sendietan oiek nai dutena egin dute. Oiek ez dira makurtuko. Ikasten neke pixka bat artu ain gutxi. Gero euskaldunak omen gera aberetzaleak.

Izketan-izketan, uste gabeen gaiñera, etorri zitzaigun illuna, eta nekatu samarrak, zerbait an jan eta edateko ez eramana damutuak. Ia iru ordu generamazkigun, eta baraurik irauteko geitxo agure batzuentzat.

Ondarribiko ostatu batean zerbait bixigarri artuta, ala esan zion Salbadorrek arrantzaleari:

–Bukatzen detanean abisatuko dizut. Ea beste ipuiren bat ere billatzen didazun.

Eta, agurtuz, bakoitzak *xarraka-xarraka* bere etxerako bidea artu genduen.

Ondarribi

ERRI au, beste bere ingurukoak bezela, txikia izango zan. Ia erritar guziak elkar ezagutuko zuten. Ezin ziteken, bada, pekatu asko ixillean gorde. Bazekiten lana nork egiten zuen. Artatik zein bizi ziran ere bai. Besteren bizkar bizi ziran batzuak baziran, bada, errian.

Baiña arrantzaleak kontatutako garai aietan, Ondarribi txikia bazan ere, oso mokadu goxoa. Erritarrak elkarrekin pakean biziko ziran, baiña gudazaleak etzeukaten aztuta. Naparren mende ere egona zan luzaro. Orregatik jaso zuten gudal gaztelu aundi bat, eta oraindik ere zutik dago, joandako urteen oroigarri bezela.

Orduko bizimodua, jenderik geientzat, arrantzale eta nekazari izango zan, biak batera. Gaur egunean ere bai noski; baiña orduan bertako arrantza egiten zuten. Orain, ordea, ontzi aundiekin urrungo lekuetara dijoaz arrantzara.

Nekazaritza, berriz, Euskal Erri guzian bezela, beera-ka. Euskerari ere sekulako jipoia eman diote. Garai aieran kontrabandoa zebillen aundia.

Ondarribian orduan ere ostatu asko omen zan. Gaur oraindik ere ez dago paltarik. Baiña garai aietakorik ez noski asko. Txutik badaude ere, beren barrunbeak beiñepein gaurko aurrerapenera berrituak.

Ostatu txiki oietako bat bai omen zan. Gaurko geienak, ordea, aundi eta ederragoak, etorkiñak lasaitasun aundiago eduki dezaten. Ondo bizitzeko erreztasun obeak, ondo ordaintzen duten ezkerro; eta udarako bere bizi poza auek ematen diote erriari. Izan ere, urterik urte nagitzen ari baigera.

Aipatutako ostatu ura ere bizi da oraindik, eta etxera-koan arrantzale mazal arek eta nik garagardo botil txiki bana antxe edan genduan.

Arek zionez, orduan bezelaxe omen dago ostatua, aundiz beiñepein. Etzeukan, nai eta ere, zabaltzerik. Leku gutxi; baiña, jakiña, aurrerapen guziez antolatua. Gaurko-tasunez, alegia. Ostatu dotorea eta etorkizun onekoa, oso leku erosoan jaso baidago. Oraindik bertako nagusiak zaarren abizena bera omen daramate, eta ordukoen ondo-rengoak negozioa daramatenak, arrantzale arek esan zidanez.

Oraindik Ondarribiko zaarren artean ez omen dala aztu garai batean ostatu orrek eduki zuen izen gaiztoa. Gaur orko martxa daramatenak ondo goxo eta serbitzariak dira, bada. Norbaitek garai artako gertakari eta esamesak gogora erazten badizkie, par egiten omen dute lasai. Etxe artatik markes bat ere atera zala eta etzala dena noski txorakeria izango.

Esan bezela, orduan ere aukera izango zan, baiña gaur ere ostatu eta tabernaren paltarik ez dago Ondarribian. Azkeneko auetatik, bear liraken bi alako bai noski osasunaren kaltean eta langillearen txanponak txurruptatzeko. Ala ere norberak ditu erruak; ez tabernak. Bakoitzak artu bear du komeni zaion neurria. Erreztasuna ez dago gaizki. Ardangelak, berriz, beren buruak mantentzeko aiña sortzen zuten beiñepein. Bestela, itxiko zituzten.

Garai batean ostatu orri *Lapurtxulo* deitzen omen zioten erritarrak. Beren gurasoetatik zetorkiona omen zuten. Geroztikako nagusi batzuak etziran asko ondu. Bere artan jardun zuten. Kontrabando ikaragarria baizerabilkiten. Ori Euskal Erria guzian noski berdintsu.

Gizontxo

EMEN aipatuko degun tabernaria edo ostalaria, *Gizontxo* alegia, arrantzaleak ezagutu zuenean, ez zaar ez gazte, bitartekoa omen zan. Baiña benetan fama gaiztokoa. Gizon moxtaka sendo bat, aurpegi ederrekoa. Gorputzez ere dotorea. Langille ona eta txintxo, ezkondu zanean. Baiña orduan ere ez oso onradua. Beti izan zan traste samarra. Orregatik, maite zuen neskatxarekin ezin ezkondua. Gero oso lapurretari emana. Espetxeetako berri ere ikasia. Baiña arengatik erriak zion geiena gezurra omen zala, nere lagunak zionez.

Erritarren artean beiñepein, esan bezela, *Lapurtxulo* deitzen zioten ostatuari. Nagusiari, zer esanik ez, berriz, lapurra. Azkeneko, *Gizontxo* izen orrekin geratu zan noski.

–Ostatua nere ama eta emazteak ondo zeramatek. Or etzeukat nik zer egiñik –omen zion, aiek bakarrik zertako uzten zituen esaten ziotenean–. Nik neretzat aiña bazekarrret naikoa beste bide batetik.

–Ori dek: auzoei lapurtuta. Ori, Jainkoaren eta gizonen aurrerako, pekatu dek.

–Ondutzen dagoena ekartzea ere bai.

–Orrela baabil, egunen batean norbaitek iztar-zain oiek berotuko dizkik. Badakik olakori, lapurretan arrapatu eta gatzeko tiroa sutu omen ziotela ipurdi-masailletara. Jauzika eta oiuka laster aldegin omen zin andik, zezindua.

Auzoko fameli on bateko neska natekin ezkondu zan, eragozpen ikaragarriak garaitu eta gero. Ordurako ere lapurretara emana omen zegoela. Batez ere elizak azpian

lertuko etzuen oietakoa omen zala. Andregaiia, berriz, aingerutxo bat. Orregatik, oztoporik txarrena erriko bikarioa izan zuen, ezkontzeko baimena ezin iritxirik, aingeru bat nola ezkondu ziteken deabru batekin. Orduan, elizatik urrun bizitze ori eragozpenik gaiztoenetakoa izaten omen zala, neskatz on batekin ezkontzeko. Ixtillu gaiztoak ikusi zituen, bada, ainbeste etsairen kontra bakarrik.

Noizbaiten buruan garaitu zuenean bikarioaren ukoa, erria bera ere noski aurka zeukan. Inguru artako jendeak bai-baizekien Gizontxoren berri.

Azkenean, orratik, denak garaitu zituen. Dirudienez, neskak asko maite zuen, eta arek zeukan azkeneko itza. Arek erabakiak balio zuen; ez erriaren esamesak. Etsai guzien eragozpenak menderatu ondoren, Guadalupen ezkondu ziran, neskak eta gurasoak ala nai zuten ezkerero.

Gizontxoren aitaren amarena zan ostatua, eta au oraindik bizi zan. Beraz, Gizontxo izango zan laster, amona iltzen zanean, ostatuaren jabea, gurasoak iltzen ziranean, legea ala zan ezkerero.

Baiña laster asi ziran ango buruausteak. Senarrak bertako lan guzia emazteari uzten zion, eta batentzat lan geiegia zan ori.

Zorrik gabe pasa zuten etxe-jabetza gurasoak ezkonberrien eskuetara.

Goxoa zebillen Gizontxo, bere ille naastuarekin, onen gaiñetik txapela zabal bat buruan. Gazterik txuritu omen zitzaion, ezkondu zaneko ille orixta ura. Etxeko lanari eta bere buruari utzia bizi zan. Illea bereala erorita, kaska soil geratu zan; eta urte asko baiño leen gerria makurtu ere bai. Zaar itxura aundia artu zuen, ez noski lan geiegiagatik.

Emaztea lanpetik ezin aterarik utzita, berak beti bazuen norabait joan bearra, kontrabandora alegia. Leen moxtaka xamarra bazan, etzan asko luzatu. Baiña gero eta gaiztoagoa. Bere prakak, amilla, baita atorra ere, dena berdea. Arrantzale zaarrak ez omen zutela bestelakorik jazten. Arek ala zion beiñepein.

Arrantzan ere ibilia zan. Bazuen kabarra koxkor bat. Baiña arrantzarako aitzakitan lapurreta besterik etzerabilkien. Askotan arro-arro ala esaten omen zuen, norbaitek berdez jantziarekin itxura besterik etzuela egiten aurpegi-ra botatzen zionean:

–Ondarribiko arrantzalea nauk. Gure ikurriña berdea dek, berriz.

Orrela erantzuten zuen katu erdian jartzen zanean, baiña gutxitan mozkortzeraiño.

–Bai. Axaletik ortara abil; baiña barrunbe ori inpernu bera baiño beltzagoa, ire lapurreta eta kontrabandoagatik –erantzungo zioten.

–Al duen bezela bizi dek bakoitza.

–Oraindik norbaiti erakutsiko diok ori ez dala egi osoa. Erri ontan ez dek etxerik, ik lapurreta egin gabekorik.

–Ori ez dek zuen ezin ikusia besterik. Inbiria alegia.

Gizontxo gizon koxkorra zan, ibiliz nagi xamarra, bi eskuak ipur gaiñera jendearen aurrean zebillenean. Baiña iñor ez bazeukan bistan, besteren puskak arrapatzeko bere bi eskuak beti prest. Leendik ostatuak *Lapurtxulo* omen zuen izena. Baiña aztu xamarra, onek berritu zuen, eta nola!

Txapela txorrotx antzean aurrera ixurian, begiak benetan ezin egonak, eta geienetan bakarrizketan edo txistuka; baiña beti maltzurra, asarre itxuran, bere buruko oldozpenak ezin uxaturik. Jaberik gabeko arratoi-txakur bat bezela, bazter guzietan usmoan zer onik arrapatuko. Olakoxea zan Gizontxo. Ura inguru xamar ikusten zutenean, erne jarriko zan jendea. Askotan bai txakurrak axiatu ere.

Astean bein ateratzen omen zan itxasora, baiña arrai gutxi ekarri. Kontrabandotik eta lapurretatik zekarrena, berretzat.

Emazte gaixoak pagatu bear larrutik: bere gurasoak zaindu bear, bizi baiziran oraindik; ostatuko martxa ezin utzi; ostatu txiki artatik nolabait ateratzen zuen bere bizi-

modua. Bai senarrarena ere, au aren lanetik bizi baizan. Guraso xaarrak bereala utzi zuten mundu au. Bestela, bakarrarentzat geiegi izango zan. Ia urtero landare berria sortzen zan, eta sendia goraka zijoakion.

Kontrabandotik eta lapurretatik bizi zan otsa zeukan, bada, gure Gizontxok. Baiña beste salaketa bat, askoz okerragoa eta biurriagoa, erantsi zioten: aurrak arrapatu eta saldu egiten zituela. Ori da erriak azken aldera esaten zue-na. Ori zan zebillen otsa. Ordura arte etzan erori, eta er-tzaiñak ezin eskurik erantsi. Baiña erriko aguazilla, beiñe-pein, erne zebillen.

Prantziako laguna

ESANAK esan, gezurrak edo egiak, gure Gizontxok betiko martxa zeraman: lanik egin ez eta bapo bizi.

Astero, egun jakiñean eta ordu berean, Gizontxok bere betiko txangoa egiten zuen arrantzako kabarra txiki artan itxaso alde ortara. Baiña ez omen zuela iñork arrantzan ikusten. Bere ontzia bai itxas ertzean ondo lotua, urak eramango zion beldurrak. Leen txara zana orain lintzura biurtutako itxituren, ezkutuka, gizon txiki xamarra nola baizan, ango txara eta zartaka artetik iñork ikusi gabe, us-te gabekoren bat izan ezik, aurrera joango zan, eta an non-bait orduak igaroko zituen beste aldean, illundu arte. Lagun atsegiñen bat bazeukan an.

Beste gizon gilbor aundi batekin pasako zuen egunik geiena. Gizontxok ontzia kontrabandoz betea eramango zuen, eta Gilbor Aundiari emango zion, arek an saldu zezan; eta berak onuntzean betea ekarriko zuen, batez ere puru gauza, ostatuan saltzeko, bi kontrabandistak elkarri lagunduz.

Ixil-ixilik etorriko zan ezkutuka, argirik gabe, itxas-muga zaitzailleak arrapatu etzezaten, ortarako Ondarribian zeukan lekura. An lotuko zuen ontzia; eta ango zikinkerizko leku batean utzitako kabarra zar baten azpian gordeko zuen kontrabandoa, erriko sarreran aguazillak arrapatzeko beldurrak, urrengo egunean eta ondokoetan leku segurura ekartzeko, leen esan degunez, puru gauza eta ostatuan balio zuena.

Erriak, batez ere inguru artako baserritarrak, bazekiten ondo aren berri. Askotan arek zekarren kontrabandotik erosiko zuten aiek ere, eta dendetan baiño askoz mer-

keago eta ez batere txarragoa. Buruz giatzen zan gure Gizontxo. Etzeukan baserritarrak salatuko zuten beldurrik. Auek ondo bazekiten, bada, aren ibilleren berri; baiña irabazian ateratzen ziran ezkerro, zertako salatu?

Bere laguna ere, Gizontxo bezelako gizon koxkor bat: biurria eta, esan bezela, gilbor aundi bat zan. Baiña ura, bizi zan bezela bizitzeko, bakar-bakarrik, garbia benetan bere gorputza, ille-bizarrak txukun moztuak, etzan aberats bizi, jantzi ere ez, baiña bai txukun.

Orduko euskaldunen oitura zan ezkerro, txapelik etziztaion paltako. Astero-astero jantzi-berrituko zan, jakiña. Gizontxo ere txukun ibiliko zan, eskerrak bere emazteari. Illea ez; ardi zaar bat zirudien.

Arritzekoa zan Gilbor Aundiak zeukan txabola txar artan nola ain txukun bizi ziteken. Norbaitek, ziur aski emakumeren batek, lagunduko zion. Baiña ez det uste Gizontxok egundo ikusi zuenik. Gizon arekin zeukan bere artu-eman guzia gure lapurrak: asteroko kontrabandoa alegia.

Txabola txar ura bi ur xixtorren erdian jaso zegoen. Azpia ezea, lintzura, aren gaiñean ezin ziteken bizi, lokatz egiña egoten baizan, eta ol batzuk zeuzkan azpian jarriak, arri aundi batzuen gaiñean antolatuak, ezetasun artatik berexteko. Txurikiñezko lastaira aundi bat bi ol aien gaiñean; ori zan bere oatzea.

Esiz egindako paretak, baiña ojalataz estaliak. Ate txiki bat bere sarrerako. Etzeukan leiorik. Giltzarik ez bazuen ere, atalai sendo batekin sarrera ixten zitzaion; eta teillatuaren muga leiatil txiki bat ixten etzana.

Beti enbor aundi bat sutan edukiko zuen; eta zerbait berotzeko edo beartzen ziranean, xartaka batzuk gaiñera bota eta aize eman ez piztuko zuen sua.

Txabol txiki artan bizi zan, bada, gure Gilbor Aundia. Esan liteke ia gau eta egun an izaten zala. Oin batetik elbarri xamarra zan, eta etzegoen txara artan ibiltzeko modukoa. Iñork gutxik zekiten aren berri. Zugaitz pean estalia baizegoen txabola. Ertzaiñak noski jakingo zuten, leen

esan degunez oso baldartua baizegoen, eta urteetan ere aurreratua.

Emakume bat, bada, zeukan lagunak, ez emazte bezela. Etziran elkarrekin bizi, eta baziteken arreba izatea. Egunero, beti garaitsu batean, etorriko zan txabola txar ura txukuntzera. Zer jana ere arek ekarriko zion noski, baiña ordainduta. Gilbor Aundiak bere kontrabando eta abar naikoa irabazten baizuen.

Zugaitz xartaka batzuen azpian ondo estalia, ezkutu-tuan, bi aldeetatik ura, enbor aundi bat etxera sartzeko zubi bezela, xendarmeak ondo zekiten ango berri. Inguru artan lapurretaren bat egiten bazan, txabola txiki ura ondo aztertu gabe etzioten utziko.

Bakar-bakarrik, eremuko santu bat bezela, an biziko zan. Baiña egunaren buruan bixita asko artzen omen zituen. Ez denak ijito eta beartsuenak; markesak ere etorri izan omen zitzaizkion. Bear zutena legez eta bide zuzenetik ezin bazuten iritxi, orrengana urbiltzen ziran. Kontrabandisten artean oso ezaguna zan, bada. Bere ezkututik egiten zuen lana.

Bakarti beartsuak, bada, zer ikusi aundia zeukan. Etzuen noski Gizontxo bakarraren bixita artuko. Beste batzuek ere bai. Orregatik joaten zan Gizontxo beti egun eta ordu berean.

Onengana joaten zan, bada, Gizontxo. Leen esan degunez, onek ere zerbait eramango zuen, baiña Prantzian garestiago saltzen zan zerbait. Kontrabandoak ortan dauka bere irabazia.

Gilbor Aundiak gutxi gora-beera bazekien emengoa noiz joango zan. Ordurako arek meriendatxo bat emakume baten bitartez ekarria edukiko zuen, eta biak umore eta pake ederrean jango zuten. Beren bizimoduko gora-beerak eta beren lantegiak zituen arraixkuak an kontatuko zizkioten elkarri.

Zai egoten zan, bada, angoa, eta Gizontxok emendik zeraman kontrabandoa ustutzen lagunduko zion, eta xentimorik elkarri ordaindu gabe trukatuko zuten onek zera-

mana eta arek zekarrena. Bazekiten etzeukatela galerarik.

Kabarra ondo lotu eta zai zeukanarengana joan zan, bada, Gizontxo.

–Jainkoak egun on –alai-alai agurtu zuen.

–Baita iri ere. Ongi etorria.

Biak exeriko ziran eta meriendatxo ura irentsiz asiko zuten elkarrizketa.

–Nik eskatua bai al dakarrek? –galdetuko zion Gilbor Aundiak.

–Bai. Ortatik an aukera ohea zegok, eta merke.

–Ekarri, bada, lasai. Eske aundia zeukak orrek emen; eta ik andik dakarken prezioan salduta irabazi polita gaiñera.

–Ik, berriz, puruak edukiko dituk noski. Gure ostatuan arropazka saltzen dituk. Onak omen dirala eta merkeak.

–Prantzia alde ortan ortatik aukera ohea zeukagu. Urrengorako geiago bear badituk, esan. Erosi errezak dituk.

Ori, kontrabandoa alegia, etzan pekatu izugarria. Baiña askotan larriagoak egiten zituzten, liburu au bukatzerako ikusiko degun bezela.

Markes baten bisita

BIAK goxo-goxo meriendatzen ari zirala, esan zion Gilbor Aundiak Gizontxori:

–Gaur bixita sonatu bat bazeukagu.

–Kontuz! Salatariren bat izan litekeek, gure berri ikastera datorrena.

–Orren beldurak al abil? Motell, noiznai emen dizkit nik ertzaiñak. Zer eraman bear zidatek neri emendik?

–Gu beiñepein bai, daukagun pixarra kendu eta espetxera.

–Ez dek luzarorako izango. Leendik ere biok etxe oien berri ikasiak gaituk. Kentzeko ezer ez daukaten aiek, be-reala askatzen dizkitek.

–Olako gizon sonatu ori nor dek, eskearen erantzuna billatu dezagun?

–Markes gazte bat, berak esan zidanez bere burua es-taltzeko. Gezurra ere izan litekeek.

–Ala jainkia! Zeren eskea egiten dik?

–Senar-emazteak dituk, oraindik ez zaarrak ere, baiña ondorengorik izango ez dutela etsiak. Negozioa eta irabazia besterik ez dutenak izan bear ditek. Baiña leen esan ditena: seme-alabarik ez, eta ortarako diruak balio ez, ber-ritz.

–Orduan aurtxo bat nai ditek?

–Orixe bera. Geronekoan etorri zitzaidaken. Eskea egin zueneko, nik ala erantzun nioken azpi-azpitik: mu-gaz beste aldetik etortzen zitzaidan lagun bat banuela; aren laguntzarik gabe ezer ezin nezakela nik; olako egu-netan azalduko zala; orduan onera azaldu nai bazuen,

konponduko giñala. Onuzkero laster emen bear dik, baiña antzaldatua. Ez dik guk bere aurpegia garbi ikusterik nai. Jakiña, gero guk ezagutuko genduken beldurra.

–Eta aur bat ebastea orren erreza dala uste al dezute? Nik leen bat ekarri nin, baiña inguru guzi artan bazekitek nere berri. Ez noski ura nere lana zanik. Onuzkero, bestela, sokaren batetik zintzilik urkatu nioteken. Nere antzeko bat zala bai, ordea. Sartzen naizen lekuan sartzen naizela, etxeakoandreak oso kopetillun begiratzen zidatek.

–Beste bat ekarri bear ko dek, bada. Baiña oraingo eros-tuna gizon aberatsa diagu, eta mauka ohea guretzat. Gorago esan diat irabazia besterik ez duena dala. Euskalduna eta ezaguna Prantzia guzian.

–Nondik ikasi dek ori dena?

–Adiskide batek esanta.

–A, motell! Aurreragi sartuta ez ote abil gero? Ala jainkia! Aurra lapurtzen badegu, leku onean geratuko nauk ni.

–Eta orain, gu biok ezik, nork zekik ori: arek aurra eskatu digula alegia? Nik ortaz ez diat iñorekin itzegin. Ezta itzegingo ere.

–Bai. Askotan, emateko kontu ortan zeken eta zurrenak aberatsak izaten dituk.

–Zoraturik zebillek aur baten billa. Onek ondo ordainduko ziguk, zerekin ere bazeukak eta. Zenbat eskatuko ziogu?

–Eskatu? Ori dek errezena. Eta aur ori nork lapurtu bear dik?

–I aiz ortarako egokiena. Ni asiko banintz ara-onera, bereala galduko niñukek, gizon estrañu bat nauk eta.

Orrela izketan ari zirala, norbaitek txabolako txapazko atea jo zituen. Nor zan jakin arte etzioten sartzen utziko; eta, xendarmeak baziran, berriz, kontrabando asko bai-zeukaten barruan.

–Jakin al genezake nor zeran zu? –galdetu zioten urdu-ri, bixita zutela jakinta, ura dena leku seguruan ez gordea.

–Aurtxo baten eske etorri nintzan ura.

Estuasun gaiztoa zan ura. Jakiñaren gaiñean baizeuden. Xendarmeak izan balira... Kontuz-kontuz atea zabaldu zioten, eta sartu zan markesa edo zalako ori.

–Arratsalde on –agurtu zituen markesak, txabola kaxkar ura leporaiño kontrabandoz betea ikusirik arrituta.

–Baita zuri ere, jauna –biak zutituz errespetoz erantzun zioten–. Exeri zaite.

Goitik asi eta beeraiño neurtu zuen Gizontxok. Aurpegirik etzioten ikusten. Estalia zeukan. Baiña gizon bikaiña zala bai. Aundia eta oraindik sasoikoa zirudien: kirolzale oietakoa.

Markesak laster antz eman zion, armaz izan ezik, aiek bien beldurrik etzeukala. Baiña, badaezbada ere, lapurrekin etzegoela piatzerik eta bere armatxoa ondo kargatuta zekarren. Kontuak artuta etorri zan, bada, beartzen bazan ere.

–Emen itzegiten deguna, eta tratuan konpontzen bagera beiñepein, ixilik edukitzeko ziña egingo dezute noski? –eskatu zien markesak.

Lapurreta ortan kulparik geienak bereak baiziran. Ez bazan bera aurreratu, etzutela besteak olakorik egingo.

–Jauna –erantzun zioten, arritu samarrak–, etzenduen olakorik zertan eskatu. Arrapatu ezkerro, zu gaizki ibiliko ziñake. Ez gu ere askoz obeto.

–Nik aurtxo bat nai det, al bazenezateke mutilla, urte betez beerakoa.

–Ondo dago. Ez da erreza izango, baiña saiatuko gera. Noizko ez dizugu agintzen.

–Billatzen dezutenean, abisatzekotan –eman zien zuzenbidea–; eta ni txintxo etorriko naiz, oitura detan bezela.

–Andik edo emendik ekarriko degun itxaropenik ez degu galdu. Eta ordaiña?

–Nik onenbeste eskeintzen dizutet.

–Eta zergatik ez geiago?

–Nere eskeiña uste det ez dagoela gaizki. Gutxiago beiñepein ez dizutet emango. Aurtxo ori ikustean, gogoz-

koa baldin badet, zerbait geiago ematea baliteke. Orain-
goz onenbeste eta kito.

–Orduan bukatua dago gure tratua. Au da azkeneko
itza.

–Neurri ortatik gora ez dizutet xentimorik jasoko.

Bi lapurrak, elkarrekin itzezin ondoren, baietz, kon-
forme zeudela erantzun zioten: tratu ori ontzat artzen zu-
tela biak.

Markesak bostna duro eman zizkien. Ordurako etze-
goen gaizki; eta, leen esan degunez, aurtxo ori zekartene-
an abisatzekotan geratu ziran.

Markes ura gizon kitorra zan eta indartsua zirudien.
Leen esan degunez, sasoi onekoa oraindik. Kiroltzale
amorratua omen zala jakin zuten bi lapurrak; orduan aixa
menderatuko zituela, eta ez edozein jarri aren aurrean.

Etorri bezela, markesa antzaldatua joan zan andik. Bi
lapurrak bertan geratu ziran, aurrarekiko tratua ondo
egin zuten edo ez beren kontuak ateratzen.

–Leenengo, aurra billatu; ta, ekartzean, itzegingo dia-
gu. Noizko etziguk eskatu. Lasai ibili bearko. Etzekiat ne-
re ezurrak ez ote diran urkamendiren batean sokatik zin-
tzilik igartuko.

–Arrapatuko baiñuteke ere, babestu alegiñean ere bu-
rua. Baiña, mesedez, ez ire lagunik salatu.

–Leku onean sartzen nauk orain ere ni. Leen izen gaiz-
toa badaukat, okerragotzeko etzeramat bide txarra.
Arraixku guzia nere bizkar, eta gero biak berdin jasotze-
ko. Zuzentasuna al dek ori?

–Erorrek nai dekalako, motell, sartu aiz arazo ontan.
Iñork ez au beartu. Ukatu izan bauan, bukatua zegoken.
Eta berdin jaso bear degula? Zalantzarik gabe. Arrapatzen
bagaituzte, biok berdin zigortuko gaitzitek.

–Ala jainkia! Ez al dek, bada, ik billatu eta zirikatu?
Diru putzu ona dek, baiña benetan engaiñagarria.

Gizontxoren larriak

MARKESAREKIN tratua egin zuen ezkerok, gure lapurrak Metzerabilkien beste asmorik bere kaska borobil artan: nola eta nondik aurtxo ori arrapatuko. Baiña iñola al bazuen, Ondarribitik ez.

–Errezegi egin diagu tratua –zion Gizontxok–. Aurtxo ori billatzeak eman bear dizkidan lanak! Eta gero nola arrapatu? Ni bezelako batek, gaiñera, leen bat inguru artatik galdu zan ezkerok, izen gaiztoa zeukat. Denak, gizon moxtaka sendo bat ikusi zutela atzera-aurreraka inguru aietan.

Jainkoak jakingo zuen gizon moxtaka ura nor zan; baiña ertzaiñen eskuetan ibilia.

Orregatik, batez ere, geroztik, etxekoandreak aitaren egiten zuten, Gizontxo ikusi orduko; eta aurtxoak, jolasean zebiltzanak, etxera sartu erazi, gero ateak itxi, aren ibillerei ondo begiratu.

Iñork etzuen pekatuan arrapatu. Etzan susmur gaizto bat baizik. Baiña etzuen lanik egiten. Diru paltarik etzerabilkien, berriz. Nondik ateratzen zuen ori dena? Erriaren begietan ere gaizki ikusia zegoen, bada, eta kostako ziztaion markesarekin egindako tratua betetzen.

Asi zan, kale ximaurretan dabiltzan nagusi gabeko txakurrak bezela, batetik bestera, bi besoak ipur gaiñean eta eskuak elkarri lotuak, gaur erri batean eta biar bestean, zer egin etzekiela, lanik gabeko ijito baten antzera, nai zuen bezela, aur txikiak non zeuden jakin nairik.

Plazatik etxera zetozen emakumeak aizkatu zuten, gizon moxtaka ura ikusirik, garai bateko aurra lapurtu zute-nean erri artan ibilitako zarpail ura an zebilela ikusi-mu-

kusin. Amaika leiotatik begiratzen zuten etxeakoandreak kalera, batez ere aur txikiak zituzten amak.

–Uraxe berbera den ori -zioten lapurtutako garai artan ikusi zuten emakumeak.

–Zeleta egin bear zionagu gizon orri. Bestela, norbait tek gero alperrik negar egingo din.

Gazte batzuek, ori entzun zutenean, eta erri artan betiko izutzeagatik, arrapatu eta txabol batera eraman zuten; eta, ango mai baten gainean bi oin eta besoak loturik, bustitako espartzin-soka batekin anka azpietan joka, sekulako jipioa eman omen zioten, karraxika ziola:

–Nik ez al daukat nai detan lekuan ibiltzerik?

–Bai. Baiña aurtxoak ere bai –erantzun zioten.

–Zer ikusi daukat nik oiekin?

–Galde egiezu emengo etxeakoandreei, ea zer erantzuten dizuten.

Oiñazetan eta tratu egiña madarikatuz, lasterka aldegin omen zuen andik. Beste erri batera jo zuen. An ere, ordea, alako gizon moxtaka sendo bat ezaguna zuten. Asizan, aur txiki bat non bizi zan oartzean, iñork ikusi gabe, sarrera-erteerako egokierak billatzen: etxeakoak nola bizi ziran; txakurrik bazeukaten; aurtxoak non igarotzen zuen arratsa; erri artako jendearen artu-eman; gabean karrikak argi egoten ziran; gau-ertzaiñik edo agoazillik baze goen...

Ori dena jakin bearra zeukan, ezertan astezkeroz. Etzan aski sartu eta lapurreta egitea. Igesbidea ere ikasi bearra zeukan.

Ondarribiko berri bazekien ondo. Bai aiek ere, ordea, berea, begiz jotakoa. Aurtxo bat baiño geiago non bizi ziran ere bai. Bat, bere seme txikiena. Baiña etzuen etxean olakorik egin nai. Bai-baizekien geienak bere juzkoa egingo zutela. Arrapatu ezkerro, berriz, lau puska egingo zuten.

–Erdi ero oiek ez ditek gizon jatorrik ikusi nai –zion beregatik.

Urtea bete gabekoa ezkatzen zion. Non billatu alakorik, erritik kanpora etxe barrunbeetara sartu gabe? Bi urtekoak ere bakan ikusten zituen, karriketari bakarrik zebiltzanak. Itza eman zuen, bai, eta etzuen atzerarik egingo. Bere burua galduko bazuen ere saiatuko zan, eskeiñitako saria benetan aberatsa zan eta. Erreztasunik ez, ordea. Galdezka asten bazan, berriz, norbaitek laster kargua artuko zion:

–Besteren famelietan zer ikusi daukake ik?

Eta benetan susmurgarri geratuko zan; inguru artan norbait paltatu ezkerre beñepein, zalantzarik gabe zaarrak eta gazteak gainean zituala:

–Ori olakoren lana dek, modu ortako galderak egin zizkidaken neri eta.

Urduri zebillen benetan. Lan gaiztoa artu zuen. Eziña iruditzen zitzaion. Baiña etzegoen atzera egiteko asmoan. Erortzen bazan, kitto.

Bein ikasi zuen etxe batean bazala berak bear zuen bezelakoa. Amaika atzera-aurrera egin zituen. Etxekoandreak oartu ziran, ordea.

–Egiazute zeleta gizon sendo orri, ez badezute gero negar egin nai. Orrek zerbaiten asmo gaiztoak badarabilzki, ia egunero emen ikusten degu eta.

Etzegoen, bada, uraxe uztekotan. Negarrez ere nabaitu zuen. Baita mutilla zala nonbaitik ikasi ere.

Illunabar batean txakurrak axiatu zizkieten. Eskerrak agoazillari. Arek babestu zuen. Bestela, gorriak ikusi bearke zituen.

Onek, ordea, abisu txiki bat egin zion: erri artan bere juzkoa egiten zutela, leen andik paltatu zan mutillarena; eta, ez bazuen erriaren beste eraso gaiztoaren bat artu nai, aldegitako andik.

–Ni deabrua naizela uste al dezuz?

–Ori ez dakit. Baiña jakiñaren gainean jartzen zaitut askoz obe dezula erri ontara onenbeste bisita ez egitea, gazteak elkar artu eta arrika ematea ez badezu nai. Orduan, gaur bezela, agoazillak etzaitu babestuko.

Zemai orrekin izutu zan. Naigabez, baiña utzi zion ara joateari.

Erri guzia erne zegoen. Egun batzuk igaro zituen azaldu gabe, berriz joatekotan, ea aztutzen ziran. Baiña bere egiñalak alperrik izan ziran. Erri artan agertu orduko, leioetan somatu zituen emakumeak, eta presaka aldegin zuen andik, arri erasoren baten beldurrak, inguru artako denen susmurgarri.

Eziñezkoa bezela utzi zuen ura, eta etzuen berriz ara biurtzeko biotzik izan. Baiña non billatu beste alako bat?

Inguruko beste erri batean ere billatu zuen lapurtzeko modukoa, leengoa baiño leku errez eta erosoagoan. Gurasoak arrantzaleak, biak beren lanera joaten ziran, eta aurrak amona haar bat zeukan babes. Baiña, bere zoritxarreako, bereala oartu zan erriko agoazilla:

–Askotan ikusten aut etxe onen inguruan. Andregaiaren billa al abil? Zer egiñik ez badaukak, lana emango diat nik. Edo lapurretarako asmoan al abil?

Etzion erantzun. Oiekin zenbat eta itz gutxiago egin, obe. Alako begiratu zeken bat egin zion. Eziñezkoa zala iruditu zitzaion, eta bere kasa marmarrean aldegin zuen.

Beste bat ere arkitu zuen, baiña barrungo laguntza gabe benetan zailla. Sei urteko txiki aren anai iñoxente bat iruzurtu zuen, erregali kaxkar bat emanta.

Onek, berriz, iñoxente-iñoxente dena kontatu zion: aurtxoak lo non egiten zuen; gela artara zegoen leioak etzeukala giltzarik; aurtxoa, berriz, an egoten zala seaskan arrats guzian bakarrik, oso leku apala zalako ura; aldame-neko gelan lo egiten zutela gurasoak; berak eta iru urteko anai batek bazterreko gela batean.

–Eta leioa nola ixten dezute, bada?

–Bultzata. Aize aundia dabillenean, askotan zabaltzen du.

–Ederki zegok.

Etzion esan ixilik edukitzekorik, okerrago izango zalako. Karamelo batzuk eman zizkion, eta txikia konten.

«Bide erdia igaro diagu. Ori tirabidean zeukat. Nerea egin arte ez bada kontari aritzen» zion berekiko lapurrak.

Errez sartu ziteken andik. Baiña mutil ura ixilik egongo al zan? Berak baitu arte aztuko balitzaio... Azkar ibili bearko. Txetasun geiago ere ikasi bear, ordea: gurasoak noiz erretiratzen ziran; txakurrik bazeukaten; auzoen oiturak...

Dena aztertu ondoren, ikusi zuen leioa mendi aldera zeukala, karrikan zebillen jendearen gordean eta oso bajaran, iñoren laguntzarik gabe aixa egiteko moduan. Etzeukaten lapurraren beldur aundirik. Baiña, bere zoritxarrerako, bazeukan erriak gau-zailzaille bat.

Ikusi zuen amak bere semea karameloak jan eta jan ari zala, eta ala galdetu zion kezkatu:

–Nork eman dizkizu goxoki oiek?

–Gizon batek.

–Arritzekoa dek ori. Ez uan, bada, osabaren bat izango?

–Ez. Anairik gazteenak, Migeltxok, lo non egiten zuen galdetu zidan.

–Eta ik esan al ion?

–Bai, ama.

Susmur txarra artu zion orri, eta aitari kontatu:

–Zer iruditzen zaizu ori?

–Oso itxura txarra artzen diot. Ezagutzen ez duen ume bati erregali oiek eman eta gero zer atera arazi ari danak, gaiñera galdera oiek, nor baida ere, ez darabilki asmo zuzenik. Zer ajola bear dio iñori Migeltxok lo non egiten duen jakiteak? Ez ote da gero arratsen batean bera lapurtzeko asmoan ibiliko?

–Zer egin gentzake orduan: aurra ortik beste leku batera aldatu?

–Ezta pentsatu ere. Etxe ontan guk agintzen degu. Leengo lekuan ondo dago. Leioa obeto itxi eta kitto.

–Baiña oiek erremintaren batzuk erabiliko dituzte. Gau eta egun zaindu bearko.

–Ez, Iñaxi. Orrengatik ez degu etxeko martxarik aldatuko. Eroa ez bada, beiñepein, egunez ez da asiko noski.

–Ez orixe. Nik ondo zainduko det.

–Oierakoan txakurra jarriko degu leioaren azpi aldean. Orrek nabaitu gabe, ez da kristaurik sartuko andik.

–Gau eta egun oiek zaintzen ezin ari giñezke, armatua agian etorri liteke eta. Bat baiño geiago ere izan litezke. Udalari parte eman bear diogu. Zertako ditugu, bestela, erri-zaitzailleak? Josetxo ere, iru urteko umea, kalean or ibiltzen da aixa arrapatzeko moduan. Barrukoa ezin duenak, anbat ori ebatsiko liguke. Lapur baten beldurrak ezin ibiliko gera beti. Badakit Ondarribiko gizon moxtaka baten susmurrak badabiltzala.

Emaztearen aolkua ontzat artu zuen, eta agoazilla jakinaren gainean jarri zuen.

Andik egun batzuetara. etxeko balkoian zegoen mutila bere gurasoekin batera, eta gizon ura ikusi zuen karrikan zijoala.

–Aita, ori da neri galderak egin zizkidan ura.

–Gizon moxtaka ori?

–Geroztik ere alamoduzko galderak egin dizkit orrek.

–Ondo zegok.

Aita bereala jetxi zan, eta aurrez aurre aurpegira bota zion:

–Egun on, gizontxo.

Edozer moduzko gizonari askotan olaxe itzegiten zaio.

- Baita zuri ere, gizaundi.

–Zer zabilta zu emen?

–Ez, *konpañeo*. Ni martxan noa.

–Ez ote zabilta gero zu beste zerbaiten atzetik?

–Erri ontan nai detan bezela ibiltzeko eskubiderik ez ote daukat nik?

–Bai. Izango dezu. Baiña karamelo batzuk emanta nere semea iruzurtzeko ez. Seaskan dagoen mutiko txikienare-

kin zer ikusi daukazu, an edo emen lo non egiten duen jakiteko? Jakiñaren gaiñean gaude gero, gizontxo.

–Zergatik esaten didazu gizontxo?

–Ala zeralako gorputzez, eta animaz ere bai noski. Zer asmotan zabilta zu emen, gure etxe inguru auek aztertzen?

Aita asarretu itxurak egiten ari zan. Gizontxo ura izutu bear zuen, geiago erri artara azaldu etzedin.

Auek eztabaidaka ari zirala, tartean agoazilla sartu zan, pakeak egiteko asmoan noski, edo berak jakingo zuen zertara. Poztu zan gure Gizontxo. Aurrean zeukana amorrus daldaraka zegoela zirudien, eta etzan gaiñera edozer moduzkoa. Agoazilla sartu zan, bada. Aitak kontatu zion zer gertatzen zan an.

–Zu zera noski olako!

–Bai; orain Gizontxo jarri didate baiña.

–Auzitegian zure aurkako salaketa bat egiña dago.

–Zergatik salatu bear niñuten ni?

–Oraintxe urte bete inguru xamar, olako erritik aurtxo bat paltatu omen zan; eta neurtu zigutenaren antz-antzekoa zera zu. Dirudienez, emen ere asmo ortan zabilta noski. Epailearen agindua daukat nik zu baitzeko.

–Besteren bat izango zan. Ni ez naiz orren ezaguna.

–Zu, gorputz eta anima, gaiztoa zera. Guraso guziak zure beldurrak dabilta.

Gure Gizontxo etzan tontoa. Bai-baizekien gogor egi-tea etzitziola komeni, eta ala erantzun zion:

–Alajainkia! Deabruren bat al naiz ni erri guzia beldurrak aidean edukitzeko? Orduan lotu egin bear al nauzu?

–Ori daukat agindua.

–Nik ez daukat iñongo epailearekin itzegiteko beldurrik, zuzena bada beiñepein. Beste gaiñerakoak zuen iduripenak besterik ez dira. Baiña egun batzuetan ez banaiz ateratzen, nere etxean zer esan bear dute?

–Guk dioguna: etzerala trapu zuzena zu.

Agoazillak beiñepein txerritoki batean sartu zuen, eta giltzapean utzi. Udalak zeukan gela txiki batek espetxea zeukan izena, baiña etzan, esan bezela, txerritoki bat besterik. Oien berri ikasia bainaiz. Ala ere etzan luzaroan egon. Epaileak bereala deitu zuen.

Galdera batzuk alamoduzkoak egin omen zizkion, baiña etzion espetxean edukitzeko gairik arrapatu. Susmur txar batzuk edukiagatik, aske utzi zuenean, laster aldegin omen zuen andik. Ez urteetan erri artara azaldu ere.

Eskuetan zeukan ia aurtxoa, baiña mutil koxkor arek galdu zuen. Izan ere galderatxo batzuk egin al zizkion, umetxo bati egiteko.

Iñorako etzala oraintxe geratu zan. Izena ere jarri zioten: Gizontxo. Laster zabalduko zan ori inguru artan guzian; eta, jakiña, denak zeleta egingo zioten.

«Presakaegi ibili nauk. Mutil txoro orri olako galderak egin ziozkat, bada, nik –zion berekiko–. Aur bat lapurtu? Ez dek emendik aurrera erreza izango ori. Tratua egiña daukagun ezkerro, andik edo emendik bete bearra zeukat. Oraingo au pasa dek, baiña erriaren aurrerako saldua geratu nauk».

Andik aurrera, sartzen zan lekuan sartzen zala, *alto* ematen zioten agoazillak, jendeak, ikustean, abisua ematen zuelako noski.

Astero bere kontrabando-lagunarengana joaten zan; eta, agurtu orduko, aren leenengo galdera au zan:

–Eta oroitzen al aiz tratua egiña daukakela?

–Bai, motell. Aztuko banintz ere, agoazillak laster gogoratu eraziko lidatekek, orregatik espetxean ere eduki niotek eta.

–Markesa urduri zegok. Maiz artzen diat aren abisua.

–Nere aldetik, tratu ori oraintxe bertan autsiko nitek.

–Leen ondo pentsatzeko denbora paltarik ez uan eduki, bada.

–Ori dek: arraixku guziak nere bizkar eta ik berdin ko-bratu.

–Ik jotzen diguk Astigarraga aldetik! Ez al aiz konturazten biak nere eskuetan zaudetela? Nik nai banu, zuek biak espetxera joango zifiateke, aurra lapurtzeko diru tratuari zifiatela arrapatu zifuztedala esanta. Nik ederki garbituko nitek nere burua.

Min eman zion Gizontxori zemai gaizto orrek. Etzebi-llela arekin oso leku seguruan. Inondik aurrik ekartzen bazuen, betiko utziko zuela lagun ura. Ala ere, eman zion erantzuna zorrotza izan zan.

–Zer esaten ari aiz? Burutik joana al ago edo? Ez, *konpañeo*, ez. Zuek zaudete nere eskuetan. Zuek aur bat ebas-teko eskatu didazutela, baita dirua eskeini ere, salaketa orrekin joango banintz, ni leku onean geratuko nifuke. Zuek, berriz, espetxera. Ez neri zemairik egin.

Ixilik geratu zan zirikatzailea. Gizontxok arrazoi zeukala igerrri baizion. Biak zeuden beldurrak.

Aurrik inondik ezin lapurtu zezakela antz eman zionean, beste deabruzko asmo bat artu zuen. Baiña ori izango zan azkenekoa. Bere bizimodua ateratzeko bide obeagoren bat billatuko al zuen.

Bere inguru guzian susmurgarri geratu zan, bere lagunak zemai egiteraiño. Pekatuan dabillenari gertatzen zaizkio olako ixtiluak. Ai, mutillak! Dirua engaiñagarria dek!

Diruak ez du biotzik

TRAKETSA eta gaiztoa zan gure Gizontxo. Aren biotzak etzeukan sentimenturik. Berak etzuen negarrrik egingo, baiña besterenarekin ere ez kupitu. Bere seme-alabak baiño geiago maite zuen dirua. Emaztearen malkoak beiñepein etzuten asko urrikalduko. Egun batzuk gora-beera markesarekin egindako tratua beteko zuen.

Zeraman aurra, gaiñera, saldu orduko markes biurtuko zan. Etxean baiño etorkizun ohea arentzat. Gaizki egiten al zuen ori? Seme-alabei etorkizun on bat irixtea gurasoen buruausterik larrienetakoa ez al da, bada? Bere konzientzia zerbait ixil erazteagatik ari zan orrela Gizontxo.

Petrala zan, bada. Ajola gutxikoa eta benetan otza. Baiña emazteari emango zion naigabea ikaragarria.

Zetorrena zetorrela, iñon aur bat ezin billatu zezakeala igerrri zionean, bere semea saltzea erabaki zuen. Berak ba-zeukan bat ortarako egokia. Bost bazituzten, eta gazteenak, berriz, etzuen oraindik urterik bete. Agian etzuen berea izango eta ala zion, beintzat: bere antzekoak zirala uste besteak ere. Egin bear zuen lanarentzat aitzakirik ezin billatu.

Amaika buruauste erabili zituen azkeneko iru bat ille-bete aietan: saldu edo ez saldu. Baiña etxeko naigabeagatik etzion ajolarik. Emazteak bere zalantza egingo zuela, ori bai. Ala ere, amak bularra ematerakoan, ain goxo artzen zuen muxuka jan bearrean, bere arrizko biotza ere xamurtu egiten zitzaion. Beste semeak oraindik txikiak ziran. Aiek, aste bete baiño leen, ikusten etzutenean, aztuko ziran. Ez baizuten oraindik beren artean eta jolasean eza-gutu, amaren besoetan bestetan.

Emaztearen negarrak etziola naigaberik ematen. Orrela iruzurtu nai zuen beiñepein bere burua. Pekatu egin

aurretik dena ondo eta egoki jarriko dizu deabruak. Egingakoan izaten dira kontuak. Gizontxo azal-gogortua zegoen. Etzion oni mellarik egingo. Ez noski. Lau geiago bazituzten. Nori musu eman aukera ederra. Amarentzat, gaiñera, lan gutxiago. Besterik noski etzuten izango, baiña benetako maitasunak nekeari begiratzen al dio? Alperrik ari zan bere lan txar ori egiteko arrazoiak billatzen. Ori eroak ere bazekien pekaturik gaiztoenetako bat zala.

Leenago emazteari jipoiak ematen oitua zegoen. Orain ezin zezakean, ordea. Auzoak iskanbil guziak entzuten zituzten. epaileak ere abisu txiki bat bialti omen ziola: aien sukaldean karraxi eta zarata ikaragarriak izaten zirala, eta ori errirako oso ejenplu txarra zala. Ea bertan geratzen ziran apupilloak zer pentsatu bear zuten.

Orain semea salduko zuen, bada, bere amak etzekiela. Baiña nola ebatsi? Nai eta nai ez, arratsean egin bearreko lana zan ori. Azkeneko bere lagunari egin zion txangoan, abisu eman zion urrena zetorreanean aurtxo ori ekarriko zuela berekin, ez bazan beiñepein bitarte ortan ustegabekorik gertatzen.

–Orduan nik markesari abisua bialti bearako ziot.

–Bai, tratua egiña zeukagu eta. Aurrarena bein kobratu ezker, txuxenean etxera joan nai nitek emendik, nere juzkorik egin ez dezaten. Oso fama gaiztoa zeukat, eta izengoitia ere jarri zidatek errian eta bere inguruetan.

Gure bi lagunak ortan geratu ziran. Prantzia aldeko Gilbor Aundiak atsegiñez eskuak igurtzitzen zituen, artuko zuten sarian pentsatuz.

–Oraingotik sari polita jasoko diagu.

–Ez nitek nik beste orrenbeste esango. Biotza negarrez zeukat, negarrez.

–Ik ebatsi bear diokenak ere egin bearako dik.

–Oraindik beiñepein ezer ez. Kentzen diodanean ez dik atsegiñik artuko.

Etzion bere semea saltzen zuenik esan nai izan.

Lapurreta

LEENGO ixtillu guziak ezer ez balira bezela, orain zeukan, orain, prakak bete lan. Ama oartu gabe aurra nola atera etxetik? Ori zan aitaren edo lapurraren kezkarik larriena.

Erna zeukan ibili bearra. Bere senarraren ibilleren berri onuzkero bai-baizekien emazteak. Orregatik, espetxean ere egona zan-ta, amak gau eta egun zainduko zuela semea. Ori zan aitaren beldurra. Iruzurtu egingo zuen, bere zalantza guziak kentzeko.

Etxean elkarrekin apaldu zuten. Eztabaida gaizto bat eduki ere bai, ezeren arrazoi itxurarik gabe. Baiña etzan auzora zabaldu. Dena barruan geratu zan.

Lapurrak ori nai zuen, beraizik sortu zuen eta. Emaztearekin asarretu zala, bai, eta arrantzara zijoala. Ea an pakean uzten zioten eta goiza arte etzala etorriko esan zion asarre samar emazteari.

–Zer gertatzen zaizu? Ez da leenengoa izango –erantzun zion emazteak–. Noranai zoazenean, itz erditxo bat esaten al didazu? Zertako gaur baimena eskatu? Nondik olako biotz zabaltasuna? Zoaz, zoaz Jainkoaren izenean. Ez dezu nere baimena bearrik. Bitartean, benetako pakea izango degu etxean, eta jakiñaren gaiñean jartzen zaitut: lan geiago ez badezu egiten ostatu ontan, eta ez badezu fameli au geiago maite, nere seme-alabak artuta gurasoen etxera noa.

–Zergatik ori? Gaizkitxo bizi zera zu nere etxean...

–Etxea zurea izango da; baiña, ni ez banintz zurekin ezkondu, aspaldi ontan saldu bearrean arkituko ziñan porrot eginta. Ostatu au martxan nik jarri nuen, eta nere bizkar bizi zera. Ala ere, beti joka eta iskanbillaka.

Etzion itzik erantzun. Arrazoi zuen emazteak, eta aren zemaia larritu zuten, eta ez gutxi. Semea aitak lapurtua zala jakiten bazuen, ea olakoren bat egiten zion. Madarikatua gizon gazte arekin tratua egin zuen eguna!

Dirudenez, Gizontxo kezka zetoa zegoen, pauso ori emateko beldurrak. Emazteari baimena eskatuarekin, etzuen bere burua saldu besterik egin; eta, zeinena lana zan jakiten bazuen, bakarrik utzita aldegingo zuen emazteak. Zertarako zegoen orduan?

Zer esan bear zuen erriak? Bolara bateko apupillotza emango zioten espetxean. Ez al zan orren gaiztoa izango.

Amak, erretiratu aurretik, aurrari bularra emateko oitura zuen, eta lan ortan emaztea utzita atera zan etxetik gure Gizontxo, urrengo egoarteko amarrak aldera arte etzala etorriko esanta.

–Obe –zion andreak–. Ordurarteko pakea izango degu beiñepein.

Baiña lapurra etxetik inguru xamar geratu zan, aurrak oieratuta ama erretiratu arte. Ez al zuen, ordea, norbaitek nabaituko: etxeokak edo kanpokoak?

Argia itzali arteko pazientzia izan zuen. Jakiña, emazteak aspaldian joana zala uste zuen.

Ixil-ixilik leiotik sartu zan. Beraizik ere berak krisketari ondo eman gabe utzi baizuen. Seaska etzegoen leiotik urruti. Sartu zanean, bada, leioa barrutik itxita utzi zuen, aurra negarrez asi eta ama oartu ziteken eta. Zabalik aurkitu, ezker, berriz, auzo guzia aizkatuko zuen.

Beldur zuena gertatu zitzaion, aurra besoan artzen asi zanean. Etzegoen aurrekin oitua. Zakarra zan eta amaren gozotasunik etzeukan arek. Presaka asi ere, eta umetxoak negarrari eman zion.

«Orixe bear nin orain! Auxe dek atarramentua!».

Seaskan utzi zuen, an lasaitu zedin. Urrengoan, besoan artu baiño leen, aoa estaliko zion.

«Emazteak argia pizten badu, nereak egin dik. Emen-txe arrapatuko niok».

Erne zegoen, bada, ama. Laster nabaitu zuen aurraren karraxia, eta presaka atera zan bere gelatik.

Lapurra uzkurtua zegoen txoko batean, baiña alperrik. Argia pizten bazuen, agiri-agirian geratuko zan, seaska, aulkia eta mai txiki bat besterik etzegoen gela-barrun artan eta.

–Leen bein ere ez eta zer du gaur aur onek orrela negarrez asteko?

Bere ura besoan artu eta muxu batzuk emanenez, arara batzuk egin zituen, aurrari bere besoan eragiñez, goxo-goxo abesti au kantatzen ziola:

Aurtxo txikia negarrez dago.
ama, emaiizu titia;
aita gaiztoa tabernan dabil
pikaro jokularia.

Etzekien asko metro gutxira zeukala, amak noiz aldegingo zai, aurra lapurtu eta eramateko, bere aita.

Berriro muxu bat emanenez etzan zuen seaskan; eta, leioa itxita zegoen edo ez aztertuta, etzatera joan zan.

Bitartean, gure lapurra mai txikiaren atzean egon zan ixil-ixilik ezkutuan. Eskerrak etzuela argirik piztu. Bestela, antxe arrapatuko zuen.

Leioa itxita arkitu zuenean, ama lasaitu zan. Etzuen txarrik pentsatu. Andik laster izango ziran kontuak.

Emaztea lasaitu artean, Gizontxok itxogin zion. «Ez dek orratik oraingoan karraxirik egingo, ez!». Eta, berriro aurra besoetan artzerakoan negarrik egin etzezan, aoa itxita atera zuen andik. Leioa zabalik utzita eraman zuen umetxoa ezkutuka ontzira.

Biberoi bat sartu aoan ondo estalita, eta ekin zion arraunketari. Andik Ondarraitz etzegoen urruti. Lasai joan ziteken. Etzion, orduan beiñepein, iñork salaketarik egingo.

Kontzientziko kezka aundirik gabe kantari joan omen zan bera ere:

Pello Bixente tabernan dala
aurra jaio da Larraulen,
beraren amak topa dezala
aur onek aita nor duen.

Egia da, bai, dirua ez duela biotzik. Bestela, Judas eta
bere antzekoei galdetu.

Ondorenak

PAKE-PAKEAN zegoen ostatu txikia. Okasio jartzaillea oribiliko zan nonbait bere arazoetan.

Geldi-geldi eguna argitu zuen. Kaskar samarra eta eurria ari zuen lasai. Legorra zegoela eta etzan gaizki etorriko. Bai asekada ederra egin ere. Ala ere, etzebillen aize gaiztorik. Gaberdi aldera egin zuen aldaketa.

Eguna nabarmendu orduko, jeiki zan ama, egunero bere oitura zuen bezela, bearrak eraginda noski. Etxeko martxa guzia bere bizkar geratzen baizan. Ala ere, udara pasa eta udazkena ere aurreratuxea zijoan. Etxean, berriz, etzeukan apupillo bat besterik, urte guzian bertan bizi zana, etxeoandreari beta zuen guzietan asko laguntzen ziona.

Bere gelako leioa zabaldu eta aitaren egiñez «Zure grazia, pakea eta osasuna sar bitez etxe onetan» goizero otoitz ori egiteko oitura zeukan gure emakumeak, egun berri on bat Jainkoari eskatuz. Kanpoan giro min samarra zegoela iruditu zitzaion.

Aurtxoa zegoen gela txikiko atea zabaldu zueneko, oztua zegoela antz eman zion. Bazebillen aren barruan alako aize gurutze bixi bat, eta ikaraz oartu zan alderik alde zabalik zegoela bertako leioa.

«Nola liteke ori -zion berekiko-. aizerik ez dabil eta? Bart aurraren karraxira jeiki nintzanean, itxia arkitu nuen, bere krisketa txuloan ondo sartua. Geroztik nor ibili ziteken emen? Gaixoak pulmoni txar bat arrapatzeko ere ez dute nolanaiko arraixkuan jarri».

Berak arratsean ametsetan zabaldu ez bazuen ere, gelatxo artan geratu zan norbait ezkutuan. Amaren eta ume-

txoaren gelak ate bat bakarra zeukaten, eta leioa beste sar-
rerrerarik etzegoen barrura.

Itxi zuen leioa eta piztu zuen argia. Arritzekoa aurr
etzala oartzen ere, bestetan piztu orduko esnatzen zan eta.
Etxeko martxa jarri arte etzuen esnatu nai izaten. Baiña
argira, seaskan zegoena mugitzen etzanean, begiratu bat
egin zuen zer gertatzen ote zitzaion jakiteko.

Amaren karraxi zorrotz batek dardaratu zuen etxea.
Utsa zegoen seaska! Semetxoa lapurtu zioten!

–Nor ibili ote da emen? Nork zekien ostatu barrun on-
tako berri? Leioa kanpotik ezin ziteken zabaldu!

Bereala aitatzaz oroitu zan. Bai-baizekien aspaldi artan
izen gaiztoa zeukala eta kontrabando zikiña zerabilkiela.
Aurrak karraxi egin zuenean, ez ote zebillen gero barrun
artan aita? Baiña arek aldegin zuenean besoan zeukan se-
mea. Leen sekula ez eta zergatik orduan eskatu ote zion,
bazijoala-ta, baimena? Bere lan txarraren igesbide bezela
agian? Samindua, negarrari eman zion gaixoak. Aitaren
lana ote zan?

Beste seme txikiak jeiki ziran amaren karraxira, zer ote
zuen ikustera.

–Zer dezu, ama? –galdetu zioten izutuak.

–Joantxo bart seaskatik lapurtu digute!

Zaarrenak zerbait ulertuko zuen; besteak batere ez.

–Joantxo maitea! Nere biotzeko Joantxo! Nora eraman
ote zaituzte? –zion amak karraxika, ezin lasaiturik.

Denekin bakarrik geratu zan eta etxeko martxa jarri
bearra. Gela utzi eta txuxenean sukaldera joan zan, bada.

Apupillo bat bazeukaten, leen esan degunez, bertako
bat bezela bizi zana; eta, emakumearen itxilluak eta karra-
xiak entzun zituenean, jeiki zan zer gertatzen zitzaion ja-
kin nairik, eta sukaldera joan zitzaion. Bere etxekoandrea
negar eta negar ezin pozturik ikusita, galdetu zion:

–Negarrez orrela aritzeko zer gertatzen zaizu?

–Nere seme maite Joantxo lapurtu didate bart bere se-
askatik!

-Baiña lapurtu? Nondik sartuta?

-Leioa irikita. Lo non egiten zuen badakizu noski?

-Ori ere badegu! Etxez kanpo nork jakin zezakean orren berri?

-Gelatxo ortan etxeakoak besterik ez giñan ibiltzen. Bart, aurrak karraxi eginta, jeiki naiz. Leioa itxita, semea esnatua baiña bere seaskan arkitu det. Arrats guzian ez det kinkiorik nabaitu. Oso paketsu eta lasaia da. Ori eraman duenak nik bezela daki emengo berri, eta gela barruan zegoan ezkutatua, zalantzarik gabe.

-Arrituta uzten nauzu, baiña benetan naigabeen laguntzen dizut.

-Eskerrik asko. Benetan maite bear luken baten zalantza dabil nere buruan.

-Gertatuaren berri eman didazunerako, nere buruan ere kezka gaizto ori piztu da: beraren aita alegia.

-Orixe berbera. Zer egin bear det nik orain, seme txiki auekin bakarrik nago ostatuan ta?

-Nere aolkua au da: etzaite ibili gela txiki ortan; seaskarik ez ukuitu eta utzi leioa dagoen bezela, batez ere kanpotik etxerako sarrera, epaileak dena aztertu arte. Gutxiena uste dan aztarrenetik arrapatu liteke emengo lapurra. Baiña kezketan nago.

Aurra palta zan eta etzeukan orduan negar egin besterik.

-Nai badezu beiñepein, nik edozertan lagunduko dizut.

-Eta emen geratu bear al dezu?

-Zergatik ez?

-Epailea zorrotz galdezka asiko zaizu eta...

-Aldegitea nai badezu, joango naiz.

-Ez orixe. Ura ostatu ontara sartzean, laguntza bearko det.

-Orduan bertan geratuko naiz. Ez dezu nere juzkurik egingo?

–Leen ere nere zalantzen berri eman dizut, eta barkatu. Zurea eduki banu, ez nizun galdera ori egingo. Batez ere olako naaspilletan iges egin nai izaten baidute.

–Epailearen galdera guzietan erantzuteko ez daukat beldurrik.

–Badakizu denetarako bakarrik geratzen naizela; eta, ez badezu joateko asmorik, mesedetxo bat eskatuko nizuke.

–Ez daukazu agindu besterik. Nik egingo det.

–Agoazillari abiso txiki bat biali.

–Orrek ez dauka emen ezer egitekorik, baiña abisatu ko diot. Epailearen lana dago emen. Etorri eta dena arek aztertu bear du. Nik ezaguna det. Oiek bederatzietan asten dira lanean. Orduan itzegingo diot zer gertatzen dan eta leenbaileen etorri dedin.

–Ondo dago. Zure esku geratzen da orduan. Bitartean nik etxea zerbait garbitu bearko det. Umeak ere bai txukundu eta eskolara biali.

–Eta gizona non dezu?

–Asteroko martxa izaten du. Amarrak alde ortan azalduko zala esanta joan zan bart. Ez dakit zertara joaten dan. Bein ere ez du etxera ezer ekartzen. Datorrenean, zer ikusi bear du arek, gizarajoak?

–Bai; gizarajo ona dago ura.

–Amarrak aldean etorriko dala esanta joan da, neri baimena eskatuko balida bezela. Leen egundo ez du olakorik egiten. Utzi zaiogun pakean, artaz naikoa mintzatu gera eta.

Utzi ditzagun ama eta apupilloa beren susmur eta kezka gaiztoaz beteak, eta goazen bi lapurren Prantziako batzarrera.

Lapurren asmoa

ILLARGI bikaiña zegoen, goizerako kaxkartu bazuen ere, aita aurrarekin atera zanean, eta ori etzaitzaion komeni. Aurrera, atzera eta zearretara begiratuz, bazijoan ixilik bere bidean.

Ostatua baiño beraxeago bi gizonekin topo egin bear zuen; eta, parera baiño leen, bidetik aldendu zan, aiekin topo ez egiteagatik. Arritu ziran bestea:

–Gure ondotik ez igarotzeko, zer du orrek?

–Etzekit; baiña zerbait bazeramaken besoan. Aurra ote zuen iruditu zaidak neri. Ondo estalia, ori bai.

–Gizon bat aurrarekin garai ontan? Lapurtu egin ote du, bada?

–Ala badarama ere, neregatik lasai baliakek. Gure etxetik ez dik olako ume txikirik eramango –zion batek.

–Ezta guretik ere. Baiña arritzekoa dek orrek egin digun igesa. Oso susmur txarra artzen ziot. Nor ote zan ori? –erantzun zion bestea.

–Ez diat ezagutu. Gizon txiki bat zala bai.

–Ea aur-lapurra zan. Erriz erri dabillega entzun ziot norbaiti.

Eta beren bidean jarraitu zuten.

Gizontxok aspaldi artan igarotako unerik larriena antxe igaro zuen, bere amari lapurtuta semetxoa besoan zeramala, bein iztar-zaiñak berotu zizkion kuñadoarekin topo egin zuen eta.

Zerbait lasaitu zanean, sartu zan bere ontzira. «Arrapatu izan baniñu, bertan itoko nioken» –zion berekiko. Andik aurrera, bere ustez, seguru zijoan.

Ondarraitz alde ortan txalupa asko zebiltzan, txipiroitan noski, parol txiki baten argira. Aundiagoak urrutirago joanak izango ziran. Ontzi aien guzien erditik aurrera txalupa zeramala, kantari pasa omen zan, bere kontzientziko kezka itotzeagatik agian.

Iñoiz beste aitaren batek saldu ote zuen bere amari ebatsitako semerik, eta diru truk gaiñera? Ondarribian ez beiñepein, eta bera zan leenengo lapur ori. Arrapatu ezkerro ez ote luteke erritik bialiko edo, okerrago oraindik, agaren batetik zintzilik urkatuko? Benetan beltza egin zuen. Ori jakiten bazan errian, bertsorik gaiztoenak norbaitek jarriko zizkion. Egindako lanaz damutu balitz bezela, ol-dozen auek eraman zituen, ezin azturik, barruan zirika.

Onuzkero etzuen, bada, atzerarik egingo. Gero geroak eta, jakiña, lasai itxurak egiñez kantari zijoan.

Aurra erdi lo zeukala atera zan; baiña ara orduko naastu samarra iritxi zan, itxasoaren eten gabeko eragiñarekin noski.

Ontzia betiko lekuan utzita, urak eraman etzetaion itxas bazterrean ondo lotua, aurtxoa erdi naastua besoan zeramala iritxi zanean, jo zuen lagun lapurraren txabolako atea.

Erne eta zai zeukan bere adiskide barrabas ura, Ebanjelioak dionez, argikumeak baiño ernaiagoak omen dira illunpekoak eta.

Aurra, alde aurretik moldatua zeukaten seaska goxo txiki batean etzan erazi zuten, eta bi lapurrak beraren ondoan exeri ziran.

Ain txukun eta goxo jarri zuten gure txikitxoa, ez bera maite zutelako; arek beren biotzetako atsegiña zan eta mundu galtzaillea dan diru madarikatu ori ekarriko baizien. Amaikatxoren jainkoa!

–Arritzekoa dek ez duela bide guzian negarrik egin. Erdi lo etorri dek.

–Ume bikaiña zirudik. Au ezin gentzakek orren merke saldu.

–Arek etziguk, bada, geiagorik emango. Bestela, aurra-
rekin etxera joan bearco nitek. Oraindik ez dik urte bete.

–Ez badu eman nai, indarrean kenduko ziogu.

–Kontuz arekin! Gizaundi eta sasoikoa dek gero ura!

–Bai; baiña gutxi oitua. Gi bi gaituk, gaiñera.

–Itza emana zeukagu ordea.

–Baiña ez idatzi eta izenpetua. Pintasun oiek ez dituk
gu bezelako lapur batzuentzat egiñak.

–Eta geiago kobratzeko, zer egin gentzakek?

–Ez badu geiago eman nai, markesa baitu.

–Eta orrekin zer aurreratuko diagu? Markesa ere sal-
du?

–Emazteak ekarri bearco likek guk eskatzen dioguna,
bere senarra askatzea nai balu beiñepein.

–Eta nola abisatu?

–Baituak berak emengo urrutizkiñetik.

–Eta emazteak ez badu olakorik nai, markesari zer
egin bear diok?

–Or zegok buruaustea. Ezin ilko diagu.

–Ire buru konkor orrek beiñepein etzeukak argitasun
aundirik. Aur gaixoa irea balitza bezela itzegiten dek; eta
au, illebeteak eroa bezela ibilita, nere burua arraixkatuz,
ekarria diat onera.

–Zertan ari aiz berriketan saltzaillea eta eroslea nere
eskuetan zaudete ta? Nik salatuko baziñuztekek, Onda-
rreta alde ortara bisitatxoren bat egin gabe ez lizueteko
utziko.

–Eta i gizon ondradu bat bezela saritu. Ik antolatutako
tratua dek au, eta iregatik zekarret aurtxo maitagarri au
saltzera. Etzekiat ni aterako nintzaken. Baiña txarrera asi-
ko baintz, ire egunak urkamendian bukatuko ituke. Ire
pekatuen berri ondo zekiagu gero... Iruroi ixil-ixilik ego-
tea komeni zaigu.

–Ori izango dek, bai noski, onena. Gutxieneko bi alako
eskatu bear ziogu, umetxo bikaiña dek-eta au.

Arian-arian elkar artu zuten. Diruak iruzurtu zituen: baitu egin bear zutela eta, al bazuten, diru geiago kendu.

Markesa ere etzan ordea tontoa. Bazekien nortzuekin zebillen, eta ondo preparatua azaldu zan.

Markesa

AUEK beren billaukeria ontzat artu eta andik bereala, norbaitek polliki-polliki jo zuen txabolako atea. Kontuz-kontuz zabaldu zutenean, markesa azaldu zan, oso antzaldatua.

–Gabon! –agur legor bat egin zien.

–Berdin zuri ere, jauna –erantzun zioten, goxo-goxo, zurikeri eta losintxa zeriota-. Exeri nai badezu, ona emen seaskan aurtxo.

–Ona nik ere emen diru-poltsa.

–Aur ederra benetan. Oraindik urterik ez du. Ixilla eta paketsua da, eta apetitu onekoa gaiñera.

–Nik umetxoen gora-beeren berri ez dakit ezertxo ere. Doai eder oiek guziak zenbateraiñokoak diran, emazteak esango du.

–Au ez dago orren merke saltzerik. Pena ematen digu.

Benetan latz mintzatu zan markesa:

–Tratua tratua dek, mutillak. Itza, berriz, itza. Ni oraindik leengoan nagok: itzegindakotik gora ez dezute xentimorik artuko.

–Zerbait geiago nai genduke, bada.

–Ez badezute egindako tratuan saldu nai, ni banoa. Zuentzako aurra. Nonbait billatuko al degu besteren bat.

–Orduan itxasora botako degu.

–Olakorik ez egin beiñepein. Bestela, etzerate gizonak.

–Emaiguzu orduan geiago.

–Ezta xentimorik ere. Ez badezute egindako tratuan nai, or konpon orrekin!

Markesa erne zegoen ez ote zitzaizkion indarrean asiko. Lapur aiek dirua nai zuten. Leen eskeiñia ere bazan zerbait.

–Berrero eskatzen dizugu: emaguzu geiago.

–Ezta xentimorik ere. Ez badezute egindako neurrian nai, zuentzako aurra. Leen ere esan dizutet, eta ni banoa etxera emendik.

Ateratzen asi zan. Orduan beste biak, labana bana eskuan, aurrean jarri zitzaizkion.

Irurak geratu ziran larri eta elkarren beldurrak. Markesak, bietan aundienari, ortxe burua eramaten zion. Oraindik sasoiko gizona, etzegoen noski aiei amor emateko asmoan. Aren besagaiñak bietan bat ondo arrapatzen bazuen, igerriko zion. Besteak bentaja pixka bat bazeramaten: armatuak zeudela eta zer egin itzegiñak.

Markesak alde guzietara begiratzen zuen. Ateera bakarra zuen eta bi etsaiak an zeuzkan jarriak. Aiek andik berexten bazituen, gaizki ibiliko ziran. Baiña bai bera ere, egindako eraso ez bazitzaion ondo ateratzen. Askoz luzeagoak zituen besoak eta ori beretzat bentaja zan.

–Ekatzu geiago eta konponduko gera.

–Ezta xentimorik ere.

–Ez gera bestela ondo konponduko.

–Zer nai dezute egin nerekin?

Patxaran asi zan izketan, etsaiak lasaitu nairik, egokiera on bat billatzen ote zuen.

–Baitu, eskatzen dizuguna ez badiguzu ematen.

–Nik ez dakart bear nuen dirua besterik, eta gaiñerakoa nork ekarriko dizue? Urruti zegok gero nere etxea.

–Or dago urrutizkiña emazteari abisatzeko zer gertatzen zaizun, eta arek ekarriko luke. Zu ondo zaude emen bitartean.

–Banin, bai, beldurra zuek bezelako lapur batzuekin ez nuela gauza onik izango. Emazteak etzekik non gauden. Billatzen bagaitu ere, ez dek bakarrik azalduko. Xendarmek lagunduko ziotek. Orduan irurok galduko gaituk.

Itz oiekin lapurrak lasaitu ziran: markesak etsi zuela, alegia, eta sekulako diru putzuren baten jabe egingo zira-la.

Leen esan degun bezela, markesa zaulia zan, luzea eta sasoikoa. Atea itxi eta barruan lotzen asi ziranean, jauzi bat egin zuen eta bietako bat eskura jarri zitzaion. Bai eman ere epela, benetan merezi zuena. Begiak zuri-zuri erori zan lurrera, eta pistola txiki bat atera zuen sakeletik markesak.

–Ez uan besterik merezi; eta zuk uztazu labana eta ekarri aur ori onera.

–Baiña ez gaitzazu batere gabe utziko!

Aurraren aita zan ori ziona. Erostenak bestea jo baizuen.

–Orixe merezi zenduteke. Baiña ni itzekoa nauk.

Maiaren gaiñera bota zuen poltsa; eta aurre ezkerreko besoan eta pistola eskubian atera zan etxetik.

–Ez gero nere atzetik jarraitzerik pentsatu. Bestela, laster joango zerate itxasora arraien janari.

Etxean

BEREALA zabaldu zan gertatuaren berri: Lapurtxuloko semerik gazteena, oraindik urte bete kunplitu gabea, bere gelako seaskatik lapurtu ziotela amari. Bazirudien aizeak egin zuela zabalkunde ori.

–Amari aurra gelatik lapurtu, bera barruan dagoela? Etzeukateken nolanaiko logalea!

Baiña ori etzan orrela. Amak gela batean lo egiten zuen, semeak bestean. Biak sarrera eta erteera bakarra zeukaten. Aldameneko gela txiki batean zegoen, bada, aurra bere seaskan.

Arratsean karraxiak nabaitu omen zituela, baita ikus-tera joan ere, eta leioa barrendik itxia arkitu omen zuela, eta Joantxo seaskan. Dena ondo zegoela oarturik, ametsetan-edo karraxi egingo zuela-ta lasaitua, ama atsedentzera joan zan. Goizean jeiki zanean, berriz, leioa zabal-zabalik eta aurtxoa palta andik.

Ori jakin zutenean, auzoak urbidu zitzaizkion, aien bearrik bazeukan edo zer baitetan laguntzeko asmoan; eta, jakiña, geiago ikasi nairik.

Epaillea oraindik etzala etorri eta aren iritziaren berri etzekitela; baiña etxe barruan ezkutatuta zegoenen batek egindako lapurreta zala zalantzarik gabe zion aurraren amak.

–Ala jainkia! Lapurtxulo ez dauka gaizki jarritako ize-na ostatu orrek.

Batzuk azaldu aiñean bazijoazen besteak. Laster azaldu zan amaren anaia, Gizontxoren iztar-zaiñak berotu zituena. Jakiña, bere koiñadua, sumindua. Bazituen bere zalantzak eta amari ala galdetu zion:

–Noiz oartu zera palta zaizula?

–Ni goizean, jeiki ondoren.

Kontatu zizkion arratsean ibilitako itxilluak bere txee-tasun guziekin.

–Zuk badakizu non eta nola dagoen leioa; eta nere gelako atea besterik ez dago ara. Ura da sarrera. Barruan gordean ez bazegoen, nola sartu ziteken? Goizean, berriz, leioa alderik alde zabalik arkitu det, eta aurra palta. Sorgiñak eraman ote dute, bada?

–Nik, olakorekin natorrela, ikusi det lapur ori; eta, gurekin topo ez egiteagatik, bidetik zelai aldera atera da. Lagunak esan ere bai: «Ez al zeraman orrek besoan aurra?» «Bai; aurra ote zuen iruditu zaidak neri ere –erantzun diot–. Baiña garai ontan gizona umetxo batekin? Eta nora-ko martxan?». Dana dala, arek eraman du zure semea, eta baditut ura nor zan benetako zalantzak.

–Baita nik ere –erantzun zion amak–. Baiña neretzako eta zuretzako: nere semetxoaren aita. Beste iñork etzekien orko berri. Ezta apupilloak ere. Baiña barrutik zabaldu du; ez kanpotik. Aren karraxira joan naizenean, ez det argirik piztu. Bestela, bertan arrapatuko nuen. Ura barruan egongo baizan. Zoratua zebillen erri batetik bestera. Baita gazte batzuek tratu txarra eman ere. Ez ote zebillen olakoren baten billa? Leenago ere olako otsak zabaldu izan dira.

–Alua aleena! Bi lagunak aren antza artu diogu. Besoan aurra zeramana, gaiñera. Baiña illun baizegoen, eta geunden lekutik urruti samar, ezin nezake ura zala seguru baieztu. An arrapatu izan banu, igerriko zion...

–Gauden ixilik. Agian andik edo emendik argia azalduko da.

Beste batek ere, nekazari eta arrantzale lana egiten zuenak, ikusi zuela kontatu zion amari: ibai ertzean zegoen ontzi batean joan zala gizon moxtaka bat, bere senarraren antzekoa; besoan zerbait bazeramala, baiña zer zan etziola antzik eman; ontzian sartu eta arraunean ezkutatu

zala itxasoan. Gizontxok, bere senarrak, antxe edukitzen zuela bere ontzia.

Anai-arrebak izketan ari zirala, iritxi zan epailea. Aren iritziaren zai zegoen ostatu artara urbildu zan jendea. Bi agoazil zekarzkien berekin, lapurretaren txeetasun guziak aztertzeke asmoan.

Noizbaiten buruan, emazteari agindu bezela, amarrak aldean etorri zan Gizontxo, etxe barrun artako giroa aztertu nairik, ixili-ixilik eta bakarrik.

Baiña nabaitzen zuen ostatu barrun artan norbaitzuk bazebiltzala, eta izan zitekela epailea ango azterketa egite-
ra etorria. Badaezbada ere, etxera sartu baiño leen, neu-
rriak artu zituen. Ate ondoan geratu zan, bada, epaileari
nola erantzun preparatzeko.

Epailea bere lanean

EPAILLEA bi agoazillekin etxe barruko aztarrenak aztertu zituzten, eta garbi-garbi zeuden barrukoak; baita kanpokoak. Txeetasun guziekin neurtu zuten dena ondo. Bukatu zutenean, ala esan zion amari:

–Emengo lapurra ez da urrutikoa. Leio au, gaiñera, barrutik irikia dago. Ebaslea etxean zeneukan gordea. Apupillorik bai al daukazu?

–Bai; bakarra. Etxekoa balitz bezela, egotez emen bizi dana. Zuri abisua biali dizun ori.

–Aspaldiko laguna det –erantzun zion epaileak–. Ori ez da olakoa.

–Ostatu ontan ez da, bada, besterik. Norbait, gure ixilean etxe barrura sartuta, ez bazan gorde...

–Ori da nere susmurra ere. Eta gizona non dezu?

–Asteroko oitura duenez, bart arrantzara joana.

–Ez ote zizun gero arek arrapatuko?

–Jesus, epaile jauna! Ori gordiñegi pentsatzea ere baltzake. Ez al zan aita bere semea saltzen asiko!

–Gizon orrek fama txarra dauka. Leen ere bakarren bat arrapatu eta saldua ote duen iritxi da nere belarrietara. Erregali batzuk egiñez ume txiki bat arrapatzeko zorian ere ibilia da. Txakurrak axiatu zizkieten bein, eta agoazillak salbatu zuten inguruko erri txiki batean. Geiago ara sartzan bazan, arrika emango ziotela zema egin zioten gazteak. Baitzeko agindua artu zuen agoazil batek. Baita espetxera eraman ere. Galdera gaizto eta gogorrek egin zizkieten; baiña etzan alako salaketa garbirik agertu. Ez da, bada, edozein modukoa.

–Ez nuen orrenbestekorik entzun. Ori dena litekena da; baiña aita bat bere semea saltzera ausartuko danik nik ez det uste.

–Eta noiz etorriko da?

–Atzo agindu zidanez, oraintxe du ordua.

–Gizon orrekin ez naiz batere pio.

–Ura etxetik atera zanean, aurtxoa besoan neukan nik. Ez bazan gero ixilik sartu, aren lana ezin liteke izan.

–Eta zer egiteko darama arek? Astero-astero urez Prantziara joaten omen da, kontrabandoa eta aur-tratuak egitera noski.

–Ez dakit orren berri. Orri, jauna, berak erantzun bear-ko dio.

Gizontxok bere emaztearen erantzunak ezkututik oso atsegiñez entzuten zituen, salaketaren bat egingo zion bel-durrak etorri zan eta.

Orduantxe jende artera azaldu zan gure Gizontxo, ezer ez baleki bezela. Emazteak, zurubiak bera zijoala to-patu zuen.

–Zer da gaur etxe ontan? –galdetu zion asarre.

Emazteak senarra oiñetako berriekin ikusi zuenean, oiñetara begira-begira jarri zitzaion. Leen bere susmurra bazeukan, azi egin zan orain.

–Zer: nere oiñetakoak gustatu egin al zaizkizu?

Zalantzaz betea, ala erantzun zion:

–Joantxo, gure semea, seaskatik ebatsita eraman egin digute.

Gizontxok ez entzuna egin zuen, eta amak berriro esan zion:

–Joantxo lapurtu egin digute.

–Aur txikia ebatsi? Nondik: leiotik sartuta?

–Epaileak dionez, barrutik egindako lana dala.

–Baiña Joantxo ebatsi? Non zeunden aurraren karra-xiak ez entzuteko? Etzeneukan nolanaiko loa. Nora joan bear degu orain? –eraso zion asarre senarrak.

–Aizu: seme-alabak zaitzea bion lana da; ez nerea bakar-
karra.

Aitak irabazi guzia beretzat jasotzen zuen, eta arrats askotan emaztea bakarra uzten zuen etxean.

–Baiña aurre gela barruko seaskatik arrapatu? –zion berriro senarrak–. Nola, bada? Ez al dituzu aren karraxiak entzun?

–Aitu? Nola dakizu aurrak karraxi egin duela? Nik entzun ditut; baita jeiki ere. Baiña ez det iñor ikusi, zori-txarrez, argirik piztu ez detalako. Txokoren batean an egongo zan lapurra larri asko. Barrutik egindako lana dala agirian dago. Ez du batek aztia izan bearrik.

Antz eman zion aitak amak bere juzkoa egiten zuela; baiña etzion erantzun, igesbiderik ezin billatu zuenean.

–Nola daki epaileak barruko lana dala?

–Berak jakingo du, nik ere badakit eta. Oraindik goian dabil, orko txokoak aztertzen, etxeko apupilloa eta bi ago-azil lagun dituela.

Emazteak maiz oiñetara begiratzen zion. Bai senarra oartu ere:

–Nere juzkoa egiten al dezu?

–Nik ez det iñoren juzkorik egin nai; baiña ziur bada-
kit zu etzerala bart oiñetako berri oiekin atera.

Emaztearen salaketa orrekin zerbait naastu zan. Elka-
rrizketa ori utzita, gora joan zanepailearengana.

–Zer zabilzate zuek emen –galdetu zien, agurtu ere gabe.

Baiepaileak zorrotz erantzun ere, baiña galdetuz:

–Ez ote dakizu gero zuk emen zer gertatzen dan, guk bezin ondo?

–Iritxi naizenean, oraintxe esan didate.

–Baliteke. Ez ote zera gero zu onen berri leenen ikasi dezuna?

–Aita batek semea galdu! Olakorik egundo gertatu ote da gero?

–Dirua jainko indartsua dala badakit gero. Zu nola zabiltzan ere bai, eta erri askotatik zu aurrean nola biali zaituzten ere bai.

–Bai! Umeen kontuak!

Epailea etzan ain umea izango.

–Or ibili dana oiñetako zaarrekin ibili da, baiña zu berriekin zatoz. Baita emaztea benetan arritu ere. Aalegiñak egingo dituk, bada. Aur txiki ori nork eraman duen ortik ikasteko gaur ez daukat betarik. Lan asko daukat. Baiña au ez da ortara geratuko. Oraindik deituko zaitut.

Eta, agurtuz, joan zan.

Amak, zalantza ezik, ziurtasuna ere bazeukan noski. Epaileak ere bai. Baiña, baitzezkeroz, arrazoi geiago bear-ko zuen.

Gizontxo, epailea agurtu eta gero, utzi zuen ontzira joan zan. Ango gizon batekin bi itz egin zituen, eta deabruak artua bezela geratu zan.

–Au ez dek ortara geratuko! –esan eta aurrera jarraitu zuen, bere onetatik aterea, amorratua bezela.

Zer ote zuen gure Gizontxok?

Lapurrak beti lapur

MARKESA joan da gerora, korde gabe zegoen begiondoko artu zuen Gilbor Aundia, etzanda luze.

Gure Gizontxo une batean begira egon zitzaion, eta pentsakizunez betea. Baita bertan ilko ote zuen zalantzan ere. Ortara, sari guzia beretzat geratuko baizan. Baiña ori etzan bearrezkoa. Bein alde ontara igaro ezker, arekikoa bukatua zegoen, eta alai-alai berekiko ala zion: «Au dek egokiera etorri zaidana!». Markesak maira bota duen diru poltsa artu eta «Agur, *konpañeo!*».

Eta igesari eman zion Ondarrabi aldera.

Besteak, bere onera biurtu zanean, bakar-bakarrik arkitu zuen bere burua. Exeri eta ala zion berekiko:

–Au dek begiondoko artu detana! Erdiz erdi arrapatu ere. Zer gertatu ote da emen? Markesak aurra eraman ote du? Edo nere lagunak? Agian aurtxoa eramanda ordainduko zioken, eta dena nere lagunak jaso.

Iges egin zuenak, berriz, lagunarengana joateko gogorik ez. Bere-berea saldu zuen eta saria ere berari tokatzen zitzaion.

Gilbor Aundia korde gabe utzita atera zan, bada, andik, aal zuen azkarrena, itxasoan zeukan ontzira sartu arte. Etzedilla esnatu mugaz onuntza igaro eta ostatura etorri arte. Andik aurrera etzion batere ajolarik. Etzeukan lo geratu zanaren beldurrik.

Bazekien semea arrapatzerakoan oin-arrastoak egingo zituela kanpoan. Barruan ere bai. Orretarako, bere txalupan bazeramazkien oiñetako berriak. Zaarrak erantsi eta itxasora bota zituen, berriak jazteko.epailea etortzen ba-

zan ere, bai-baizekien bere oiñen neurriak eta egindako arrastoak aztertuko zituela. Berekiko ala zion: «Zer uste dezute: Gizontxo orren tontoa dala?».

Eta aietxengatik emazteak, nai izan balu, galduko zuen; eta zalantzarik gabe bera zala lapurra igerri ere bai.

–Agur, lagun zaarra –zion Gizontxok, ustez betiko laguna agurtuz–. Urteak dituk elkarrekin artu-emanak izan ditugula. Amaika lapurreta egin diagu; baiña au dek azkenekoa, eta Jainkoak barka dezaigula. Ez nauk geiago orikusiko. Aurra nerea uan eta nik kobratu diat. Gertatu zai-kenaren erru guziak, berriz, ireak dituk. Artu dekan begiondoko ori ondo merezia eukan. Itza eman eta tratua egin ezkeru, lapurren artean ere bete bearra zegok. Ez dek izan, bada, esanaren paltarik. Bein baiño geiagotan esan diat. Motell! Markes edo dalako ori gaztea dek, eta indartsua zirudik. «Zertarako dizkiagu armak?» erantzun didak. Arek ere bazekarreken, ordea, eta gurea baiño ohea gaiñera.

Arraun eta arraun, bide guzian bakarriketan etorri zan gure Gizontxo, txoria baiño alaiago.

Itxogiñaldi bat egin ondoren, ustez seguratu zanean, zenbatu zituen diruak. Tratua egin ainbestexe, juxtu-juxtuan zeuden. Lotu zuen berriro poltsa ura eta muxu eman zion. Ebanjelioko aberastu zan arek bezela, bere semea baiño maiteago zuela alegia dirua.

Ordurarte lagun maiteak ez baziran ere, adiskideak beiñepein bai, eta txanpon zikin orrek asarretu eta berezi ditu betiko; eta, erdibana egin baiño leen, bizia jokatu dute diru pixar arengatik.

Bazekien, dirua berekin eramaten bazuen, epailearen aurrerako galdua zegoela; eta kontrabandoa ezkututzen zuen tokian ezkutatu zuen dirua.

Orain, berriz, etxeko gora-berak eta garbiketak egin ondoren, diruaren billa etorri eta etzuen arkitu. Orregatik sutu zan Gizontxo, eta bere zemaik lapurrari egin zizkion. Bere burua itxasora botatzeko ere etzuen asko palta. Semea etzuen, bada, erregali eman? Eta okerrena, gaiñera,

dirua ezkututzen ikusi zuenak bazekiela aurra nork saldu zuen.

Gorakoan ikusi zuen nekazari ura oraindik leengo baratzan ari zan lanean. Bera ere naiko arritua zegoen. Gizontxo oso ezaguna baizan. Ostatu on bateko nausia, eta zer zebillen ura gora eta beera? Arrantzatik etorri eta berriz arrantzara. Kontrabando gaiztoa zerabilkiela norbaiti entzuna zeukan. Lanik ez egiteagatik ibili atzera-aurrera. Emazte gaixoak pagatu bear larrutik.

Bere ezkuta-lekua aztertu zuenean, alako amorruzko imintzio bat egin zuen: «Nola ote dabil ori emengo jendearekin?».

Gizontxo bere urbillera iritxi zanean, ala galdetu zion onek nekazariari:

–Inguru ontan dabillega iñor ikusi al dezu emen?

–Bai. Gizon moxtaka gilbor aundi bat. Zure orpoz beste aldetik etorrita, uretik begira egon zaizu zu ezkutatu arte. Ortik zerbait artuta, etorri baiño zoriontsuago, txuxenean berriro beste aldera joan da.

–Eskerrik asko. Ustez laguna nuen batek ziri ederra sartu dit.

Nekazariak etzion beste galderarik egin. Gizontxok ere etzeukan izketarako gogorik. Ixilik gorde zuen bere naigabea, eta ezer egiterik ez, leenengo berak egin zion azio kaxkarra eta. Baiña etzegoen artan uzteko.

Gizontxok bere semea saldu zuen, eta arrats artan an gertatua badakigu. Diru poltsa ezkutatu eta nola lapurtu zioten ere bai. Baiña nor izan liteke ebasle ori?

Gizontxoren billaukeriaren ondoren korde gabe geratu zan Gilbor Aundia. Esnatu eta bere txabola guzia aztertu ondoren, an etzuen bere diru parterik arkitu, eta gorroto bizia artu zion bere lagun lapurrari. Bere ontzia artuta, orpoz orpo jarraitu zion, bidean arrapatuko zuelakoan itxutua. Urpera erori eta itoko baziran ere, etziola barkatuko. Baiña igesi zijoala ikusi, ordea, urrundik. Zerbait gorde zuela ere bai.

Gure Gizontxo, atzera begiratzeko betarik gabe, bestela ikusiko zuen bere etsaia, andik aldegin zuenean, iñork ikusten etzuelako joan zan.

Gilbor Aundiak, berriz, an zer utzi ote zuen aztertzeraz urbildu zanean, atsegiñezko irri maltzur bat egin zuen. An zegoen diru-poltsa zenbatu ondoren, oso-osorik zegoela ikusi zuen; eta, jakiña, bera egin zan jabe.

Zergatik ezkutatu ote zuen ura an?epailearen beldurrak noski. Itz erdi esan balio, ederki konponduko ziran, bere buelta arte txabolan ezkutatuta. Orain alperrik izango ziran, bada, kontuak. Bere biziarekin babestuko zuen poltsa eder ura.

Igo bezela, ixil-ixilik, iñork ikusi etzuelakoan, etorritako bidetik joan zan ura bere betiko txabola xarrera.

–Pegatu ziot ederra; baiña merezi zuena besterik ez –zion berekiko, zoriontsu.

Gure Gizontxo, berriz, epailekikoa bukatu ondoren, joan zan bere diru poltsaren billa. Sumindua geratu zan. Emandako itza betetzearren, semea saldu zuen, eta xentimorik gabe geratu.

–Il edo biziko lana da au, baiña nik ez diot utziko; eta zenbat eta leenago, obe. Ea arkitzen detan ebatsi didaten diru poltsa.

Bi deabru burruka

URRENGO arratsean bertan an azaldu zan gure Gizon-txo edozertarako preparatua. Labain txorrotx bat ere bazeraman ostatutik ebatsia.

Gizon bizartsu aren txabol kaxkar eta zikin artan etzegoen, oitu bezela, apari legerik. Arrera gaiztoa egin zion besteak. Amorratu bat bezela, aurrean jarri zitzaion.

Joan zanak etzion besteari agurrik egin. Artu zuenak ere birao gaizto batzuk etzituen bota. Leen ain arrats gozoak igarotzen zituztenak, elkarrekin benetan batuak, diru zikin orrek otso biurtu ditu biak. Gero ori jainko txikia dala esango digute. Askorentzat bai aundia ere.

–Konfiantza osoa neukaken irekin –eraso zion txalkorrak–, eta dena eraman.

–Bai; baiña ik dena ekarri.

Ez aditua egin zion, berak erantzunez:

–Erdia ekartzen dekan arte, ez aiz emen txabol onetan sartuko.

–Nik, berriz, ik ekarri dekan erdi orren billa etorri nauk.

Bazirudien onek lasai zegoela eta adarra jotzen ari zitzaiola, baiña benetan amorratua.

–Emen etzegok iñorekin konfiantza artzerik.

–Ortan oso-osorik irekin niok. Biok gaituk berdiñak. Leenengo nik egin dit, eta gero ik. Orain bi erdi egin eta konpondu gaitezten.

–Ni emen korde gabe geratu nintzan ezkeroztik, andik aurrerakoaren berririk ez dit. Emaidak nere erdia. Bestela, emen geratuko aiz.

–Ala jainkia! Erdi orren billa natorrek ni ere.

–Txabola guzia ederki aztertu diat bein eta berriz, ire billaukeri ori sinistu nai ezik; baiña ez nin emen xentimorik arkitu.

–Nik ezkutatu nuen lekuan bai, ordea.

–Puska batean ez niñun txutik jartzeko ere gauza.

–Baiña neri orpoz orpo jarraitzeko bai, ordea.

–Gezurra esateko ere talentua bear dik.

–Orixe palta zaik iri.

–Nondik atera dek ni ire atzetik joan nintzan ipui ori?

–Inguru artan baserritar bat ari uan lanean. Ni ere ikusi nioken gordetzen. epailearen beldurrak egin nian ori. Arek esan zidaken garbi, galdetu nionean: gizon moxtaka bat ikusi zuela nola etorri zan, eta ni ibilitako bideetan barrera iritxi zala ura.

–Ori ez dek ik asmatutako ipui bat besterik.

–Goazen biok eta itzegingo diagu. Nik poltsa eraman banuen, banizkin nere arrazoiak, aurra nere uan eta. Erdia an utzi bauan, ni ez niñun etorriko. Ekatzak nere erdia, bai, eta konpondua zegok.

Igerri zion txalkorrek denaren berri bazekiela Gizon-txok; baiña poltsa bere mende zeukan eta etzegoen atzera egitekotan.

–Aldegin zak nere txabolatik, eta ez adilla geiago emen sartu.

–Orixe nai dit. Nere partea ematen badidak, oraintxe bertan.

–I, dena jaso eta oraindik lotsa gutxirekin erdia eskatzera al ator?

–Ik badakik ori ez dala egia, eta nekazariak dena ikusi zuela.

–Aldegin zak emendik! Bestela, igerriko diok norekin ari aizen!

–Onean edo txarrean arazo au garbitu arte, ez nauk ni atzeratuko.

Sutu ziran biak, Eskuetaratu ere bai. Leenengo saioa esku utsik egin zuten. Gizontxo joan zan azpira; baiña bestea baiño ondotoz ariñagoa eta gazteagoa, ezurrez aundiagoa noski, laster atera zan gaiñera eta zutitu.

–Berriro eskatzen dit. Garaiz gaudek oraindik pakean konpontzeko. Il edo biziko jokoa dek au, eta ekatzak erdia, nere partea, eta kitto. Betiko aldegingo diat emendik.

Gizontxo indarrez geiago zala laster igerri zion txalkorrek, esku utsik alegia; baiña ain itxutua zegoen, laban txorrotx bat atera zuen sakeletik.

–Aldegin zak nere txabolatik, ez diat konponketarik nai ta!

–Ondo zegok!

Gizontxori ere, labanak patrikatik jauzi egin balio bezela, eskura azaldu zitzaion, txorrotx askoa gaiñera.

–Berriro eskatzen dit! Emaidak erdia eta bereala joango nauk! Burrukan asten bagera, bietan bat, agian biak, erori arte, ez gaituk geratuko!

Gizontxok bazirudien armaz neurtzeko etsaiari beldur ziola.

–Ik didaken zorra neri eskatu!

Eta bertan iltzeko asmoan eraso zion txalkorrek. Baiña Gizontxo ere etzegoen lo eta iges egin zion leenengo kolpeari. Berriro ere bere indar guziekin eraso zion, itxutua. Orri ere doi-doi baiña iges egin zion Gizontxok. Txalkorra, bere zoritxarrerako, muturka erori zan aurrera, belau-niko jartzeraíño.

Orduan, zer egiten zuen etzekiela noski, besagaiñez sorbalda eta lepoaren ondotik gordetzeraiño sartu zion Gizontxok labana; eta karraxi gaizto bat egin zuen gure txalkorrek, gizarajoak, eta zerraldo erori zan. Oraindik, badaezbada ere, beste bi zatzako eman zizkion biotz-biotzera. Ain bere onetatik aterea zegoen.

Txabola guzia aztertu eta an billatu zuen diru poltsa, bete-betea. Txabolari su eman eta laster ezkutatu zan andik, xendarmeak oroitu baiño leen.

Txabola zar bat sutan

BERE lan gaiztoa egin ondoren, Gizontxo, inpernuko deburu guziak atzetik balitu bezela, aizkatu zan andik, bere zorigaiztoko poltsa berekin zekarrela.

Ainbeste urtean lagun izan zuen gizona aurrean illa ikusita, izu laborreak artu zuen. Ordurako, berriz, illuna zan, eta zijoan bide-krutze guzietan poliziak zai zeuzkala iruditzen zitzaion. Etzan berak nai orduko Prantziako mugatik igaro.

Azken agurra egin zion mundu ontatik beiñepein lagunari. Illotza utzi zuen sugarretan zegoen txabolan. Bai Prantzia aldeko lurrari ere. Baita bi pekatu gaizto egin erazi zizkion lantegiari ere.

Biak zituzten erruak, baiña geienak berak, asiera gaiztoa berak eman zion eta. Baiña azkenean bere burua babestu besterik etzuen egin. Bere lan biurri ori etzitzaion berealakoan aztuko. Ordukoz beintzat salbatu zan. Gero gerokoak. Txabol txar ura beiñepein sutan geratu zan.

Illundu eta gero egindako lana zan ori. Beraz, urrengo egunerarte iñork etzuen ikusiko. Ikasi ere ez gertatuaren berri. Zurezko esiz egiña zan txabola, eta ojalataz forratua. Su-gar aundirik etzan, bada, zabalduko andik. Ke pixar bat baziteken, baiña txara edo kañaberazko itzalpe batean zegoen. Gau-ontzak ezik, zer ibiliko zan an?

Beti bezela, goizean, Gilbor Aundiari laguntzen zion emakumea, jana eraman eta bertako garbitasuna egitera joan zanean, ikusiko zuen txabola xaarra dena kixkalia. Bere arreba izaki. Onek laguntzen zion. Bitartean, anaia-
ren bizkar bizi zan emakumea.

Elkarrekin bizitzea eziña zan. Deabruzko zoratu edo gaiztoaldiak izaten zituen Gilbor Aundiak, eta andik iges egin bear izaten zuen arrebak. Ez dakit zenbateraiñoko maitasuna zebillen tarte ortan. Bata bestearen bearrean arkitzen ziran. Berexita bederen, elkar lagundu bear.

Onek ikusi zuen, bada, leenengo txabola kixkalia; eta, zegoen bezela utzita, salatu zuen xendarmeetara, gertatuaren berri emanez.

Bazekitela aren barruan gizon bat aspaldi aietan bizitzen zala. Auek ondo ezaguna zuten, eta aren eriotzak etzuen auentzat naigabe aundirik eman. Etzan asko ibiltzen zan gizona, baiña bai bazterrak naastallea. Legorrez eta urez zerabilkiten kontrabandoa.

Xendarmeak etorri ziran bereala, emakume arek esan bezela. Aztertu zuten inguru guzia, baiña etziran sartu. Auekepaileari eman bear zioten abisua. Au bi xendarme eta emakumearekin batera etorri zan, eta barruan arkitu zuten Gilbor Aundiarren gorputza, illa, errea alegia. Ikusi orduko, aien iritzia ori zan: erreta il zala, atakeren bat eman ondoren edo...

Illa garbira atera zutenean azaldu zan egia: iru labainkada beldurgarriak zeuzkala emanak. Baiña berak ere eskuan zeukan bere labana, eta burruka batean il zala. Agian bere etsaia ere izan liteke zauritua. Kontrabandoa-ren gora-beeragatik egindako lana izango zala. Iltzaillea arrapatzen etzan erreza izango.

Emakumeak aitortu zuen bere anaia zala, eta berak garbitu eta zaintzen zuela. epaileak egin zizkion galdera batzuk:

–Norekin zeuzkan orrek artu-emanak?

–Askorekin. Martxa aundia zeraman emendik. Urez ekarriko zioten kontrabandoa. España aldetik ere etortzen ziran. Baiña ango kontrabandoarekin emengoa truke egingo zuten. Ondo konpontzen ziran. Azken alde ontan bazuten irabazi aundiko kontrabandoa. Nik askotan entzuten nion, eta urduri ikusten nuen. Aurrik etzuten aberats batzuek aurra nai zuten, ondo ordainduko zutela eta.

–Aur-tratua ere bai?

–Askotan esan zidan, bada, ori.

–Eta ekarri al zuten?

–Ori ez dakit.

–Eta nork ekarri bear zuen?

–España aldekoa zan lapurra, baiña prantzesa erostuna. Nere anaiak egiten zuen bitarteko. Ura astero etortzen zitzaion, eta oso ondo konpontzen ziran. Beti egiten zuten beren meriendatxoa. Ura zuen noski maiteena, baiña bazituen geiago.

–Eta zuk ezagutuko al zenduke?

–Etzuen nik iñor ikusterik nai.

–Benetan zailla izango da eriotz au garbitzea, ezeren aztarrenik ez daukagu eta.

Epailleak-eta beren itxurak egin zituzten, eta artan geratu ziran.

–Gizontxoren lana ez ote zan izango ori? –zioten askok, batez ere aren atzera-aurrerak ikusi zituen nekazariak.

Egun batzuk igaro omen zituen serio, eta leengo lagunarengana etzala joaten oartu zan jendea. Baita gaizki pentsatu ere. Ondarribitik urbil baizegoen gizona il eta txabola erre zuten lekua, eta ez ote zan ura Gizontxoren lana izango?

Etzuten, bada, xendarmeak negarrik egin. Gilbor Aundiaren berriak entzuten zituzten. Lotu ere bai, baiña etzioten egundo zigortzeko moduko pekaturik arkitu.

Ministro bat izan balitz, saiatuko ziran noski. Baiña bereala aztu zan gertakari ori. Gizontxok beiñepein oso-osorik jaso zuen saria, berez zuen semea ere eta.

Baiña txabol inguru artan bazan bat Gilbor Aundia maite zuena, eta an zer gertatu zan ondo zekiena. Agian egokiera obearen zai geratu ziteken salatzeko.

Aurtxo

PURRUSTADA batean atera zan markesa, atea itxita, oraindik bere arma txiki ura eskuetan zeramala, iñork atzetik jarraitzen ote zion beldurrak edo urduri. Egindako lan gaizto ori zabaldua, ez ote zuen bere izen garbia galduko? Eta pakean asitako lana indarrez bukatzera beartu zutelako ere bai. Baiña etzeukan beste igesbiderik. Muturrekoa artu zuenak barka zezaiola. Ez dago mundu ontan iñorekin siniste geiegia artzerik.

Askotan, batez ere leen, ala uste izaten nuen: ikasitako jendea ondradua izaten zala. Oietan ere, ordea, badira deburu eta billau askoak. Jakiña, gaizkille eta lapurren laguntzarekin bizi diranak. Dena lezaken diru zikin orrek edozertarako jartzeko legez fuera bizi diran oiek.

–Baitu izan baniñute, sekulako sarraskia egingo zidateken, eta salatzerik ez –zion markesak–, neroni negoken pekatuan eta. Emazteak nik baiño buru argiagoa zeukak. Eskerrak aren aolkuak entzun ditudanari: armarik gabe lapur oien artera ez azaltzeko. Emandako itza betetzen ez badakite, or konpon!

Larri ibili zan gaiñera, bat bertan il etzuenean. Eskerrak leenengo eraso ondo atera zitzaion. Txuxen arrapatu zuen. Bai epela eman ere. Urrengorako eskarmentua, batez ere ortatik bizi diran jende biurri oien artean. Pruebak eman zizkioten. Ortatik ezer naspillarik etorriko zitzaionik etzuen uste. Aiek etzekiten nor zan. Jakinda ere, beren buruak galduko zituzten leenengo.

Aurra besoan, bera benetan antzaldatua, bazijoan bixi-bixi bere jauregira. Bide luzea zeukan oraindik. Gau erdi alderako nai zuen iritxi.

Noizbait, berak uste baiño beranduago, jo zuen jauregiko atea. Baiña etzeukan itxogin bearrik. Emaztea zai zegoen, urduri samar, bere iritzian berandu zetorrela eta luzetetsia. Bereala zabaldu zion atea, eta aurra besoan sartu zan bere senarra.

–Gabon –agurtu zuen.

–Baita zuri ere –artu zuen erantzuna–. Berandu zabiltz.

–Zuri ala iduritzea baliteke, baiña ez det bost minuturik egonean galdu.

Kontatu zion an gertatu zitzaiona:

–Estuasun ederrak igaro ditut. Baitu nai niñuten. Eskerrek armatua joan naizen. Bestela, larrutuko niñuten.

–Bai. Olako jende artera ez dago edozer moduan joaterik, batez ere bat baiño geiago baldin badira.

–Ementxe daukazu, bada, ainbeste aldiz aipatutako aurra. Ez da nolanaikoa. Ibili oiek denak eginta, ez du negar kinkiorik egin.

Emazteak besoan artu eta musu eman zion.

–Ez al zaitu orrek botatzen duen usai nazkagarriak nazkatzen?

–Laster kenduko diogu ori, bidean zikindu egin da eta. Zortzi edo bederatziko illebeteko aurrak andik oneraiño bizirik irixtea ere naikoa egin du, alako tratua an ere emango zenioten eta.

–Ez det uste zakar erabili dutenik. Aitak amaren gordean semea saldu omen du.

–Jesus! Ortaraiño ere bai? Ez da gurea, baiña ez al degu olakorik egingo!

–Aita naigabetu itxuran azalduko da, eta amak sinistu egingo dio, berriz.

–Dituen illebeteetarako, aur zoragarria da au. Ondo txukundu eta jaztean, ederra agertuko da. Zuek, gizon oiek, zer dakizute arazo auen berri? Urrutitik begiratzen diozute. Señorito batzuk zerate noski. Ez dakizute etxeko andreak fameli barruan nolako lanak egiten dituen.

–Jainkoak bakoitzari, zertarako aukeratu duen, artarako bear dituen doaiak ematen omen dizkio. Nai badezu, neskametxo bat ekarriko dizut.

–Ez olakorik aipatu ere. Etxeko martxa eramateko ez det iñoren laguntza bearrik. Aurra gurea ez dala jakinta, ixilik gordeko al luke? Errita txiki bat aski izaten dute, lorito bat bezela kantari asteko.

–Ez diozu gezurrik. Neri ere, emakumeak ez izan arren, billaukeri gaiztoa egin nai zidaten.

Aurra emaztearen eskuetan utzita, markesa oatzera joan zan. Emaztea, berriz, bere ura garbitu eta txukunduz, artarako moldatua zeukan seaska batean etzan zuen, biberoi batekin esne bero pixar bat eman eta gero. Pake-pakean geratu zan. Beste musu bat emanta, bera ere lotara joan zan, esanez:

–Ai gurea baziña!

Goizean, egunsentian, jeiki zan amaordekoa, ordurako aurra gosetua egongo zala noski. Baiña arritua zegoen onek etzuela arrats guzian kinkiorik ere egin. Zaindu eta mantendu bear zuenarentzat etzan alibio txarra ori.

Musu batekin esnatu zuen. Ori da ume txikiekin ama geienen oitura.

Aurra, nagiak kendu nairik, ao txabalka asi zitzaion. Begiak orduantxe zabaltzen asi berriak. Adin ortan ume-txoak ez du iñor ikusi eta ezagutzen noski. Edozeiñen eskuetan lasai egoten da. Ura beiñepein etzan negar bera oietakoa.

–Au aurraren gozoa! –zion amaordekoak–. Ai auxe gurea balitz! Emendik bi urtetara ai zer nolako jostallua izango degun etxean!

Bustia zegoen. Etzan arritzekoa. Pixoialak ala zeuzkan. Garbitu, txukun jantzi eta sukaldera eraman zuen. An berriz esne pixar bat berotua eman zion, eta bere lanak egin bitarte berriro seaskara eraman.

Seaskara, aurra etzanda zegoen lekura, azaldu zan markesa, beraren lapurra, eta musu eman. Izutu bearrean,

konten; eta, zegoen bezela, jauzi batzuk egin zituen aurrak seaskan, Markesaren biotza irabazi zuen orrekin.

–Paketsua da umetxo au. Ez da iñorekin izutzen.

–Bai. Izaten dira beti negarrez eta purrustadaka ari bear duten setatsu oietakoak ere, amaren benetako kalbarioa. Baiña au paketsua da. Ez ote degu olakoren bat izango? –zion berriro amaordekoak, aurraren aurrean inbiritan. Geroztik amaika aldiz esango zuen lelo ori.

–Ez gera oraindik zaarrak; baiña etsi bearko degu. Aurtxo onentzat benetan txarra izango litzake ori.

–Eta alaba jaioko balitz?

–Zaude ixilik, olako buruausterik ez degu izango eta.

Bein txutik ikasi zuenean, amaordeak, aita bere lantegitik etxera sartzen nabaitzen zuenean, ala esango zion aurrari:

–Zoaz eta emaiozu aitari *paa*.

Aurrera lasterka aterako zitzaion, aitak besoan arturik musu bat emango zion eta berarekin sartuko zan sukalde-
ra.

Etxeko aingerua zan eta mutil koxkor bikaiña zeto-
rren. Apetitu onekoa eta benetan paketsua.

–Erosi aiñean salduko al zenduke? –galdetu zuen
amak.

–Prantzian ez da au erosteko aiña diru.

–Aur au gurea balitz! –ari zan beti ama kargatu eta ti-
ra-. Egunetik egunera ederragoa iruditzen zait.

–Aingeruak ez dakit nolakoak izango diran. Au beiñe-
pein ala da guretzat –erantzungo zion aitak.

–Ez izan, ordea, gurea! –amaren betiko negarra.

–Nola ez? Erostea diru puska bat kosta zitzaigun, ba-
da! Txabola txiki ura aspaldi erre zan; eta bertan bizi zan
eta nik begiondokoa eman niona, labankadaz josia erreta-
ko txabolatik atera zuten.

–Eta nork eta zergatik ez dakite?

–Ez det uste. Asarretuko ziran eta...

Emakume onek etzuen nik goiko txulotik entzundako ipui bateko gizonaren antzik. Nik orduan ez nuen ulertzen, baiña orain bai.

Baserri batean aurra jaio omen zan; eta bertako gizona, amaren senarra, alegia aitatzat zeukatena, oso kontentu zegoen, seme bat bazuela eta. Baiña auzoko nekazaria etorri zitzaion, aur jaio berri ura bere semea zala eta. Etzan batere asarretu:

–Ondo zegok. Umetxo au irea bada, bere ama nere emaztea dek; eta, mutur joka ibili gabe, konponduko gaituk. Torizkik lau bat babarrun lakari ire lanaren orde, eta egiña zegok.

Gizontxoren aldaketa

POLLIKI-POLLIKI bere lan txar guziak erdi aztu eta onera etorri zanean, jendearen beldurragatik, leengo txangoak egiten zituen kabarra kaxkar ura saldu eta orduko aurrerapen guziekin arrantzarako ontzi eder bat erosi zuen Gizontxok. Ondarribiko onena ez bazan ere, ez beiñepein txarrenetakoa. Banakak izango ziran obeak.

Apaizak bedeinkatu zuenean, berak *Norteko izarra* izen orrekin bataiatu zuen. Berak eta etxeokak ala deituko zioten. Erriak, berriz, *Semearen prezioa*. Aitak semea saldu zuen zalantza baizeukaten.

Tripak jaten jartzen zan ori entzutean Gizontxo, eta bati baiño geiagori kargu artu ere bai, sumindua.

–Ez daukazute onen inbiria besterik. Zerok ezin dezutenean, bestearen onik ezin eramana. Ori dek guzia.

–Zer nai uke? Erriak orrela deitzen zio; eta denei kargu artzen asten baaiz, aspertuko aiz ederki.

Utzi zituen asteroko txangoak, kontrabandoa ez noski erabat, eta arrantzarako martxa artu zuen, orduan Ondarribiko errian geienak bezela. Bere ontzira langille batzuk urbildu zitzaizkion; eta eguneroko arrantza-lanari eraso zion, txintxo asko.

Emazteak naigabe artzen zuen. Erriaren esamesak irixten baiziran bere belarrietaraiño. Baiña ezin zezaken ukatu. Bestela, nondik atera bear zuen senarrak diru putzu ura dena? Ostatuak, ordea, dena irabazi zuen, arrantzan ateratako guzia etxera baizekarren. Entzun nai ere etzuen bere gizonak semea saldu zuenik. Amaikari esan zion, senarra babesteko, ori etzala susmur bat besterik. Jendearen ezin ikusiak asmatutako birao zikin bat.

Arritu zan erria, baiña geiena emaztea. Zer gertatu ote zitzaion Gizontxori, aldaketa ori egiteko? Etxetik bialiko zuen zemaia agian? Lapurretaren batekin atera ote zuen dirua, edo kontrabandoko saria oso-osorik aurreratu, bere ontzi ori erosteko pozean? Gauza ziurrik ez, baiña geienak zalantza gaizto ortan bizi ziran.

–Zer egin ote zioten gure seme Joantxo maiteari? –ama erdi negarrez zionean, gizona goibel eta serio geratzen zan. Etzuen entzun nai izaten olakorik.

Ostatua beiñepein goraka zijoan, eta etzuen gaizki pentsatu nai. Ez dakit nork zabaldua, baiña bazebillen Ondarribi aldean alako *run-run* gaizto bat: Ondarraitz alde ortan gizon bat labanez josita il zuela norbaitek. Urte pare bat bazan ots ori entzuten zala. Ori ere erriko jendek Gizontxori erantsi zioten: ari dirua ebatsita erosi zuela ontzi eder ura. Leengo izena kenduta, orain berria erantsi zioten: *Odolaren saria*.

–Berak olako ontzi bat erosteko aiña ezin ditek aurreratu, eta bestearen ona irentsi nai ez –zion Gizontxok.

Askotan, berriz, ez entzuna egingo zuen, eta bere bidean jarraitu. Baiña alperrik egingo zituan itxurak. Kontzientziak garbi adierazten zion, esames oiek entzutean: «Erriak egia ziok».

Egun batean, Ondarribikoepaileak albiste txiki bat artu zuen, eskutitz bat alegia, Ondarraitz aldetik: itxas erzteko txabola txar bat erre zutela, eta bere barruan gizon bat billatu erdi errea, baiño leenagotik iru labainkada emanda illa; eta Ondarribiko baten lana zala ori.

Ori irakurri zuenean, kezketan geratu zanepailea: «Ea au ere Gizontxoren astakeriren bat dan! Aspaldian ez dek ara joaten, eta balitekek alako lan gaiztoren bat egin eta iges etorria izatea». Egia bazan ori, naigabe ematen zionepaileari ura lotu bearrak. Bide biurriak utzi eta zuzendu baizan. Baita aren emazteak ere. Gorriak ikusita gero, ostatua martxa onean jarri baizuten. Leenagotik bazekien txabol ori nola erre zan eta nola arkitu zuten barruan gizona illa. Baiña iltzaillea nor zan ez. Bere egin bearra ori

zan eta deitu zuen Gizontxo: olako egun eta ordurako auzitegian azaltzeko.

–Orixe bear nin orain, Ameriketa Ondarribian ari niñun egiten eta. Zergatik ote da? Zergatik deitzen ote nau? Aurrarengatik edo Prantziako itxas-bazterrean gizon ilorren susmurra egiten duelako?

Agindutako orduan an azaldu zan. Galderak ainbeste erantzun billatuko zuela-ta, etzeukan iges zertan ibilirik. Etzitzaion komeni gaiñera.

Serio arkitu zuen epailea. Beren agurrak egin ondoren, exeritzeko agindu zion, galdera batzuk egin bitarte.

Eskutitz txiki bat artu zuen maiaren gaiñetik. Euskeraz idatzia zegoen. Irakurtzea bukatu zuenean, emakume baten izena aipatu zion. Idatzi zuena ala baizan, eta ondoren Gizontxori galdetu:

–Emakume ori ezagutzen al dezu?

–Ez ori eta ez besterik Prantzian.

–Norengatik egingo zuen, bada, salaketa ori? Txabol batean bizi zala, emakume onek anaia zuela eta biak elkarri lagunduz bizi zirala. Aspaldian bazuela Ondarrabitik astean bein joaten zitzaion lagun bat, elkarrekin ondo konpontzen ziranak. Etzekiela nolako kontrabandoa zera-bilkiten, baiña asarretu zirala. Goiz batean, anai ori ikustera joan zanean, txabola kixkalia omen zegoen, eta bere anaia iru labankada eman ez illa. Beste lagun geiago ere etortzen zitzaizkiola, baiña arrats artan Ondarribikoa zuen laguna. Izen aundiko gizonen bat omen zutela etortzekoa, seguru etzekiela baiña ebatsitako aurtxoren bat eroatera-edo entzun izan ziola anaiari. Aundizki ura joan zaneko asarretu zirala, eta bere anaia il ondoren diru guzia artu eta Ondarribi aldera iges egin zuela. Izenik etzekiela. Nolakoa zan bai gutxi gora-bera: sendo moxtaka bat, oraindik gazte samarra. Zer erantzuten diozu orri? –galdetu zionepaileak.

–Baliteke gertatua izatea. Ez da emakume ori gezurretan ariko. Baiña neretzat ipui bat besterik ez. Ni ez naiz

Prantziako iñorekin orrela kontrabandoan ibili. Ondarribiko geiago ere badira ara joaten diranak.

–Ez det uste egia diozunik. Ondarribiko jendeak bestela itzegiten du, eta begi askoren aurrean zabiltza.

–Oiek ez dakite ezer ere. Susmurra, orixe, eta ezin ikusia. Olako txorakeri batek erri guzia naasten du.

–Eta semeari zer egin diozu, bada?

–Ori zure lana da. Zuk garbitu bear dezu, ez neri galdetu, ortarako saritzen zaituzte eta.

–Benetako susmurgarria zera, eta arazo au obeto ikasiko det. Olako ontzia erosteko nonbaitik atera bearko zenuen dirua: semea galduta edo lapurretatik. Ondarribian dan onena bera izango da. *Semearen prezioa* esaten zioten leen; orain, berriz, *Odolaren saria* deitzen diote ontzi orri. Ea biak egiak diran. Zer erantzuten diozu orri?

–Nik kontrabando pixar bat egin detala, bai, aitortuko dizut. Baiña ez Prantziako ijitoekin. Ori baiño elduleku obeak dauzkat nik, kontrabandoan aritzen diranak, baiña elkarki lapurretarik egin gabe.

–Eta ori zillegi dala uste al dezu?

–Nik orrekin nori egiten diot kalte?

–Estaduari, aren eskubideak zapaltzen dituzute eta.

–Ala ere, gu aiñean ibiliko dira.

–Arazo au ondo ikasi arte bazoazke aske. Baiña au ez da ortara geratuko. Argitzen aalegiñak egingo ditut, eta agian berriro ere deituko zaitut.

Etzuen Gizontxok nolanaiko lasaitasuna artu:

–Atso zikin arek merezi likek anaiaren aldamenera bialtzea!

Ettxera joan zanean, eta emazteak aske-aske utzi zutela ikusi, etzan asarre. Leengo purgatorioa pasata, etxean denak bat egiñak ederki ari ziran irabazten. Ala ere, Gizontxok Damoklesen ezpata zeukan zintzilik buru gaiñean.epaileak bere esana betetzen bazuen, gaizki ibiliko zan. Ordukoz beiñepein aske utzi zuen, eta agian aztuko zitzaion betiko.

Oiñordeko berria

IZKETAN ikasi zuen aurtxoak. Markesak euskaldunak ziran. Etxean elkarrekin ala itzegiten omen zuten, eta ala erakutsi zioten semeari ere. Prantzesa ikasteko naiko beta izango zuela gero.

Etxekoandreaken ordurik aspergarrienak arek arintzen zituen. Edozer puska aski zuen, baratzako bide dotore aietan barrena, bere ura arrastaka zuela ixkanbil eta zalapartaka ibiltzeko. Alakoren batean zerbaiteren azio txarra egingo zuen. Baiña zer egingo zion amaordekoak? Zerbait famelik bezela zortzi edo bederatzi gazte eduki balitu...

Jauregi txiki batean bizi ziran. Txalet baten antzekoa, bearbada ez aundia. Ordurarte bi besterik etziran bizi, eta biak beti elkarri begira. Iru bat golderen baratzak bazituen bereak, ondo itxita gaiñera, igali-zugaitzez beteak, dena ibilbidez inguratua. Etxea, berriz, erdian.

Ate gaiñean bazeukan armari bat, etxeko ezaugarri, tituloa alegia.

Lanetik aske zegoen orduetan, an ariko zan markesa, bateko kimatu, besteko txertatu, bere zugaitzak zaintzen; eta, jakiña, ara-onera aitarekin batera aurr, galdezka:

–Au, aitatxo, zer da? Eta ori zer?

Markesa, berriz, batere purrustadarik gabe, bakoitza zertarako zan, zergatik mozten zizkion adar oiek. Baiña illunabarrean berekin artuko zuen, eta baratzan zeukaten putzu-zulo edo pizina batera eramango zuen. Aita igaritarako moduan jantziko zan. Aurr, berriz, larrugorriarik jarrita, urera bota, bera atzetik sartzen zala. Markesak, bere burua garbituz gaiñera, semetxoa ere bai, eta bitartean igari erakutsi.

Ordu laurdenen bat geieneko zuen. Orduan ama etorri eta aurreratu txukatuz jantzi eta aske utzi.

Orrelaxe ari ziran, bada, beren semeordekoa azitzen eta ezitzen.

Eskolara asteko garaia iritxi zitzaion, eta eraman zuten. Polliki-polliki, laster prantzesaren jabe egin zan. Baiña etxean etzioten uzten euskeraz besterik. Gaurko fameli askotarako ez litzake ejenplu txarra.

Ondo zijoan, bada, gure mutilla: txintxoa, jostaria, landare bikaiña eta buru argi samarrekoa. Baiña ala ere ama etzegoen konten.

–Ai au gurea balitz! -zion askotan.

Aurrak zortzi urte zituela, etsi eta gero jaio zitzaion ainbeste aldiz aipatutako seme aul kaskar bat.

Egundoko jaiak egin zituzten berak eta fameli artekoak. Baiña markesak urruna ikusten zuen etxe artara zer zetorren. Ordurarte ainbeste maite zuten Joantxo, gizarajoa baztertua geratuko zala.

–Orain badegu gure odoleko semea. Zer egin bear diogu Joantxori? Ekarri genduen lekura eraman? –zion emazteak.

–Ez ote da etxe ontan bientzat lekurik izango?

–Bai. Ori badakit. Baiña ez al da Joantxo baztartua geratuko? Orren eder egiteagatik ez degu, bada, gurea utziko.

–Nere biotzean bientzat badago naiko lekua. Zurean ez? –senarrak–. Ez daukat gurea utzia geratuko dan beldurrik. Baiña bai geiegi nabarmenduko zerala; eta, erabat uzten badezu, gure Joantxo maitagarri onek asko suprituko duela, emen egingo dan aldaketarekin.

Amarentzat, bada, etzan besterik. Ordekoa erabat utzia geratu zan. Berearentzat zuen txera guzia.

Fameli askotan, gu bezelako beartsuetan, aberatsetan ez dakit, anai-arreba zaarragoak berri bat jaiotzean poztu egiten dira. Baita gure markes txiki Joantxo ere, asko poztu zan. Ordurako, esan bezela, zortziren bat urte bazituen.

Gizontxo baten semea bazan ere, mutil koxkor dotorea zertorren, kaska gorri antzekoa eta urte aietarako naiko azia.

Jauregian oso maitea zuten. Txintxoa eta oso esanekoa, bere guraso ordekoak landare bikaiña ikusten zuten beren lekua betetzeko.

Ezin esango degu ikasteko kontuan besteak ez bezelakoa zanik. Baiña polliki-polliki, urterik galdu gabe, aurrea zijoan, eta gero eta obeto.

Lanak ematen zizkion urteren bat kolokan atzera utzi gabe ateratzen. Baiña txarra al da ori? Ezin orrek lana egin erazten zion, eta bera baiño azkarragoak urtea bukatzerako atzera uzten zituen, langillea zalako. Bere guraso ordekoak, beiñepein, kontentu zeuden.

Markesak askotan galdetzen zien maisuei, baiña auen erantzuna beti baikorra:

—Au baiño erneagoak badira, baiña saiatuagoak gutxi. Aurrenetik aurrea artuko diote, baiña azkenerako aien neurrira igoko da. Aiek erdi alperkerian gaizki oitutzen dira. Onek, berriz, lanaren bitartez egiten du aurrerapen guzia. Gerorako ez da lezio txarra ori.

Oso maitea zuten, bada, eta markesak aren begiekin ikusten zuten beren etxearen etorkizuna.

Baiña berria etorri zanean, amaordekoak aldaketa ikaragarria egin zuen. Au ez berea izaki; bestea bai, ordea. Leengo maitasun guzia jaio berriari eskeiñi zion. Laster igerri zion Joantxok.

Aita benetan poztu bazan ere, etzan ainbesteraiño nabarmendu buruauste gaiztoren bat izango zala ura bereztat.

Zortzi urte besterik ez bazituen ere, mutillak laster antzeman zion ama etzala orain berarentzat leengoa; zerbait gertatzen zala berari kalte egiten ziona. Joantxo seguru baizegoen aien semea zala. Baiña ez ala izaki, eta nork esan bear zion ori?

Leen musuka bialtzen zuen eskolara; etortzean ala artu. Gurikeri oiek aztu zitzaizkion amari. Orain maitekeri

oiek seaskan zegoenarentzat izaten ziran. Semeak ere, ordea, muzin egin zion.

Aur berri ori, bein urte pare batera iritxi zanean eta biak jolasean asi, ezer gutxigatik negarrez asten zan. Orduan ama artza bezela aizkatuko zan Joantxoren aurka.

–Nik ez diot orri ezertxo ere egin –erantzungo zion Joantxok.

–Miñik eman gabe ez dik orrek negarrik egiten.

–Ori laiñezez betea daukazu, karraxika asten danean neri erritan ematen didazulako. Orregatik asten da.

Amaordekoak bereala antzeman zion Joantxok arrazoi zuela. Baiña bere artan jarraitu zuen, beretzat guzia bestea zan eta.

Joantxok ere, benetan nazkatua, utzi egin zuen anaia, arekin jolas egiteko gogo guziak kendu zizkioten eta.

Orrekin tripak jaten jartzen zan ama. Baiña errurik geienak bereak ziran. Joantxo ez baizan aien umea.

Joantxoren kalbarioa

AZKENEAN, ama bera ere utzi egin zuen gazteak, eta aitarengana biltzen zan. Eskolatik etxera etortzen zaneke, markesarengana joango zan, au ordu ortan geienean baratzan arkituko zuen eta. Semea goibel eta triste ikustean, ala galdetuko zion aitak:

–Meriendatu al dezu?

–Ez –erantzungo zion onek serio.

–Ez al daukazu goserik edo gaixo zaude?

–Bai; baiña amak ez dit kasorik egiten. Arentzat ni ez bainaiz iñor. Bestea bakarra maite du.

Markesaren biotza naigabetzen zan erantzun gaizto orrekin. Bai-baizekien arrazoi zuela. Baiña nola konpondu? Onez onean amaordekoari nola adierazi Joantxo benetan supritzen zeukala?

–Goazen nerekin. Ikusiko dezu nola ematen dizun.

Eta, jotako txakur bat bezela, burumakur aitarekin joango zan.

–Emaiozu oni ere bere meriendatxoa.

–Etortzen al da?

–Ez dakit zer gertatzen zaion, baiña izutua dago.

–Zer dezu nerekin orrela ikaratzeko? –galdetuko zion.

Baiña galdera orri erantzun gabe, aitarengana joan zan lasterka berriro, anai txikiari begiratu ere gabe. Ikuitu orduko, au negarrez asten zan, eta amak goxo-goxo bere aldamenean zeukan ura. Joantxorentzat, berriz, aztu ziran garai bateko maitekeri eta musuak.

Aitak berriro ala galdetu zion:

–Ez al dezu anaitxoarekin jolasik egin nai?

–Leen ere esan dizut ez duela ezertxoren bearrik; bere-ala negarrez asten dala. Laiñeza ori dauka artua.

«Bere seme aul orrekin itxutu dek ama, eta fameli ontarra etzetorkiguk gauza onik» zion berekiko gure markesak.

–Ori ez da egia izango, Joantxo?

–Bai, aita. Ni ez naiz gezurretan ari.

Markesak etzion erantzun. Baiña Joantxok arrazoi zuela ez al zuen, bada, berak ikusten? Seme berri ori aul samarra jaio zan. Iru urte bete zituen. Bazirudien zerbait azitzen ari zala. Baiña aula. Oraindik arekin kontuz ibiltzeko agintzen zion sendagilleak amari.

Joantxo, berriz, amaika urteko mutil gazte bikaiña, ez-tul bat ere arrapatzen etzuen. Ezin ziteken arekin jolasean ibili.

Amak, berriz, txikiaren begietan malko bat ikusi orduko erasotzen zion zaarrenari. Biak zebiltzan espatsu: ama eta Joantxo.

Eskolatik etortzean, aita ez bazuen jauregian arkitzen, batere meriendatu gabe joango zan bere lagunetara. Ama-ordekoari min ematen zion orrek. Baiña, dakigunez, berak zituen errurik geienak. Txikia bezela maitasunez artu ez-kero, etzuen olakorik egingo. Aita gizarajoak konpondu nai eta ezin ausartu.

–Ez al da etorri Joantxo meriendatzera? -galdetuko zion amari markesak, ordurako jakiñaren gaiñean.

–Ez eta pakea. Ura sartu orduko, negarrez asten da au.

–Ez al du, izan ere, onek, gaixoak, ezer askoren bearrik –aitak–.

–Ez; baiña nik ez diot utziko au arrastaka ibiltzen.

Markesak ongi zekien ori gezurra zala.

–Ez. Kontu guziak artuta ere, onek naiko lanak bada-rabilzki. Badirudi alare zerbait itxuratzen asi dala.

–Bai. Atzo sendagilleak ikusi zuen, eta indartzen ari zala esan zidan.

–Bai. Onekin bearko degu. Bestearekin ez dakit nor-baitek zerbait esan ote dion. Maltzur ari da jartzen.

–Nik esanda beiñepein ez daki ezer. Baiña au da gurea. Or konpon dedilla bestea, gurekin ez badu nai.

–Bai. Ala da. Gizon egiten bada beiñepein gure odolokoa, au geratuko da gure ondorengo bezela. Baiña besteari zer egin bear diogu? Emen supri erazteko ekarri al genduen? Ez al digu aita eta ama deitzen? Zergatik ez orduan, oraindik beiñepein, gure seme bat bezela maitatu?

–Au da gurea.

–Bai. Ez dizut ukatuko. Baiña etorkizunaren erantzunkizuna, Jainkoaren eta gizonen aurrerako, gure bizkar dago. Ura, zoriontsu bere egitazko amaren besoetan bizi zana, guk eskatuta lapurtua da.

–Au joka ari dala nik ikusten badet, ez diot utziko.

–Ez baldinbetan. Baiña, Joantxok dionez, zuk berari erritan emategatik asten dala au negarrez, laiñezez betea dagoela eta. Gaiñera, oiek lengo ipuiak izango dira. Urteak onezkero ura ez dala onengana urbiltzen ere.

–Ori ere baliteke, baiña ez det sinisten.

–Ni beiñepein beldur naiz batere gabe ez ote geran geratuko, eta berriro aren atzetik ez ote degun ibili bearko.

–Au aziko ez dan beldurra al daukazu?

–Ez nolanaikoa. Bere urteetarako or nonbait dago luzeran, baiña ez da sendotzen. Xanka me oiek ziputzak dirurite. Noiznai estropoz eginta muturka dioja. Arrastaka ibili ondoren, noizbait zutitzen da, eta ez beti. Ortara jarraitzen badegu, besteak, bein ogei bat urte ezkerro, anka egingo digu.

Noiznai *txirrin-txirrin* entzungo zuten urrutizkiña markesen etxean.

–Zer degu? –galdetuko zuten amak edo aitak.

–Zure semeak gure baratzako txabolan lo egin nai duela esan digu; eta guk, jakiña, markes baten semeari ez diogu utzi nai.

Ama bazan artu zuena, onek aitari esango zion. Au bazan, berriz, txuxenean joanta ekarriko zuen jauregira.

Ume sentikorra uraxe; baiña zintzoa eta ona, markesaren iritziz.

Beren seme egitazkoa asi zan eskolara. Baiña ain eska-xa jolaserako, ikasteko ere ez geiegia noski, ikastorduak ezin zituen igaro. Etzala geiago joango eta negarrari ematen zion. Azkenean, goizero maisua etxera ekartzen zioten. Gurasoak ere asi ziran zerbait etsitzen arekin etzegoela gizonik. Gizarterako modukoa ez beiñepein bein ere, markes aberats batek bear duen bezelakoa.

Bakarti samarra zetorren, besteak geiagoak ikusten zitu-elako. Baiña bazijoan azitzen, eta ikasten ere zerbait.

Amak etzuen etsitzen. Aren begiekin ikusten zuen noski. Ama izaki.

Aitak bein baiño geiagotan esan zion Joantxori, gizartertean oitutzegatik bestea berriro eskolara asi baizuten:

–Ez al uke ik anai txiki ori babestuko, berak dionez, jo egiten omen ditek eta?

–Nik ez daukat orrekin zer ikusirik. Amak lagundu dezaiola.

–Ez adilla, Joantxo, orren espatsua izan. Ire ondoan be-reala jarriko uke.

–Eta berak naiko al du? Jotzen dutela? Ori ere ez da egia. Amaren gonapetik ez du atera nai orrek. Nik ez det ikusi bein ere. Baiña, berak nai badu, nik lagunduko nio-ke. Orduan, berriz, nik jotzen detala esango dio amari.

Ama etzeturren bat ortan aitarekin:

–Bai; orrek berak joko du eta...

–Etzaitzela olakoa izan. Joantxo gizonegia da umeak joka aritzeko. Gure semeak, berriz, olako lagun bat bear du gizartertean sartzen asteko. Jakiña, bien artean alde aundia dago. Au aren anaia dala jakitean, begirune geiago izango diote. Gure Joantxo oso maitea baidute.

Noizbait amor eman zuen amak, eta biak batera joan eta etortzen asi ziran. Txikiak ere zazpi urte bete zituen, eta etzan leen bezin negartia. Bere moduko lagunak billatzen zituen. Baiña beti aula eta beti sendagilletan zebillen.

Itxaropena beiñepein goraka zijoan, orain aitarekin batera baratzara ateratzen ere asi zan eta.

«Ai, Joantxo! Ere buruari arrika ari aiz. Onegia izaki» zion berekiko aitak.

Urteak olaxe zijoazen polliki-polliki. Aitaren agindua txintxo betetzen zuen semeordekoak. Eskolara txikiarekin joango zan; etorri ere bai. Andik aurrerako, or konpon! Berak ere maite zuen askatasuna. Etzan aur zai jarriko. Ainbeste maite zuen ezkeru, or konpon zedilla ama. Ez baiziran kolejio batera joaten.

Joantxo, bada, Ondarribiko Gizontxoren semea, ari zan gizon egiten. Bere ustez, markesaren semetzat zeukan bere burua. Olako geiago ere ibiliko dira munduan, norengandik jaiok diran ez dakitenak.

Unibertsidade batean ari zan ikasten. Dotore zijoan. Etzan noski egunero etxera etortzen. Mutil argi eta bikaina, etzitzaion lagunarterik palta. Markesa ia damuturik zegoen bigarren seme ori jaioa. Bere urteetarako zerbait luzatu bazan ere, etzeukan mutil baten itxurarik. Laiñez betetako neska aul bat zirudien.

Amak, berriz, etzuen besterik ikusten. Txoroa bear zuen, bada, Joantxo oiñordeko ohea zala eta jauregian itxura jatorragoa emango zuela ez antzemateko. Baiña bestea berea izaki.

Semeordekoak bere berriak eta ikastetxeko notak aitari emango zizkion utsegiñik gabe. Baita bere udarako zituen asmoak azaldu ere. Baiña ondo zekien markesak mutillak etzuela errurik; eta, gogor egiten asten bazitzaion, berari ere muzin egingo zion.

Aita kirolzalea zan, eta oien artean maite zuen pillota jokoa. Zaletasun ori erantsi zion semeari ere, kirol garbia zalako. Ia urtero egiten zuten ikastetxean txapelketa. Bai markesak ikusi ere semeak jokatzen zituen partidurik geienak; eta, irabazten zuen bakoitzeko, bere saritxo eman gabe etzuen utziko.

Urte batean txapeldun atera zan. Banakakoetan kopa

eder bat irabazi ere bai, eman zioten sariaz gaiñera.

–Joantxo, emaiozu ori amari. Benetan poztuko da –eskatu zion markesak.

–Ez, aita. Nai badezu, zuk eman. Baiña nik ez. Nere doai onak ez diote batere grazirik egiten. Usai gaiztoa arzen die. Ni joango banintz, alako desaideren bat eginta bialiko niñuke.

Semearen arrazoi auek entzutean, barren guziak naasten zitzaizkion markesari: «Mutil au ez da iñolaz ere etxean geratuko».

Askotan ibili zan aitaordekoa egia esateko asmoan: etzala beren semea; erosita ekarria zutela. Baiña beren pekatua azalduko zan beldurra zeukan.

Beste txiki aularen ondoan mutil bikaiña zegoen au. Baiña amaordekoak, ala ere, etzuan amorrik ematen.

Pelotari bezela, Ego-Euskadira ere egiten zituen bere sarrerak. Emengo plazetan partidu bikaiñak jokatu ere bai.

Noizbait soldaduskako orduak iritxi zitzaizkion. Ordurako bazuen bere andregai-legea, Joxepa izenekoa, markesaren illoba, onentzat oso maitea.

Amak, jakin zuenean, ikaragarriak esan zizkion leenengo semeordekoari, ea etxeko oiñordekotzaren billa zebillen edo... Erdi tisiko zegoen txikiarentzat naiko zuen ura. Joantxok etzion erantzun ere. Andregaia edukitzeko ez ote zeukan eskubiderik? Urrengo eraso bere senarrari. Bai onek bear bezelako erantzuna eman ere:

–Nork agintzen du etxe ontan: zuk edo nik?

–Zu zera markesa eta jauregi ontakoa.

–Zertan sartzen zera, bada, eskubide guziak zureak balira bezela? Nik ortaz ez diot ezer esan Joantxori. Neskatxa obeagorik ez du billatuko.

Benetan poztu zan markesa Joantxok egin zuen aukerarekin. Aitak lagundu nai zion soldaduskako arazo orretan. Baiña etzuen bitartekorik nai izan. Besteak bezelakoa zan bera ere.

Markesaren kezkak

AITA larri zebillen. Bere seme jatorrak etzuen xentimorik balio. Etzituen noski ogei urte arrapatuko. Zearo tisiko zegoen. Baiña ez jakinki besteak nolako asmoak ekarriko zituen. Soldaduskatik-edo etorriko al zan? Batere gabe geratuko ziran beldur ikaragarria zeukan markesak.

Senar-emazteak eztabaida gaiztoak izaten zituzten ortaz. Askotan asarretzeraiño berotzen ziran biak.

–Zuk ez dezu seme txiki ori maite –botako zion emazteak.

–Zuk bestea baiño geiago, ez da zailla ere eta. Nik etxeko etorkizunari begiratzen diot, eta biak maite eta gordetzea komeni zaigu, bat galtzen bada ere bestea jaritzeko –senarrak

Bein ogei urtera iritxi ezkeru, gizon egin gerala iruditzen zaigu, eta atsegin ematen digu ori pentsatzeak. Baiña gure urterik onenak joan ziran betiko. Begiak ondo zabaldua, biotza naastua, maitasuna berriz irakiten, begiz joa daukagunaren atzetik gabiltza, arekin itzegiteko egokiera ezin billaturik. Olakoxeak egin gaitu Jainkoak.

Egaztietara begiratzen badegu, ia urte guzian banaka bizi dira. Udaberria datorrenean binakatu, arra eta emeak bat eginta, famelia azitzeko. Bein txitoak arrautzetik ateratzean, larri ibiltzen dira aiek ezin zaindu eta mantendurik. Egatzeko modura irixten diranean, beren ume saillarekin ikusiko ditugu, aiei jan eman eta arraixku txarretatik babesten. Gero, beren gisara utzita, aita-amak berexiko dira.

Abereak berdin. Or ditugu esaera batzuk: «Otsailla, katuaren illa», «maiatza, astoaren arrantza» eta abar. Garaia ori dute elkartu eta beren ondorengoak sortzeko.

Giza-emakumeak ere berdin gera. Bat nolakoa dan kon-
turatzean, joan zan gure pakea. Lagun bat artu, famelia azi,
ortan dago mundu onen etorkizuna, Jainkoak goxo-goxo
gure biotzari eman dion legea; eta, orri ez jarraitzezkeroz,
indar egin bearra dauka batek. Gizon-emakumeak ori be-
rezkoa dute, eta lege orren aurka joatea ez da beti erreza
izaten. Prueba egin degunak badakigu orren berri.

Ogei urteetarako oillarra bezela arrotuak gabiltz. Ne-
retzat bizitzaren mendi gaillurrera igotzea da ori. Andik
ikusten degu nondik nora joan bear degun mundu ontan.
Baiña laster asten gera beeraka. Gure beti bizi naiarentzat
tristeia benetan, gain ortan ondo baigeundeke. Olakoak
egin gaitu Jainkoak, eta geran bezelakoak azaldu bearra.

Baiña ogei urtera irixte orrek badu mutillarentzat bes-
te indarkerizko zapalketa beldurgarri bat ere. Zoritxarre-
ko soldaduska ori alegia. Orrek mozten dio askotan gazte
bati betiko artu zuen martxa. Askorentzat atsegiña bada
ere, berak jakingo dute zergatik.

Etxean ondo ez dabillenari askatasuna irudituko zaio,
naiz gero berak uste zuen bezelakoa ez izan. Bukatzerako
damutuko zaio.

Borondaterik gabe gelditzen da gaztea soldaduskan.
Benetan indarkerizko bizimodua da. Eskubide guziak
agintariak dituzte. Askotan baita beren biziarena ere. Oien
artean ez dago maitasunik, indarkeria besterik.

Garai batean soldadua biziak baiño geiago balio
zuen mando zaar batenak. Mandoa galduarekin, zerbait
berena galtzen dute; soldadu bat ondatuarekin, batere ez.
Gudan ibiliak badakite orren berri.

Bi urte gudaroztean igaro eta etxerakoan, au nion ne-
rekiko: «Nolako aurrerapenak egin ditut nik or? Bi urte al-
perrik galdu besterik ez. Aberriari ezer ematen ez dioten
alper batzuk ondo bizitzeagatik, galdu ditut nik bi urte
oiek. Erriari ezer eman ez eta ia nazioaren irabaziaren er-
dia irensten dute oiek; eta, guda gaiztoren bat asten badi-
gute, larrutik nork pagatuko du? Langilleak. Bitartean,
izarrez jantzita dabiltzan oiek gure bizkar bizi».

Gudarozteak kalte ikaragarria egiten dio erri bati. Zuzentasuna zaintzeko armaz betetzen dira, eta beren buruak bakarrak babesten dituzte. Erriak ez badijoaz beren naiera, an zia indarra gaiñera. Eta zer irixten dute? Kupirarik gabe bazter guziak txikitu. Urteetan lur jota erri gaixoak, eta amaika guraso eziñean, alper oien alde semeak galduta. Au egia dala jakiteko, ez degu aspaldiko edo urrungo gudateak gogora ekarri erazi bearrik, ur ortan paseak oraindik bizi gera eta. Soldaduska ortara nai dutenak bakarrak joan bear luteke. Baiña ni, buru eta biotz, soldaduskaren aurka nago. Urte batzuk aske pasatzeko zai dagoen batentzat, ipurdiko gaiztoa da ori.

Soldaduskara atsegiñez zijoan oietakoa zan, bada, Joantxo ere, markesaren semea. Or arkitu nai zuen bere askatasuna. Ondo preparatua zegoen, eta bein betiko etxe artatik aldegitako asmoz, ango martxa ezin ulertu zuen eta.

Ogei urte, arri kozkor bat baiño gogorragoko umea, mutil zoragarria, jauregiko seme zaarrena bere ustez beinpein, beste ñaño petral baten begiekin ikusten zuten gurasoak. Baita aitak ere, ia oraintxe eztabaidaka ez jarduteagatik amak bereganatu zuen eta. Soldaduska izango zan, bada, arentzat askatasuna, eta maite etzuten etxe batetik aldegitako aitzakia. Bein jauregia utzi eta koartelera sartzen zanean, bukatuko zuten gurasoak arekiko agintea. Etzuten geiago jauregi artan ikusiko. Ainbeste errita, ezin ikusi eta iseka, gogaitu zuten betiko.

Iritxi zitzaion, bada, neurketara joateko deia. An ontzat eman zutela ez dago esaten ari bearrik.

Aitak, aren soldaduska zerbait arintzeko asmoan, saiatu nai zuen, ustez elduleku onak zeuzkala eta. Baiña ezetz esan zion semeak: suerte ona izan edo txarra, etzuela biartekorik nai; etzezatela gero «aitaren semea uan ori ere» beragatik esan.

–Etxekoa baiño purgatorio gaiztoagoa ez al da izango ura! –esan zion.

–Ez dek orduan laguntzerik nai?

–Datorrenari eman bizkarra, bai, eta aurrera.

–Afrika aldean gudan gabiltzak. Ara bialtzen baaute?

–Norbaitek joan bear ko du. Neri erori eta ordez beste bat joatea ere ez litzake zuzena izango. Aurki etxetik kanpora biali bear nauzuten onengatik, zer ajola zaizute?

Itz auekin benetan samindu zan markesa. Ortatik antzematen zion zenbateraiño ari zan supritzen Joantxo.

–Ez badek nai, erorrek ikusi. Baiña nik ortan elduleku ona zeukat. Etxetik biali al diok? Arazo orrek amaika bu-ruauste ematen zizkidak.

–Bialtzeko asmoan zeraten seme bezela ez det, bada, azaldu nai; eta, an balaren batek arrapatzen banau, arin-garri izango zait.

Moldaketa guziak egin zituzten. Aitaren biotzak negar zerion, eta agur on bat egin nai zion semeari, beti musuka erabili zuten ari. Bere egitazko gurasoei lapurtuta ekarri-takoa, azken aldi ontan oso murriztak izan ziran arekin. Markesak bein ala esan zion amari:

–Joantxo astelenean soldaduskara dijoakigu.

–Baliyoake. Ez det berak esanta ikasi, agurrik ere ez dit egiten eta.

–Eta zuk egiten al diozu?

–Bera iges badabil, ez naiz ni atzetik ibiliko.

–Zortzi bat urtera arte ondo goxoa genduen, bada. On-do dago. Ez det eztabaidarik nai. Mutil ori ez da olakoa. Geroztik zapuztu zerate. Baiña berak aita eta ama esaten digun ezkerro, agur on bat egin bear diogu, berak erdizka esan didanez, ez degu geiago etxe ontan ikusiko eta.

–Aspaldi ontan ez dit neri ama deitzen.

–Ez badezute elkarrekin itzegiten, nola deituko dizu? Zutzaz mintzatzen zaidan guzietan, «Amak naiko al du? Amak begitan nauka eta ez dakit zergatik» ortara itzegin-go dit neri. Bazeneki nolako inpernua daraman... Ori be-rez seguru dago gure semea dala. Gure txiki ori jaio arte, etxe ontan etzan besterik, eta ez dakit bizirik ere nola ez genduen jan. Geroztik, goizetik arratsera, zearo utzia eta

baztertua geratu da; eta, denok dakigun bezela, mutil ona da. Baiña ezin du ulertu egindako aldaketa au.

–Ez da, ordea, gurea.

–Ori badakigu. Baiña zurea bakarra maite bear al dezu? Batere gabe geratzeko arraixku gaiztoan gaude gero.

–Au indartuko ez dan beldurra al daukazu?

–Ez nolanaikoa. Ez baidu indarririk artzen. Ez balitz ilko ere, gure negozioak martxan eramateko onek ez du balio.

–Orduan ura jarriko litzake.

–Ala uste al dezu?

–Besterik ezean zergatik ez?

–Jokatuko nizuke lepoa, bein soldaduskara joatean, ezetz Joantxo geiago jauregi ontara azaldu. Oraindik orren billa ibili beariko degu, eta kostako zaigu ekarri erazten.

–Eta orain zer egitea nai zenduke?

–Mutillari agur on bat egin. Bazkari eder bat moldatu alegia. Laster berriro emen ikustek poztuko giñukela erakutsi. Naiz emen jauregian, bestela otelean, zerorrek aukeratu.

–Nik naiago nuke emen.

–Baita nik ere; eta Joxepak pozik lagunduko dizu.

Artan geratu ziran biak.

Aitak ezik, amak ere igerri zion batere gabe geratzeko arraixkuan zeudela; beren egitazko semea, indartu bearrean, aultzen-aultzen ari zala noski. Sendagilleak etzuen itxaropen geiegirik ematen.

Ainbeste otoitz eta ixtilutan seme bat izatera iritxi, bere bizia ere emango luke amak arengatik, eta ezer egiterik ez. Jainkoak etziela aurtxo ura supri erazteko bestetarako eman. Askotan amak arratsak negarrez igaroko zituen gaixoaren aldamenean, zainduz, otoitzean, begirik itxi gabe.

Beste diruz erositako gazte ura mutil osasuntsu eta bikaiña zegoen. Zezen koxkor bat zirudien, zauli eta indartsua. Bekaizkeriz aren kontrako amorruez kiskaltzen zego-

en amaordekoa. Bere semea eskubide guziekin oiñordeko nai eta ezertarako gauza ez. Igertzen zion bere senarra, ixilik bazeraman ere, supritzen ari zala; eta bere egoskor-keriz azi besterik etziola egiten.

Bai; bazkari eder ori egingo zan. Merezi zuen mutil arek alako agur bat. Ama bai xamurtu ere zerbait. Baiña semeak naiko al zuen? Baratzan biak lanean ari zirala, aipatu zion ori markesak.

–Amak naiko al du? –artu zuen erantzuna.

–Bai, geronekoan ezkatu nioken eta.

–Eta nik ez badet nai?

–Baldinbetan, ez al dek ire aita lotsagarri utzi naiko.

–Ez daukat, bada, gogo aundirik. Baiña zuregatik joango naiz.

–Joxepa leengusua etortzea naiko dek noski.

–Bai. Askotan itzegin det arekin. Neskaxa atsegiña. Baiña arekin nenbillelako, amak erritan eman zidan.

–Utziok orri pakean. Ez uke neskaxa ori etxe ontarako nolanaiko markesa izango. Amari laguntzera etorriko dek, eta gurekin batera bazkalduko dik.

Joantxok bere baitan ala pentsatu zuen: «Ori zeukateken noski nere emaztetzat aukeratua, eta benetan atsegin zaidak. Baiña nola liteke leengusua leengusuarekin? Aberats auen oiturak ala izango dituk, bere aide guzien aberastasunak saski batetik atera ez ditezen. Gero endak auldu egiten omen dituk, eta seme-alabarik ezin sortu. Datozenak, geienak ere aulak eta baldarrak».

–Nola liteke leengusuarekin? –galdetu zion.

–Zoritxarrez, gure oituretako bat dek ori, eta txarra, etxekoa bertan geratu dedin. Ondoren negargarriak zetozek askotan ortatik.

Bazkaltzeko ordu ori ere etorri zan. Etxeko ar-leku dotore batean, mai borobil baten inguruan, bildu ziran. Dena txukun eta garbi moldatua zegoen. Erdian lore sorta eder bat, eta gaiñean armiarma zintzilikario oietakoa.

Ormatik zintzilik ageri ziran antziñako guraso eta aiton-amonen argazkiak, oroigarri bezela, beren markes titulo ori nola iritxi zuten erakusten zutenak.

Markes auen gurasoak oraindik gazte zirala joan ziran mundu ontatik. Leengusu arteko ezkontzak egiten zituztelako agian pentsatzen zuen Joantxok. Il ziranean, ogei eta amabost urtez beerako ziran biak.

–Orren gazterik joan al ziran mundu ontatik?

–Bigarren argazki au atera eta bi illabete baiño leenago, nik iru urte nituela. Ni etxean aiton-amonekin utzirik, Ameriketa alde ori ikusteko asmoan atera itun; baiña ez itun itzuli. *Titanic* deitzen zioten ontzi artan galdu ziran, ango ur jelatu aietan, ezeren aztarrenik utzi gabe. Batzuk bizirik salbatu bazituzten ere, aiek etziteken alako suertetik eduki.

–Igari jakingo zuten, bada?

–Bai; baiña lekutan zegok ura.

–Orduan zuk etzenituen gurasoak ezagutu?

–Pentsatu besterik ez dek. Iru urteko aurrak nolako ezaguera edukiko zuan? Aiek mundura ekarri niñutela; beste gaiñerakoan, aiton-amonak neuzkaken gurasotzat. Aiek azi niñuteken. Or dagoen argazki ori dek azkenekoa. Berekin eraman nai omen niñuteken gurasoak. Amonarengatik geratu omen nintzala etxean: uzteko ni emen; aiek, ni gabe, askoz obeto eta lasaiago ibiliko zirala, eta ez niela enbarazu besterik egingo. Olakoxeak gaituk, bada, eta geran bezelakoak azaldu bearra. Ordu gaiztoak igaroko zizkiteken nere aiton-amonak; baiña nik ez nin ezer ere supritu. Egun batzuetan aritu omen nintzala amari deika; baiña amonaren maitasunak laster bete zin nere biotza.

–Oroipen tristeak dira oiek, eta atsegin eta ariñagokoe-tan itzegin dezagun.

–Orixe dek arrazoia. Il ziranean negarrik ez banuen egin ere, geroztik, ortaz itzegitean, malkoak zetozkidak.

–Non ote daude orain aiek?

–Gure Jainkoagan. Arentzat denak bizi gaituk. Arentzat ez dek leengo eta gerokorik. Dena dek oraiña.

Bazkaltzen asi ziranean, ama triste zegoen. Aurpegia goibel, ez Joantxo zijoalako noski. Semetxoa bazterrean zeukan, zetorkion jaki guziari muzin egiten ziola. Semeordekoa, berriz, begitan zeukan; eta markesari berari ere inkurrio pixar bat asi zitzaion artzen, egitazko semea baiño bestea geiago maite zuela iruditzen zitzaion eta.

Ori etzan bere iritzi bat besterik, Markesak etxeko etorkizunari begiratzen zion. Gaixo zeukanak ere etzizkion nolanaiko buruaustek ematen. Bizirik ateratzen bazan ere, ura etzala etxeko martxa eramateko aiña.

Eskerrak Joxepari. Bazkariari arek ematen zion gatza eta piperra. Emezortzi bat urteko neskatxa gaztea, markesen illoba.

Bazkari erdira baiño leen aldegin zuen amak, amabi urteko seme aul ura goraka asi zalako; eta jan zuen guzia berexia. Sendagilleak agindua bakarra jaten zuan. Etziran geiago ez ama eta ez semerik azaldu. Maian jan zuten beste irurak naigabetuak geratu ziran.

–Nola ikusten dezu, Joxepa, etxe ontako etorkizuna? –galdetu zion markesak.

–Orrekin baterez. Baiña Joantxo emen dago –erantzun zion.

–Amak ez du begien aurrean ikusi nai, ordea –markesak.

–Arrazoi du aitak. Orain ere, seme gazteenaren ondoezagatik baiño, nere azkeneko agurrean musu bat ez ematezazatik aitzaki ori artuta sartu da barrura.

–Eta zergatik ori? –galdetu zuen Joxepak.

–Ori da jakin nai nukeana. Orduan lasaituko nintzake. Baiña nik ez diot, dakidala beiñepein, ezeren txarrik egin. Txikia jotzen nuela? Ori ez da egia. Laiñeza besterik ez dauka ume orrek. Orain soldaduskara noa iru urtetarako. Naiz besteen mende, lasaiago biziko naiz. Maite detan ama baten aurrean azaltzeko beldurrak ibili bearra ikaragarria da, Joxepa.

–Bai. Ulertzen erreza da, eta zure kezkek arrazoizkoak dira. Baiña bukatzean etorriko zera?

–Ori bai zailla izango dala. Amar aldiz pentsatuko det, erabaki ori artu baiño leen. Ortarako aldaketa gogorrak egin bearko dituzte emen.

–Orduan betiko aldegitako asmoan al oa? galdetu zion aitak.

–Zurekin inpernura ere joango nintzake. Baiña ni jau-regi ontako pakearentzat beti eragozpena izango naiz. Ez daukat neregatik aita-amak txakurra eta katua bezela ikusteko gogorik.

Markesa zearo eroria zegoen. Semeak biotz paketsu eta gozoa zeukala. Etxeko erorbide izan baiño naiago zuela dena utzita aldegin. Benetako tristura ematen zion; baiña arrazoi zuen. Orain orrela zebillen, eta arazo ori gero eta okerrago joango zan, txikia bizi zan arte.

–Baiña ikusten al dezu beste ori ez dala ezertarako gauza? –zion Joxepak.

–Itxua bear du bestela batek. Ondo agirian dago ori. Orrek ez ditu ogei urte arrapatuko. Baiña amak ori maite du, eta ez ni. Benetan poztuko nintzake sendatuko balitz, oiñordeko on bat izateraiño irixteko; eta ni alderrai ibiliko nintzake, etxeko pake eta etorkizunagatik edozer egingo nuke eta.

Markesak ezin zuen elkarrizketa ura irentsi; eta, malakoak zerizkiola, zutitu eta semeari esku eman ez ala esan zion:

–Orduan, agur, Joantxo, nai dekan arte. I emengo markesa izango aizen itxaropena ez diat galdu. Ezta galduko ere.

Eta erretiratu zan andik barrura, sartu ziranak zer moduz ote zeuden ikustera. Joxepa eta Joantxo biak bakarrik geratu ziran maiaren ondoan, elkarrizketan.

–Negarrez joan da aita gizarajoa –zion Joantxok.

–Egia diozu. Ez da arritzekoa ere. Semerik zaarrena aritz bat baiño larden eta osasuntsuagoa, eta ezertarako gauza ez dan ura etxerako naiago, amaren naiak ez du bururik.

–Zenbat eta geiago pentsatu, amaren egoskorkeri au ez det ulertzen nik. Ez dakigun zerbaiten ezkutua badago emen.

–Noizbait burutik iritzi oiek joango zaizkio –Joxepak.

–Seme txikia bizi dan arte, ez –Joantxok.

Bolara batean olaxe aritu ziran bi gazteak goxo-goxo izketan, bi maitemindu bezela. Baiña mutillari joateko ordua iritxi zitzaionean, etxeko iñor agurtu gabe, ortarako etzeukan biotzik, denak ezkutatu ziran gaiñera, aldegin zuen, Joxepari eskari bat egiñez:

–Badakit nere ama, agurtzerakoan neri musu bat ez emateagatik, ezkutatu dala. Zuk, mesedez, zure eta aren ordeztu, bi emazkidazu.

Etzuen eskatu bearrik. Bi eman ondoren:

–Lagunduko nizuke pozik, baiña lan auek guziak nerretzat geratuko dira. Agur, Joantxo, etorri arte, berdin txiki ori laster galduko da eta.

Etxeko mixeria

JOANTXOK aldegin zuen, etxea ospital bat egiña utzita, orduan beiñepein berriz biurtzeko gogo aundirik gabe. Aitak ematen zion benetako naigabea. Ama berarekin ura bezin ondo portatu izan balitz, etzan joango ere soldadu.

Gurasoak biak bakarrik geratu ziran etxean, ume elbarri ura ezin zainduz. Aita, etxeko goibelak nazkatuta, baratzara iges egiten zuen lanera. Andik etortzean aski zuen emazteari aurpegira begiratzea, negarrez egona zala igeritzeko. Purgatorio batean bizi ziran, bada, senar-emazteak. Eskerrak askotan Joxepa etxean izaten zutela. Familiari arek ematen zion bizia.

Joantxok ere dena etzuen pakea izango. Goikoen agindua egiteko gogo gutxi. Eskubideak denenak izanik, goikoei komeni zitzaien bezela zeukaten ango martxa jarria. Etzegoen an ere, bada, atsegin eta bizi-poz aundirik; eta makurtu nai etzuen, kalabozora.

Markesen etxean ere etzijoan, bada, leen esan degunez, dena berak nai bezela. Amaika otoitz egin eta meza eskeintzen zituzten ume txiki aren alde, ura salbatzeko. Baiña alperrik, ordea. Etxeko etorkizunaren babes a ura zuten, eta gero eta eskasagoa zijoan. Bakarrik ezin utzi eta txandaka zaintzen zuten. Oso urduri eta naigabetuak zebiltzan, bada, gure markesak. Seme bakarra eta ura bazijoakien; eta bestea etorriko zan itxaropenik ez. Ondo zabaldu baiño leen, lorea ari zan ximeltzen, eta ezin berpiztu.

Joantxoren berririk ere etzuten. Leenengo bi urteetan idatzi zizkien lau eskutitz, biei bina, beren urte betetzetan. Semea, zirudienez, etzegoen aztua, ura zebillen bezela ibilita gurasoen urte betetzeaz oroitzen zanean.

Amaika aldiz artaz itzegiten zuten; baiña azkeneko urtean etzuten bat bakarrik artu. Bere berririk etzuten, gaiñera.

Etxean zeukaten txikiarekin, berriz, erotuak zebiltzan gurasoak. Amairu urte beteak eta etzeukan txantxangorri batek aiña talentu. Igaz, ala ere, goraka pollita egin zuen, etxeko etorkizunari itxaropenez begiratzeraiño. Baiña dena iruzurra. Gora-beerakada gaiztoak zerabilzkien, bada, aren osasunak, gaur irabazia biar galtzen zuela. Arekin noski etzegoen gizonik.

Jaiotzatik zetorkion noski sendatzerik etzeukan gaitzik gaiztoenetakoren bat. Txoriak izutzeko jartzen dan iratxo oietakoren bat zirudien, besoak zabaldu ezker gurutze bat dotore jantzia. Baiña besterik ez. Ipur masailletaraiño ziriak ziran aren anak. Besoak berdin; eta, zearretik begiratuta, ol bat txutik jarria. Belarri txuriak, buru aundia, aspaldian illerik moztu gabea, otzak ondatu etzezan.

Prantziako sendagillerik onenetakoetara eraman zuten. Kastu beldur ez baiziran. Semetxo aren biziak ainbeste eta geiago merezi zuen. Baiña sendagilleen iritzia tristea zan beti: arekin etzegoela gizonik. Ala ere, batera eta bestera zerabilkiten. Seme txiki ura salbatzeagatik, dirua pillaka zijoakien; baiña bai aurraren osasuna ere beerraka.

Etxe artan, bada, atsegiñez antzu bizi ziran. Agindutako sendagaiak, askotan beiñepein, kalte egiten zioten. On-do bizitzeko dirua bakarrik ez baida aski. Sendagilleak, berriz, etzetozen bat. Prantzia guzian noski etziran bi iritzi berekoak arkituko. Aurrari zer eman etzekitela geratzen ziran askotan.

Aleman, Ingalterra eta denetara jo zuten; baiña aurra-arentzat alibio gutxi. Ingalterratik ekarri zuten etsipen osoa: tisiko zegoela eta aurreratu samarra. Jakiña, gaitz au orduan ezin sendatua zan. Azkenean, fameliko sendagilleak ere eman zien etsipena. Guraso on aiek alperrik ari zirala ainbeste neketan eta diru ondatzen. Ikusitakoan, aolku au eman zien:

–Benetako naigabea eta tristura ematen dit zuen alperrikako nekeak, eta barkatu nere ausardia: onenak egin du.

–Ulertzen degu, bai, zer esan nai diguzun. Alperrika-koak dira orduan gure neke guziak. Ez dauka sendatzerik?

–Ez gaurko jakinduriak beiñepein. Inglaterrako sendagilleak esana egi-egia da: umetxo au tisiko dagoela. Eta leen esan dizutedana: gaurkoz beiñepein gaitz gaizto ori ezin sendatua da.

–Itxaropen ederra ematen diguzu.

–Ez al dezute ori zeron begiekin ikusten?

–Bai. Ondo agirian dago. Ezin gentzake ukatu, maitasunak ez du etsi nai baiña. Bestea, palta zaiguna, osasuna gainez daukana. Au, berriz, olakoa.

–Erri txiki ontan ere badabiltza bat baiño geiago olakoa. Gaitz au gaiztoa da, eta mundu guzian naiko zabaldua.

–Orduan onekin zer egin bear degu?

–Sendagilleetan ez dirurik alperrik bota. Bizia duen arte beiñepein, maitasunak agintzen dizueten bezela zaindu eta atsegindu zazute. Dagoen baiño okerrago jartzeko, ez ibili sendagilleetan. Ori da nere iritzia, eta azken alde ontan ikusten duten sendagille guziena ere bai. Ala ere, ezertara beartu ezkeru, ni emen ibiliko nauzute beti. Zuen umetxo onek ez du urrengo urterik arrapatuko, benetan ondatua dago eta. Baiña ez du noski oiñazerik ere izango. Uste gabeen, izotzak jotako lore bat bezela *plast* eroriko zaizute. Ez al zerate oartu txistuarekin odola botatzen duenik?

–Oraindik gu ez beiñepein.

–Gutxiena uste dezutenean, gaitz orrek eramango du.

Aolku tristea, baiña maitasunez emana. Gurasoak ere iritzi ortakoak ziran.

–Sendatzeko itxaropenik ez badauka, leenbaileen ilteza obe. Berak eta guk gutxiago suprituko degu.

Geroztik amaika negar egin zuen amak ixillean eta semearen ezkutuan. Amaika ibillera ere bai ermita oietara erromes. Baiña semea gero eta aulago. Zaiñetan urik ez daukan lorea bezela aultzen ari zan. Oiñazerik ez, baiña egunetik egunera gero eta kaskarrago eta aulago.

Etxean egoera triste ortan bizi zirala, artu zuten, bada, Joantxoren eskutitza, benetan baikorra eta bere gora-beera batzuen berri emanez.

Joantxo alderrai

JOXEPARENGANDIK agurtu eta zuzenean, koartelera joan zan. Gaur oraindik koarteleko bizia beldurgarria bada, zer etzan izango orduan? Gizonaren biziak etzuen bost xentimorik balio. Nik serbitu nuenean, ango indarkeri ura ikusirik, onela esan nuen:

–Bi urte emen auen mende igaro bear al ditut? Emen ez dago maitasunik. Indarkeria da guzia.

Gaur ere, bada, askatasunean ezia dagoen batentzat, benetan iguingarri da koarteleko bizimodua. Etxe oietako eziketa eta orko zapalketa orduan askoz lotuagoa izango zan. Gaur baiño okerrago eta estuagoa, zalantzarik gabe.

Agintari oiek, militar jendea alegia, arroa da gaur ere. Orduan etziran apalagoak izango. Aitzaki gutxi aski zuten arresi zaarren baten ondoan bi tiro emateko. Begirune aundia bear zitzaien oiei.

Joantxo, ikasle bat zan ezkerero, oraindik oitua egongo zan goikoen aurrean apal-apal burua makurtzen, eta koarteleko bizitza ariñago izango zitzaion.

Leenengo sarrera, bada, koartelera egin zuen. Ango instruzioak bereala ikasi zituen; eta, ontziko gudalburu baten eskariz, alako batera eramane zuten. Orduan aitari, amari, baita Joxepari ere, eskutitz bana egin zien, bere soldaduska non beteko zuen jakin zezaten.

Gudako itxasontzi batera aukeratu zutela, baiña ango gudalburuak eskatuta. Etzekiela zergatik. Arek etzuela ezagutzen an alakorik, eta subofizial baten izarrak eman zizkiotela, bertako artu zuten orduko.

Bazekiela aitaren eguna zala; eta, famelian balego bezela, berak itxasoan ospatuko zuela; zorionak bialtzen ziz-

kien, eta etzala aretzaz aztuko. Amak aitak bezelako biotza eduki balu, etzala orain gudako itxasontzi batean arkituko. Baiña munduko berri zerbait ikasteko etzitzaiola gaizki etorriko.

Amari egin zion bestea: barkatzeko, agurtu ere gabe andik aldegin zuelako; eta berak ere dena barkatzen ziola. Baiña etzala berriz etxera etortzen erreza izango. Ala ere, etzuela iñorekin asarre bizi nai.

Joxepari ere idatzi zion, bera etorri zai ez bizitzeko esanez.

Itxasoan sartu aurretik idatzi ziela, eta abian gaiñera; nongo kaiera sartuko zan etzekiela; etziotela esan.

Aita poztu zan eskutitz orrekin; baiña baita naigabe pixar bat eman ere. Igerri baizion ori iruzur bat zala, berak ez erantzuteagatik egiña gaiñera. Betiko galdutzat jo zuen, bada, bere semeordekoa.

Itxasoz itxaso, kaltetik kaiera, mundurik mundu askatasun osoan, uzten bazioten beiñepein, alderrai ibiltzeko asmoak zituela.

Prantziak orduan oraindik lurraren alderdirik geienetan barruti zabalak zeukan bere mende, eta gudako itxasontzi oiek batetik bestera ibiltzen omen zirala soldaduz beteak, baiña laguntzaren bearrean arkitzen ziran lurretara urbilduz. Askotan, itxasoan topo eginta, eraso gaiztoak izaten zituzten, beren inguruko etsaien matxinadak ere zapalduz.

Bai; bere semeordekoa alderrai jarri zan. Inbiri pixka bat artzen zuen aitak. Ez bailitzaioke gaizki etorriko lantegi ori, bere larriak zerbait aztutzeko. Eta semeari eman zioten kargu txiki ori gora eta gora joango zitzaion, lantegi ortan jarraitu nai bazuen beiñepein.

«Dagoneko, Afrika alde ori ikertu degu –zion pozez–. Beltz oiek gizon galantak dira, baiña benetan atzeratuak».

Agur batekin bukatzen zuen bere eskutitza, eta etzekiela urrengoa nondik egingo zuen. Berak itxas alde ortan zebiltzala, beti eta norabait bazutela deia.

–Zer moduzkoa iruditu zaizu Joantxoren eskutitza?
–galdetu zion emazteari.

–Zurea ez dakit, baiña neri biali didana ondo egiña, eta maitasunez. Nere ezin ikusi ura dena barkatzen dida-la, eta berak neri egindako okerrak barkatzeko eskatuz. Benetan atsegin izan zait.

–Bai; baiña aren asmoak ez dira leku batean itxita bizi-tzekoak. Aske eta alderrai bizi, ori nai du arek.

–Zergatik? Nik ez diot olako itxurarik artzen. Orain-dik gaztea da. Itxasora joan berria. Iru urte oietan badau-ka mundu guzia ikusteko naiko denbora. Bere ixkanbil oien artean gutzaz oroitzen danean, ez da gutxi.

Amak beiñepein oso ondo artu zuen eskutitz ori, mai-tasunez egiña. Agurtu gabe etxetik atera zalako emanda-ko naigabea barkatzeko eskatzen zion; orain asi zala mun-du ontako berri ikasten, etxetik atera gabeko ume bat bes-terik etzala eta.

Joantxok zer erru zeukan, amak berak aldegin zuen eta? Asko pentsatu zuen amak, eskutitz ura irakurri ondo-ren, ez bazan beiñepein dena iruzurra, aizun arro baten eskutitza alegia, berak muzin egindako gazte arek biotz on eta gozoa zeukala. Etzuen noski txikiaren alde ainbeste nabarmendu bear. Ala ere, onela zion berekiko:

–Ai ori balitz nere semea! Gure txikiak ez du batere balio orren ondoan. Baiña ura izaki nerea, eta ez au.

Aitari bezela, ari ere itxasontzi batetik idazten ziola, eta etzekiela nongo kaiera sartuko ziran. Beraz, amak etzeukan erantzuterik. Badaezbada ere, eskutitz ori gorde egin zuen, gero lasaiago ausnartzeko. Egia esatea ere bazi-teken. Gudan dabiltzanak ixilik ibili bearra daukate.

Aurrean ikusi ezik, bereala aztu ziran etxeakoak. Baiña etxean gaixo zeukaten txiki arekin itxaropen gutxi.

Andik sei bat illabetera artu zuten bestea. Baiña, lee-nengoan bezela, nondik idazten zuen agertu gabe.

–Adarra jotzen ari zaigu semea –zion aitak amari.

–Ala uste al dezu? –erantzun zion.

–Zergatik, bestela, nora erantzun ez digu esaten?

–Ara-onera aizea bezela itxasoan dabillen batek, ez da-ki, ez badiete esaten beiñepein, urrengo itxogiñaldia non egingo duten; eta, bere lagun artean gu aztutzen ez gaituen bitartean, Joantxok maite gaitun itxura da ori. Leen- goa zure urte betetzean idatzi zigun, eta oraingoan nere- an. Biotzean gauzkan itxura ez al da ori? Baiña au ez da, ordea, gure semea.

–Eta nere bizia arraixkatuz zuk eskatuta ekarri ez nuen, bada?

–Baiña geroztik etorri zaigu gure odolekoa.

Joantxoz mintzatzean, beti lelo orrekin bukatzen zuen amak elkarrizketa.

Baiña bein egitazko semea, gora bearrean, beeraka asi zanean, onela zion aitak:

–Au galtzen bazaigu, nora joan bear degu?

–Joxeparengana edo...

–Joantxo eta Joxepa biak elkarrekin ezkondu ezkeru, ai zer bikotea geratuko litzakena; eta badakit elkar maite di- rala. Abizena ere etxekoa geratuko litzake. Berri bat eska- tzen badegu, kito; gureak egin du. Gaiñera ez lirake leen- gusuak izango. Zergatik etorri zaigu seme kaxkar ori? Se- guru asko, senar-emazteak leengusuak geralako; odol be- rekoak.

–Joxepa maite badu, mutil ori azalduko da oraindik. Guri bezela, ari ere eskutitzak egin baidizkio.

–Litekena da ori. Maitasunak indar aundia dauka.

Bitartean urte bat joan zan, eta bigarrena ere bazijoan aurrera. Semeordekoa bere gurasoen urtebetetzetan etzan aztutzen. Andik edo emendik, baiña utsegiñik gabe, naiz nondik ez jakin, artuko zuten semearen eskutitza. Azkena idatzitakoan ala zion:

«Zoratua nago iru urte auek bukatzeko. Aspertu naiz beti itxasoz itxaso. Etsaien gudal-ontzi bat ikusi orduko, iges. Geienak ingelesak baidira. Erne ibili bearra dago oie- kin. Guk baiño ontzi obeak dituzte.

Baiña beste arrazoiketa bat ere badaukat. Emengo geienak lagunak ditut; asko maite naute. Baiña bat badet benetako gorrotoa artu didana –itxura ala egiten du beinpein–, guda-ontziko nagusiaren semea; ni teniente aukeratu niñunaren semea, Inozentzio Galarregi izenekoa. Agian zure ezagunetako bat izan liteke.

Ingeles ontzi oietako baten erasoan iru lagun erori zitzaizkigun geronekoan, eta eskerrak kaiaren inguru samar geundela. Bestela, ez dakit... Baiña aietatik ere bi edo iru erori omen zirala.

Gurean eroritako bat tenientea izan zan. Orren ordeko ni aukeratu niñuten, eta beste batek uste zuen bera izango zala leenengo. Ez det arazo au oso garbi ulertzen. Orregatik ematen dizut guda-buruaren izena: Galarregi. Agian zuk zerbait geiago jakin zenezake».

Markesak eskutitz ori irakurri zuenean, sumindua geratu zan. Guda-buru ori ondo ezaguna zuen, bere osaba zan eta. Orain garbi ikusten zituen orren asmoak: Joantxo aitzaki-maitzaki bizien artetik kendu eta bere semetakoren bat aurkeztu markes ordeko bezela. Baiña etzuen ori begien aurrean ikusi nai. Emaztearen aldetik zuten osaba. Oni erakutsita, bere erantzuna gogorra izan zan:

–Naiago nuke emengo ijito bat etxerako artu, aren semetako bat baiño.

Senar-emazteen asmo edo naiak bateratzen ari ziran. Etxeko seme txikia, berriz, esan ziteken urte beteko bizirik etzeukala.

Etxeko tristura

BERE seme txikiaren gora-beerak asko supri erazten zioten markesari; baiña zetorrenari eldu bear.

Bi urte igaro zituen, bi anka makil aien gaiñean txutik ezin ibilirik. Oietik artuta eskutik sukaldera ekartzen zuen amak. Berak eskatzen zituen jakirik goxoenak jarriko zizkion aurrean. Baiña murtxatu orduko, bertan jan gabe utziko zituen. Esne goxatua, pixar bat, ori zuen artzen zuena. Orri eskerrak irauten zuen bizirik. Andik txuxenean eguzkitara, eta an utziko zuen bakarrik, urrats batzuk eman zitzan, amak garbiketa lanak egin arte. Etzeukan jauzika ibiliko zan beldurrik. Urrutira aldegitoko ain gutxi. Gazteak bazter guziak aizkatzen dituen urte oietan gaiñera.

Azkenean, esku-karroxa batean erabiltzen zuten askotan. Baita baratz inguruak barrena ere. Baiña an Joxepak eramaten zuen. Barkatu esana, baiña etxeko denak naiago zuten iltzea, artara bizitzea baiño.

–Bai zaila eta tristea dala munduan olako semetxo baten amaren bizimodua –zion bere amak.

Ikusten iltzen-iltzen ari zala, bizia emango beragatik, eta ezer egiterik ez. Etsi nai ez eta etsi egin bear. Orra sendi aberats baten negarra. Zertarako zuten dirua? Norentzako erotzen lanean jardun? Kolperik jo gabe interes oiek denen jabe egingo zan arrotzarentzat.

Sendagilleak maiz ikusten zuen, eta egun batean ala esan zien:

–Au badijoa. Ia ezin zaio biotza dabilkienik ere igerri. Taupadarik ezin diot nabaitu.

Apaiza deitu zuten. Baiña zer egin bear zion, pekatu egiteko alorik etzeukan arek eta? Berarekin itzezin zuen eta askezpena eman zion. Baiña etzuen Jaunik ekarri. Ez baizan artzeko gauza.

Limosna bilduz etxe batera joaten nintzanean, ortxe zortzi bat urteko neskatxa, irripar alai eta jolasa besterik etzuen, azaltzen zitzaidan atera, nik txintzarria jo orduko. Gero, gerrian neraman kordioari muxu emanaz, goxo-goxo:

–Jainkoak egun on –agurtuko niñun.

–Baita zuri ere –erantzungo nion atsegiñez.

Azkenean, amak neretzat emandako limosna eskura ekarriko zidan. Nik ere, parrez-parrez:

–Eskerrik asko –erantzungo nion.

–Ez da zergatik.

Eta txoria baiño alaiago sartuko zan etxera.

Urrengo urtean joan nintzanean, ama bera atera zitzaidan; eta nik ala galdetu nion, arritu samarra:

–Alabatxoa eskolara joana izango dezu noski?

–Bai zera! Jainkoak eman eta berak eraman zigun. Etxea pozten zigun aingerutxoa bera genduen, eta ez degu besterik.

Eta negarrari eman zion. Ni ere naiko larritua geratu nintzan.

Etzaio ori, bada, markesari bakarrari gertatu. Beste amaika famelitan ere izaten dira olako ixilleko negarrak.

Etsipena artu zutenean, markesa gizon gizarteko eta alaiari joan zitzaion umorea, oraindik bizi bazan ere aurr.

–Ezin gentzake semea orrela eduki, sendagillearengana eraman gabe –eraso zion amak, ezin etsirik.

–Galdeiozu etxekoari. Ortxe egunero emen degu. Ea zer erantzuten dizun.

–Jainkoa al da, bada, ori?

–Ez da ala, baiña kristau on bat bai. Antzeman dio, beste sendagilleak bezela, ez daukala sendatzerik. Ez da

bere buruz bakarrik ari. Berak pentsatzen duena, alegia, dirua alperrik kastatzen ari gerala onekin. Europako sendagillerik onenekin erabili degu, eta begira zaiozu aurrari nolakoa dagoen. Orregatik, ez digu itxaropenik eman nai. Bai-baidaki dena alperrik dala. Biziak irauten dion arte maitasunez zaindu eta atsegintzen saia gaitezten.

–Baiña berak ez al dio igerriko?

–Ortaraiñoko argitasunik ez dauka gure semeak. Ori da gure negarra: nai baiña ezin. Ezkondu giñanean bezela, biok bakarrik elkarri begira geratu bearke degu, itxaropen guziak galduta.

Noizbait, aularen aulez, egunsenti batean, gorputz geratu zan. Etzion mundu onek atsegin aundirik eman. Bestean arkituko al zuen. Triste geratu ziran gurasoak, baiña artu zuten atsedeen ederra.

Bere illetara jende mordoska bat bildu zan, gurasoak erriko ongilleak ziran eta. Auek ere an ziran, beltzez jan-tziak, beren azken itxaropena galdu eta gero.

Illetak bukatu eta etxera etorri zanean, lagunarte aizun ura utzi eta atsedentzera joan zan markesa. Andik aurrera lasaiago biziko ziran.

Ura jaio zanean, benetan poztu zan etxea, beren odoleko semea bazeukatela eta etxearen oiñordekoa, eta maitasun guzia oni eman zion amak, bestea zapuzteraiño. Orain ez bat eta ez beste. Arek aldegingo zuen beste lurretara, amarekin zapuztu zalako. Jaio zan garai artako atsegin eta poz guziak orain naigabe biurtu zaizkie. Bat il eta besteak iges. Ori dute gaurko leloa. Beste aideren baten etxera joan bear oiñordeko eske. Zenbat fameliren negarra ez da izaten ori!

–Ain eder eta zoragarria zetorkigun eta bat-batean joan etzaigu, bada!

–Ezkondu giñanean bezela geratu bearke degu, bada, itxaropen guziak galduta. Orduko ametsak aizeak eraman ditu. Aldamenean olako pozgarririk gabe bizi bearra. Zer egingo diogu, bada? Negar au etxe askotakoa izaten da,

eta batzuek etxea beteta, besteak batere ez. Joantxok, berriz, asarretuta aldegin zigun. Azkeneko bolara ontan ez degu aren berririk. Itxas-guda-ontzi oietako batera joan zan. Bizi bada beiñepein, nonbait or ibiliko da. Itxas oietan, berriz, iñorekin eraso txarrik izan dutenik ez degu entzun.

–Eta etxeko txikia galdu dala ikasi ezkerro, ez ote litza-ke etorriko?

–Ogei eta iru urte baditu. Bere buruaren jabe da. Leen ere esan dizut bizi danik ere ez dakigula. Kargu on bat eman zioten. Teniente maillaraiño iritxi zan. Etzuten aukera aundirik edukiko, orren gazterik kargu ori emateko. Azkeneko eskutitzan zionez, iru lagun galdu omen ziran. Oietako baten lekuko utsuna betetzeko alegia aukeratu zutela. Baiña soldaduska bukatu arte ez det uste azalduko danik. Gero aurrera jarraitzeko asmoak izango dituenik ain gutxi. Arek bai itxasoz munduaren bazter guziak ikusiko dituela. Baiña orain ez dakit non dabillen –zion aitak–. Eta dirurik eskatzen al du?

–Neri ez beiñepein –amak.

–Eman dioten kargu orrekin aixa aterako du berea. Onuzkerro, emengoak aztuta lasai biziko da. Arek, ala ere, txikia il dala entzungo balu, nondik edo andik bere agerpena egingo luken itxaropenik ez det galdu. Nerekin oso ondo konpontzen zan. Zurekin zegoen asarre. Izan ere, egun batetik bestera bere burua zokoratua arkitu zuen, eta zergatik jakin ez.

–Gurea galdu dan ontan aalegiñak egingo ditut ekarri erazten –zion amak–. Beste otso oietakorik ez det begien aurrean ikusi nai.

–Ori da ondo pentsatua.

–Emendik joan zanean, mutil zoragarria zegoen, bada, uraxe.

–Bai orixe. Bazuen gure Joxeparekin ere tratua. Ura oraindik askotan oroituko da artaz. Baiña ez dakigu non dabillen ere. Ori da txarra. Bestela, denaren berri eman-

go genioke. Baiña ez diot ontziko gualburuari galdetu nai.

–Naiago det ijito bat, leen esan dizut, nere semetzako artu, orrentarreko bat baiño –zion amak.

–Ni ere zurekin bat nator. Pillotari ona zan Joantxo. Ikastetxean etzeukan etsairik. Inguru auetan guzian ere ez, gaztetan beiñepein. Semea ez badegu ere, nere enborreko ezpala zan. Oin eta besoak biziak zituen. Batere gabe geratu bearko degun beldurra daukat benetan. Tristura dago jauregi ontan. Zertarako degu dirua, maite degun ura ezin badegu salbatu?

Auxe zan senar-emazteen tristurazko elkarrizketa. Ainbeste maite zuten seme txiki ura galdu zuten, bada, eta eziñaren aurrean makurtu bearra.

Munduko berri zerbait dakienak besteren buruan ikasia dauka ori. Baiña eraso au etxera etortzean dira kontuak.

Beste alderdi tristeagoa erakusten digu: guk ezertxo ere ezin deguna.

«Naigabeen laguntzen dizugu» esaten diogu olakoan. Baiña agur onek beste esan-nai dauka etxekoa danean.

«Jaungoikoaren borondatea ala izango zan. Zer egingo diozu burua makurtu besterik?». Norbaiti esateko itz gozoak dira oiek. Baiña bear ezak etxean jotzen gaituenean, zailla da «Bete dedilla zure borondatea» esatea biotz-biotzez.

Benetako tristura zegoen, bada, jauregi artan. Ez il zalako bakarrik. Eguneroko ogia degu ori: jaiotzen danak il bear duela, gazterik edo zaartzaroan. Baiña markesak etxeko etorkizunari begiratzen zion. Joantxo ez bazan azaltzen, beren oiñordekoa billatzeko arrotzetara jo bearra.

Beren aideen artean etzuten iñor beren abizenekorik. Ori zan bere buruausterik aundienetakoa. Markesgotzak iraungo zuen, baiña aldaketa ikaragarria egin eta gero. Jauregi aundi oietakoak, berriz, sortu ziranetik, belaunez

belaun jarrai nai izaten diote markesgoa sortu zuenaren abizenari. Ordurarte ondo iraun zuen orrek. Ori ezin konpondurik markesaren kezka.

Txikia il zan, baiña nork zekien bestea ez ote zan azalduko? Bitartean, ez al zitzaien dena buruzpera eroriko.

Azpi janean

JOANTXO etzuten noski teniente aukeratu, il zanaren utsuna betetzeko, legorrera etortzen ziran bitarte. Baiña ikusia zegoen, kaiean sartzen ziranean ere, bera aukeratu-ko zutela, nai bazuen beiñepein.

Bazan beste alper bat an, baiña urte batzuk zaaragoa, aspaldi ontzi artan gudari zebillena, eta ontziko gudaiburuaren semea. Onek aukeratu zuen Joantxo bere semearen ordeztu, baiña bere asmoetarako. Semeak gaiztoak eta biurriak bazituen ere, etziran noski aita bezin maltzurak; eta, nagusi zegoen ezkeror, ogei eta amaika eskutik zeukan.

Berekin ontzian zerabilkien semea, berriz, ume biurri eta ajolagabekoa zan. Askotan, gaiñera, geiegi edana. Bi bakar-burruka jokatu eta biak irabazia.

Bere lekuan beste bat jarri zuela ikasi zuenean, biraoka eta bazter guziak erre bearrean, erotu bat bezela joan zan lasterka aitarengana. Agurtu ere gabe eraso zion:

–Ez al naiz ni zure semea?

–Eta nork esan dik ezetz?

–Zertan aukeratu dezu gaztetxo ori teniente? Orrek baiño urte geiago daramazkit nik emen, eta ni leen bezela utzi!

–Eta zergatik ez nin egin bear? Ori ire ondoan aingeru bat dek, txuxen eta esanekoa, gazte egokia, ondo ezia, markes baten seme bakarra gaiñera.

–Eta aita batek ori maiteagoa al du, bere odoleko semea baiño?

–Nik bakoitzaren egokitasunari begiratzen ziot. Ez didak esango ori agintari eta mendekoen artean maitatua ez

danik. Onek ontzi ontan jarraitzen badu, eta ni bertako gudalburu, beti ire gaiñetik jarriko dit, eta datozen besteen gaiñetik ere bai. Au beti goraka joango dek.

Aita maltzur-maltzur ari zan, beste asmo biurri batzuk zerabilzkien buruan-eta, polliki-polliki bere semea amorrusuz kiskaltzen jartzeko. Bera markesaren osaba zan, bost seme-alaba zituen, bere aurrean zeukan ura zaarrena, Bost urte eramango zizkion Joantxori. Gorputz eta anima usteldua, bizio gaiztoetan errea, griña biurri guzien jabea, aitak artu zuen bere itzalpean. Bazter guziak naastuko zituen beldurrak eraman zuen itxasontzira, bere laguntzarekin zuzenduko zuelakoan.

Baiña dena alperrik. Gudalburuaren semea zalako ere, laiñezez betea. Ala ere, dirua neurrian zerabilkien: berak irabazten zuena bakarrik. Amari amaika eskari egiten bazizkion ere, senarrak aginduta noski, xentimorik etzion bialtzen. Ematen zitzaion sariarekin pasa bear. Beti ernegatua zebillen, bada, gurasoen aurka.

Mutil luxaxta antzekoa, ille oria, bibote motzarekin, ez ain dotorea, ibillera baldarrekoa, sudur luze, belarri txabal, ederrez etzituen neskak iruzurtuko. Zurrutan geiegia zan. Berea beti bere. Pistola txikiarekin ikusiko zuten ontzi gaiñetik tiburoiei sutzen.

Gudalburuak beste gazte bat jarri zuen biurri orren lekuan teniente, legez orri tokatzen zitzaiona, markesaren semea alegia; eta ikaragarriak esaten zituen aren aurka, bere aita madarikatuz.

Onek, ordea, bazekien markesak bi seme zituela. Bat, ezertarako balio etzuen, jauregian zeukatela sendagillez inguratua, aal ziteken guriena zaindua. Amaren begiak etzutela noski ura besterik ikusten. Ala ere, il zori, gero eta aulago. Aren itxaropenetan ezin ziteken bizi, oiñordeko bezela edukitzeko beiñepein.

Zaarrena, berriz, ontzian teniente izendatu berria gaiñera, ona eta benetan itxasontzi artan maitatua. Gorputz ederreko mutilla eta apala; ez arrosa, militar agintari geienak bezela.

–Orrek emen jarraitu nai badu, iretzat etzegok lekurik
–esan zion aitak, purrustadaka arengana joan zanean.

–Garbituko det, bada, nik ori.

–Eta arrazoirik bai al daukak ortarako? Kontuz! Iretzat ere ez dek gero balarik paltako.

Aitak antxe agertu zion, semea billaua bazan eta mal-tzurra, bera etzala atzetik geratzekoa. Bere mendekoak gaizki itzegiten zuten artaz; baiña kontuz ibili bearra. Bestela, bazterren batean galduko zan. Beste asko, berriz, ka-labozean zeuzkan, legorrera etorri arte. An botako zituen gudaroztetik, matxinadazale bezela.

Aitaren antzekoa zan, bada, semea ere. Biotz gogor eta besteren biziarekin ajola gutxikoa. Ala esan zion aitak aurrean zeukan semeari:

–Bai al dakik zergatik aukeratu detan ori teniente?

–Leen ere esan didazu: ona, zuzena, esanekoa eta mar-kes baten semea, etxe onekoa alegia, ontzi ontan denak edo geienak maitatua dalako. Baiña ori ez da egia. Nik ez det nere begien aurrean ikusi nai.

–Orretxegatik aukeratu diat ori.

–Ni orrekin asarretu nadin?

–Ori dek benetan arrazoia. Ni orren aitaren osaba nauk. Ez dik ori beste semerik. Ori galdu ezkeror, oiñordekotza nere semeentzat izango uke. Ulertu al didak?

–Ondo ala ere. Orduan ori emen geratzea nai zendu-ke?

–Bai. Legorrera baiño leen berea eman dueloan, aurretik eramane dituken beste oiek bezela. Ik jakingo dek nola moldatu; eta, ara joatean, nik eskatuko dizkit nere eskubi-deak.

–Ez dago gaizki pentsatua. Utzi ori nere esku. Illabete au igarotzerako, orrenak egingo du.

Ortan geratu ziran, bada; eta iltzaillea egokiera baten zai.

Joantxok ikasi zuen bere aitaren osaba zala ura, konzientzi gaiztokoa. Baita bere semea ere zeletan zerabilkie-la. Andik aurrera beti bere pistolarekin ikusi zuen etsaia.

-Auek seguru asko eman zidatek eriotz pena. Orain ikasiko diagu beste biak dueloan il zituen edo ez.

Bakoitz-burruka

JOANTXOK irentsia zeukan, bada, bere leengusu txatxu arekin etzeukala gauza onik: il edo biziko larria; eta, bereztat txarrena, militarrek ziran ezkerero, armaz neurtu bearra. Bera, berriz, paketsua zan; baiña onez onean etzeukan konponketarik. Beraizik ere, etsaiak, bero arazteko, askotan iseka egiten zion.

–Nere lekua ik ebatsi didak. I baiño zarragoa nauk adiñez, eta ontzi ontan ere i baiño leenagokoa. Oraindik denbora asko baiño leen erakutsiko diat ni nor naizen.

–Motell, nai badek eta ez badek, nere mendeko bat aiz i. Kalabozoan sartzeko eskubidea ere bazeukat.

–Aurki igerriko diok nor dan emen ire mendekoa.

–Ire aitak zuzen epaituko balu, oraintxe bertan sartuko iñuket. Neri zertarako esaten didak ire lekua nik ebatsi detala? Etziot iñori eskatu. Ez diat gogozkoa ere gaiñera. Oraintxe bertan geldituko niñuke soldadu, eta emango nizkikek nere izarrak. Emengo eskubideen berrietzekiat. Berak jakingo dik zergatik. Ik ere bai noski. Baiña ez adilla neri kargu artzera etorri.

–Ik ez dek barrabillik. Itz bat entzun orduko, daldaraka geratu aiz, kobardea aleena! Eta i teniente aukeratu?

–Emen ez dek tenientearen lekua bakarra jokatzen. Aita-sume oien begiak aurrerago begiratzen ditek. Nai badek, biak utziko dizkit: markes aulkia eta tenientetza. Nai duenarentzat an zegok ura ere.

–Azkenean nere aurrean prakak eranzten asiko intzake i.

Joantxo berotzen ari zan, indarkeriaren etsaia eta paketsua izan arren. Baiña ezin ausartu, bestea beti armatua

baizebillen. Orduan ere beraizik agerian zeraman pistola, tenienteak ikusi zezan.

Ez dakit zertan bukatuko zan aien eztabaida, gudari batzuk ez balira azaldu. Gure bi etsaiak orduan berexi ziran. Baiña Joantxo naiko berotua joan zan zandik.

Gudalburuari, bere osabari alegia, jakin erazi zion an gertatzen zana. Ez bazuen moztu nai, nai eta nai ez ba-koitz-burruka egin bearko zutela. Ikusten zuen guzietan iseka egiten ziola: «Kobarde, oilloa!». Eta egunen batean bera ere berotuko zala.

–Utziok pakean, txoro bat besterik ez dek ori eta.

–Bi badituela illak eta zergatik ez dezu zigortzen?

–I tenientea ez aiz, bada? Ire esku zegok zigortzea.

–Bai; baiña zu bere aita. Markes lekurako anai tisiko bat neukan leen. Onuzkero illa izan bear du. Orain beste irugarren bat atera zait.

–Nor dek ori?

–Orixe galdera! Arekin izketan ari ziñan batean neronek entzuna!

–Beirok gero! Nik ez diat ortan ankarik sartu nai, eta ez ni salatu. Ori gezurra dek.

–Lau lekuko baditut, nai badezu galdetu.

Gudalburua ixilik geratu zan. Baiña semearen laiñezak moztu bearrean, berriro zirikatu egin zuen: markesak aberats purrukatuak zirala; etzitzaiela ango interesa gaizki etorriko.

Arazo ori orduan ixilik geratu zan. Baiña Joantxo erne zebillen. Ala ere, etzuen armarik ibiltzen, etzuen gogozkoa ere eta. Bestea, berriz, aitaren naia betetzeko egokiera on baten zai.

Andik illabete batzuetara beste beroaldi bat izan zuten. Baita biak lotu ere. Joantxok etzion, ordea, arma ateratzeko betarik eman. Etzuen jo, baiña bai arma kendu eta beraren aitari eman.

–Oraintxe bai leku txarrean geratu aizela. Ori bai ez dikela egundo barkatuko.

–Nik barkatu diot, bada. Oso-osorik eta armarik gabe nere eskuetan geratu da. Pistola erakusteko bestetarako ez du balio ume orrek.

–Nai badu bai. Baiña militar batentzat umilgarria dek ori.

–Ortan, osaba, zuk daukazu azkeneko itza. Arazo onen konponketa zure esku dago. Txeetasun guziekin emengo ixtilluak idatzi eta dokumento bat egiña baldin etxera bialiko banu, ez litzake bere lekura iritxiko. Baiña esku seguruetan jarria daukat. Badakit arraixku txarrean nagoela. Baiña ez det atzerarik egingo. Ni ilko baniñu, ni errudun bezela jarriko niñuzuteke. Baiña egin detan itun artan egia azalduko da. Emengo bi kargudunek izenpetua gaiñera. Gaurtik aurrera ni ere armarekin ibiliko naiz. Ez nau, il dituenak bezela, esku utsik arrapatuko.

Joantxok, illunabar aldera, itxas ontziaren bazter batean atsedentzeko oitura zuen, oatze lege baten gaiñean eguzkiaren sarrera ikusiz eta bere askatasuna ausnartuz. Txoratzen zuen benetan illun aurreko ezetasun arek, eta eguzkiak zeruan eta itxasoan sortzen zituen zoragarrizko margo aiek ikusteak.

Munduaren erdiak ez daki itxasoan eguzkiaren sarrera zein atsegiña dan. Gure tenientea beiñepein begi-bellarri egoten zan, beste mundu batean bizi balitz bezela, uraren eten gabeko *run-runa* entzun eta kolore aiek ikusiz.

An lasai zegoela urbildu zitzaion oiuka bere leengusu subofiziala, gaizto kakatsu ura, aitak zirikatuta noski. Baiña biak armaz jantziak zeuden. Edozein eror ziteken.

–Urdea! Zerria! Kobardea! Ator orain neri arma eskutik kentzera!

–Burutik egin al zaik edo? –erantzun zion, urduri, izutua. Ez etsia, ordea.

–Barrabillik badek, ator onera!

–Zertara?

–Duelora!

Aitzaki orrekin Joantxo arengana urbildu zan. Or zeukan bere itxaropena.

–Armaz edo eskuz? –galdetu zion.

–Lurrean lokatzetan astoak eta zerriak ibiltzen dituk!

–Gizonik geienak, asarretzean, ukabilka eskuz ikusten dizkit, bada, nik.

–Militarrak armaz egiten dizkitek beren bakar-burrak; eta eztabaidak erabaki eta konpondu ere bai.

–Ez eriotzik gabe. Arrazoirik bai al dek neri desapio ori egiteko?

–Bai; ik nere lekua lapurtu didakelako. Ire mendeko bat naizela ni? Ori laster ikusiko diagu –jokatu baiño leen irabazia baleuka bezela erantzun zion.

–Ik iñori kobarde esan? Leengoan i armatua eta ni esku utsik, pelege bat egiña utzi iñudan. Nerea egin banu, ez nin orain orrela ibili bearrik.

–Nik ez dit, bada, barkatuko.

–I orain ere armatua ator. Nik orduan kendutako arma biurtu egin ziot ire aitari, eta aitak iri.

–Bai; irekin ez dagoela piatzerik eta...

–Ori dek benetan egia. Ire aitak ala uste dik: ni iltzen banauk, i aukeratuko autela nere lekuan markes oiñordeko.

–Dana dala, barrabillik badek, ator onera!

Subofizialak etzuen usteko Joantxok armarik zeramanik, etzuen gogozkoa ere eta. Baiña bearrak erakutsi zion. Tranpi koxkor bat egingo zion bere leengusuari. Bestea ere, beti bezela, armatua zetorren.

Ala ere, Joantxo, bere biziiaz etsia balego bezela, urbildu zitzaion, itxurak egiñez, burruka ori nola egin baldintzak eskatzera. Irri maltzur batekin artu zuen etsaiak, pistola erakutsiz:

–Aurrekoak bezela, i ere nere sarean erori aiz.

–Zer esan nai uke orrekin?

–Oso-osorik nere eskuetan agola.

–Arrokeri puska bat badarabilkik. Bakar-burrukan menderatu ituala denen aurrean kontari jardun aiz. Armarik etzeramaten lagun gizarajoak il ituan orduan? Nik banekiken ori. Ire aitak ere bai. Ala ere, ez iñun zigortu, beste leku baterako aukeratu aukalako.

–Egia diok. Orain i ilko auten bezela il nizkin aiek ere. Aitak berak zirikatuta natorrek. Au dek ire azkeneko ordua.

Joantxok luzatu egin nai zuen beren dueloko moldaketa ura, bere etsaiari konfiantza osoa emateko. Baiña ordurako zer egin ondo pentsatuta.

–Utziko didak orduan arma billa joaten?

–Bai, bai. Igoalean egin bear diagu.

Baiña pistola txar ura etzuen eskutik uzten, eta Joantxo gogorrean astea etzan ausartzen. Besteak lotsa aundi gabe atzetik sutuko baizion, besteei bezela. Gero kobarde etsaiari esan. Bera zan olakoa. Arro-arro ala agindu zion:

–Oa eta ekatzak. Ez nauk leen bezela arrapatuko.

Joantxok etzeukan presarik. Izbidea ematen zion, konfiantza alegia. Asarretu zan etsaia. Daldaraka urduri jarri zan. Leengoa zeukan gogoan.

–Joan adi leenbaileen. Bestela, bertan ilko aut. Laguntzaren itxaropenetan al ago? Garai ontan emen etzebilek iñor.

Joantxok ere pistola eskuan zeraman; eta, itxuraz arma billa abiatu zanean, subofiziala lasaitu zan, eta ori nai zuen Joantxok. Etsaia apuntatzen asi baiño leentxeago, aurrera joan bearrean, buelta eman zuen bixi-bixi eta sutu zion. Erdiz erdi arrapatu zuen, eta gure subofiziala zerraldo erori zan. Baiña ez oraindik illa. Azkenetan bere arma eskutik erori zitzaion beiñepein.

Etzan Joantxo etsaiak uste bezin tontoa. Oni jarri zion sarea, beraren buru gaiñera erori zitzaion, benetako uste-gabekoa. Lurrean zegoen lekutik alako amorruzko begiratu bat egin zion; baiña berandu eta alperrik. Besteak ere ik erakutsia ikasi dik.

Bazterrera joan eta buruan ostiko bat emanez:

–Oso-osorik nere eskuetan ago. Kaka egiteko ere ez dek balio. Baratzako txoriak izutzeko aproposa aiz. Ire aitak dizkik erru guziak. Nik ere maite diat nere bizia.

Beste tiro batekin bukatu zuen aren agonia.

Arrastaka eraman eta itxasora bota zuen.

Gero, *salvavidas* bat artuta, bazter batean ezkutatu zan. Prantzia aldera zijoazen ontzia konpontzera. Beste iru orduan etzuten ikasiko gertatuaren berri. Ori dena aurrera-tuko zuen. Bertan ezin ziteken geratu. Illaren aitak ez bai-zion barkatuko.

Joantxok illunabar artan negar egin zuen. Indarkeri eta elkar iltze orrek etzioten onik egiten. Etzuen beiñepein besterik ilko.

Seguru bazekien, gudaiburuak ezik, beste denak bera-ri arrazoi emango ziotela. Denak subofizialaren beldurrak zeuden, arek ezkuturen batetik sutu eta iltzeko.

Arraia pasa eta gero sarea

A PARITARAKO deia egin zutenean, arritu ziran tenientea eta subofiziala palta ziralako. Nonbait barruan egongo ziran. Parrandan beiñepein ezin zitezken ibili, ontzia itxas zabalean zebillen eta. Arritzekoa zan palta ziranak aiek biak izatea, gudari batzuek bazekiten txakurra eta katura bezela zebiltzala elkarrekin eta. Gazteak zaarrari bere eskubideak ostu zizkiola eta duelora desapio egiten ziola ere bakarren batzuk jakiñaren gaiñean zeuden ordukoz, iñoren aurrean ez bazuten aipatu ere.

Apaldu zutenean, gualburuaren aginduz –onek bazekien gutxi gora-beera zer gertatzen zan, eta errurik geienak bereak zirala ere bai–, egin zuten alako azterketa bat. Odol arrastoak billatu zituzten, baiña aien aztarrenik ez. Ontziaren txoko guzietan ibili ziran, baiña etzuten oietako iñor arkitu. Illak edo biziak, aiek palta ziran andik.

Odol arrasto aiek norenak ote ziran? *Salvavidas* bat ere palta zala. Dirudienez, bietakoren bat bizi zan itxura.

Norbaitek oroitu erazi zien arek tiro bat entzun zuela, eta olako lekutan. Odol arrastoak ere an billatu zituztela.

Joantxorekin jolasean ibiltzen zan arek gogora erazi zien zaarrak gazteari bakoitz-burrukara desapio egiten ziola.

–Ori dena egia izango da. Baiña non dira berak?

–Barrun ontan beiñepein ez dira ageri.

–Zer garaitsutan entzun dezu tiroaren otsa?

–Bostak aldean gutxi gora-bera.

–Zalantzarik gabe bakar-burruka egin dutela. Eta non dago illaren gorputza?

–Baiña ez al dira bi palta?

–Bai; leen ere esan degu: tenientea eta subofiziala.

Naigabetu zan nagusia, palta zanetako bat bere semea zalako. Bestea, berriz, markesarena. Onek etzion kezkarik ematen. Semeak bai, ordea; eta bietan illa ere ez ote zan bere semea izango? Bestela, etzeukan zertan iges egiñik. Zalantza ortan geratu zan. Ura bazan illa, bere asmoak ez ote ziran uts geratu?

Iltzailleak iges egin zuen, bada. Bai; itxurak ala ziran.

–Eta nor da illa eta nor iges egiña?

–Seguru esateko, ori ez dakigu.

–Ea besteren baten lana dan ori...

–Norbait illargitik jetxi ote da, bada? Itxas zabalean goaz eta...

–Gero pentsatuko degu ortaz. Itxasora eroriak badira ere, bat illa eta bestea iges egiña, salbatzeko ez daukagu zer egiñik. Bostetan zala tiro otsa. Pasatako bidea aztertzea alperrikako lana da. Ez degu ezeren aztarrenik billatuko, geroztik milla asko igaro ditugu eta.

–Ez det, bada, nik ori barrukoena lana danik uste. Bat beiñepein gudari ximple auek maite zuten benetan: Joantxo, tenientea alegia. Ori ez da guk illa, goikoen lana ez bada. Berak erantzun bearko dute.

Nagusia kezketan zegoen, bada. Bi aietan nor ote zan illa eta nor iltzaillea? Onen beldurra etzan besterik. Markesaren semea kendu nai zuen bizien artetik. Orduan bere semea izango baizan oiñordetarako. Leenengoa berak zirikatu zuen ortara. Baiña, zoritxarrez, berea izango zan illa, eta bestea iges egiña. Baiña itxasoan galdua onuzkero ura ere. Alperrik bi eriotz.

Beste norbaitek ere berritu zuen leen kontatua: txakurra eta katua bezela zebiltzala; zaarrak gorroto ikaragarria artu ziola gazteari; au baiño leenago zala gudaroztean; eta, urtez ere zaarragoa izanik, bestea bere gaiñetik jarri zutelako, eskubideak lapurtu zizkiola; ura iltzen bazuen, berriz, markesaren oiñordeko bera geratzen zala.

–Neronek entzuna illunabar batean.

–Eskubideak? Irabazi egin bear ditek gudaroztean. Zarra goa izana bakarrari etzaiok begiratzen. Egindako lanak, zuzen ibiltzeak, geiago ikasia izanak, pakezalea, doai oiek guziak begiratzekoak dituk, bat karguan jartzeko. Askotan, ori dena zapalduta, entxufeak irabazten dik. Ala ere, kargua artu duenak etzeukak errurik, eman dionak bada ere.

–Tiroka egin badute duelo ori, markesaren semea izango dek galduan. Onek armen berri gutxi zekiken oraindik.

–Ez dituk beti geiena dakitenak ondoena ateratzen.

Gudaroztean azterketa bat egitekotan geratu ziran, bada, gudalburuaren aldetik bere burua zuritzeko noski.

Aiek biak galdutzat jo zituzten. Etzuten soñekorik urratu, ez naigabe aundirik artu ere. Aien lekuak besteren batzuek artuko zituzten. Palta ziranen kaska-gogorkeri ura etzan denentzat gaizki etorriko, gudaroztean zai zeuden gazteagoak ere baziran eta.

Egun batzuk igarotzera eta ontziari erasoaldi batean egin zizkieten matxurak konpontzera zekarten ontzia Prantziako kai batera. Soldaduentzat etzan nolanaiko atsedena kaiola artatik atera eta egun batzuk errian aske igarotzeko.

Joxepak eskutitz bat eman zion markesari. Onek, irakurri zueneko, serio-serio ala esan zuen:

–Orra gure azkeneko itxaropena.

–Zergatik diozu ori?

–Ia illabete bai omen dala, Joantxo palta dala itxasonztitik.

–Orduan gaiñean ditugu berriro illetak –zioten bi emakumeak.

–Seguru jakin arte ezta pentsatu ere. Emen illetarik ez da ospatuko. Ezta udaletxean bajarik egin ere. Ortarako, gerora ere ez degu egokieraren paltarik izango. Nork daki or zer gertatu dan? Zoritxarrez egia izango da. Baiña ez gaitezen presakaegi ibili. Itxasonztitik palta dala ez du

besterik esaten eskutitzak. Nor daki ez ote duen iges egin ere? Eta, azalduko balitz, gu eman saiatuak kalte egingo lioke. Osabak egindako eskutitza da. Obe degu, badaezbada, ixilik pasa. Itzegiteko ordua etorriko zaigu gero. Berrri au oso susmurgarria da. Esan dedanez, gure osabak idatzia. Bere semetakoren bat aukeratu nai luke gure oiñordeko bezela; eta, Joantxo galduarekin, bidea libre geratuko litzaioke bere ustez. Baiña ura gabe, edo arekin, bizi bada, emen guk nai deguna sartuko da. Illa bada ere, azterketa on bat egin gabe ez da geratuko eriotz ori.

–Jainkoak gorde gaitzala arrano oien atzaparretatik –zior erremindua Joantxoren amaordekoak, markesaren iritzia ontzat artuz.

Osaba-illobak

Bi gazte aiek galdu ziralako, etzuen jendeak negar askorik egin, beren elkarriketa zikin orrekin. Or konpon zitehela. Aien lekuak betetzeko beste batzuk zai zeuden.

Ontzi artako guda burua, bada, markesaren osaba zan. Baiña senar-emazteak, biak, etzuten begien aurrean ikusi nai, arro eta aundizalea zalako.

Markesen etxean aur txikia ikusi zuen arte, onek bere semea zeukan aren oiñordeko bezela aukeratua. Azterketaren bat ere egin omen zuen aurtxo ura, Joantxo, nonbaitik erosita ekarri ote zuten. Berena ez beiñepein. Norbaitek aurpegira bota ere bai:

—Eta iri zer? Besteren etxeak naastu nai al dituk? Aiek etxeko martxa berak nai duten bezela jarriko ditek. Edo ire seme barrabas oietakoren bat sartu nai al uke?

Leendik ere osaba zakar ura begitan zuten; eta, esames auek guziak markesaren belarrietara iritxi ziranean, sumindu ziran senar-emazteak, eta geroztik *persona non grata* zan ura fameli artarako.

Markesak izan zuten bigarren semea illa zala bazekien. Orain zaarrena nola galdu zan, berri kaxkar ura eman bearko ziola.

Bera ere, ordea, moztua geratu zan. Etxera etorritakoa ez baizuen itxasoan galdutako semearen aztarrenik atera. Iges egiña ote zan? Itxaropen ori zekarren. Markesaren semeak utzitako traste pixarrak zekarzkien berekin.

Euskal Erriko bazter zoragarri bat zan markesen jauregia. Etxea, baratzak eta zugaitzak bikaiñak zeuden. Markesak ondo zaintzen zituen itxura. Orain ere agian an ari-

ko zan, bere eguneroko negozioen gora-beerak bukatuta. Uste bezela, an arkitu zuen. Etxea eta bere inguruak ain zoragarriak bazeuden ere, barruan egongo zan negarra eta tristura. Eskutitza artua izango zuen onuzkero, eta bere bi semeak egun gutxiren barruan galdu eta gero.

Etxera baiño leen, gure markesa baratzan arkitu zuen. Illunabar aldea zan; eta, beste lanak bukatutakoan, ango igali zugaitzak iñausten ari zan.

Gizon alai eta iztuna berez, ator beltz batekin ikusi zuen, bi semeen eriotzagatik noski. Ez, leen azkeneko bixita egin zionean bezela, txistu eta kantu. Bertso zalea bai-zan gaiñera. Oso triste eta pentsakizunez betea arkitu zuen.

Buruaste gaiztoak edukiko zituen gizarajoak. Aspaldian etzuen ikusi; baiña oraindik gizon dotorea eta sasoi-koa zegoen gure markesa. Naigaberik aundiena igaroa izango zuen ordurako, egunak ziran-eta jakiñaren gaiñe-an zegoela.

Baratzako atea zabaldu eta lanean ari zan lekura joan zitzaion:

–Kaixo, Iñazio.

Markesak ala zuen izena.

Onek nor zan ezagutu zuenean, etzion grazi aundirik egin. Joantxo galdutako erruak, denak ez baziran ere, geienak bereak izango zirala uste zuten senar-emazteak. Alare maitasunez artu zuen.

–Ongi etorria, Jeronimo. Etziñudan aspaldi ontan ikusi. Bukatu al dezute itxasoko ibili ori?

–Bai; oraingoan illebete batzuetarako noski. Gure soldaduentzat ez dek gaizki etorriko, egunen batzuk lasai pasatzeko. Luzatu ezker, itxas gain ori aspergarria dek. Urrundik gatozik, Madagaskarreraño joan giñun, eta andik etorri gaituk katazka etxeraño.

–Guda bukatu ote dan otsa dabil emen.

–Ala zirudik. Ez gaituk bolara batean itxasora aterako. Pakeak egiteko moldaketan ari dituk. Gu galduan azkene-

an. Ingeles zikin oiek kendu zigutek gure mende geneukan barruti txiki bat. Gu baiño burutsuagoak dituk.

–Irabazi duenak ere etzuen ortik negozio aundirik aterako. Ez dute, berriz, onean elkarrizketan konpontzerik nai izaten. Eta eraso gaiztorik izan al dezute?

–Bai bat baiño geiago ere. Eriotz eta guzi gaiñera. Orain atzean bizi bearko diagu. Bestela oitua dagoen bantentzat ez dek atsegiña. Gudan maiz gertatzen dituk ola-koak. Urean eta legorrean ere bai.

–Gu ez gera itxasoan ibili, baiña jipoi ederra artu degu. Ez degu noski geiago bururik jasoko.

–Beltzez jantzia ikusten aut, bai.

–Seme txiki bat izan genduen beranduan. Amairu urteetara arte, ez bizi, ez il, guritasun guzien artean eduki ondoren, oraintxe berriro joan zaigu mundutik. Txiki ori il zanean, zaarrena laster bilduko zala-ta, geronekoan artu nuen beste berri ikaragarri bat, zuk bialitako eskutitzak zekarrena. Iru edo lau egun aietan etzendutela aren berri-rik. Nik ez det oraindik etsipenik artu. Ala ere, penak arintzeko onera etortzen naiz. Emaztea benetan naigabeta eta eroria darabilkit. Eta zure semea ere aztarrenik utzi gabe urean galdu zala esaten zenidan.

–Bai. Ez dek bakarra. Nere semerik zaarrena ere arekin batera galdu dek. Biak dueloa egin omen zutela. Bietan bat bazekiagu illa dala. Baiña ori nor dan ez. Iges egin zuenak urera bota zin il zuena. Baiña bera ere arraiak irentsia izango dek onuzkero.

–Dueloa egiteraiño asarretzeko zer gertatzen zan, bada?

–Eraso batean tenientea il ziguteken, eta aren ordeko ire semea aukeratu genian, paketsu eta gizonagoa zalako. Nere semeak, berriz, bera zala leenengo. Ortik sortutako ixkanbilla. Ixil-ixilik berak egindako lana ditek.

–Ori, osaba, etzait oso sinist erreza, nere semea ez badute ortara beartu. Arek etzekien armen berri. Etzituen maite ere. Ainbeste urtean oien erdian bizi dan baten aur-

ka nola joango da, bada? Gaiñera, ixil-ixilik, iñoren berri gabe, duelora? Ni agintari egon banintz, etzuten olakorik egingo.

–Ori ortara gertatu dek, bada; eta ez dek noski nere susmurrik egingo.

–Oraindik iñorenik ez. Baiña aalegiñak egingo ditut or zer gertatu dan ikasten. Ontzi ortan aurrera samar dabilena badet adiskide maitea.

–Eskubide osoa daukak, illoba; eta laguntzen diat nalgabeen. Baiña il danik seguru etzekiagu, garbi esateko, gorputzik ez diagu billatu eta. Baiña bietan bat badek iges egiña, *salvavidas* eta guzi gaiñera.

–Nik badaukat dirua. Negozioak ondo daramazkit. Baiña nekatua eta aspertua nago. Etxera natorrenean, «Aita! Aita!» oiuka seme edo alaba bidera ateratzea, ori da benetako aberastasuna. Ez dirua. Etzaitu orrek bakarrak zorionekoa egingo. Etorkizun tristea dauka orain gure fameliak.

–Bai. Ortan arrazoi dek, Iñazio. Leen ere esan dit. Niketzekiat besterik: bietan bat badala illa. Nor dan ez, orde. Agian zuena izango dek iges egiña, eta gure biurria dueloan il eta itxasora jausia.

–Ametsak, Jeronimo, geienok mundu ontan ortatik bizi gaituk eta. Armen berri etzekien nere semeak. Arazo au oso illun dago. Ikusiko degu nolako aztarrenak ateratzen zaizkigun. Bitartean, burua makurtu eta umil-umil au daukat esan bearra: gizonak ekin eta Jainkoak egin.

–Iñazio, minberegia ago, leku ori beteko luteken semeak badauzkat eta.

–Gure ixkanbil guziak ortatik datoz. Alperrik ukatuko dezu. Etxe ontan dirurik eta negozio onik ez balego, gutzaz etzan iñor ere oroituko. Garirik ez dagoen tokira ez dira joaten txoriak. «Oietakoren bat aukeratu bearko» esan nionean, badakizu nere emazteak zer erantzun zidan? «Naiago nuke ijitokume bat aukeratu, orren semeetakoren bat baiño».

–Alajainkia! Orren gorrotogarriak al gaituk?

–Zerbait pentsatu bearra daukagu. Zoritxarrez zure semeetakoren bat jarriko balitz, laster lur jota utziko luteke gure etxea.

–Bai. Arrazoi pixka bat badaukazute ortan. Nere semeak izan arren, ez dituk trapu zuzenak. Baiña Joantxo ez bada ageri, aiek dituk leenengo.

–Ori gero erabakiko degu. Gure etxean gu gera nagusi. Zer dakartzu maleta ortan?

–Ire semeak utzitako traste pixarrak.

–Nai badezu, eraman emazteari. Bestela, utzi emen. Nik eramango ditut.

Biak agurtu ziran, eta osabak etxeakoandreaki eraman zion maleta txar ura.

Markesak beren osaba etzuten gogozkoa.

–Jakin nai nuke zer gertatu dan or, gizon gosea eta ezin asea da ori eta.

Ori esan eta bere lanean jarraitu zuen markesak «Pollita izango litzake bestea il eta nere semea iges egiña izatea».

Sekula baiño lotsagabeagoa omen zegoela. Joantxo ez bazan azaltzen, bere semeak zeudela oiñordeko, markesak nai bazuen eta ez bazuen.

Gudalburua, beren osaba, markesei beren semearen gora-beerak eman eta joan zanean, ala galdetu zion emazteari:

–Zer moduzkoa iruditu zaizu osaba?

–Beti bezelakoa. Baiña bere diru gosea eta agindu naia goraka. Berena omen da etxe au, eta orren semearentzat emengo markesgoa.

–Orduan guk batere gabe joan bearko degu, dena oientzat utzita.

–Etxe ontan denentzat badagoela lekua esanda aldegin dit.

–Gizon orrek ez digu gure semea nola galdu dan pularmentuzko argitasunik eman.

–Orixe pentsatzen nengoen ni ere. Galdu dala, arekin batera, bere seme bat ere. Zer pulamentuzko nagusia degu ori, bere kargu daukan intxasontzi bateko berri ez jakiteko? Beste bideren batetik ikasi bearke –zion emazteak.

–Eta oroitzen al zera orren semea dala gure oiñordekoa, berak dionez, Joantxorekin batera? Zaarrena il bazaio ere, baditu beste zein baiño zein lotsagabeagoak. Aitak orrela pentsatzen badu, etzaio semea atzetik geratuko.

Bere iritzia erakustera etxera etorri zitzaizen, arro-arro egiña. Etzuten begien aurrean ikusi nai. Baiña, Joantxo ez bazan azaltzen, naiko buruaustek emango zizkien markes gizarajoei.

Bere kañoi eta guzi etortzen bazan ere, etzuten aren semerik markesetarako artuko. Etxea eta tituloa berenak zituzten; eta, oiñordekoa aukeratzeko beren esku zeukate-la, leenago salduko zuten dena.

–Il danik ez dakigu, gaiñera, seguru esateko, bere gorputzaren aztarrenik ez dute arkitu eta. Baiña bietan bat badala, etsaia il ondoren, iges egiña, osabak dionez, *salva-vidas* bat ere palta zala eta. Osabaren semea gailen atera balitz, etzeukan iges ibili bearrik, bere aitak alegia babes-tuko zuela, leenagoko eriotzetan bezela. Ez da, gaiñera, beti armen berri geiena dakiena gailen gertatzen. Ateratzen danak nonbait sartu bear du. Osaba zalantza gaiztoan dago, ez ote dan bere seme biurri ura illa izango.

Etzeukaten oraindik zertan itxaropena galdurik. Bada ez bada beiñepein, senar-emazteak bat egin bear zuten, elkar artu eta osaba gose ari aurpegi emateko. Beren iritzia bateratu. Baiña emazteak garbi zion:

–Leenago joko degu ijitoetara, enda biurri oietakorik sartzen utzi baiño.

Oraindik arazoak garbiago azalduko ziran. Markesak aalegiñak egingo zituen beiñepein. Gertatu zan ori oso susmurgarria zan. Osabak ez baizuen ezer ere garbitu. Etorkizunari itxogin eta aurreak erakutsiko zien nola dantzatu atzea.

Igesa

LEEN esan degunez, illaren gorputza artu eta, malkoak zerizkiola, zegoen bezela arrastaka eramanta, itxasora bota zuen arraien janari. Berak ere beste orrenbeste egingo zuen. Baiña suerteak berari irripar egin zion.

Urrengo egun guzia galdu omen zuten aien billa. Baiña aztarrenik etzuten arkitu. Berak ere, Jainkoak suerte on bat ez bazion ematen, illaren martxa eramango zuen. Arraiak etzioten barkatuko. Zeraman laguntza ere kaxkarran. Urruti zegoen, gaiñera, bere iritzian andik legorra, zijoan lekura zijoala.

Iñork arrapatzerik, berriz, etzitzaion komeni. Bere pekatuaren berri ikasiko zuten. Bein *salvavidas* aul arekin bere burua bakar-bakarrik eta itxasoan ikusi zuenean, artu zuen etsia.

Errezena egin zuen aren beldurragatik. Beste markesgaiak lasai bizi zitezken. Bere begiak iturri biurtu ziran, bada, eta negarrari eman zion, ez bere buruagatik bakarrik, baita il zuen lagunagatik ere, bere burua babestu besterik etzuen egin baiña.

Itxasotik iges egiten bazuen ere, ez al ziran bere atzetik ibiliko?

Sinismen berokoa zan eta biotz-biotzez Jainkoari egin dakoaren barkamena eskatu zion. Baiña nai eta nai ezko lana. Besteak eztzion barkatuko, eta beretzat bere bizia zan leenengo. Baiña erru guziak aren aita zirikatzaillak zituen. Semearekin, au arrosko samarra izanagatik, ondo konponduko zirala uste zuen. Baiña aitaren begiak urrutira begira zeuden. Amairu urteko seme aul ura il zala bazekien. Joantxo iltzen bazan, bada, berak ziran oiñordeko.

Gizon erailtze geienak badute naaspil ortan dirua edo emakumea.

Arratsa illuna zan. Nondik nora zijoan ezin antzik eman. Ori zan beretzat txarrena. Baiña bazekien Prantzia aldera urbiltzen ari ziralala. Ingelesekin izan zuten azkene-ko erasoan, ontziak aien arantz txorrotxak artu zituen, eta ango kai batera konpontzera zekarten.

Berak iges egin zuen ontzia atzetik aurrera igaro zitzaion, eta agur egin zion:

–Berriz ikusterik izango ote det? Ume kakatsu baten-gatik alperrikako itxillu auek guziak!

Egun aietan egundoko aize eta enbata erabili zuen. Itxaso zikiña zetorren. Urak zekarzkien enborrak ukuitzean, tiburoiak ziralakoan, gazteari jauzi egin arazten zion.

Itxasoko agoni ura luzatzen bazan, igertzen zion etzuela iraungo. *Salvavidas*-aren laguntza ezer gutxi zan. Lo egiten ere etzion utziko. Baiña, leen esan degun bezela, enbata atera zuen egoartean, eta enborrak bazekarzkien urak bere joaneran.

Alako batekin topo egin zuen, Joantxoren pisuari ondo eusten ziona. Zaiñetik buru-adarreraino osorik zijoan enborra, eta etzitzaion uraxe gaizki etorriko. Arrapatzen bazuen, etzan arritzekoa izango. Arrapatu eta enborraren buru-adarrari lotu zitzaion, eta orduan etzeukan ondortzeko beldurrik. Askoz seguruago ikusten zuen bere bizia. Urak bere joan alean zeraman enborra, eta batere nekatu gabe ibiliko zan. Bazterren batean geratuko zan itxaropena bazeukan.

Itxasoari botatzen zaizkion zikinkeriak, astunak ez bada beñepein, berriro lurrari biurtzen dizkio.

Itxasoan bakarrik, bere burua neurririk gabeko putzuan ikustean, igertzen dio batek gizonaren ezereza. Bere Egillearen aurrean arroputz biraoka erasoko dio. Joantxok sinismen beroa zeukan ezkerre, aren babespean utzi zuen bere bizia. Baita laguntza ere Guadalupeko Amari. Maitasun otz samarra bazion ere, amaordekoak itsatsi zion mai-

tasun ori, benetako eranspena. Ea suerte on bat ematen zioten, eta ea bere zai zeudenak zoriontzen zituen. Etzan asiera txarra, nekerik gabe zijoan eta.

Zearo galdua zebillen. Indarrez ezin zezakeen ezer ere egin. Jaungoikoak bere ibillerak zainduko zituen itxaropenik etzuen galdu. Gau bat igaro zuen, eta egun berri baten jaiotzarekin poztu zan. Itxasoa orraztuz aizea zebillen, eta otz samarra gaiñera. Baiña euririk etzuen egin. Oskarbi baizegoen, polliki-polliki ari zan eguzkia gora eta gora, eta inguruak garbitu alean berotzen. Baiña etzan oraindik legorrik ageri.

Orduan gogoratu zitzaion, baiña beranduegi, bear-be-arrezko gauzak aztu zitzaizkiola, batez ere zer jan eta edana. Aukera edukitzen zuten, eta denboraren paltarik ez, berriz. Bestea, brujula. Bere orratzak beti iparraldera markatzen du. Orain, berriz, etzekien non zebillen. Bidea erakusteko etzuen ezer. Agoniak luzatzen bazuen, kito.

Orduan oroitu zan gure gaztea mariñel zaarrak bazutela beren brujula, aspalditik bidea erakusten ziena: norteko izarra. Orain ordezkoa brujula dute. Zorioneko izarra! Amaika itxasontzi, galduta zebiltzanak, orrek zuzen erazten zituen ezin billatu zuten bidera. Oraindik baserritar askok orri begiratzen diote, zuzen ote dijoazen igertzeko.

Nere gaztetan ipuiak kontatzen asten ziranean, galdutako ontziak zuzenbidera ekartzeko garrantzi aundia ematen zioten izar orri. Oso maitea zuten norteko izar au. Beti geldirik dagoela dirudi beiñepein. Iparrean oskarbi dagoenean, ari begiratzuz badakite nortea edo iparra non dagoen; eta galdua dabillenari norako bidea artu bear duen arek erakusten dio.

Eguna joan zan geldi-geldi, eta illunabar aldera ontzi bat igaro zitzaion inguru samarretik. Batek bai ikusi ere noski, eta oiu egin zuen;

—Or norbait badabil galdua.

Erantzun au artu zuen, etzioten sinistu alegia:

—Emen bizirik iraungo duen amaren semerik ez dek.

–Jokatuko nitek burua gizona zala ori.

Baiña Joantxok etzuen arrapatzea nai. Bidean galtzea naiago zuen, iñoren eskuetan erortzea baiño. Bestela, bere pekatu eta ixtilu guziak argira azalduko ziran beldurra zeukan, eta berak artu nai zuen martxarako ori etzizaion komeni.

–Gizon bat uan. Urak zeramakien.

Bera zijoan bidean bi itxasontzik eraso gaizto bat eduki baizuten, an ildakoren bat izango zala.

Gosetu zan, baiña egarria gaiztoagoa omen dala gosea baiño. Oraintxe bere iraupena aultzen zijoan. Ala ere, nekeak etzuen larritzen. Bidean arkitu zuen enborarrari eskerrak. *Salvavidas* kaxkar aren laguntzagatik ondoratua zan.

Guda gaiztoa zebillen itxasoan, eta bi itxasontzik, prantzes eta ingelesak, topo egin zuten. An ziran oiua eta ixkanbillak.

–Gora Ingalaterra! –zioten ingelesak.

–Gora Prantzia! –berriz, bestek.

Bereala azaldu ziran sutunpen argiak. Orrua ere bai. Baiña gaiñetik eragin zioten, ingelesak beiñepein; eta, txistua zeriotela, Joantxoren gaiñetik igaro eta aurreraxea-go sartu ziran itxasoan. Illun samar zegoen eta prantzesak ere uts egin zuten.

Baiña ingelesak igesari eman zion, eta arrazoi pixar bat ere bazuen. Prantziako mugatik bertan zan eraso ori, eta auetako beste ontzi bat atera zan burrukara, eta ingelasa erdian artu zuten. Ondo bearrean sartzen dira burrukara. Bestela, ez ikusia egin eta aurrera bakoitza bere bidean.

Illunabar aldera, urak bere naiera zeramala, kaioa edo itxas-txoria gertatu zitzaion Joantxori buruan. Poztu zan. Txori auek itxaso asko maite dute, baiña legorra geiago. Ortan igerrri zion etzegoela legorretik urrun. Nongo bazterra arrapatuko zuen ezin jakin, baiña laster iritxiko zala bai.

Arratsa benetan illuna, eta urduri igaro zuen, goizean non arkituko zan eta zer ikusiko ote zuen beldurrak.

Argitu zuenean, lanbro arin batek artuta zegoen itxaso; eta, polliki-polliki garbitu zuenean, gure Joantxok begiak aurrera luzatu zituenean, an ikusi zuanarekin arritu eta poztua, atsegiñez eta zoriontsu ala oiu egin zuen, grezitar Pitagoras-ek garai batean bezela:

–Eureka!

Zer ikusi ote zuen? Eguzkiak argi-argi egiten zuela, Guadalupe, Jaizkibelko egalean. Jaunari eskerrak, salbatu zan.

Biotz-biotzez agurmari bat erreztatu zion Guadalupeko Amari. Orrekiko eraspén ori, leen esan bezela, amak erakutsi zion.

Beraz, Ondarribian zegoen. Bertako erria ere ederki ikusten zan, eguzkiaren musu berora argi-argi. Geldi-geldi urbildu zan legorrera.

Ondarribian

ORDUAN Ondarribi txikiago eta egokiera gutxiagokoa izango zan. Gaurko aurrerapenik gabea, alegia. Begientzat agian ikusgarriagoa. Aurrerapenak edertuko du eta bertako bizimodua erreztu. Baiña berezko ura galdu.

Ondartzako bazter batean geratuko zan, bada. Baiña, zoritxarrez, ondartza gaiztoa zegoen. Aizea baizebillen. Bestela, oiur egingo zuen. Ez baizekien ango berririk. An jaioa zanik ain gutxi.

Ixtillu oiek guziak igaro ondoren, an jo zuen bazterra. Baiña etzuen uste inork ikusi zuenik, eta bazterrik bazter, busti-bustia, ezagutzen etzuen errira sartu bearko zuela, jendearen arrigarri. Karrikan modu artara ikusita, zer esan bear zuten?

Baiña giro gaiztoa bazegoen ere, ondartzan bazebiltzan iru gazte, bere zorionerako. Aiek ikusi zuten enbor baten gainean norbait nola sartu zan ondartzako bazter batean. Itxasoan galdutakoren bat izango zala noski.

Lasterka joan ziran irurak. Baiña zijozenak, badaezbada, kontuz, sartu zanak ere berdin pistola baizeraman, inguru aietan beti bazebiltzan gudan eta. Etzekiten eusker beste izkuntzarik ondarriritarrak, eta artara galdetu zioten. Sartu zanak berdin erantzun zien. Etzuten asko pentsatuko laurak, euskaldunak ezik, benetako anai-arrebak zirala. Askatzen lagundu zioten, enborren adar bati lotua baizetorren.

–Igesi al zatoz? –galdetu zioten.

–Bai; alatsu –erantzun zien–. Inghlaterra eta Prantzia gudan dabilta; eta, ingelesen eskuetan ez erortzearren, iges egin det eta enbor oni eskerrak salbatu det nere bizia.

Etzuen egi osoa esan.

–Eta urean zenbat ordu igaro dituzu?

–Orduak diozute? Egunak ere irutaraiño beiñepein, ezer jan eta edan gabe.

–Jesus! Orduan auldua etorko zera?

–Pentsatu besterik ez dezute: iru egun eta arrats luzetan ezer jan eta edan gabe nabil.

–Atoz, atoz gurekin. Pozik lagunduko dizugu. Ostatua da gure etxea.

Enborretik askatuta, iruen artean etxeraiño lagundu zioten.

Beren gurasoak, gutxitan bezela, elkarrekin zeuden; eta, beren seme-alabak mutil gazte batekin zetozela ikusirik, ala galdetu zieten:

–Nor dezute gazte ori?

–Ez dakigu. Prantzesa omen da. Baiña euskeraz ederki daki. Gudan dabilta eta, etsaien eskuetan ez erortzearen, iges eginta datorrena.

–Ederki egiña. Ez da gutxi –zioten gurasoak.

Baiña gero beren artean:

–Igesi dabillen lapurren bat izango dek.

Etzuten sinistu egia zionik. Or konpon! Justiziak arrapatuko zuen.

Erropa legorrak jantzi, zerbait jan eta edan eta atse-dentzera joan zan.

–Onek gezurra esaten dik –zioten denak–. Au norbait il eta igesi dabillena dek. Salatu egin bear diagu –zion Gizontxok.

–Kontuz. Zerorri ere naiko naspillatan ibilia zera. Etzazula iñor ildako konturik berritu.

–Ezta pentsatu ere. Pozik eramango nuke gure ontzian Prantziara.

–Ezta ori ere. Norbaitek itzegingo du.

Egun batzuk erdi gordeka igarota, ikertxo bat egitera Guadalupera igo zan Joantxo. Bidean topatu zuten geie-

nak susmur txarra artu zioten. Bai berak antzeman ere. Ango apaizak galdera batzuk egin zizkion, eta gazteak garbi-garbi erantzun:

–Ni Baionako markesaren seme bakarra naiz, eta gudako ontzi batean nenbillen. Gudalburua nere osaba zan eta bazituen semeak. Ni galtzen banintzan, aietakoren bat geratuko zan oiñordeko. Orregatik, duelo bat egitera berartu niñuten, eta nik irabazi. Bestea zerraldo erori zan. Esan bezela, aren aita, nere osaba, zegoen nagusi eta zirikatzaille. Eta, jakiña, arek zeukan oiñordekoa nere eskuetan erori zanean, banekien galdua nengoela, eta iges egin nuen. Ori da nere pekatu guzia. Ni teniente nengoen, eta ura subofizial. Duelo ori nere naiaren kontra egin genduen, arek seguru irabaziko zuelakoan. Baiña ez da beti iaioena ateratzen gaillen. Emen egun batzuk igaroko ditut kontuz-kontuz. «Salatu egin bear diagu» entzun nion ostatuko gizonari, eta ijito bat bezela ibiliko naiz, beti leku jakiñean egon gabe.

–Orduan zu markesaren semea zera?

–Bai; eta seme bakarra gaiñera. Anai gazteagoko bat banuen, aula. Il berria da. Amak erantsi zidan, bada, Guadalupeko Amaren eraspena

–Ezta batere arritzekoa, emen ezkondu ziran eta. Gerroztik ere izan dira emen.

Ondarribian pasatako egunetan ikertxo batzuk geiago egin zizkion erriari. Baiña agoazillak ere egin zion bere ikertxoa, Guadalupera igotzen zan gazte arrotz baten berri jakin nai zuelaepaileak, eta olako ordurako auzitegira jexteko. Abisu ori eman zion apaizak, baiña aolku onekin:

–Obe dezu ixil-ixilik aldegin, oien eskuetara makurtu baiño leen.

–Eskerrik asko.

Ondartzan lagundu zioten gazte aiek agurtuta, ixil-ixilik galdu zan. Anai-arrebak izaki eta elkar ezagutu gabe; eta gurasoak berdin.

Markes-etxera sartu baiño leen, ainbeste supri erazi zion eta il berri zan anaiaren illobiari ikertxo bat egin zion. Lore xorta bat jarri zuen illobi gaiñean; eta, arri otzari musu emanaz, gordeka-gordeka andik ere galdu zan. Baiña ez iñork ezagutu gabe, bere ezagun maitagarri bategen ikusi eta gero egin zuen eta.

Arritu zan au. Egun batzuk baziran iltzat zeukatela. Joxepa zan ikusi zuena. Ura iruditu zitzaion beiñepin. Markes-amari esan ere bai:

–Ez dakizula nor ikusi detan?

–Zer dakit nik? Ainbeste ikusiko zenituen bide ortan...

–Zuretzat eta neretzat maitagarria, datozen egun aue-tan bearrezko gendukena. Joantxo iruditu zait neri, il berri dan anai txikiaren illobian loreak jartzen.

–Bai, beti buruan ori dabilkizu eta...

–Ez, etxeoandre, ez. Bestela, ondo igoala da. Gaiñera, beste nork joan bear zuen il berria dan zure semetxoa bisitatzeraz?

–Ura ez beiñepin. Ura ez da oroituko gutzaz.

–Ez ikusia eginda, aldegin nuen. Laster emen azalduko dan itxaropenik ez det galdu.

–Joantxo or badabil, itxura ona da osabarentzat. Ai zer nolako ipurdikoa! Seguru omen dago bere semetakoren bat aukeratuko dutela oiñordeko.

–Noiz da batzar ori?

–Arratsaldeko bostetan.

–Ai azalduko balitz!

–Bai. Benetan poztuko nintzake. Baiña emengo gorabeerengatik ez dio ajolik. Osabaren semerik ez degu artuko. Zuk esan dezun ori etorri arte, uts egongo da lekua.

Markesen etxean

MARKESAK ezin burutu zuen osaba-illoben jazarmena; eta, bein arazo ori bukatzeko, legegizon bat aukeratu eta etxera deitu zituen, goseak aleenak. Semea nola galdu zan pulamentuzko berririk etzien eman leenago osabak, eta zebillen lekuan beti gaizki esaka somatzen zuten. Gertatuaren berri ondo ikasi nai zuen, bada; eta betiko ixil erazi mingaiz zorrotz ura. Osaba-illobak bere etxera deitu zituen, bada. Aren arrazoiei erantzuteko an izango al ziran.

–Mutil ori ezin liteke etxe ontara sartu. Nik entzun detanez, bazterrik bazter txakur baten antzera omen dabil –senarrak.

–Bai, dirua duen arte. Gero izango lirake kontuak. Jau-regi au ere, ori onera sartuko balitz, porrot eginta geratuko litzake, eta seme guziak ditu igoalak. Gaiñera, ori Joxeparekin ezkondu? –zion emazteak.

–Aitak seme ori bota egin nai zuen etxetik. Orrekin famelia ondamentira zijoala bazekien. Bigarrena zintzo samarra ote duen... Ura utzi naiko du etxerako. Nik, beiñepain, legegizon baten aurrean, berri geiago eskatuko dizkiot, gure semearen eriotza gutxi gora-beera nolakoa izan dan jakiteko. Ez dakigu il danik. Bizi dan ere ez. Ontzitik galdu zala beste berri geiago gabe, nora goazke? Bere illetak ospatzerik ere ez. Udaletxean bere baja ematerik ain gutxi. Auek aal ditugun beranduena egingo ditugu, zer gertatu zaion seguru jakitean.

–Ondo egingo dezu. Or ez dago gari garbirik.

Geiago ikasi gabe etzuen pausorik eman nai. Osaba zuten eta ortarako, bazkari lege bat jarriz, jauregira deitu

bear zuen. Baita guda-ontziko jendearekin itzegin ere. Burdeoson zeuden, eta batzuk oso ezagunak zituen gainera. Baiña, leenengo, osabarekin bere semearen eriotz ori edo itxasoan nola galdu zan geiago garbitu.

Bere semea eta osabaren zaarrena galtzearekin, onen bigarrena gelditzen zan leenengo oiñordeko bezela; eta aren semerik etzuten etxe artan begien aurrean ikusi nai, ondatzailleak ziralako.

Etziran mutil aldrebesak, baiña biurriak. Aiei lekua eman baiño leenago, salduko zuten, beren titulo eta guzi, txaleta; eta bazterren batera pakean bizitzeko erretiratu.

–Joxeparen atzetik omen zebillen ildako seme ori, aita zirikatuta noski.

–Ez dakit zaarrena zeukan aita aukeratua edo ez markesetarako. Baiña ura galdu zanean, bigarrena jarri aren tokiko.

Joxeparen belarrietara iritxi zan aita semearekin izan zuen elkarrizketa.

–Markesaren bi semeak il dituk. Gure zaarrena ere palta dek. Gizonetan oiñordetzarako i augu leenengo; emakumeetan, Joxepa. Etzak gero egokiera ori galdu. Neskaren biotza irabazten badek, zalantzarik gabe irea dek markesen jauregia. Aberastasun ikaragarria zegok etxe ortan, eta interes oien eskubidearekin sartuko intzake. Ez adilla ajolagabea izan.

–Ez litzaidake gaizki etorriko. Laster porrot egin eraziko nioke.

–Bizi aizen urteetan egiñalak egiñagatik, ez uke iturri ori agortuko.

–Ni markes izatea nai zenduke orduan.

–Legez iri tokatzen zaik. Nik lagunduko dit.

–Aita, zure laguntza eta batere ez, berdiñak dira. Markesen borondateak bakarrak balio du.

–Ori gero ikusiko diagu.

Batzarra

MARKESA asarre samar zebillen. Itxasoan galdu zitzaion semea, eta etzekiten illa zan edo bizi zan. Galdu zala besterik ez baizioten, eta orrela ezin zezaketen ezer ere egin. Buru egiten zuenak etzeukan pulamentu aundirik. Osaba baten mende zegoen galdu zanean. Ala ere gaizki esaka ari zan; markesak etzeukatela seme-alabarik, eta orain bere semea zala oiñordeko.

Gertatuaren berri jakin nai zuen, bada, arazo ori bein betiko konpontzeko; eta bere emaztearen urte betetzean bazkaritara konbidatu zuen.

Ango saloi eder batean exeri ziran, bada, markesak, senar-emazteak, osaba eta legegizona, Joxepa serbitzari zutela; eta asi zuten bazkaria eta elkarrizketa legegizonaren aurrean, nork zuen arrazoi erabakitzeko.

–Barkatu galdera. Legegizon orrek nere semea nola galdu zan geixeago jakin nai luke. Zalantza ontan ezin giñezke bizi. Berdin orduan, osaba, zu ziñan aren nagusia. Galdu zala esan utsarekin ez gaude iñorako.

–Zer geiago nai dezu esatea? Nik ez dakit ezertxo ere, esan deguna besterik.

–Arraiak jana izango zala esan zenidan. Egia gordetzeko igesbide bat besterik ez da ori. Neri ala iruditzen zait beiñepein.

–Zer uste dezu: nik il nuela? –erantzun zuen asarre osabak.

Ori entzun zutenean, markesen susmurrak azi egin ziran. «Ez ote dek gero arrazoi? –zion berekiko–. Nere aurkako ezkuturen bat ez ote dago emen?».

Legegizonari ere zer pentsatua eman zion, batez ere asarre zalako.

–Olakorik ez da nere burutik pasa –erantzun zion, bestela bai-baizekien beren elkarrizketa bertan bukatuko zutela–. Baiña txetasun batzuk geiago ikasi nai nituzke, bear diran paperak egiteko bestetarako ez bada ere.

Etzion egi osoa esan. Bai-baizeukan aren susmurra. Gizon arroa zan oso. Gaiñetik begiratzen zuen oietakoa. Bere semearekin dueloa egitera nork zirikatu? Au, bere aitak ezik, beste iñork etzekien, eta non zan seme ori?

–Nik ez dakit ezertxo ere geiago: nere semea eta zurea palta dirala. Nik ez dakit esan didatena besterik. Aien gorputzak etziran iñon azaldu. Zer atera bear det nik ortik? Zure semeak etzuen ikasi ni nor nintzan. Nik bai, ordea, ura. Begirune aundia nion nik ari. Mutil ona zan, aginduetara etzana. Naiago nuke nere semeak alakoak balira. Benetako naigabea artu nuen nik, gertatuaren berri ikasi nuenean.

–Aren berri jakingo etzenduen, bada? Neronek eman nizun orrera zijoan agiria. Arek etziñula zu ezagutu diozu. Baiña nik aren bi eskutitz artu nituen zure berriekin. Berarekin gudari ibilitako batzuekin itzegin det. Beren gudaritzatik aske daude. Ni nor nintzan eta semea an galdu nuela esan nuenean, ala erantzun zidaten: bazuela gudalburuak seme bat, pistolero otsa zeukana. Duelo bat baiño geiago egiña, eta denetatik irabazle aterea. Onek beti isekarik gaiztoenak egiten zizkiola nere semeari, eta desapio desapioaren gaiñean. Onek bere eskubideak ebatsi egin omen zizkiola, eta duelora deitzen zuela, barrabillik bazuen beiñepein. Egia al da ori?

–Bai. Nik zerbait olako entzun nuen. Baiña zer esan nai didazu orrekin?

–Zuk, bertako buru ziñana, zergatik etzenduen moztu ori? Erdiz erdi arrapatua geratzen zera. Ori dena zuk egiteko lana zan: legorrera etorri arte kalabojoan sartu. Nere semeak armen berri oso gutxi zekien. Lantegi ori etzuen gogozkoa gaiñera. Pistolero batek ondatzea ez da arritze-

koa. Esan zidatenez, zure semea ala omen zan. Nola gertatu zan, ori ez dago garbi. Zure semeari ezta galerazi ere.

–Zuk ez dizkidazu nere egin bearrak erakutsiko. Nik ez nuen zure semea iltzeko asmoan guda-ontzira eraman erazi.

–Ez diot nik olakorik. Baiña, oien burruka galerazi bearrean, utzi egin zenduela. Zerorrek jakingo dezuz zergatik. Zure semeak irabaziko zuelakoan agian.

–Zer esaten ari zera zu?

–Entzun dezuna. Ori da nere susmurra.

–Garbi esateko, ez nuen aintzakoz artu, sinistu ain gutxi, nere semeak eta zureak ori egingo zutenik. Bestela, seguru bazeundeke etzutela egingo. Orain, ordea, nere semea da emengo oiñordeko, bigarrena alegia. Ori ez dago ukatzerik, eta ori irixten lagunduko diot.

–Leen esan diguzu bakar-burruka ori, egin aurretik, etzenduela entzun ere. Gero, galdu zirala besterik etzene-kiela. Garbi azaltzen dezuz zere burua. Zertan ari zera berriketan? Ordurako bazenekien, amak esanta, gure aurtxikiak etzuela ezertarako balio; eta, zaarrena zure mende nola baizegoen, ura aitzaki-maitzaki bizien artetik kenduta, zure semeetakoren bat egiten zala gure titulu eta ondare guzieren jabe.

–Zaude ixilik eta ez gaitezen asarretu, eta okerragoko beste bideren bat artzera ez gaitzazu beartu.

–Garbi asko dago ori. Zertan bota didazu aurpegira orain zure semea degula oiñordeko? Ori nere esku dago, eta ez zurean. Orren billa zabiltzala, aztarren guziak agiri-agirian daude gaiñera. Nai dituzun bideak eta asmoak artu itzazu. Nik ez det atzerarik egingo. Zure arrokeri guziei aurpegi emateko aiña banaizela uste det. Ni arrazoi osoarekin nator. Zure mende dagoela nere semea galduta, ori nola gertatu dan jakiteko eskubide osoa daukat. Due-loan illa izango omen dala. Gero, berriz, arraiak jana, iltzailleak itxasora jauzita. Ori, berriz, zure seme pistoleroaren lana. Oiek, osaba maitea, ez dira arrazoiak. Neri zure

mendeko mutillak esan zidatenez, bieran bat bizirik atera omen zala, eta artu eta urera bota zuela illa. Nor da ori? Ez al du orrek zigorrik merezi? Ogei eta iru urteko mutilla ilda, alare aske. Zure semea dalako dena zillegi al du, bada?

–Zaude ixilik –erantzun zion osabak–. Baiña nik ez det buruausterik artuko. Biak galdu dira; eta, mundu guzia aztertzen badute ere, ori garbituko duenik ez dezu arkituko. Nere semea bada ori, or konpon. Etzeukan zertan duetora joanik, besteak ere amaren semeak dira eta.

–Ez noski. Ez bada egirik esaten, bizirik geratu dan orrek, azaltzen bada, zerbait argituko digula uste det.

–Eta ori zure semea bada?

–Ateratzen danak nonbait sartu bear du. Litekena da ori ere. Etzuen orduan nolanaiko miraria egin. Zalantza ori egia aterako balitz, gure etxerako zoragarria litzake. Bizi dan edo ez seguru jakin arte, ezin genezaioke gure ondarrerik beste inori eskeiñi. Gu ere zaartzen ari gera, eta beste bat bear degu nai eta nai ez; baiña ez daukagu presarik.

–Ori nere seme batek konponduko luke.

–Bai. Dagoeneko bat asi da Joxepari zirika, eskutitzak egiñez. Ez dakit berak edo besteren batek egiñak, aren ize-nean. Nondik ikasi du orrek ura dala gure semearen emaztezarako aukeratua, txakurrari baiño ajola gutxiago zaio orri eta?

–Nik lagunduko diot, bada.

–Eta nola ez det egingo nik zure susmurra, oraindik or zer gertatzen dan ez dakizula ondare eske asten bazera?

–Zaude ixilik. Bestela, okerragoko bideak artuko ditugu.

–Ez gero neri zemaika asi. Ni ez naiz zure soldaduetakoa, eta zure biderik gaiztoenari aurpegi emateko arrazoiak baditut. Beti itxuraz ondo konpontzen bagera ere, zure susmurra egingo det, eta zure semerik ez dala gure etxean sartuko bazeundeke etsita. Etxe onen jabeak orain

eta gero gu izango gera.

–Bai, nai badu. Baiña alperrik ari zera. Zure jauregia salbatu nai badezu, nere semeari eldu bearko diozu.

–Ori osorik nere esku dago. Leen ere esan dizut: au ne-rea da eta nik nai detan arteera emango diot oni. Prantzian ez dago onen kontrako legerik. Ni naiz leenengo eta orrek balio du. Nagusiak aukeratzen duena sartuko da emen.

–Auzitara joko det, bada, nik.

Tartean zeukaten legegizonak ala erantzun zion:

–Etzaitzela buru gogorra izan. Jauregiaren jabeak ogei eta amaika eskutik dauka, eta zere burua galdu besterik etzenduke egingo.

Orrela ari ziran, bada, eztabaidaka, eta etzan ori leenengo aldia. Ez bazuen beste norbaitek mozten, etzan ixkanbil ori berealakoan bukatuko. Oiuka ari ziran, bada, etxeko atean txintzarria nabaitu zutenean.

Ia urtea zan Joxepa markesen jauregian bizi zala eta etxeko gora-beerak arek zeramazkiela, eta ura atera zitzaien atarira. Zabaldu zueneko:

–Egun on, Joxepa –alai-alai agurtu zuen mutillak, biak zoriontsu elkar besarkatuz, bi maitale bezela.

Bezperan kanposantuan neskak ikusi zuen, baiña arritu eta moztua geratu zan, ia zer erantzun etzekiela.

–Baita zuri ere, Joantxo. Nondik atera zera zu itxasotik, denak illa ziñala usteta?

Berrero besarkada sutsu eta maitagarrizko batean lotu ziran biak.

–Ongi etorria, bada, Joantxo. Denok illa ziñalakoan etsiak geunden; eta zu, berriz, ixil-ixilik munduz mundu bazterrak ikusten ibilki.

–Baiña nere berri norbaitek jakingo zuen. Galdu nintzala zergatik zabaldu bear zuten? Ez naiz, Joxepa, munduz mundu ibili. Baiña jarri dizkidaten txolarte eta sareetatik iges eginta, leengo kabira biurtu da uxoa.

–Etzera orduan leengo kabian utzi zenituen uxotaz

aztu?

–Iñorentzaz ez, batez ere zutzaz. Emakume bat egiña zaude.

–Eskerrik asko. Ez da orrenbesterik izango. Zu etzatoz aberats jantzian, baiña bai mutil bikain askoa.

Oraintxe ikusten zuen ondo neskek bere eta jauregiaren etorkizuna.

–Iges egin ezkerro, Ondarribian igaro det illebeta bat. Baiña badaezbada gordeka, nere lanetik ordea. Gero konstatuko ditut igarotako ixtilluak.

–Eta emen geratzeko asmoan al zatoz?

–Txikia illa dala ikasi detanean bai, etxeko buruaustek arintzeko.

–Ez dakizu nolako atsegiña eta atsedena emango diezun zure gurasoei.

–Eziñean al dabilta, bada?

–Markesak, osaba egoskor bat eta legegizona ari dira eztabaidaka goiko arlekuan.

–Bai? Etxe ontan?

–Bai. Aipatutako lau lagunak ari dira eztabaidaka.

–Eta zertaz dute beren eztabaida ori?

–Zu il ziñala eta beste bati, aren semeari alegia, tokatzen omen zaiola emengo oiñordekotza, markesak iltzen diranean.

–Esaiezu mesedez gure gurasoei emen nagoela. Nere bearrean badira, abisatzeko. Kontzientzirik batere gabe-koa da osaba egoskor ori.

Eztabaidaka ari ziran lekura joanta, Joxepak aopean belarrira esan zion markesari nor zegoen zai atean.

Onek ere, aopean eta irripartsu, bere emazteari kontatu zion nor zegoen atean deitu zai sartzeko. Au ere benetan poztu zan.

–Esaiozu sartzeko, orain datorrenak ezkutu asko garbituko dizkigu eta.

Atea zabaldu eta an azaldu zan Joantxo alai-alai:

–Arratsalde on denei –agurtuz.

–Baita zuri ere. Baiña, Joantxo, nondik atera zera: Jonasen baletik? –denak arriturik, aurpegira begiratzen zioten, erantzunez.

–Baiña nondik atera zera? –galdetu zioten laurak berriro.

–Itxasotik. Ni an galdu ez banintzan ere, ala zabaldu dute beiñepein.

Banaka-banaka denei eskua eman zien. Osabari ere etzion ukatu. Amarengana joan zanean, garai batean gaizki tratatu bazuen ere, orain besarkada sutsu batekin artu zuen alai-alai, esanez:

–Eseri zaite gu bion erdian.

Gurasoen erdian alegia.

Gudalburuak, arritua, il eta piztutako bati bezela begiratzen zion, baiña amorruez. Noizbaiten buruan ala agurtu zuen arek ere:

–Ongi etorria, Joantxo. Gizon bat il zenduen, eta eriotz errudun zu zera, eta justizia zure atzetik dabil.

–Aguro asi zera zu erasoka, zure lerdea besteri erantsi nairik. Ez nago gero gaur zure mendeko. Nere gurasoen osaba ziñala ikasi nuenean, ulertu nuen dena, zergatik zan zure nerekiko jazarmena: ni gizonen artetik kenduta, zure semeentzat iritxi nere lekua, markesen oiñordekotza alegia.

–Zer esaten ari zera?

–Egia oso-osorik, Jar zazu zure eskua biotzaren gainean ea zer esaten dizun kontzientzi zikin orrek. Ona edo txarra, itxasontzi artan gertatutakoaren errudun zu zera.

–Zuk gizon bat il dezu eta justizia zure atzetik ibiliko da.

–Zure semeagatik esango dezu ori? Leenagotik il balute, beste batzuak biziko ziran oraindik. Pistolero amorratua zan ura, beti zirika aritzen zitzaidana. Egun batean ala galdetu nion: «Zer egin dizut nik zuri, orrela aritzeko? Kalabozoan sartuko zaitut». Ura alferez baitzan; ni, berriz,

tenientea. Badakizu zer erantzun zidan? «Neri aitak agindu zidak i tartetik kentzeko, ez omen au begien aurrean ikusi nai eta» lotsa gutxirekin esan zidan. Nik ez nekien orduan zergatik zan ori. Zalantza bai, zu nere gurasoen osaba ziñala, alegia, eta markesen oiñordekogaia.

–Gezurretan ari aiz. Nik ez nekiken zuen dueloaren berri.

–Jainkoagatik, zaude ixilik. Baita ori ere, nik zure semeari arma kendu nionean, garbi asko esan ari kendu niola zuri ematerakoan. Berrogei eta hamarrek baiño geiagok bazekiten orren berri. Nik gertatzen zanaren berri garbi esan nizunean, zure erantzuna etzan besterik: «Or konpon zaitezte. Etzerate umeak». Bitartean, zuk agindu zenion zure seme pistoleroari –garbi esan zidan berak–legorrera baiño leenago nere lanak egiteko.

–Ik eriotz bat egin dek eta justizia ire atzetik ibiliko dek.

–Barkatu, osaba maitea. Zure semea iltzea nere burua babesteko egin nuela uste det. Poztuko zan jendea. Lasaitasun ederra artu ere bai. Merezi zuena egin nion. Ez daukat damurik. Ez dago gaizki egiña. Saritu egingo niñuteke. Nai badezu, salatu nazazu. Baiña bazeundeke jakiñaren gaiñean zure leporako sokaren billa joango zerala. Ez baizenduten uste ni bizirik aterako nintzanik. Arazo au, bestela, zuretzat goxo-goxo bukatuko zan. Gertatuaren berri zuk nai bezela emango zenduen: il zan errugabearen izena zikindu eta deabrua aingeru biurtu. Aren arrokeriak bukatu ziran, bada, betiko. Ni atsedenean nengoela, oi u egin zidan: «Lotsagabea, lapurra, barrabillik badek, ator bakar-burrukara!». Ainbeste iseka eta txorakerik bete eta ase niñuten leporaiño, eta ortarako baldintzak eskatzera urbildu nintzaion. Baiña ondo armatua, bera bezela. Aurrera azaldu nintzaneko, baldintzak jarri genituen. Nik gezur txiki bat esan nion: ez nekarrela armarik. Baiña artzera joaten utziko zidan baldintza, berdiñak bear genituela eta. Irri maltzur bat egin zidan. Dueloa ustez irabazia zeukan. «Jokatu baiño leenago? Zergatik diok ori?». «I

ere, besteak bezela, sarean erori aiz. Ez al diok igertzen nere eskuetan agola?» –erantzun zidan-. «Orduan, il dituk guziak billaukeriz atzetik il dituk». «Orain bezela, eta zeñek esan bear dik ezer?». Ni ere maltzur-maltzur nenbillen, eta ala eskatu nion: «Arma ekartzera joaten utziko didak noski». Arro-arro ala esan zidan: «Bai, bai. Baoake leenbaileen. Baldintzak berdiñak bear ditek. Galdu edo irabazi, leenbaileen egin bear diagu». Nik banekien, arma billa joateko atzeka jartzen banintzan, nereak egin zuela, etsaiaren iritzian beiñepein. Baiña nik gezurra esan nion, iltzaillea lasaitu zedin. Etzeukan zertan presaka ibili. Ni bizkarrez jarri nintzanean arek bere arma al zuen egokiena artzeko, une artantxe erdi buelta emanta, bera moldatzerako sutu nion, eta zerraldo erori zan. «Ez nauk, besteak bezela, ire sarean erori. Orain artekoak billaukeriz il dituk, baiña ez dek besterik ilko». Eta, beste itzik trukatu gabe, burura sutu nion bigarrena. Olakoxea zan zure seme pistoleroa, eta bukatu ziran aren zema eta arrokeriak. Baiña zuk, moztu bearrean, zirikatu egiten zenduen.

–Zuk gizon bat il dezu, bai, eta justizia zure atzetik ibiliko da.

–Or gertatu diran eriotz guzien errudun zu zera. Alperrik salatuko nauzu. Ondo preparatua nator. Lekuko onak baditut, ango berri ondo dakitenak eta goi maillakoak gaiñera. Orain zerorrek kontuak atera.

–Dueloan illa dan edo ez ezagutzen erreza da.

–Bi aldeentzat onen-onena, lokatz pixka batekin estali arazo au, eta kito. Ez dedilla kanpora azaldu. Bestela, gazteak arrazoi du, eta zu aterako zera galduan –esan zion ekarri zuten legegizonak, daldaraka eta amorruez zegoen gudalburuari begira.

–Ori dena emengo interesen jabe egiteagatik –zion markesak.

–Nere semea il ondoren, zergatik iges egin zenduen, bada?

–Zure seme billau arek garbi-garbi esan zidan: «Ni iltzen banauk ere, i ez aiz salbatuko». Beraz, nik ura galtzen

banuen ere, galdua nengoen; eta arek garbitzen baniñun ere, berdin. Zer egin bear nuen? Iges. Ondo pentsatutako lana zan ori. Baiña armarik ez neukala iruzurtu egin nuen, eta nere sarean erori zan. Jainkoak barka nazala. Baiña aren eriotzak bakarren batzuk salbatu ditu. Ala ere, zu zera gertakari oien guzien errudun. Zer egingo nuen? Aldegin; eta, Jaunari eskerrak, ondo atera. Eleberri bat egiteko naiko gaia baleukake. Munduko iñoren laguntzarik gabe, *salvavidas* txar batekin Ondarribiko ondartzara sartu nintzan. Leendik ezaguna nuen, eta emen, Ondarribian, igaro ditut iges egin eta gaur arteko egunak. Nik ura galtzen banuen, nork eman bear zuen ni iltzeko agindua, zuk ezik? Dena zegoen ni galtzeko agindua, eta onera laster bialiko zenduen eskutitzen bat, zere buruari arrazoi emanetz: «Bai; berak nere semea il du eta».

Gudalburuak etzion orri erantzun. Garbi asko agertu zuen gazteak itxasontzi artan gertatu zana. Egiaren aurrean amor eman bear. Baiña legor-legor denei eskua emanetz, purrustada batean aldegin zuen. Leen asarre bazegoen, etzan orrekin asko adiskidetuko.

Denak biotz-biotzez artu zuten Joantxo jauregian.

Iru edo lau markesgai urbildu ziran, eta gutxiena tokatzen zitzaiona aukeratu zuten: Gizontxoren semea.

Illebeteren batzuen buruan, bear ziran arazo guziak konpondu ziranean, markesak bezela, Guadalupen ezkondu ziran gazteak ere. Baiña ixilka eta oso goiz. Ondarribikoepailea atzetik bai zerabilkien Joantxok.

Ondoren, Gizontxoren ostatuan gosari txiki bat egin ondoren, nor nor ziran etzekitela, besarkada banarekin agurtu ziran, betiko noski, Joantxo eta bere guraso eta anai-arrebak. Etzuten elkar ezagutu.

Dirua jainko

Berekoiak

BURNI-OLA txiki bat bazan orain etxez betea dagoen Euskal Erriko erri kaxkar batean. Ez daukagu beren izenak zertan aipaturik, zaarrak il ziran, baiña beren ondo-rengoak badituzte eta sumindu ez ditzagun.

Guda aurretik oso etxe kaxkarra zan, aspaldi egiña; eta, euria zanean, bere teillatutik etzan itozorik paltako, batez ere euria aize golpe batekin zetorreanean, etxe barrua bustitzeraiño. Gutxieneko astean bein, norbaitek azterketaren bat egiten zion teillatu zaar ari, teilla autsien orde z berriak jarriz eta aizeak naastutakoak antolatuz.

Etxe aurrean, sarrera nagusian zeukan bere izena; baiña zikiñaren zikiñez ezin zitzaion irakurri leenengo letra besterik. Ez dakit konpontzeko modurik etzuelako edo beste berriren bat jasotzeko asmoan zebillelako. Etxea gaizki egiña zan. Ala ere, etzeukan erortzeko beldurrik; baiña benetan zikiña zegoen, jaso zan ezkeru ukuitu ga-bea noski.

Bazirudien lantegi arek etorkizunik etzeukala, orduan beiñepein, eta nagusiak etzuela berritu nai. Baiña, bertako langilleak ziotenez, asko irabazten omen zuela, eta berak ere orduan kontentu omen zebiltzala, lan sari ona jasotzen zutela eta. Ori daukat entzuna; baiña orain arteko gorabeera auek guziak guda aurreko kontuak dira.

Zegoen lekuan, orduan beiñepein, aunditu eta zabal-tzeko etzeukan lekurik. Atze aldean, ia etxea jotzen zuela, eragin aundiko lantegi berri bat zeukan, etxe sarrerako bi-dea ixten ziona; eta zulo eta ur-putzuz betea egoten zan beti atari alde ura. Iñork etzuen konpontzen. Izan ere, bi lantegietako nagusiak erdi zapuztuak zebiltzan, elkar artu eta zerbait onik egiteko. Bakoitzak bere negoziara zera-

man guzia. Biak ere arroegiak. Kamioi zaar ikaragarriak ibiltzen ziran *dranguka-dranguka*, aurrera-atzera sartu eta atera; eta putzu eta zuloak gero eta aundiagoak.

Atari ontatik ere etzeukan zabaltzerik, metro gutxira mendia zeukan eta. An baserri koxkor bat zan, garai aieta-ko Euskal Errian izan ziran bi gizon indartsuenetako batzuen jaiotetxea.

Beste saietsetik, berrogei eta amar bat metrora, aspaldian jasotako katalan baten almazena, trenean zekarzkiten puskak jasotzeko beraizik egiña. Geltokian naiko lekurik ez bazan beiñepein, orrera ekartzen zituzten. Nai zuten arte eduki zezazketen, katalanak eskatutako errenta txintxo ordaindu ezkeru. Kaiatik ere askotan orrera ekartzen zituzten.

Leen esan degunez, almazen oien nagusia katalan bat zan, aspaldidanik onera etorritakoa. Leku ori atsegin izan zitzaion eta bertan jarri zan bizitzen; erri ortan, alegia. Orduan etxe banaka batzuk besterik ez omen zala. Arek almazena jaso zituen lekua, berriz, sasi eta osin-zuloz bete. Guda ezkeroztik azi zan erri ori. Orain millakaren batzuk biziko dira. Baiña oraindik auzoa dala uste det. Ez dauka udaletxerik.

Katalanak negoziarako jaiok omen dira. Ikusi orduko antz eman zion, bada, arek or nola atera zezakeen negozioa. Barruti arek, orduan zegoen bezela, etzuen bost xentimorik balioko eta erosi egin zuen. Zabalune ederra, baiña orduan txara, osiña eta sasia. Berak bere eskuz garbitu omen zuen. Diru pixka baten jabe zan, baiña pentsatutako almazen aiek jasotzeko geiago bear eta burni-olako nagusiari eskatu omen zion. Bai arek pozik eman ere, eta modu onean gaiñera.

Bost pabelloiko estalpe eder bat, teillatuz bakarra, bost aterekin, pabelloi bakoitzeko bat. Barruak, orma banarekin bereziak, bost legorpe balira bezela, gaiñetik begiratu eta etxe bat zirudiela.

Bein martxan jarri zuenean, aberats jende orri ondo iruditu zitzaion eta arrera ona egin zion. Bereala ordaindu

zituen egindako zorrak. Esan bezela, trenez eta itxasoz zekarzkitenak, pilla aundia bazan beiñepein, onen almazenetara ekartzen zituzten; eta berak nai zuten arte edukitzeko eskubidea. Andik aurrera, ortatik zetorkion errentarekin bapo bizi zan gure katalana. Ara joan giñan batean, nik galdetu nion:

-Zu, katalana izanta, garai aietan nola etorri ziñan Euskal Errira?

-Euskaldunak ez dirala joaten uste al dezu Kataluiñaraino? Nik ere eskubide berdiña neukan onera etortzeko.

-Eta ez al zera damutu?

-Ez; beartu izan naizen guzietan, emengo jendeak beti lagundu egin diat.

-Leenengo urteetan gaizki ibiliko ziñan orratik?

-Bai; martxa artu arte, denak bezela. Baiña leenengo bost edo sei urte ez nituen, ez, nik alperkerian pasa. Orain, ordea, nere bizimodua, ia lanik egin gabe, emengo errenta utsarekin ateratzen det. Baiña asi berri artan nere barauak egiña naiz, bai, ni.

Katalan ura joan zan mundu ontatik, eta uste det almazen aiek bota eta dena etxez betea dagoala.

Burni-ola eta almazenaren erditik erreka xior bat dijoa, zikin zamarra. Baiña emendik ateratzen zuen lantegi xaar arek bear zuen ura.

Atzean ere beste paurrika bat dauka; leen esan degunez, ara ere ezin zabaldua. Beste saietsera, berriz, mendia. Aurrera zeukan leku apur bat.

Guda aurreko kontuak dira auek guziak. Orduan etzizaion lantegi orri etorkizun aundirik ikusten, Baiña guda asi eta frankistak Gipuzkoa artu zutenean, sekulako irabaziak egin zituen, Frankoren alde gudarako bonbak eta granadak egiteari eraso zion eta.

Ortatik jantzi zan gure garai bateko abertzale eta mitiñak ematen ibilitako gizona, urte betez leenago Gora Euskadi-ka oiuka jarduten zana. Orain bere aalegin guzia etsaien alde leengo lagunak iltzeko bonbak eta granadak

egitea zan. Oientzat dirua dago beste doai guzien gaiñetik, beren aberria ere ukatzeraino.

Irabazia etorri zitzaion eta andik aurrera etzuen kasuak beldurtzen. Baiña dena bere buruarentzat. Enbarazu egiten zion mendia moztu zuen. Puska ederra kendu zion. Andik ateratako lurrarekin bete lanez, zabaltoki aundi bat egin zuen, almazan aundi batzuk an jasotzeko.

Geroztik ara eta onera zabaldu zan, beste lau edo bost lantegi berri jasoz; eta, Euskal Erriak zear, sekulako mar-txa artu zuen. Bere burua saldu zuelako ori dena. Beartu egingo zuten, bai, noski, frankistak, bestela lantegia baitu eta espexera eramango zutela zemai egiñez.

Baiña aldaketa ederra egin zuen. Langillearentzat gaiztoa eta zurra atera zan. Eskubi aldeko jende orrekin asko irabazi zuen; baiña leengo lagun guziak muzin egin zioten. Orren paurriketan lanean aritu giñanok ikasi genduen ederki asko orren berri: lana galanki egin erazi eta gutxi ordaindu.

Bere ofizina eta ar-lekuak oso dotoreak ditu, eta benetan txukunak edukitzen dituzte, emakumeen esku baidago orko garbitasuna. Baiña auek lantegitik kanpora daude.

Langilleentzat ere bai beren aldaketak egiteko tokiak, benetan erosoak, erreztasun guziekin; etxetik ekarritako arropak utzi eta lanerako bear dituztenak jazteko. Lantegi batzuen lana zikiña baita. Ateburuan, berriz, kartel aundi bat: «Erne: ez dirurik utzi; bestela, erteran ez dezu agian arkituko». Baiña lapurren beldurrak itxita egoten zan, zikiña eta naastua benetan; eta kanpotik zetozenentzat usai gaiztoa; eta guziak ango sarreran sudurrak ixten zituzten.

Lanean asi aurretik an ari ziran, bada, langilleak, batzuek mokadu bana artzen, eta besteak oiñetakoak aldatu eta buzo urdiñak janzen.

—Gure ukuilluko txerri-tokian ere emen baiño usai gozoagoa zegok.

Ori entzundakoan, norbaitek zabaldu zituen leioak, aizea berritzearren.

–Au zikiña zegok benetan –zion beste batek.

–Emengo garbitasuna txandaka egin bear genikek.

–Ez diguk gauza berririk esan; baiña garbitzeko gogo gutxi jendeak –erantzun zuen tartetik besteren batek

–Bai; agindu akiok olakori.

–Izan ere, badituk emen bi edo iru señorito, txerriak baiño zikiñagoak. Sudurrak itxita sartuko dituk, eta oien lekuak zeudek zikiñenak.

–Nik au garbituko diat egunero, ordaintzen badidazute. Berdin, txandaka asiko bagiña, bereala aspertuko giñuke, batzuek ez litekek egingo eta.

–Ordaintzekotan, emakumeren bat enkargatu. Arek guk baiño txintxoago eta obeto garbituko likek.

–Dena lokatzez betea zeukagu, txerritoki bat egiña. Ez dizkiagu sapaiko armiarma-sareak ere kentzen. Baiña ik dioken usai gaizto ori ez dek lokatzarena, kakarena baik, urik ere etzeukagu ta.

–Begiraiok ik esandako señorito bat zer ari dan.

–Urdea aleena! Emen pixa egiten! Ez al zeudek or kanpoan komunak?

–Kristau itxura duenik ezin litekek sartu or. Sator pilla bat egiña zegok. Or egin edo emen berdintsu dek.

–Egunen batean nagusia sartuko zaiguk eta ederrak entzuteko gaudek.

–Emengo martxa jartzea enkargatuaren lana dek.

–Esan bear ko zioagu orduan?

–Ori danen egitekoa dek.

–Egingo nitek apustu jai artu duela.

Orrela berriketan ari zirala, sartu zan beste bat, erdi bustia, uste gabeko euri eraso batek arrapatuta, asarre samar.

–Demoniñoaren eguraldia! Eguna goxo-goxo argitu dik; eta, bidean natorrela, suilka eraso zio, alajainkia!

–Apirilla alde au zalea dek olako ustegabekoak egiteko.

–Goitik asi eta beeraiño busti nauk, eta auek erantzi eta emen ziztriñak jantzi bearako. Ea kentzen ditudan auek sutegian legortzen diran; bestela, larrugorririk joan bearako diat etxera.

–Labezaiak utziko al dik? Geronekoan neri ala esan zidaken: an etzegoela zapi-langarik erropak zintzilik jartze-ko. Berak muturra sartuko dik besterenean. Berak ez dik, ordea, berean olako enbarazurik nai.

–Utzi zaiogun zikin kontu oni, gerok ere naiko zikiñak gaudek eta. Atzo izan omen intzan ospitalean, Joxeri bisitatxo bat egitera joanta.

–Bai; bere etxekoak esanta.

–Eta zer moduz zegok?

–Oraindik ondo ez, beiñepein. Baiña gorako aundia egin dik.

–Baiña anka moztuko dioten arraixkurik ez?

–Ez; olakorik ez. Azkeneko operazio ori oso ondo aterra zaiok. Zorionak eman nizkioken atzo. Illebete au betetzerako, martxa ontan badijoa, emen diagu. Beldur gaiztoak pasa dizkik. Ala ere, noizbait eman dik onera.

–Zorionak zergatik? Min artu zuelako?

–Ik beti badituk olako aterra ergelak. Bera ospitalean dagoela, laugarren semea jaio zaiok.

–Eta orregatik zorionak eman al izkion? Lau seme txiki eta bera larri eritegian, andre gaixoak zeukak purgatorioa.

–Biziaren erdia emango nitek bat izateagatik.

–Orixe ere badek, motell: batzuk, geiegi izateko beldur-rrak; besteak, iñondik iñora bat nai eta ezin iritxi.

–Seguruak lagunduko zioz noski, lanean asi arte.

Joxe au, kamioi ustutzen ari zirala, puska aundi bat erori eta ospitalean zegoen. Beren langille lagunetako bat zuten, beraz.

–Aizak: emengo beste lagunei eskari bat egingo niekek. Fameli ori eziñean zebillek. Guraso zaarrak bizi dizkik oraindik. Gero, ezbear ori eta aur berri bat jaio. Ama

gaixoak gorriak ikusiko dizkik. Denon artean suskrizio txiki bat eginta, biltzen dana amari eraman. Guk ere laguntzea naiko genikek olako estuasunetan.

–Etzegok gaizki pentsatua. Amar duroko gora-beera batengatik, guretzat ez uke izugarria. Datorren urtean, garaitsu ontan, berdintsu arkituko giñuke; eta arentzat, noski, ertenbidea. Baiña eguneko zortzi pezetari kentzen asten baaiz, norako gaudek?

Gure lantegian gu olaxe aritzen giñan. Aldi ontan ango langilleak ondo eta garbi ari ziran, kristau on batzuk bezela. Ez dituzte lagun urkoak lokatzera sartzen. Beste askotan, ordea, zeru-lurrak erretzen genituen. Amaika lagun gaizki esaka larrutu ere bai. Urrengoan, beste norbaiten anbat erasoko zigun mekaueka eta oiuka, ezer gutxi-rengatik orrela:

–Deabruak eramango balu! Tximistak erreko balu! –beren mingain zikin ari zeukan galga pixarra kenduz.

–Alajainkia, utziguk pakean! Olako gurari gaiztoak badauzkak, i bai eramango autela deabruak.

Baiña lanera sartzeko minutu batzuk palta zirala, Donostitik etorri zan aspaldian palta zuten lagun bat –au nagusiaren beraren langille bat zan– ango bere eginkizunak bukatu eta lantegi artan aiekin batera asteko asmoan.

–Ongi etorria, motell. Biali egin al aute? –galdetu zioten.

–An ez ditek orain nere bearrik, ondo nengoken ni an baiña.

–Zer moduzko etxea ari zerate egiten?

–Arritzeko lanak ari dizkitek an. Ez dakizute nolako txaleta ari diran jasotzen. Arro zebillek gure nagusia. Esan gentzakek bi etxe batera ari dirala an egiten: bat lurpean eta bestea gaiñean. Lurraren axalerañño doi-doi zegok egiña; eta lanaren buru egiten duenak, dagoeneko ogei eta amar milloitik goragoko kastuak egin dirala esan omen dik.

–Urrezkoa egiten ari al dituk, bada?

–Ez, noski. Urrerik ez ditek sartuko; baiña zuloa bera egiten ere nolako kastuak egin diran! Berrogei metro luze eta zabal, gutxieneko ogei badizkik azpira. Metro bat lodiko ormigoiak, egindako zulo artan, bi aldeetan. Azpian, berdin. Sapaia, zer esanik ez. Dena kortxoz estalia, ezetasun izpirik sar ez dedin. Berebilla gaiñetik igarota ere, ez dek barrunbe artan otsik entzuten. Ez otzik, ez berorik. Eta ura oraindik eskeleto bat bezela zegok. Ura bete eta fameli bat bizitzeko moduan jartzerako, beste ainbeste pezeta bear dizkik gaiñeko. Jauregi au, azpi eta gain dena bukatzerako, eun milloi joango zaizkio aixa.

–Zerua egiten ari al dek, bada?

–Ez; zeruan ez dek iñor iltzen. Baiña gure etxe kaxkarretan bezela, or ere il egingo dituk. Gizonaren biziak etzeukak egun bateko segurantzirik; eta olako lanak egiten eta alperrikako etxeak jasotzen diru putzu ori guzia ondatzen duen bitartean, fameli asko goseak eta miserian ezin bizirik.

–Ori dek berekoikeria! Bere buruarentzat diru oiek ondatzea ondo iruditzen zaiok; eta, bitartean, langilleak zortzi pezetarekin.

–Barrun ortara ez dek eriotzik sartuko.

–Gizona sortu orduko, bizia eta eriotza neska-mutil maitemindu batzuk bezela, elkarri esku emanta zebiltzak. Bizitza, gizona ezin zaindurik asten danean, eriotzari utziko zio txanda. Onek, berriz, badakik zer egiten duen: jo eta zulora.

–Baiña ez dek ara xomorrerik sartuko.

–Oiek beti gure gorputzean zeramazkigu.

–Ezin bizi eta miserian dagoen langille batentzat suskrisioa egiteko asmoan emen gabiltzak; bitartean. nagusia dirua nola enpleatu ezin asmatu; eta gero, etxe ori be-deinkatzera joango diran apaizak badituk.

Eguneroko lanera txuxen sartu erazteko ordua jo zai zegoen enkargatuak ala galdetu zion langille berriari:

–Zenbat milloi esan dek?

–Ogei eta amar milloi lurpean. Ori, barrunbea jantzi gabe. Beste orrenbeste bearko dizkik bukatzerako; eta gero gaiñean beste jauregia.

–Nondik ateratzen ote ditu orrek diru oiek denak?

–Gure lanetik, zalantzarik gabe.

–Bitartean, aren langilleak zortzi pezeta tristerekin; eta, biziko bagera, gure emazte gaixoak milagroak egiten, ez duten lekutik ere dirua aurreratzen.

–Geronekoan, eguneroko batean irakurri nin idatzi au: *«Fulano de Tal ha entregado a Franco nada menos que veinte millones, como renta de sus ganancias. Con ese gesto demuestra su gran admiración por el Caudillo. Con las nuevas leyes van en boga las industrias españolas»*.

–Urdea aleena! –esan zuten batera entzuten zeude-nak– Ori ez uan guretzat gaizki etorriko, berdin gure izerdiaren irabazia dek ori dena eta.

–Zer esaten ari zerate? Ez dek egia izango ori!

–Gure etxean izparringiari gezurra esaten ziotek. Alakoren bat izango dek ori ere. Ogei milloi ematea batere ez nauk arritzen; baiña ez irabazien zorrak ordaintzeko. Ez Frankori gaiñera.

–Paperak garbi-garbi jartzen dik: bere irabazien errenta bezela.

—Au, lenago, abertzale bezela mitiñak egiten ez al zan ibiltzen?

–Bai, motell. Dirua Jainkoa baiño geiago maite diagu.

–Ori irabazien errenta eman badio, zenbat irabazi ote dik orrek?

–Ori dek orren pekaturik ariñena. Leen, mitiñak egiñez ainbeste maite zuten eta berari jarraitzen zioteken bere abertzale lagunak iltzeko bonbak egiñez eta militarrei salduz egin dik orrek olako Amerika etxean bertan.

–Judasek egindako billaukeriak ez niok batere aritzen; eta ez dek Euskadin joko ori egin duena bera bakarra izango.

-Neretzat, munduan pekaturik baldin bada, ori dek aundiena: leen zoramenex jarraitzen ziotenak saldu eta aiek iltzen etsaiari laguntzeko bonbak egitea.

-Ea onek diru truk Jainkoa bera ere iruzurtzen duen.

-Utziogun bere kontzientziari pakean. Egunen batean Jainkoari denaren berri eman bear ko ziok, eta arek nai dezala ez dedin beranduegi damutu.

-Dirutan igeri zebilek, eta Eguberrietan sari bikoitza emateko, onek erabiltzen ditun ixtilluak!

-Arazo au ezin gentzakek ixilik pasa, emengo erdiak jazteko ere ez diagu eta. Orrek, berriz, orrelako irabaziak.

-Diru ori ez dek orrena!

-Ori guzia guk irabazi diagu.

-Urrengo larunbatean batzar txiki bat egin bear diagu, eta zerbait geiago eskatu. Ortarako, bi ordezkari aukeratu eta nagusiarengana biali. Orrela ezin giñezkek bizi -zion enkargatuak.

-I joan adi! -esan zioten langilleak.

-Ez; ortarako, autarkiz denon artean berezitakoak dituk onenak, benetan guzion konfiantzakoak. Indarrik geiena oiek zeukatek.

-Ea oiek lantegitik biali egiten dituen...

-Ez ditek olakorik egingo. Ortarako etzeukatek esku-biderik. Eskatzea libre dek. Emango digun edo ez, ori beste kontu bat dek. Diruak leengo erdirik ez dik balio gaur, eta xox pixar oiekin ezin diagu bizimodurik atera. Bialiko bagiñu ere, ez genikek asko galduko.

Batzarra

LARUNBAT illunabarrean beren batzar ori egitekotan geratu ziran, baiña nagusiaren ixillean, etxe barruko makina eta traste guzien artean. Etzuten zenbait ofizinetako erreztasunik eskatzen. Geienak gazteak ziran eta denbora gutxiko lana izango zuten ura, luzeena jota ere.

Baziteken billauren bat tartean izatea; eta nagusiari abisatu eta poliziren batzuk nola etziran azalduko, andik aurrean artu eta indarrean bialtzeko? Ortarako bazuten beren arraixkua, oraindik Espaiñako lurralde ontan lege estuak zeuzkaten, eta Euskadin ez lasaiagoak, zoritxarrez. Bere odola ezkerren alde eskeiñi zuen gazteria miseri gorrian zegoen; eta *excombatiente* ziranak ez besteak ezin zuten lanik billatu.

Gaur egunean lasai egiten dira batzarrak, bai ezkutan eta bai agerian ere; eta ez dezu iñoren baimenik bear, batez ere ezkutukoa bada. Agermena edo manifestazioa, gaur oraindik baimena beariko dezu agerian egiteko. Gure agintariak ere badituzte beren legeak eta eskubideak. Ortarako aitzaki egokiak asmatzen dituzte: gure zabalkundea egiten degula, erriko pakea moztu, jendeari askatasuna galerazi, ixkanbil eta zaratak ateratzen ditugula eta abar, agintarien iritziak ez diranean. Berak, berriz, dena zillegi dute.

Orain daukagun estuasun au ez da berealakoan bukatuko. Aal duen arte, argi-mutillaren gaiñean luzaroan egoteko gogo ori berezkoa du gizonak; eta, odolaren saria dan ezkerre, indarrean eutsi naiko dio. Luziferrek arroke-riagatik galdu omen zuen zerua, eta bere griña gaizto ori ederki sartua dago, bada, gizonaren biotzean. Dan baiño geiago azaldu naia; mendekoaren eskubideak zapaltzeko

aitzaki gutxi aski. Gobernadore jaunari eskatu bearco diozu baimena, bere txeetasun guziekin, salaketa gaiztoren bat eginta ez zigortzezkeroz.

Garai artan, bada, pekatu izugarria zan ori. Laster zendu en gainean zigorra, eta ez oso goxoa eta paketsua. Beren porrak astintzen bazekiten; eta, aiekin ezin bazuten, berunez. Urte gaizto askoak ziran aiek. Bat iltzen bazuten ere, iltzailleak izango zuten arrazoi. Jainkoaren eskubideak artu baizituzten etsaiak.

Langille auek, bada, larunbat arratsaldea jai zuten. Ne-gu ingurua zan eta garai ortako oitura baiño goxoagoko eguna egokitu zitzaien, nagusiaren eta beste agintari gu-zien ixillean batzar ori egitea pentsatu zutenean. Beren enkargatua saillekoa zuten; eta, langille denak ziotenez, ezeren okerrik gertatzen bazan, aren bizkar joango zala erantzunkizun guzia.

Arratsalde ori, bada, arraixko txarrekoa zan. Langille-ak bildu aurretik ortarako aukeratutako lekuan, badaez-bada, zelatari bat jarri zuten. Nork biali bear zituen beren eguneroko lan-tokitik, baldin batzarra ixkanbillik gabe egiten bazuten, ixillean, agintariak oartuagatik? Nork ja-kin bear zuen etzirala presakako lanen bat egitera bil-duak?

Enkargatuak artu zuen itza. Berrogei bat urteko gizo-na zan au, luzea eta gorputz dotorekoa, euskaldun garbia. Astigarragakoa bera, Erreran bizi zan, baiña larunbat eta jaietan, ara joaten zan gurasoei laguntzera. Oso maitea zuen nagusiak; eta, langille geienak uste zutenez, geiago kobratzen zuena. Esames ori zebillen langilleen artean; baiña etzan segurua.

Askotan botatzen zion nagusiari aurpegira bere zu-zentasunik eza, zenbait arazotan beiñepein. Egun batzue-tan mutur egongo zan nagusia onekin, naiz arrazoi zuela antzeman: an lanik egiten etzuten batzuei ematen ziela di-rua, langilleak miseri gorrian edukirik.

Leen esan deguna: beti mutillaren gainean egon nai dute olakoak.

–Olakok gobernadoreari orrenbeste milloi eman omen dizkio, bada.

Jendeak larrutuko zuen, baiña aren izena egunerokotan azalduko zan, benetan aupatua.

Esan bezela, enkargatuak artu zuen, bada, itza:

–Nere langille lagun maite oiek, ongi etorriak! Ez daki-gu batzar au bukatzerik izango degun, aspaldi ontan langilleok jazarmen gaiztoa daukagu eta. Baiña etortzen badira ere, aal duenak aal duen lekutik iges egin dezala, aspaldi ontan ez dabilta oso goxoak beiñepein eta. Emen bilduta gaudenen famelirik geienok larri gabiltzala badakigu, eta giza-eskubideak zapaltzen dituztela zer esanik ez.

»Ezin gentzake gaurko gure eskubideen arauera lan uzterik egin. Ortan asiko bagiña, zigorra, makillazoak burutik beera izango genituzke. Agian baita arantza txorrotxak ere; eta, norbait nabarmentzen bada, espetxera. Argi-mutillen gaiñean agintzen dagoen gizon ori zaindu nai dute, alegia. Espaiñan langille jendea kontentu dagoela azaldu nai. Bitartean, azkeneko ertzeraiño etorriak gaude, bada, amiltzeko zorian. Erruki ditut gure emazteak, azkeneko xentimoari ere begiratzen baidiote.

»Eguneko zortzi pezeta ziztrin besterik ez digute ematen. Asteko, berrogei eta zortzi pezeta. Zer egin bear dezu orrekin, zortzi edo amar lagun diran fameli batean? Jateko diña ez dute; eta, jantzi ere, bada, egin bearko degu. Larru-gorririk ez gera ibiliko. Sendagillea dala, sendagaiak dirala, etxeko errenta ere bai, martxa ori nola eraman liteke zorrik egin gabe? Parrandarako etzaigu diru asko geratuko.

»Askok usteko dezute nik, ixilik egoteagatik, geiago artzen detala. Baiña ez da ori egia. Zuek bezela jasutzen det nik ere. Lotsagarri ez ibiltzezkeroz, Loiola ondoan dauka nere anairik zaarrenak baserria, eta larunbatetan ara joaten naiz lanera. Dirurik ez didate emango, baiña zer jana bai. Lana ere, jakiña, besteen berdintsuan egiten det emen. Baiña gertakari askotan, gaur ere bai seguru asko, erantzunkizunak nere bizkar geratzen dira. Ordaiñik

gabeko nagusiarekin, ni beti asto naiz. Ez dizu eskupeko aundirik emango. Baiña langilleak miserian utzi eta gero, Frankoren aldekoentzat milloiak eskuak betean.

»Leen esan dizutet: orain egiten ari geran batzar ontan ez bagaituzte arrapatzen ere, ni emen nintzala jakitean, agintzen duten oietatik zemai gaiztorik etzait paltako, Baiña aurrera, mutillak! Nagusiak nai duen ainbeste milloi eta guri berrogei eta zortzi pezeta astean, irabaziak etzaizkio asko urrituko.

»Ori, dena ez bada ere, geiena gurea da; gure lanaren saria. Berak, lantegi au martxan jartzen, diru pixar bat arraixkatu duela egia da; eta orri esker lana daukagula ezin gentzake ukatu ori. Ogi kozkor bana aora eramateko ere bai; egokiera ori ekarri digu. Orregatik, nagusiaren eskubideei ere benetako begirunea bear diegu, lana txintxo egiñez eta eguneroko tresnak ondo zainduz. Ala ere, gu estuasun gorrian utzita, olako irabaziak ezin litzazke jaso, eta guretzat ere zerbait azitzeko eskatu bear diogu. Zuzenago banatu denon artean. Zer ajola bear dio eguneko pezeta bana geiago jasota? Gu ezin gera bizi eta ori dirua non kastatu ez dakiela.

–Zoritxarrez, egia dek ori. Baiña ez al degu estuegi epaitzen? Ez diat uste guk ezer galdu degunik. Baiña ni eta beste geiago ere bai, nik dakidanez, Ondarretako inpernutik orren bitartekotzari eskerrak atera giñun.

–Baiña badakik leengo bere iritzi guziak ukatuta, Euskal Erriari nolako billaukeria egin zion orrek, eta bere lagun askori ere bai.

–Arazo orri utzi zaiogun pakean, gu bezelaxe askea dek eta. Leengoan jarraitu izan balu, bere lantegi eta xox pixarrak kendu eta, beste askok bezela, Ondarretan galduko zin orrek ere bizia. Gaiñera, bere lagunei kalte egin diela? Gorroto dionen baten kontuak dituk oiek. Ez dizkit sinisten.

–Nere belarriak entzundakoak dituk, bada, eta...

–Nik dakidala, ez dik orrek iñor ere galdu. Ori dena aringarritzat artzekoa dek. Ori denarengatik etzaidak ajo-

larik, tokatzen zaiguna ematen badigu. Baiña guk irabazitakoak besteei emate ori ezin diat irentsi. Ori etzioagu barkatu bear, dirua beeraka eta gauza goraka dijoan bitarte, neurri ortara saria ere igotzen ez badigu.

–Esanak esan, zenbat geiago eskatuko zioagu?

–Itxura gabekorik ez beiñepein. Bestela, dena bertan ukatuko ziguk. Geiegirik ez, alegia. Pezeta bana gaizki al zegok?

–Ortarako bildu al gaituk? Orrenbeste irabazten dutenei pezeta bat besterik ez? Ori parregarria dek, motell!

–Ez, iñondik ere. Orrenbeste emango baligu, kontentu niñuke ni. Zortzirekin pasatzen gaituk eta beste bat geiagorekin konponduko niñuke ni.

–Gutxieneko amar erreal, motell!

–Ez, motell! Oraingoz pezeta bat ederki zegok.

–Ori illea mozteko diña ez diagu.

–Alperrik eskatzea dek, bada, geiago, etziguk emango eta.

–Ondo zegok. Neri parregarria iruditzen zaidak, baiña nere aitak esaten zuena guk ere esan bear: “Utsa baiño, obeak dituk ogei milla duro”.

Denak batera ezin jarririk, eztabaidaka ari ziran, nagusiaren bitartez espetxetik atereak aukeratu eta batzarra leenbaileen bukatu nairik, andik aldegitoko, bada.

Enkargatuak, beldurrak ura ere, begiratu zuen leiotik eta, amorrus eskuarekin buruari elduz, oiu egin zuen:

–Erne, mutillak! Utzi dena dagoen bezela! Beste egunen batean bukatuko diagu! Ertzaiñez inguratuak gaituk! Aal duenak aal duen bezela iges egin dezala! Gaiñean dizkiagu txapel-okerrak! Deabruren batek salatu gaitzik! Billauren bat badiagu gure lantegian! Ezer irabazten badegu, guk bezela kobratuko duen bitartean, nagusiaren aurrerako eskuak garbituko dizkik.

Ori entzunik, larritu ziran denak.

–Zer esaten dek: ertzaiñak gaiñean ditugula eta aal duenak aldegitoko emendik? Inguratuak bagaude, nondik eta nora?

Batzuek leiotik, besteak atetik, eman zioten igesari. Baiña beranduegi: txapel-okerrak ordurako gaiñean zituzten. Asko ziran gaiñera; eta, oitura bezela, beren buruzagiak zirikatuta eraso zieten igesi zijoazenei, besteren larrean dabiltzan ardiei bezela. Arrapatzen zuten lekuan joka, gaztea edo zaarra errespetatu gabe, bi edo iruren artean lurrera bota eta naiko zigortuak bazituzten. Baiña ondazteraiño ez. Bakoitza bere onez joan zan etxera. Beren asmoak bete gabe geratu ziran, bada.

Begi gorriak zeuzkaten anka pean ibili ziranak. Urren-go egunean etzuten zer esanaren paltarik. Asi zuten aukerara ori, beste nonbait egin bearko.

Langille zaar samar bati, lurrera bota eta joka ari zirala, berriak zituen betaurrekoak autsi zizkioten. Berak modurik ez eta emazteak emandako batzuekin zebillen. Beste lau lagun, berriz, baitu eta berekin eraman zituzten.

Beren lantegian ixil-ixilik jarraitu zuten, ixkanbillik atera gabe, pake-pakean. Nagusiari pezeta bana geiago eskatzeko egin zuten batzarrarengatik ori dena. Gizona zala gizonarentzat deabrurik gaiztoena esan zuenak etzuen gezur aundirik esan.

Txapel-okerrak, bein kanpoko sarraskia bukatu zuteanean, lotuak berekin zituztela, itxumustuan barrura sartu ziran, an beste norbait ezkutaturik arkitzen ote zuten. Enkargatuarekin topo egin zuten, kanpoan ezer gertatu ez balitz bezela, patxara ederrean barrungo makina bat aztertzen ari zala.

–Nor augu? Ik zer egiten dek emen? –eraso zioten, jotzeko zemaika.

–Ni nagusiak nai duen lekuan ari naiz lanean, emengo enkargatua ni naizelako, makina auek aztertzen eta moldatzen, astelen goizean garaiz asteko –erantzun zien, eta etzan gezurra, andik joka bialtzeko asmoan etorri ziran.

–Zer egin dezute emen?

–Batzar lege bat.

–Eta zertarako? Ez al ekiken baimenik gabe ori ez dala zillegi?

–Oiek ez dira iñondik ere lege zuzenak. Ixilka egin degu eta ala ere zuek ikasi dezute. Ez ori bakarra. Baimenik gabe egin degula gaiñera. Egunero lanean aritzen geran lekuan, ezeren ixkanbillik sortu gabe, zertarako bear genduen baimena?

–Ez al ekiken lanera ez bestetara elkarrengana biltzea ere galerazia dagoela? Gaurko legeak ala dituk eta makurtu bearra zegok.

–Azkenean, eskol-umeak bezela, komonera joateko ere, bi beatz jaso eta baimena eskatu beariko degu.

–Ori zegok, bada, agindua eta egin bear!

–Batzuentzat bideak estuak dituk emen; besteentzat ez. Zuek lasai zabiltzate, bada: ondo armatuak eta erruga-beak joka.

–Oraindik ere arrazoi dekela uste al dek, orren arro mintzatzeko? Ea lotuta espetxera eramaten augun!

–Saritzen duten lekuan ari dan langilleak ez badu arrazoirik, joka galeraztera etortzen denak gutxiago. Nai dezutena egizute, etzeukagu ezertarako eskubiderik eta. Ala ere, bateonbat laster joango uke goragoko oietara nere askatasun eske. Bestela, berriz, egun batzuetako atsedena ez litzaidake gaizki etorriko.

–Eta arrazoi dekela uste al dek?

–Orixe! Jainkoaren aurrerako denak eskubide berdiñak zeuzkagu. Batzuei nai dutena egiten uzten diezute, eta besteei galerazi. Ori ez dek zuzen jokatzea. Denen eskubideak berdin zaindu bear lirake.

–Zertarako egin dezute batzar ori?

Itz batzuetan azaldu zien gertatu zana.

–Alajainkia, etzebillek diruz antzu ori!

–Ala ere, zuek egun guzian lana egin eta zortzi pezeta ezin kobraturik gabiltzan auen gaiñera erori zerate, aberats zur orren interesak babesteko. Ori al da zuek darabilkizuten zuzentasuna? Orren itxu bizi al zerate? Epai zazu-te zeron buruz.

–Aski diagu. Ik ez diguk erakutsiko guk zer egin bear degun. Alajainkia, orrenbeste milloi irabazteko, ez dik nolanaiko lapurreta egingo!

–Ori dek egia. Ala ere, zuek lapurra babesten dezute. Or botatzen ari dan diru ori, joka darabilzkizuten langilleena dek.

–Ala bear likek legez: arek bere irabazia jaso eta gaiñerako guziak zuentzat bear likek oso-osorik.

–Etzegok, bada, olako maukarik guretzat. Eguneko zortzi pezetarekin zer egin bear dik amar-amaika lagun bizi diran fameli batean?

–Bai; ori ere ala dek.

Orduan etorri zan ertzaiñen nagusia eta ala esan zion:

–I lotuta eramateko agindua artu diagu; eta, bigar bertan etorriko baaiz ere, orain joan bearko dek.

–Nork eman dik agindu ori?

–Gure gobernadoreak.

–Gure nagusiaren eskaria izango dek ori. Ortarako ba-zeukak dirua. Leen ere nere eskumuturrak lotuta ibiltzen oituak zeudek. Ez dek au leenengo aldia izango. Azkene-koa ere ez noski. “Zorionekoak zuzenagatik erasotuak, aiena dek-eta zeruetako erreinua” –esanta, eskuak luzatu zituen.

–Zer esan nai ditek itz oiek? –galdetu zioten.

–Zuek ikasi al dezute, bada, jo eta txikitzen bestetan? Or konpon dedilla ni izutuko nauelakoan badabil, asper-tuko dek-eta.

Ixilik paurrikako atea itxita, aiekin batera espexera joan zan, onela esanez:

–Ez niotek luzaroan edukiko.

Ori ikusi zuenean, iges egindako langilleetako batek enkargatuaren emazteari bere senarra espexera eraman zutela abisua biali zion.

Enkargatuari –Joxe Erramon beraren izena– etzitzaion leku arrotza iruditu ura. Leenago ere Ondarretan iru ille-bete inpernukoak igarota zan. Orduko gela berean sartu zuten gaiñera. Orain sartu duen orrek berak atera eraziko

du aurki. Aste bete baiño leen kalean izango dan itxaropenik ez du galdu. Diruak asko lezake.

Bere gelako ixillune artan, maiaren gaiñean ukalondokak jarri eta burua an babestuz, ezin askatu zuen zerabilkien buruauste ura: "Nola ikasi ote du gobernadoreak guk batzarra genduela eta lantegi barruan geundela? Leenago ere olakoak egiten ditugu. Zalantzarik gabe, nagusiak esanta. Eta nagusiak nola ikasi zuen?". Ori enkargatuarentzat ezkutua zan. Beren saillean bazuten billauren bat.

Batzarra zergatik egin zuten ere anbat jakingo zuen, billauak esanta alegia. Ori nor zan jakin artean, erne ibili bearra zeukaten. Iñon ez da iñor seguruan. Aien artean ere etzan arritzekoa, olako sail guzietan bezela, Judasen bat azaltzea. Orregatik, bada, etziran atzeratuko. Saillean leenen ateratzen ziranak joan bear zuten nagusiarengana, batzar ori mendian egingo bazuten ere.

Larunbat illunabarrean sartu zuten; igande goizean zabaldu zizkieten baituei espetxeko ateak, nagusiari ala komeni zitzaiolako. Ala ere, langille bat barruan geratu zan, ez dakigu zergatik.

Igande goizean enkargatua etxera sartu zanean, emazteak, arrituta, ala galdetu zion:

–Lan txarren bat egin al dezute?

–Pezeta bat geiago eskatzeko batzar bat egin degu lantegian bertan. Ez dakit nola ikasi duten. Zezena plazara bezela sartu zaizkigu izketan ari giñan lekura. Gu ixilik eta ixkanbillik gabe ari giñan. Ala ere, ez digute barkatu. Baimena bear omen genduen. Eskatuta, berriz, ez dute ematen. Ori izan da gure pekatu guzia. Betaurreko berriak jarriak zituen bati autsi dizkiote. Eguneko zortzi pezetarekin etsi lezake, berriak jartzeko modurik ez duela izango.

–Ori ere badegu? Milloiak non enpleatu ez dakien bantentzat ikaragarria da gero ori. Batzuek mirariak egin bear al ditugu, jan eta jantziko bagera? Eta aurrera jarraitu bear al dezute?

–Ortan jardun? Baldinbetan, aalegiñak egin gabe ezin geratuko gera. Ortan jarraitu bearke. Lan uzterik ezin gertzake egin. Bestela, goseak ilko gera. Ori ez da nagusiak bialtzen digun abisu txiki bat besterik. Baiña guk daukagu arrazoi eta ez degu atzerarik egingo: asarre gabiltzala eta denaren berri badakigula; batzuekin esku-zabal dabillega eta besteekin estuegi. Mutur itxusi artan entzun bear du ori dena. Eguneke bina pezeta igoko baligu ere, orren sarrerak ez lirake agortuko. Bere langilleak miseri gorrian utzita, besteei ematen!

–Zuk aipatu dituzun dirutza oiek baldin badarabilzki, bina pezeta emanta ez da arentzat zimikorik ere. Guretzat, berriz, geiegi ez bada ere, zortzirekin konpontzen geranean, amarrekin poliki. Guretzat aringarri izango litzake.

Senar-emazte biak urduri geratu ziran: nagusia etzegoela amor emateko asmoan. Pezeta bana eskatu nai ziotelako, batzarra ebakitzera etzizkien, bada, biali ertzaiñak? Eta noiz eta ezin bizitzeraíño etorriak zeudenean!

Urrengo egunean serio azaldu zan jendea lantegian. Banaka-banaka bildu ziran garairako; baiña oraindik bi palta zirala oartu ziran. Bat, enkargatua; baiña bazekiten au igande goizean etxera etorria zala. Non sartu ote zan, bada? Arek zerbait jakingo zuela eta berari galdetzekotan zai geratu ziran. Sarrera baiño minutu batzuk leenago etorri zan, eta onela galdetu zioten:

–Utzi al diteke etortzen?

–Bai; nagusiari komeni zaiolako. Bestela, egunen batzuk pasa bearke nizkin. Ni izutu eta atzeratuko ote naizen egiñaaletan zebiltzak.

–Baiña olako ez dek azaldu emen.

–Atzo ikusi nin espetxean. Ni baiño leentxeago eraman ziteken; baiña bera joan uan etsaien eskuetara.

–Txoro ederra dek!

–Berak jakingo dik bere buruaren berri.

–Ea berak egin digun billaukeria, eta arek salatuta na-

gusia-eta jakiñaren gaiñean dabiltzan. Bizirik erretzea me-rezi likek orduan!

–Oraindik ezin gentzakek ortara pentsatu; baiña billau bat badiagu saillean.

–Emen palta dana olako dek, noski. Gudari ibilia eta sozialista dala uste dit. Orrek etziguken olakorik egingo.

–Bai, bazekit. Esan dizutet espetxean ikusi nuela.

–Gudaria dala eta sozialista? Orrek ez digula olakorik egingo? Orrekin zer esan nai diguk? Or dek gure nagusia, P. N. V.-koa eta erriz erri mitiñak ematen ibilia. Goxoa zebillek orain, leen zoraturik entzuten zioten aien aurka. Ai, dirua, dirua! Ni baitzeko agindua ekarri omen zutela esan zidateken ertzaiñak.

Ordua jo zuenean, denak ixil-ixilik barrura sartu ziran, bakoitza bere opiziora. Galdera geiago egingo zizkioten, baiña lana zan beren leenengo eginkizuna.

Amaikak aldera etorri zan nagusia, mutur itxusi samarrarekin, berez ere ala zan eta. Txuxenean enkargatuarengana joan zan.

–Zer zabiltzate zuek, iñoren berri gabe, lantegian batzarrak egiten?

–Batzarra? Ez dakit ala zan. Tabernara pozik joango giñanak; baiña patrikan xentimorik ez geneukan, eta ementxe barruan kontu kontari.

–Beste lantegietakoak ere berdin kobratzen ditek. Madrilletik agindu bear dutena dek ori. Etzegok gure esku.

–Bai gutxieneko ori. Baiña zuk geiago eman nai badezu, iñork ez dizu galeraziko. Ondo dabiltzan lantegi guziak zortzi pezeta baiño geiago ematen dizkiete beren langilleei, Gipuzkoan beiñepein.

–Nik nere diruarekin nai detana egiten diat, bada.

–Bai; ortan arrazoi ematen dizut. Baiña or botatzen ari zeran diru putzu oiek, denak zureak bakarrak al dira? Ez al dira gureak ere? Guk pin jokatzen degulako aurreratzten dezu ori dena.

–Nik lantegi au itxiko banu, zuek goseak ilko ziñateke.

–Leenago ere gosea eta miseria obeto dauzkagu. Nik bezela, lanik egiten ez duten bederatzi lagun etxean dauzkadan onek, zer egin bear du zortzi pezetarekin? Ea, jarri zaite zu orrela.

–Madrilleko Jaurbatzak igotzen ez duen arte, alperrik ibiliko zerate. Nik ez dizutet xentimorik geiago emango.

–Eta Frankori bai? Arek egiten al du emen lana?

–Ez baago konforme, aldegin zak eta kito.

–Joatezkeroz, ez naiz ni bakarrik joango. Denak aldegingo degu; eta, emen ez bada aldaketarik, gutxi piatu. Ea orduan milloi oiek aurreratzen dituzun.

–Batzarrean zertaz itzegin zenduten?

–Elkar artzen degunean, norbaitek abisatuko dizu.

Lantegiari azterketa bat egin ondoren, etorri bezela aurpegi illunarekin aldegin zuen nagusiak andik.

Baserri uts baten billa

ENKARGATUAK antzeman zion bere langille lagunak txetasun askotan etzerala lasai geratu. Beste zerbait geiago egiteko asmoan zirala, eta urrengo goizean leenago azaldu zan lantegira.

Ordurako geienak etorriak ziran; baita bezperan baitua zegoena ere.

–Aizak: atzo galdera batzuk geiago egiteko asmoan geratu giñun. Gaur naiko denbora badiagu, noski –esan zion batek.

–Bai, bai. Nai dezuten guzia galdetu. Dakidana esateko etzeukat kupirik.

–Nola jakin ziteken gu batzarrean geundela?

–Orixe dek neretzat ere buruausterik nagusiena –zion enkargatuak–. Paurrikaren barruan egiten genduelarik gaiñera. Ertzaiñak eta nagusia baraurik zeudeken. Iñork etzin ikasiko. Barruan geundela jakinta ere, nork zekikek lanean ari giñan edo ez? Baiña, zoritxarrez, gure saillean billauren bat badiagu. Ezin litekek bestela. Ertzaiñei nola bururatu bear zitzaieken, barruan bageunden ere, batzarra genduela eta galerazia gaiñera? Bein baiño geiagotan egin diagu lan au bera larunbat arratsaldean, lantegi barrua garbitzeko. Nola jakin bear ditek ertzaiñak orren berri, ez bazaie esaten?

–Guk iges egin genin? I nola arrapatu iñuten?

–Ez niñun mugitu ere, gaurko lana preparatzen ari nintzala aitzakitzat artuta. Baiña muturka sartu itun. Nor nintzan galdetu eta nere berri jakin zutenean, lasaitu itun, Ondo itzegin zidateken. Nik ezin nezakeala lantegia utzi

eta iges egin esan nieken. Sartzen ziranak etzirala denak santuak. Zerbait paltatzen bazan, ea ez al nuen nik erantzun bearke. Ni espetxera eramateko agindua artu zutela esan zidateken. Etzala leenengoa izango erantzun nieken. Gaua an igaro nin. Nagusiak, bada, bazekik denaren berri. Leen esan dizutet: badiagu tartean billauren bat, goikoen eder egiñez dabilena. Atzo egoartean, berriz, nagusiak galdera asko egin zizkidaken; eta oietako bat, ea zertarako egin genduen batzar ori. Laster norbaitek denaren berri emango ziola esanta utzi nian.

–Aizak: zer esan nai dek saillean billaua badegula orrekin?

–Txuria, txuria. Nagusiaren ipurdi garbitzaillea. Arekin ondo etortzen dana. Zapo zaar batek arri azpitik txistu egiten duen bezela, emengo gertakariak nagusiari kontatzen dizkiona; eta, gu erasotu ondoren, emen ezere aurrerapenik ateratzen badegu, guk bezelaxe jasoko duena. Agian billaukeri ori egiteagatik kobratzen ari dana. Billau bat saillean badegula esatean, orixe azaldu nai nizuteke.

–Olako arazo guzietan beti naasten dek billauren bat emen; eta, ik dioken bezela, agian ondo saritua.

–Larunbatean astindu al ziñuten? –galdetu zien enkar-gatuak paurrika artako langillerik zaarrenari.

–Bai. Gomazko porra nazkagarri oiek min ematen dittek. Ala ere, betaurrekoak jarri berriak auste, okerreana ori dek.

–Nondikakoak dituk orain dakarzkiken oiek?

–Emazteak bi zeuzkaken, ate arek utzi zizkidak.

–Eta ondo ikusten al dek oiekin?

–Lanean aritzeko moduan beiñepein bai. Amaiak alde ortan joan bearke diat okulista oietakoren batengana.

–Bai, motell. Ezkubide osoa daukak ortarako. Nagusiari itzegin bear zioat ortaz. Oien ordain saria eskatu ere bai. Eta asi dezuten lan ontan aurrera jarraitzeko asmoan zerate orduan?

–Etzekit emango digun. Arrazoi diagu eskatzeko. Eskubide osoa, ni bakarrik banintza ere. Baiña onenbeste fameli gabiltzak eziñean; eta, bitartean, nagusia diruarekin zer egin ez dakiela. Gaur joango nauk mendi aldera, gure batzar ori non lasai egin lekua billatzera.

–Krispin ez al dek azaldu? –galdetu zion batek.

–Arek bere burua entregatu eta espetxera eraman ziteken. Baiña etorria dek. Itzegin diat berarekin. Erne, mutillak, orrekin!

–Aizak: nik ere ikusi nian ori. Atera baldin badute, gaitz erdi.

–Etzagun iñon ere gure asmo onen berri zabaldu. Ea ertzaiñak oartzen diran ikusiko diagu.

Denak lanera sartu ziran. Beti bezela, ikertxo bat egitera etorri zan nagusia, eta ala galdetu zion enkargatuari zer atera erazi:

–Olako non dek?

–Ertzaiñak joka betaurrekoak autsi zizkioten, eta emaztearenekin etorri da lanera. Amaiketan, zuzendariaren baimenarekin, okulistarengana joana da. Badakizu fameli ori estu-estuan eziñean dabillela. Zuk ordaindu bear ko zenizkioke erosiko dituen berriak.

–Aalegiñetan nere aurka ari zerate eta nik ordaindu? Or konpon dedilla! Denak utzi eta etxera joan izan balitz, etzitzaiokeen olakorik gertatuko.

–Bejondeizula! Diru putzuan igari zabilta eta ezin duen bati mesede ori ukatu? Orrela on eginta, beiñepein, aren biotzik ez dezu irabaziko.

Enkargatua sutan utzi eta aldegin zuen andik nagusiak.

Betaurrekoak bear zituana okulistakikoak bukatu eta etorri zanean, ala esan zion enkargatuak:

–Etzegok betaurreko oiek ordaintzekotan gure nagusia. Egiñaletan beraren aurka ari omen gaituk, eta ala ere mesedeak eskatzen.

–Arri biurtu aal zaizka, bada, bere diru guziak?

Lanetik atera orduko, illunabarrean, enkargatua bere lagun batekin mendi aldera joan zan, batzar leku seguru bat billatzera.

–Nik bazekit baserri uts bat non dagoen, aspaldi ontan orrela arkitzen dana. Barrua zer moduzkoa daukan ikusiko al diagu? –esan zion lagunak.

–Leku bat izendatu eta beste batera joango niñuke ni. Ortan garbi antzemango zioagu saillean billauren bat bai ote daukagun. Ertzaiñak baserri utsera joango dituk, eta guk bestean egingo diagu batzar ori.

–Ederki pentsatua zegok. Etxe barruan lekurik ez badegu, eta eguraldi ona bada, zergatik ez kanpoan egin? Berdin ez diagu denbora askoren bearrik, eta orrela ederki joko zioagu adarra.

–Baita ori ere. Txartelak egiñak eramango dizkiagu emendik, eta orko egin bear guzia ordu erdian bukatua zeukagu.

Baserri uts ura aztertu zuten, eta oraindik olako batzar batzuk egiteko modukoa iruditu zitzaien. Erabat utzita zegoen, ori bai, eta zikiña. Baiña orregatik ajola gutxi gure batzar-zaleei. Beren eginkizuna bete zutenean, bideko ardan-gela batean zerbait artu eta txuxenean etxera etorri ziran.

Urrengo egunean, beren batzar ori betiko lekuan egingo etzutela langille lagunei jakin erazi zieten: nola billatu zuten baserri uts ori, eta urrengo larunbatean ixil-ixilik an egingo zutela.

–Eta aurrera jarraitzeko asmoan al zerate? –galdetu zien norbaitek.

–Ik ateratzen dizkiguk eltzetik babak! Orain atzera egingo ote diagu, bada, ertzaiñen erasoaldi orrekin izututa? Arrazoi diagu eta eskubide osoa. Eskatzea, berriz, mundu guzian libre dek. Ez badigute entzun nai, leen bezelaxe geratuko gaituk. Onez onean eta pakean gabiltzak. Ez diagu ixkanbillik sortzen. Lan uzterik ain gutxi. Pezetatxo bana eguneko geiago emanta, ez dik porrot egingo nagusiaren negozioak. Orrenbeste milloirekin jolasean dabilenarentzat zer dek ori?

–Ondo zegok. Balitekek ni ez joatea. Emazteak eta biok txango txiki bat zeukagu. Baiña artzen dituzuten erabaki guziak, nik ere ontzat emango dizkiat izenpetuz.

–Ondo itzegin dek. Ori dek bearrezkoena.

–Eta i aukeratu baiñuteke ere bai?

–Ori gertatutakoan, ondo pentsatuko nitek.

–Ulertzen diagu ire arrazoia. Baiña ez dek ori guk artzen ditugun erabaki guziak ixilik izenpetzea.

Larunbat arte etzuen itzik atera iñork ortaz. Bere borondatez ertzaiñetara entregatu zanak dena entzun zuen, eta joatekotan geratu, baserri uts ori non zegoen ikasi zue-nean.

Mendiko batzarra

LARUNBAT ura ere iritxi zan, eta presko antzekoa gaiñe-ra. Baiña oskarbi zegoen eta, eguzkia zerbait igotzen zanean, mendi egal ura benetan atsegiña izango zala etzegoen zalantzarik.

Goizean lanera sartzerako, itzegin zuten denak elkarrekin olako baserri utsean zutela batzar ori, eta ea non zegoen bazekiten. Denak baietza eman zuten. Olako ordurako igotzeko bada ara; baiña, aal bazuten beiñepein, ez denak batera, iñor oartu etzedin eta salatu.

Esandako garairako, bada, banaka eta binaka, geldigeldi, igo ziran baserri uts artara. Oso eguraldi on eta gozoa zegoen arratsalde artan, goizean min samarra argitu bazuen ere. Oraindik aizeak txuloak billatzen bazekien; baiña legorra zegoen eta oso atsegiña; eta baserri uts ura erdiz erdi arrapatzen zuen gainbeera zijoan eguzkiak.

Garbi-garbi ageri zan itxas-alde ori; dena laiñoaren izpirik gabe, begien bistak artu zezaken lekuraiño. Eguzkia, berriz, mendiaren beste aldean ezkutatzen ari zan polliki-polliki. Bertaraiño iritxi ziran, ala zion batek:

–Ai zer astakeria egingo genduken, dagoen eguraldi onekin etxe barrunbe zikin ortara sartuko bagiña!

–Ondo itzegiña! Egunaren buruan ordu geiegi igarotzen dizkiagu itzalpean, dagoen giro goxo onekin etxe barrunbe ortan sartzeko –zioten batzuek.

–Oneraiño etorri eta atzera egin bear al dezute? –beste batek.

–Ez diguk ondo ulertu. Ez al zegok kanpoan giro obea? Igo gaitezen gaillurreraiño, eta an bazter batean

egingo diagu batzar ori. Ordu erdiko lana izango dek, luzeena jota ere, mendiaren bi aldeak ederki ikusten ditugula, ertzaiñen arraixkurik gabe. Nik etzeukat oien ankapean berriz ere ibiltzeko gogorik.

Baietz, naiago zutela erantzun zuten besteak ere; eta goian, baserri uts ura aurrean zutela, egin zuten beren batzarra. Enkargatuak bere lagunei adierazi zien geiago eskatzea erabaki zutela: gutxieneko, eguneko bi pezeta. Ortik gora eskatzea etzala, badaezbada, ausartzen.

–Zer dek, bada, ori gure nagusiarentzat?

Beste batek artu zuen itza:

–Ez al dek geiegi izango?

–Milloiak non sartu ez dakien batentzat?

–Ori bazekiagu. Baiña emateko gogoia palta zaiola ere bai. Erdia iritxiko bagendu ere, ni ez niñuke asarre geratuko.

–Orrenbesteko limosnak egiten ari gabe, bazeukak non enpleatua. Ondo bazekik irabazi oiek ematen dizkionten langilleak nola gabiltzan. Borondatea palta, eta bere burua azaldu naia.

–Txalaren bat saldu bear duenak goitik jotzen dik, eta erosi bear duenak bajutik, biak aurretik pentsatutako neurrira etorri arte. Guk ere bi eskatuko zizkioagu. Erdira jexten bagera ere, ez diagu denborarik alperrik galtzen. Nere iritzi apala beiñepein ori dek.

–Baita nerea ere –zioken enkargatuak.

Azkenean denak baietza eman zuten. Tratuak orrela egiten zirala eta pake-pakean konpondu ziran. Txartelak zabaldu zituzten.

Baita bi aukeratu ere, zaarrenetakoak noski, lantegi artan leenengo asi ziranak: eta lantegian ez-ezik, errian ere izen garbiko gizonak. Beren zalantzak erabili zituzten; baiña azkenean, alperrik izango bazan ere, eman zuten baietza; denentzako zala garrantzi aundiko lana, eta berak zirala urterik geiena igarotakoak; geieneko ere, ezetz esango ziela.

Ortarako egin zuten ituna denak izenpetu zuten. Leenengo, enkargatua bera izan zan. Etzuen iñork ere atzerarik egin. Bi aukeratu zituztenak jaso zuten itun ori, nagusiari eskuetara emateko.

Angoa bukatu eta etxerako asmoa artu zutenean, leenengo aukeratu zuten baserriko atari ura inguratua zeukaten ertzaiñak. Bazirudien batzarrekoak andik atera zai zeudela.

–Ikusten al dituzute oiek? Enkargatuak, berak zeramaki-kien kataleko batekin ikusi zituen leenengo.

–Leku onean geratuko giñun baserri orren barrura sartu izan bagiña gure batzar-lege au egitera.

Ertzaiñak gora-beera zebiltzan, zalantzan noski, baserri zaar aren barrunbean etzala iñor izango, ez baizuten ezeren otsik entzuten, eta eroarena egiten ari zirala, iñor etzegoen lekua zaintzen. Inguruan zabaldu ziran, eta atea iriki. Aoa bete ortzekin antxe geratu ziran: an etzegoen iñor izandako itxurarik ere.

Gure batzartarrak gobernadore jauna iruzurtu egin zuten noski, eta nagusia ere bai. Azkena artutako erabakiak salbatu zituen. Gure ertzaiñak pixka batean zai egon ziran, batzartarrak etorri gabeak izan zitezkeala, baiña alperrik. Etsi zutenean, an inguruan lanean ari zan baserri-tar bati galdetu zioten:

–Iñor ikusi al dezute etxe zaar ontan sartzen?

–Bai. Bere ondoan ibili dira sartu ez sartu. Eguraldi ona dagoela nonbait eta mendi aldera igoak dira.

–Ez al dakizu nora?

–Ez det aiekin itzegin eta ez dakit ezertxo ere, or goiko bidetxigor ortatik gora artu dutela besterik.

–Etzigutek adarra gaizki jo. Ordaiñak artuko dizkitek urrengoan.

–Baiña ez uan iruzurra. Salatu dituenak egia esan dik.

–Bakarren batzuen bizkarra berotzeko asmoan etorri nauk, baiña...

–Joango al gaituk gora, or arkitzen ote ditugun?

–Kontuz, mutillak! Gu baiño geiago dituk; eta arkaitzarte oietan ez ote ditugu eman genituenen ordaiñak artuko?

–Guk agindua bete diagu, bai, eta goazen emendik.

Igo bezela, ixil-ixilik jetxi ziran, langilleetako bakar bat ere ikusi gabe. Beren eginkizuna bukatu zutenean, jatxi ziran batzarrekoak ere. Urrengo egunean, itun ori emateko azalduko zan nagusia, lantegi bat baiño geiago bazeuzkan, baiña ia egunero bisitatzen zituen eta.

Diru-zalea

EGOARTERO egiten zien bere lantegirik geienei bere bisita-legea nagusiak: ango gora-beeren berri ikasi; zer palta zan ikusi; zuzendariekin itzegin; baita enkargatuekin ere; matxurarik bazan, konpontzeko agindu; ango sal-benten berri emango zioten; galerak eta irabaziak aztertu... Ortan txintxoia zan.

Lanak errezteko munduan ezeren aurrerapenik bazan, balio zuena balio, andik edo emendik ekarriko zuen. Baita bere lantegietan jarri ere. Ez dakit beregatik edo langilleengatik egiten zuen ori: auek neke gutxiagorekin lan geiago egingo zutela eta, jakiña, beretzat ere irabaziak ugaritu.

Baiña azterketa ori egin eta joan egiten zan. Illean bi aldiz langilleen berri jakin nai izaten zuen; eta, norbaitek zerbait esan bearra edo kezkek bazeuzkan, larunbat egoartean, lan saria emanez gaiñera, bere argelan artuko zituen. Larunbata baiño leenago sartu ziran, ordea, erriko jaietara, eta etzuten egindako itun ura ematerik izan.

Ordurako, nagusiak denaren berri bazekien, eta zenbat eskatuko zioten ere bai. Eta, langilleak susmurtzen zutenez, asmo gaiztoak artuak zituen. Oraingoan moztu nai zuen betiko langilleen laiñeza ori. Auek bere eginkizunetan sartzeak etzion atsegin aundirik eman, eta belarrietara iritxi zitzaion salaketak ziotena: enkargatua zala saillean denetan okerrena, eta arazo ortan sartu nai etzutenen batzuk berak naastu zituela.

Ortatik zetozkion nagusiari buruauste ikaragarriak. Asko balio zuen enkargatuak; lanik zaillenak bere gain artzen zituen; bera, berriz, elefante bat baiño indartsuagoa zan. Langilleak benetan maite zuten. Iñori zerbait esan be-

ar bazion ere, bere arrazoiak emango zizkion. Olakoxea zan langille lagunekin.

Nagusia ere, bada, bere enkargatuaz oso kontentu zegoen. Baiña oraingo anka sartze orrek –ala zerizkion nagusiak–, onez onean sari geixego eskatzeak, min eman zion gure aberatsari. Nolako joera artu erabakia zeukan. Loiolan bizi zan nagusia, eta erriko jaiak bukatu arte etzan azalduko lantegi ortan.

Jaiak bukatu ondorean, bada, ango arlekura joan zitzaizkion, langilleak egindako ituna ematera. Gorago esan degun bezela, ordurako denaren berri bazekien, sailleko billauak urrutizkiñez salatuta. Baita gutxi gora-beera noiz joango zitzaizkion ere. Entzungo zien, baiña berak erabakiko zuen zein bidetatik artu, ordurarte legeak agintzen zuena txuxen ematen zien eta.

Atea jo zutenean, «Aurrera!» esan zien, eta gure langilleak gelara sartu ziran, baiña urduri samar, purrustadaren batzuk entzun bearke zituztelakoan. Baiña ondo artu zituen. Aspalditik bere langilleak eta lantegiaren ordurik estuenetan asko lagundu ziotenak izan bear zuten.

–Jainkoak egun on! –agurtuz sartu ziran.

–Baita zuei ere –erantzun zien, euskaldun garbia zan eta, garai batean mitiñak emandakoa. Gero, ordea, Frankoren diru laguntzak aberastuta, beste aldera egin zuen bere iraultza, eta frankista amorratua zan.

–Zer berri dakartzute, bada? –galdetu zien.

Bereala eskura eman zioten zekarten ituna, langille guziak izenpetua, mendiko batzarrean antolatua. Irakurri zuenean, serio jarri zan, asarre samar gaiñera, eta ala esan zien:

–Zuek zerate orduan etxe ontako martxaren jabe? Zuek nai dezutenean, nik amor eman bear diat, eta zuek eskatzen didazutena eman? Lotsagabeak aleenak! Ortaraiño ere ausartu al zerate?

–Itun ortan ez du olakorik jartzen. Guk uste degu eskatzeak libre bear lukela, batez ere zuk frankistei egiten

dizkiezun erregali oiek ikusita. Aiek dirua nondiknai atarako dute. Gu, emen eten gabea lan egiten degunok gabiltza larri, burua ezin jasorik.

–Nik orain bi pezeta oiek jasoko banizkizute, emendik illebeta batzuetara beste ainbesteren eskea egingo zenduteke, eta laster utziko niñuzuteke larrugorririk. Nagusiak ere baditu gero bere eskubideak. Lantegi onekin oso gutxi irabazten det nik. Itxiko banu ere, ez nuke ezer askorik galduko. Ondo pentsatzen al dezute ori?

–Eskatzea ez al degu zillegi? Urteak daramazkigu zortzi pezetarekin, eta diruaren balioa erdira jetxi da. Eskerrak geienok baserri auetan adiskide onak baditugula. Aal degunetan aiei lagunduz, andik ateratzen degu berdura gauza.

–Eskatzea zillegi da, baiña bai ez ematea ere.

–Kontzientziari begiratuko bazenio ez det uste. Ala ere, barkatu, jauna. Ez gera eztabaidara etorri. Lagunak gudan jarri dute konfiantza, lantegi ontan zaarrenetakoak gu geralako eta denbora geiena daramakigulako. Ez da besterik. Guk ageri au langille guzien izenean eman dizugu eta or konpon. Zuk jakingo dezu zer egin. Guk gure egitekoa bete degu.

–Baiña zuek ere izenpetu dezute.

–Bai, noski. Batzuek atzera egin izan balute, ez giñan etorriko ere. Irabazi edo ez, denon naia dago jokoan.

–Alperrik ari zerate, bada, ametsetan. Ez dizutet xentimorik ere geiago emango. Konforme ez dana dijoala. Zuek eman dezute asiera. Beste lantegietakoak ere eskatuko didate orain; eta, denei emango banie, konturatzen al zerate nolako ondorenak ekarriko lizkidaken orrek neri?

–Zure langille guziei eguneko bina pezeta geiago igoa-gatik, zure interesetan ez luke zimikorik ere egingo ere. Nolako milloiak ari zeran erregalatzen! Gu biok gure eginkizuna bete degu. Lagunak gu aukeratu giñuzten. Baiña zuk daukazu ogei eta amaika eskutik. Jakizu, ala ere, miseri gorrian bizi gerala emengo langille guziak.

Gauzak goraka dijoaz; dirua, berriz, beeraka. Zortzi peze-tarekin, bada, gaur ez daukagu oiñetako diña ere.

–Enkargatuak ere izenpetu du noski?

–Bai; berak leenengo. Ura ere gu bezela dabil, bost seme-alaba gazteren aita. Baiña eskari onen asiera ez da or-tatik etorri. Beste lantegi askotan jaso dutela-ta, guk ere proba txiki bat egin bear degula, ea irixten degun. Bagen-duen, bai, zure ukoaren beldurra, batez ere enkargatuak.

–Itun au egiteko bera ibili omen dek leenengo, esan di-datenez.

–Beste langille lagunak zirikatuta, arek ezin zezakeen atzera egin.

–Bai; langille aparta dek, eta zuek asko maite dezute-na. Baiña aren iritziaren berri ondo ikasia nago. Naastai-lllea dek benetan. Esaiozute biar amaiketan onera etortze-ko. Baiña zalaparta geiegi ateratzen badezute, nik jakingo diat lantegi onekin zer egin.

–Baita guk ere, nagusi jauna. Besteren bizkarrak gizen-tzen ezin ariko gera. Zuk ematen diguzun baiño modu obean non-nai billatuko degu lana.

Agurtu eta ituna asarretutako nagusiaren eskuetan utzita, ixilik eta buru makur atera ziran aren aurretik, ezer iritxiko zuten itxaropen aundi gabe. Eta aopeko zemai arekin zer esan nai ote zuen? Lagunartera etorri ziranean, auek ala galdetu zieten:

–Zer moduz? Zer ziok gure nagusiak?

–Asarre zegok, motell, eta zemaika.

–Orrenbeste milloi alperrik botatzen ari dan batek eguneko bi pezetarengatik zemai egitea ere... Zer zekitek oiek kristau izatea zer dan? –zion enkargatuak.

–Ez ori bakarra. Biar amaiketan i igotzeko esan ziguk –jakin erazi zioten–. Muturje goxoa zeukaken.

–Ori besterik ez bada, ondo zegok. Joango gaituk. Be-raren bizi-zaitzailleak izan giñun garai batean.

Aurpegiz aurpegi

ESANDAKO orduan jo zuen atea. Erloju bat baiño txuxenagoa zan enkargatua. Berak ere etzuen oso gogozkoa izaten luzaroan besteren zai egon bearra, eta besterentzat ere etzala atsegiña izango. Ortan, bada, txintxoia zan benetan.

Baiña etzuen erantzunik artu. Gela barru artan etzegoen iñor; edo, bestela, lo betean.

Badaezbada, unetxo baten ondoren jo zuen berriro eta indartsuago, nai dutena egin bear duten oiek erretxiñak izaten dira eta. Zerbaiterengatik edo norbaiterekin izketan geratzea bazitekeala pentsatu zuen; bestela, aaztu edo garairako ezin etorria izango zuela.

Nagusiak besteengandik txuxentasun ori eskatzen zuen, baiña bera besteekin askotan ez izan alakoa; eta, jakina, menpekoak ori dena ixilik eta pazientzian eraman bear. Orrela oituak zeuden jauntxo asko beiñepein.

Noizbait, ia ordu erdi beranduago, azaldu zan nagusia, dotore asko jantzia, eta ez enkargatua bezela, koipez zikindutako buzo urdinxta batekin. "Neregatik ote dator orren dotore?" zion berekiko enkargatuak, bere buruari adarra joaz, zikiña baizegoen.

Aberats antzeko kapelu aundia, betaurreko eder batzuekin eta Frankoren antzera bibote motxarekin... Aren zale ziran auek, jantzia ere urdin illuna: korbata bi kolorekoa, Espaiñaren ikurriña alegia; oiñetakoak, txuri-beltzak; eta puru eder bat ezpaiñetan zekarrela, goxoa zetorren garai bateko abertzale sutsu mitin egillea, eunka eta millaka gizon il erazi zituenaren eder egiñez, eta jantzian ere aren morroi azalduz. Jainko diruaren lanak!

–Egun on! Amaiketarako emen al engoen? –esan zion zakar. Badaezbada, ez beiñepein barkatzeko bere aitzaki bezela jarritz. Langille morroi arekin etzan etiketan ibiliko. Bestela ere naiko laiñeza artua zuten. Egundo olakorik!...

–Baita zuri ere. Amaiketarako etortzeko esan zenidan eta... –erantzun zion enkargatuak, nagusia goitik asi eta beeraiño neurtuz.

Dotore zetorren. Baiña urteez gaiñera, beste griña gaiztoren batzuek osasunari tiraka ari zitzaizkion. Argala zegoen oso, eta begiondoak aunditu eta ubeldu samarrak zekarzkien. Guda ezkerro etzuen nolanaiko aldaketa egin.

Biak batera sartu ziran. Maiaren gaiñean zeukan langilleen ituna. Ia ordu erdi bat igaro zuten eztabaidaka, eta etzion eseritzeko ere baimenik eman. Arroa zegoen nagusia, baiña pipiak joa. Leenengo, itun ura irakurri zion.

–Zergatik egin dezute au? –galdetu zion zorrotz aurpegira begiratzuz.

–Ez al du or jartzen?

–Bai; baiña ire ezpaiñetatik entzun nai diat.

–Jakín dezazun zure langilleak nola bizi geran. Arri-tzen naute gure emazte gaixoak, nola sortu lezateken pezeta ale oiekin fameliko mantenua eta geren larru gorria estaltzeko aiña.

–Eta nik mantendu bear al dizkit zuen fameliak?

–Lan egiten duenak lanetik bizi bear du, eta eskatzen dizuguna emaguzu. Ez degu besteren bearrik.

–Gobiernoak agintzen duenean, emango dizutet. Birtartean ez.

–Ez da orduan ezin dezulako, nai ez dezulako baizik. Zure diru putzu oiek irabazteko lan egiten degunok bear gorrian utzita, zer ikusirik ez daukan aberatsari ematen ari zera gure irabaziak.

–Nereak dituk eta oiekin nai detana egingo diat. Nere lantegian sortzen dan geiena berak erosten dik; eta, esker-rak emateko, irabazi oietatik nik ere zerbait eman bear zioat.

–Eta olako irabazia ematen dizuten erremienta oiek egiten ditugunok, ez al degu zure maitasun geiago merezi?

–Jaurlaritzak agintzen duen arte, orrela joango gaituk. Nik ere oien aurrean makurtu bearra zeukat.

–Ondo dago. Biotz ori samurtzen bazaizu, gure premi eta naiaren berri badakizu.

–Baiña ik, nere lagun maitea izanik, sortu al dizkidak buruauste auek guziak? Itun au ikusi arte ez nian sinisten.

–Lagun maitea diozu? Nik ere zu ala ziñala uste nuen. Nere ametsak lekutan geratu dira. Bi lagunak izateko, elkar maitatu bear dute. Ni zurekin ala nintzan; baiña zuk ukatzen gaituzun ezkerok, guk ere ala egin bear. Zure laguna izan nai duenak, bere burua makurtu eta txakurra nagusiaren mende bezela jarri bearoko du. Gure eskari larriak ez du erantzunik artu. Nik ez det ortan ezeren parterik; izena eman detala. Egun batean langille batzuen emazteak etorri ziran onera, etxera eramaten genuen diru pixar orrekin ezin zitekeala fameli bat azi. Gu galtzadunak izan eta ala ere ez bagiñan geiago mugitzen, aiek jantziko zituztela galtzak, eta errian matxiñada gaiztoren bat sortu ere bai. Ori ez da, bada, zuretzat eta guretzat ere oso atsegiña izango. Oiek bultzata gatoz. Orduan pentsatu genduen itun ori egitea. Leenengo, lantegi barruan asi giñan; baiña norbaitek salatu eta eraso ziguten. Bai askori epelak eman ere. Gizarajo bati betaurrekoak jarri berriak autsi zizkioten. Ari ere norbaitek ordaindu bearoko dizkio, ko-bratzen duenarekin ez du ezer askorik aurreratuta eukiko eta. Nik ere, ainbeste maite nauen lagun baten aginduz, arratsa espetxean pasa nuen. Egi biribillak dira auek denak. Urrengo, berriz, mendian egin genduen. Baiña aurretik izendatutako lekuan ez giñan geratu; eta, orregatik, zuk bialitako zapaltzailleak ez giñuzten arrapatu. Ori da eskuan daukazun itun orren istoria. Oroitu zaite nik bost seme-alaba dauzkadala. Gurasoekin, zazpi. Bakoitzari pezeta bana besterik etzaio geratzen eguneko. Sari eskas orrekin jan, jantzi, umeen eskola, etxeko errenta, nai eta

nai ez egin bear diran txangoak, sendagillea, sendagaia eta beste ustegabeko asko, ikatza edo egurra... Eguneko peze-ta banarekin zer egin bear dezu? Jar zazu zure famelia orrela, ea nola moldatzen dan. Zuk aoran daramazun puru eder orrek geiago balio du. Gero, «lagun maite batek neri olakorik egitea!...». Aurpegira botatzen didazun ori ez da neretzat iseka bat besterik. Ni zure laguna banaiz, zergatik ez zu nereaa? Denok elkarri lagundu bear diogu. Ez bearsuak bakarrak, aberatsa gure bizkar geiago gizendu eta aberastu dedin. Larunbat arratsaldean, igande egoartean berdin, ni baserrira joaten naiz, an bazkaldu eta apaldu eta, jakiña, beren lanetan al detana lagunduz. Beti zerbait emango didate: babarruna dala, arraultzak dirala, edo gazta... Sutarako egurra ere bai; eta ez datoz gure etxerako gaizki. Orretzek salbatzen gaitu gu gose gorri batetik. Bestela, nik ez dakit zer egin bearko genduken: lapurretan asi edo... Eta ni bezela dabilta beste gaiñerakoak.

–Bai. Ori dena ala izango dek, Baiña ik asiera eman diok, arro samar gaiñera. Ori ikusita, beste lantegietakoak ere laster asiko dituk. Berdin erasoko zidatek, eta nere pakeak bukatu dituk. Zer esaten didak?

–Guk aspaldi galdu genduen pake ori. Zu eziñean zebiltzanean, amaika orduz fuera sartu eta barau egiñak gera gu. Zu aparra bezela igo zera, eta guk oraindik leengo sari neurria artzen degu. Autsa bezela darabilkizu dirua. Ori ikusita, ezin bizi geran langille auek ixilik geratuko al gera? Zer erantzuten diozu orri?

–Eta nik nai detana ezin egin? Ez al da nere dirua?

–Dena ez, nagusi jauna. Uko egingo dizut zuri. Irabaziaz gaiñera sobratzen dan dirua ematen ari zera, eta ori gure lanaren saria da. Orrek legez guretzat bear luke. Lantegia zurea da eta asko arraixkatu dezu. Zure partea tokatzen zaizu. Baiña uztazu lantegi ori langillerik gabe, ea zer ematen dizun. Zurea jaso eta Frankori eta beste edozeiñi ematen ari zeran diru ori gurea da; eta, kontzientziari begiratur, ezin zenezake nai dezunik egin orrekin. Irabazi sobranteak dira oiek; eta, ori jasotzeko, leenengoak gu gera.

–Orduan nik etzeukat limosna emateko eskubiderik?

–Zuretik bai, nai dezun aiña. Baiña guretik ez.

–Orduan nere irabaziak zuenak dituk?

–Leen ere garbi asko esan dizut gure postura: irabaziak ez, baiña zurea jaso eta ematen dituzun sobrante oiek bai. Donostian alako txaleta altxatzen ari zera. Zertarako dezu? Berrogei milloi pezeta sartu dituzu, eta oraindik asi besterik etzera egin. Zenbat milloi sartu bear dituzu alperrikako eta berdiñik ez duen txalet ortan? Garbi dago jasotzen dezun dirua ezin enpleaturik ari zerala. Gero, zure irabazietatik ogei milloi Frankori eman dizkiozu. Eta ori guzia irabazi dizuten langilleentzat, asteko berrogei eta zortzi pezeta. Nola erregali orrek ez dizu biotza leertzen eta kontzientzi ori naasten? Zer ikusi dauka, emen egiten dan lanarekin, Frankok? Diru ori legez gurea da, bada.

–Ez dezute, bada, xentimorik jasoko. Ez bazerate konforme, aldegin zazute. Nonbaitik ekarriko dizkiat langilleak. Bestela, itxi egingo diat.

–Ori da orduan zure azkeneko itza?

–Igotzeko Madrilletik agintzen dutenean, nik ere jasoko diat esandako neurrira. Beste gaiñerakoan, bat ere ez.

–Eskatzen ditugun bi pezeta kaxkar oiek ere ez?

–Zuek, langille oiek, elkar artu dezute; eta guk, nagusiok ere, berdin egingo diagu. Ortan zegok gure indarra.

–Ori ez da zuk nai bezela bukatuko. Amaika lantegiko nagusik igo dute bi pezetatik gora. Baiña orain arte ez diguzu nolanaiko lapurreta egiten.

–Ez badezute nai, utzi. Billatuko dizkiat nonbait langilleak.

–Ori zedorrek badakizu ezetz, gure sari neurrian beñepein. Eta emengo motorren berri dakienik, ain gutxi. Ala ere, ori ez da arrazoaia. Zuretzat indarra da lege, ez elkar-maitasuna. Ez dezu nolanaiko aldaketa egin. Ni zure atzetik bizi ori babestu nairik duan ibiltzen nintzanean, zu etziñan olakoa. Bizi bearrak lotu gaitu, bada, gu ere; eta beste eskubiderik ez degun ezkerro, lanaren mende ge-

ratu gera. Jarraituko diogu asitako protesta oni, eta bu-
ruauste gogorrak izango dituzula uste det.

–Ez badek besteekin bat egiten, iri jasoko diat, enkar-
gatua aizen ezkeru.

–Nagusi jauna, ezta pentsatu ere. Olako billaukeririk
ez da sartuko nere biotzean. Oien suertea izango da nerea
ere. Baiña amaika bider ibili nintzan eskatzekotan, enkar-
gatua nintzan aldetik. Besteak baiño ordubete lan geiago
egiten det nik sarreran eta erteran, zuk ondo dakizun be-
zela. Baiña orain berandu da. Ez ikusi egin eta kitto. Aurki
emen asiko zaizkizu ixkanbillak eta zaratak. Opor eta ma-
txinadak, zer esanik ez. Benetako beldurra ematen didate;
baiña eskatzen ditugun bi pezetak iritxi arte, ni izango
naiz okerrera. Goseak begi gorriak ditu. Aberatsa geiago
aberasten ez gera ariko jan truke, gosea akontsejatzaille
txarra baita.

–Zemai egiten al didak?

–Ez al dezu ikusten zu diruak ezin enpleaturik eta gu
ezin gerala bizi? Guk atzera egiten badegu, emakumeak
jantziko dituzte galtzak. Orduan berak egingo dute ager-
men ori, eta nik benetan zirikatuko ditut. Lagundu ere
bai. Seta gaiztoa artu dezu eta ez dezu makurtu nai.

–Bestek bearbada matxiñadak egingo dizkitek, baiña
ik ez nere lantegitik. Torik irabazi dekena, eta gaurtik au-
rrera paurrikatik bialia geratzen aiz. Or konpon. Etsaiak
mantentzen ezin ariko gaituk.

–Ori al da lagun maite baten lana? Beti guk artu bear
ditugu galerak. Lantegitik bialtzen nauzula? Ez didazu
naigabe aundirik ematen. Zuregatik ari nintzan ni emen
lanean. Alaxe ordaintzen didazu? Auzoan daukat alako
arrobi aundi bat. Eguneroko saria, amalau pezeta. Sei pe-
zetaren aldia ez da gutxi. Baiña, nagusi jauna: irakurri al
dezu alako ebanjelioak dion ura?

–Ebanjelioa? Zer dek ori, dirua egiten ere uzten ez
duena?

–Lapurtzen ez beiñepein. Ori ere ez al dezu sinisten?
Diruak arrunt itxutu zaitu. Jesusek ango aberatsengatik

izugarriak esan zituen, eta ona emen alako bat: bazan gizon bat aberatsa, eta urte artan sekulako uzta eduki zuen. Etzekien zer egin aberastasun aiekin. Besteri emateko amorik ez beiñepein. Bere baitan ondo pentsatuz, azkeneko ala oroitu zitzaion: Badakit zer egin aberastasun oiekin. Botako ditut almazen zaarrak, berriak eta aundiagoak jaso eta ara bilduko det uzta bikain ori. Orduan, zoriontsu, onela esango diot nere buruari: «Jan eta edan zak lasai eta goza adi, urteetarako naikoa badaukak eta». «Zoro aleena –nabaitu zuen bere biotzean–. Gaur bertan eskatuko ditek ire bizia. Pillatu dituken aberastasunak norentzat geratuko dituk?».

Nagusiak par egin zuen:

–Ipuiñak!

–Bai. Ipuiñak izango dira, baiña olako ejemplo bat baiño geiagotaz oroitzen naiz ni. Zeu ere bai, noski, ez dezu aitortu naiko baiña.

–Nik bai zure arrokeri oietaz irri egiten detala! Aurre-regi sartu zera.

–Zuk ez daukazu lantegi au ixteko eskubiderik. Emengo langilleak bialtzeko ain gutxi. *Excombatiente* naiz, eta ez ni biali. Nere pekatu guzia bi pezeta geiago eskatzea da: eta, emendik joatea pentsatzen badet, nere borondatez joango naiz. Etsaia gizentzen ezin ariko gera. Bein baiño geiagotan nere emazteak esan izan diat lantegi au utzi eta arrobian asteko. Zoritzarrez, an ere enkargatu egingo niñutela eta ez daukat joateko gogorik.

Ori esan eta serio-serio agurtuz, atera zan andik. Nagusi zurraren ezezko orrekin, joan zan enkargatua bere lagunetara. Aien artean ere etzegoen, bada, atsegin aundirik.

–Zer berri dakarrek? Serio ator!

–Il naiago dik gure nagusiak, amor eman baiño. Ni, berriz, biali egin nai nioken bere lantegitik.

–Biali? Epela sartu dik!

–Baiña esan zioat alperrik ariko dala. Komeni zaidanean aterako naizela: eta, gizona baldin bada, leenengo zo-

rrak ordaintzeko. Nik beste langilleak bezela kobratu eta gutxieneko eguneko ordubete geiago sartzen detala. Ordaintzeko, bada, zorrak.

Alako *run-run* bat geratu zan langilleen artean.

Emakumeen agermena

EUSKADIKO erri aundi eta txikietan bada oitura bat, Jainkoak jakingo gu noiztikakoa: erriko jaietan bazkari eder bat egitekoa. Garai aietan, beiñepein, urtean egun gutxi ziran ortarako aukeratuak: Eguberri, Urteberri, Pazko... Kristau errietan jairik maiteenetakoak, eta benetan errikoiak ziranak.

Gurasoen egun eta urte-betetzeak, guk gazte denbora igaro genduen lekuan beiñepein, ia etziran aintzakotz artzen ere. Zenbait famelitan, ezta jakin ere ez gazteak eta ez zarrak noiz betetzen zituzten. Nik ez dakit gure gurasoak noiz betetzen zituzten urteak. Guri etziguten esan. Beren santu eguna bai. Baiña askotan bi jaiak etzetozen batera. Galdetu ere ez genien egin txikitan; eta, jakiña, etziran ospatzen. Aiek zenbat urte zituzten guk ez jakiteagatik ote zan? Ez det uste. Aurretik zetorren lege ori eta guk ez genduen ortan aldaketarik egin.

Urtebetetzeari etzizaion, bada, garrantzirik ematen eta etzan aintzakotz artzen. Baiña, leen esan detana, erriko jai eta elizarenak bai. Erriko Zaindariarena izaten zan oparoenak. Egun oietan etzan jendea kastu beldurrak egongo.

Asiera bezperan emango zitzaion. Oillar gizarajoak pagatuko zuen larrutik, bere biziarekin alegia. Amak norbait aukeratuko zuen oillarra arrapatu eta il eta lumatze-ko. Andik aurrerakoa bere gain artuko zuen. Aprobetxatu zitekeanik etzan galduko. Bazkaria jartzen, jakiña, beste emakumeren bat etxean bazan, arek lagunduko zion.

Gizonezkoak jai egoartea parrandan pasako zuten. Meza nagusi ederra entzun eta egurastu egingo zuten, etxeko lan pixarrak egin eta al zuten txukunena dotore jantziak. Ortan ere azkeneko igurtzia emazteak emango

zior senarrari, Adan bat egiña etzedin karrikara atera. Beren txapel eta guzi –gure gazte denboran bearrezko jantzia zan au– meza nagusira joango ziran, ordua baiño leentxeago. An beren lagunartera sartuko ziran.

–Goazemazute emendik tabernara –oiu egingo zuten norbaitzuek–, mezetako garaia oraindik ez dek iritxi eta.

–Etzegok gaizki esana, datorren aste guzian, lanpean lotuak, ez diagu ortarako ere egokierarik edukiko eta.

Izan ere, aste guzian baserri lanetan ariko ziran, tabernarik bazanik ere oroitu gabe. Egun aukeratu oietan asko neurritik pasatzen zirala? Ez da arritzekoa: kaleko jendeak egunero egiten ditu olakoak.

Meza Nagusira arte berriketan olaxe ariko ziran. Baiña eliz-torreko kanpaiak entzutean, denak txintxo-txintxo mezetara. Au luzeegia, noski. Apaizak, itzaldi sutsu bat egingo zuen, egun artako jai goraipatuz. Andik erteeran, berriro erriko tabernak bisitatu gabe etziran etorriko. Urrutiko baserrietakoak baxoerdi bat edo bi artu eta etxerako bidean jarriko ziran. Bai-baizekiten bazkaria baiño leenago, au berandu samar izaten baizan, amaiketako eder bat izango zutela. Etxekoandreari atsegin izaten zitzaion, gaiñera. Etxera ordurako, bada, leenengo bisita sukaldera, zer moduzko bazkaria ote zuten ikustera. Emazteak etzien erritarik emango; goxo-goxo artuko zituen:

–Zoaz gora eta alda zaite –esango zuen, etzuen jaietako soiñekoa zikintzerik nai eta–. Gero atoz eta elkarrekin salda bero bana artuko degu.

Etxean geiago baldin baziran, denentzat katillokada bana aterako zuen, nai zuenak ogi arroarekin artzeko, bottilla bat ardo basoekin eta oitura zuten jaki xixtriñak. Etxekoandrea ere besteekin batera maian eseriko zan, eta denak elkarrekin egingo zuten amaiketakoa. Errian zer berri zegoen galdera batzuk egin eta etxekoandrea berriro lanera joango zan. Amaiketako ori denentzat izango zan, nai bazuten beiñepein, bazkariaren asiera bezela.

Konbidaturik bazan, oso ondo artuko zuten. Ongi etorri gozoa egiten zitzaion. Baiña ez itz utsez bakarrik. Kati-

llukada salda ederra ere, bere ardo eta guzi. Ez al zan, bada, oillarra illa, salda gozo bat egiteko?

Guk bagenituen ortarako urtero etortzen ziranak: senar-emazteak, adin samarrekoak, ernaniarrak. Beren agurak eta ongi-etorriak egin ondoren, maian eseriko ziran. Katillu bero-beroa, gantzatsua, izarrez betea eta kea zerio-la ikustean, zoriontsu, ala esango zion senarrak emazteari:

—¡*Ánimo*, Margarita! Au da saldaren gozoa! Oillar onek ez du geiago kukurrukurik kantatuko.

Urrengo egunean sardin zaarrak izango baziran ere, aal genezaken bazkaririk onena egiten genduen egun artan. Bazkaria berandu eta luzea. Mundu guzia naastuko genduen: gogozko genduen, zeruraino; besteak, ain atsegiñak etzitzaizkigunak, inpernuetara sartu. Gure argurioa askotan alamoduzkoa izaten zan; ez beti garbia. Gaizki esakarik ez genion alako garrantzirik artzen. Eztatzaigun pekatua zanik iruditzen. Lasai geratuko giñan. Baiña birao bat entzun orduko, buruko illeak ere txutituta jarriko zitzaizkigun. Bai aguro kargu artu ere; eta, agian, gaizki esakak biraoak baiño malezi geiago eduki zezaken.

Bazkaria bazijoan aurrera: azpilla bat kendu, bestea jarri eta kendutakoa garbitu. Ez baizan ortatik ere aukerarik izaten. Etxekoandrearentzat benetan zan nekegarria. Onentzat etziran egun auek oso atsegiñak. Kanpotarren batzuk etortzen baziran beiñepein, sail aundia biltzen giñan eta emakumea bakarrik uzten genduen. Ondo egin nai, berriz, arek, eta ezin iritxi. Maian exeriko zan, lagun gazte bat baldin bazuen. Bazkaria bien artean prestatu bazuten ere, gazteak serbituko zuen. Bertsorik etzan paltako, gure sukaldean beiñepein. Azkenean, denen gaiñetik, akeita aterako zuten. Gazte giñanok, leenbaileen artu eta maian geratzen ziranak agurtuz, erriko ixkanbillara joango giñan, arratsalde on bat igarotzera.

Zaarrak, ordea, ia illundu arte etziran maitik jeikiko. Kopaxka bat bestearen ondoren, kapea nai zuenak berdin, katu erdian jarri arte. Naastuko zituzten bazter guziak. Gazteak joan zai egoten ziran ortarako, askatasun osoan

itzegiteko. Bazuten beren kontzientzia: gure aurrean etzuten olako maxiekatarik nai, agian guk zabalduko genduen beldurragatik. Noizbait kezkatuko zan konbidatuta etorritako etxeoandrea:

–Baiña, Joxe Antonio: badakizu noiztik gauden exerita? Laster ez bagera mugitzen, itsatsiak geratuko gera bertan. Illuna ere badator eta urrutik dago emendik Ernani. Gu, berriz, onenak emanta. Etxekoandre gaixoari ere arnas pixar bat artzen utzi bear diogu.

–Emakumea beti emakume! –erantzungo zion senarrek–. Jainkoak egin nonbait olakoa. Ni, non nengoen ere aaztuta bizi nintzan. Gu baiño erneagoak dira auek.

Nagi samar, baiña noizbait bukatu, zutitu eta bere gilbor aundiari igurtzi batzuk egiñez, onela esango zuen:

–Au bapo zegok beiñepein, eta amaika egongo dituk ni baiño okerrago. Azkeneko kopaxka au artu eta joango gera. Bete, bada, beste bat.

Bere ura polliki-polliki txurruptuz muxuketaren ordeztzure etxean ez genduen olako oiturarik ezagutu, baiña ez genduen orregatik elkar gutxiago maite– noizbait atera ziran atarira; eta an berriro itza eta putza, ezin berezirik.

–Baiña. Joxe Antonio! Goazemazu!

–Agur, Joxe! Emakume auekin!...–esango zuen, baiña maitasunez–. Ea datorren urtean beste olako bat egiteko egokierarik izaten degun.

Eta mendiko bidetxigor zakar batean gora ezkutatuko ziran. Urrengo urteraiñoko pakea egiña zegoen gure etxean. Gure aita zanak, azokara joan eta bisitaren batzuk egingo zizkien; baiña aiek etziran gurera etorriko. Bitartean ez bazan ezeren okerrik, kontatu dedan ori berrituko zan.

Baiña gure paurrika artako langilleak ezin olakorik egin zezaketen, eta beren emazteak etzeukaten alako aukerarik. Eguneko zortzi pezeta zirtzillekin, zer jarri bear zuten? Enkargatuak bazeukan oillo eder bat, botella sargardo batzuekin, baseritik ekarriak. Beste gaiñerako denak beren eguneroko orrekin suminduak bizi ziran, eta

aizkatu bear zuten erriaren aurrean, berak zeramaten bizi-modu larria zabalduaz; eta etxekoandre guziak elkar artuta, beren senarren berri gabe, agermen txiki bat egitea pentsatu zuten.

Egoarte batean, bada, erriko jendea arrituta geratu zan ikusi eta entzuten zutenarekin. Ogei eta amar bat emakume, beren senarren galtzak jantzi eta agermena egiten. Etzuten agintarien baimenik. Beren senar eta nagusiak ere etzekiten ezer ere. Zer pentsatu etzekitela geratu ziran guziak, ikusten zutena ezin sinisturik.

Bakaillua baiña igarragoko emakume bat zijoan aurretik, galtzak arrastaka zituela. Gerrian, berriz, alako bi kabitzeko aiñako zabalera bazeukaten. Kartela au eskuan, idatzi au zeramana: «Biar erriko jaiak ditugu. Eguneko zortzi pezetarekin, nolako bazkaria jarri genezake?». Aurrean zijoan etxekoandreak, kartela esku batean eta bestearekin galtzei ezin eutsirik, naiko lanak bazituen. Orduan etzuten emakumeak galtzak jazteko oiturarik. Batzuek galtzak luzeegi, besteak lasai eta askoak estuegi, naiko parrara egin zuen jendeak.

–Erri ontan ez bada galtzadunik, guk jantziko ditugu eta lanera joango gera. Ea gure senarrak nolako otordua jartzen diguten zortzi pezeta ale oiekin. Egoarte guzia parrandan igarota, patxara ederrean etorriko zaizkigu, egundoko bazkaria edukiko dutelakoan. Alperrikako ametsak! Eguneroko modukoa arkituko dute; eta, asarre, ala esango digute: «Ez al dakizute gaur erriko jaiak dirala? Ezer berezirik ez al daukagu?». «Bai; baiña guk, beti bezela, zortzi pezeta artu ditugu eta ezin genezake geiagorik jarri. Bestela, biarko zorretan geratuko giñake».

Gizonei beren jipoia eman ondoren, nagusiari eraso zioten:

–Milloiak non enpleatu ez dakizula zabiltz. Langilleak, berriz, goseak akabatzen dauzkazu. Frankori eman dizkiozu ogei milloi, langilleak irabazitako dirua.

Erriko jaietara etorritako jendea ere bai, baiña batez ere beren senarrak izutu ziran:

–Zer atarramentu ote da au? Nor ote da agermen orren buru egiten duena?

Egoarte guzia olaxe igaro zuten. Nagusiak laster bidali zion gertatuaren berri gobernadoreari, langilleen laiñeza ori mozteko bein betiko. Bereala azaldu ziran txapel oker oiek, eskarmentu on bat jartzeko zoratzen. Berdin orduko legeetan arrazoi zuten, indarkeriak agintzen zuen eta. Baiña ikusten zutenaren aurrean parrari eman zioten eta pakean utzi zieten. Etziran ezer egitera ausartu. Buru egiten zuenak onez onean ala esan zien:

–Leenbaileen buka zazute, ez degu indarkerian asi nai eta.

Ertzaiñak zer erabaki artu ezin asmatu burua austen zegoela, geldi-geldi agermena bukatu eta ertzaiñen aurretik bakoitza beren famelietara bildu ziran.

Etzan oraindik alakorik gertatu. Frankoren indarkeri garaian, gaiñera. Begira zegoen norbaitek esan ere bai:

–Au ez dek ortara geratuko. Oraindik agermen geiago egin bearko dizkitek, baiña illea zeroarekin moztuta.

Ortarako nagusiak aalegiñak egin zituen; baiña bere emazte eta alaba benetan aurka jarri zitzaizkion; eta okerrena, gobernadorea.

Iñauteriak pake-pakean bukatu ziran, eskerrak ertzaiñei. Denak zekiten erruduna nagusia zala.

Asarre eta sumindua azaldu omen zan au urrengo egunean lantegira, ezpatak ziztaka balitu bezela. Iñor agurtu gabe igaro omen zan langilleen artetik. Bai auek alkarri esan ere:

–Goxoa ziek! Enkargatuak entzun bearko dizkik ederak!

–Erantzunak ere alamoduzkoak artuko dizkik, bada. Bera ere amorratua zebillek. Baiña emakume oien aterak arritzen niok.

–Ez ote gero ori ere enkargatuaren lana izango?

–Nik beiñepein ezer ere ez nekien.

–Ezta nik ere. Bestela, joaten ez nioken utziko.

–Igaro dek beiñepein, bai, eta or konpon ditezela. Ea ezer onik ateratzen zaigun emakumeen iñauteri ontatik.

Nagusia langille denen artetik muturje beltzarekin igarro, bere arlekura igo eta enkargatua deitu zuen. Au txutxenean azaldu zitzaion, nagusiaren ate bakoitzari marati-lla jartzeko asmoan. Arlekuan sartu orduko, agurtu ere gabe, amorratu batek bezela ala eraso omen zion, exertzeko ere baimenik eman gabe:

–Txorakerietan al zabiltzate ala neri adarra jotzeko asmoan? Oso leku txarrean zabiltzate gero nerekin jolasean. Zuen laiñeza ori moztuko diat, lantegia itxita.

–Beti zemai orrekin zatoz eta ez gaituzu batere izutzen, ni beiñepein. Nik lantegia billatua daukat, ondo ordaintzen didana eta au baiño erosoagoa.

–Joan adi orduan eta utziguk pakean!

–Bai; joango naiz, baiña neri ondo datorkidanean. Nagusi jauna, zuri bezela, guri ere zarrazta izugarria egin zigun gure emazteen jokaerak, guk ezer ez genekiela, gure ixillean, berak elkar artu eta gordean atera ziran eta. Gure aurkako oiua ere izan ziran. Guk ez bagenduen olakorik egiten, berak egingo zutela, gure galtzak jantzita. Nereak beiñepein an zituen emazteak, eta kartel aundi bat zerman aurrekoak, guretzat benetako iseka.

–Eta neretzako ere bai noski!

–Jakiña! Biok jipoitu giñuzten. Zuregatik atera ziran. Izan ere, asteko berrogei eta zortzi pezetarakin egunerokora ezin iritxita, erriko jaietan zer berezirik jarri bear ziguten? Batzuk iñon diran edari eta jakirik piñenak eta garestienak janez asetzen diran bitartean, besteak, egun guzian lanean jardunta, aragi xerra batzuk erosteko ere dirurik ez. Zure langille bakar batek ere ez du erriko jaietan ezer berezirik artu, ez badiote erregaliren bat egin beiñepein.

–Eta nik mantendu bear al zaituztet?

–Pezeta batzuk geiago eman beiñepein. Etzera lur jota geratuko. Guretzat, berriz, ederki etorriko da; eta denok, etxeakoetatik asita, eskertuko genduen zure biozkada.

–Asiera eman diozute eta leku onean uzten nauzute ni!

–Orrek min ematen badizu, galerazteko badakizu zer egin.

–Bai; ederki eman ere! Leenago itxiko diat paurrika! Zuek okerrera jartzen bazerate, nik ere erantzungo dizutet.

–Badirudizu ez dezula beste arrazoirik. Baiña, nagusi jauna, zuk nai bazendu ere, ez daukazu lantegi au ixterik. Zuk emen negozio polita daukazu. Ori badakigu. Jaunbatazak, gaiñera, ez lizuke utziko. Orrenbeste badakigu. Zure zemaia eta baterez berdiñak dira guretzat. Baiña atzoko ortan guk ez degu errurik. Berak elkar artu eta ixilka egin dute dena. Ez ditu iñork zirikatu.

–Nagusi guziak bat egingo diagu.

–Ori ere askotan bota diguzu aurpegira. Baiña ez dezute ezer ere iritxiko, zuk bezela bazter guziak txikitu dituenari olako diru putzuak eman eta omenak eginta. Orrek berak zigortuta ibilli diran nagusiak, alperrik zabiltzate, ez dira zuekin batuko. Gu bai, batuko gera; eta langillerik gabe porrot egingo dute zure lantegi guziak.

–Langille berriak ekarriko dizkiat.

–Orixe ere egingo zenduke, bai, zuk, Euskadiren kontra egiteagatik. Baiña aiek makinaren berri ikasterako, zure diruak bukatuko lirake.

Purrustada batean bialia zuen aurrean, eta enkargatua bere lanera joan zan.

–Orain arte nagusiarekin egon al aiz? –galdetu zioten.

–Gozoa zegok! Paurrika itxiko duela; langille berriak ekarriko dituela. Baiña ixterik etziotek utziko. Zemai ugari, baiña alperrik. Onek, lanean martxan jarraitzezkeroz, gu bear. Bazekiat arazo onen bukaera zer izango dan: ni bialiko niok.

–Ez dik orrekin ezer askorik aurreratuko. Guk jan egin bear diagu eta ortarako diru geiago bear.

Erasoa

GURE enkargatua, lanak bukatuta, bere sortetxeko ganaiak eskatutako iturriko kanilla txiki batekin baserriara joan bear zuen.

Ortarako, txirrindula baten jabe zan. Kanilla bere lekuan jarrita, merienda lege bat eman zioten. Joaterako bazekien ori.

Aiekin izketalditxo bat egin ondoren, bere etxe aldera ko asmoak artu zituen.

Aldapa beera zeukan; baiña, emen esaten diogun bezela, gurdibidea, ondo zaindua ordea, baserri artarako bidea zan ori eta. Urtero auzoak *malobran* konpontzen zuten, lardaska egiten zutelako. Beste leku askotan *auzolana* esaten diote.

Txirrindulan zijoan, bada, aldapa beera, abiadura biziz. Etxean ere lan pixar bat bazeukan, eta baserrian uste baiño denbora geiago galdu zuen.

Kantari zijoan, ia egunero igarotzen zuen bide artan barrena. Bere etxeko sukaldeak baiño ezkutu geiago etzuen arentzat.

Illunbista ez, beiñepein; illuna zan. Bideak ezker aldera artzen zuen lekuan, alanbre mee xamar bat zegoen, norbaitek jarria, alde batetik besteraiño, ertzetako bi zugaitzi lotua, eta benetan tiran.

Illun xamar bazegoen ere, ikusi egin zuen bere azpira sartu baiño leentxeago. Bat-batean txirrindula geratzeko betarik ez eta bere burua bota zuen. Txirrindula, utsik azpitik pasa eta gero geratu zan. Zutitu zanean, antz eman zion zer zan. Berak izugarrizko autsirik ez beiñepein; bai-

ña aurpegian bazituen arramaska batzuk. Odola zerion, beñepein.

Sumindua geratu zan. Alanbre ura an jarri zuenak norbait iltzeko asmoak izango zituen. Etzan beretzat ipiña izango; baiña ia lepoa moztu zion.

Nongo deabruaren lana ote zan ura, eta norentzat jarria? Edozein errugabeko erori ziteken alanbre artan. Ai, zenbaiten kontzientzia!

–Goiko baserri oietako iñor ez da bide ontan beera jexten. Ni bakarra. Neretzat jarria ote zegoen au? Eta nork zekik ni emen ibiltzen naizela? Batez ere gaur baserrira igoa nintzala? Au ez baita oso jarri zaarra. Emen jende asko igarotzen dek egunaren buruan; baiña txirrindulan ni bakarra. Au emen ikusten duen iñork ez dik utziko kendu gabe. Ea neretzat jarria zegoen au? Baiña beste norbait ere erori litekek.

Alanbre ura kendu egin zuen andik. Bere ura eskuan artu eta begira-begira jarri zitzaion.

–Ez ote da gero au gure tailerreko alanbrea?

Bildu zuen eta berekin eraman. Goizean jakingo zuen berari ipiñi zioten edo ez. Aren antzeko bat bazekien non zegoen.

Berak uste bezela ura ala bazan, bazeukan langilleen artean etsai gaiztoren bat, iltzeraiñoko gorrotoa ziona. Erne zeukan ibili bearra.

Etxera sartu zanean, emaztea izutua geratu zan bere senarra odoletan ikusi zuenean.

–Zer gertatu zaizu?

–Baserritik txirrindulan abaillan nentorrela, alanbre au bidean alderik alde jarria zegoen tira-tiran, bi ertzetako zugaitzetan ondo lotua. Lepoa moztuta bertan ez gertzezkeroz, nere burua lurrera bota det, eta aurpegiarekin lurra jo detanean egindako arramaskak dira auek.

–Eta zuretzat jarria ote zegoen?

–Seguru asko bai noski. Baiña jakingo det.

–Egin duenak kontatuko dizula uste al dezu?

–Ez naiz orren iñoxentea. Alanbre au gurea dan edo ez biar seguru jakingo det. Ala bada, saillean badet etsai gaiztoren bat.

–Umeak jolaserako jarria izango zan.

–Ez iñondik ere. Oiek ez dute alanbre au zegoen bezela jartzeko algorik. Malezi geiagokoren bat ibili da or.

–Jesus! Olako kristauak ere bai al dira gure artean?

–Bai ote dan olako kristaurik? Olako lanak egiten dituen ez da kristaua, elizatik atera gabe baldin badabil ere. Nik ez det iñorekin ezer eduki. Au jarri didanak badarabilzki bere asmoak.

–Zu aurretik eramanta enkargatu jartzeko?

–Gaur bertan utziko diot nai duenari leku ori. Saririk gabeko erantzunkizun gaiztoa besterik ez du orrek. Nagusiarekin ere ez nabil ondo. Arraixku txarreko lana da beiñepein.

Emazteak aurpegia garbitu zion, eta espiritu pixar bategin erre.

–Beste nonbait okerragoko golperik ez badezu, au ez da ezer. Norbaitek nik baiño obeto lotuko dizu.

–Anaiari lan txiki bat egin, meriendatxo bat artu eta txirrindulan aldapak beera kantari natorrela, ia bertan geratu nintzan, burua batera eta gorputza bestera.

–Eta iñoren susmurrik badezu?

–Neretzat ipiñia bazegoen, bai: billaua esaten dioguna. Ni baserrira joaten ikusi eta gero egindako lana gaiñera. Ez iñori kontatu. Esamesa ugari etorriko zaigu ortik eta ez gera iñor ere garbi geratuko.

Urrengo goizean, oi zuen bezela, pixar bat leenago joan zan lantegira, ea alanbre ura andik lapurtu zioten jakiteko.

Langilleak, banaka-banaka etorri aiñean, zer gertatu zitzaion galdetzen zioten.

–Denak etortzean kontatuko dizutet.

Andik eta emendik denak bildu ziranean, txokoan zegoen alanbrea artu eta ala galdetu zien:

–Au non zegoen jakingo dezute noski?

–Bai, motell. Alako lekutan.

–Au jarri zidateken atzo illunabarrean, nik txirrindulan aldapak beera igaro bear nuen lekuan, alderik alde trabeska, bi ertzetako zugaitzei lotua, txirrindulariaren lepoa arrapatzeko moduan. Bat-batean ikusi nian, eta nere burua lurrera bota. Orretzek salbatu nioken. «Alanbre au ez ote da gero gurea?» nioken nerekiko. Bilduta emen ekarri diat, zuei erakusteko. Nik ezik, zuek ere ezagutuko dezute. Bai, diozutenez, non zegoen jakin ere. Gertatu orren berri nere emazteak eta nik bestek etzekitek, eta ez nitek nai emendik kanpora ateratzerik. Bestela, galderak eta azterketak asiko zaizkiguk, eta ixtilu pranko sortuko ligukek.

–Alazankoa! Ori gure saillekoa izango dek iñondik ere!

–Zalantzarik gabe, alanbre onen berri guk bestek etzekiken.

–Eta nor izan litekek ori?

–Nere iritzian, gure sailleko billaua.

–Eta ixilik pasa bear al dek ori?

–Leen ere naiko ixkanbilla bazerabilkigu emen. Berriro auzitara asi gabe ez dezute noski naikoepailearen aurretik igaro aren galderei erantzunez. Agian bera emen saillean zeukagu entzuten. Baiña iñondik ere nagusiak jakingo dik.

–Aren susmurra egiten al dek? Motell, motell, nora oa? Ori ere buruari garrantzi geiegi ematea ere badek.

–Ez didazute ulertu. Nagusiak bazekik emengo billaua nor dan, eta au iñondik ere aren lana dek.

–Nork zeukak irekin emen ezer?

–Ori dek nik jakin nai nukena. Nork jarri zidak, bestela? Ni nora joan nintzan ikusita egindako lana dek ori, eta kanpoko batek ez dik alanbre ori ortik lapurtu.

Izketan-izketan, lanerako ordua etorri zanean, denak txuxenean beren lekuetara joan ziran.

Amaikak alde ortan azaldu zan nagusia, norbaitek abisatuta; eta bereala enkargatua deitu zuen.

–Badiagu orain ere sermoiren bat –esanta joan zan.

Gelako atea zabalik zeukan, eta “Agur, nagusi jauna” esanez barrura sartu zan.

–Baita iri ere.

Antz eman zion enkargatuak nagusia serio zegoela.

–Neregatik zer esaten ari aiz i?

–Nik dakidala, beiñepein, txarrik ez.

–Nere belarrietara, bada, berri kaxkarrak etorri dituk. Ire bidean alanbreren bat jarri omen ditek, txirrindularen oala, an trabatzeko.

–Ori egia da. Atzo illunabarrean.

–Eta nor zan badakik?

–Nik ez.

–Zertarako aritu aiz, bada, langilleen artean, nik jakin-go detala esaten? Zer uste dek; nik txorakeri oietan nabillela?

–Ori esan detala egia da.

–Nere susmurra egiten al dek? Auzitara deituko aut.

–Nai dezuna egin. Berdin badakit ni emendik bialtzeko asmoan zabiltzala. Nik ez det zure susmurra egin. Ezta egingo ere. Berdin badakit papertxo bat aski dezula ni emendik bialtzeko. Politika onekin ez gera zuen esklabo batzuk besterik. Zuk badakizu emengo gu salatzen gaitun ori nor dan; orixe da neri alanbrea jarri didana. Ori da nik atzo esan nuena. Batek ala aurpegiratu zidan: «Garrantzi geiegi ematen diok ere buruari». Eta erantzun au artu zuen: «Nagusiak etzeukak ortan zer ikusirik. Ez dek orren txoroa. Billauak bai, ordea; eta ori nagusiak ezagutzen dik». Oiek ziran nere itzak. Zedorrek nai dituzun bezela ulertu. Nik ez det egin didaten au salatuko. Ez dituzu, noski, emengo langille guziak auzitan naastuak ikusi naiko. Baiña emen justizia egin nai badezu, zure esku dago.

Eztaiak

GURE gaurko gizarte onetan gogoangarriak izaten dira eztaiak. Ez degu ospetsuago egiten degun jairik. Leen ere ez, noski. Arrastaka eta ezin bizi diranak ere, egun ori aundikiro ospatzen dute, beren diru eta aurreratutako pixarrak txautuz. Beren bizitzan bein egiten dala-ta, ez dute geratu nai besteak egiten duten maillatik beera.

Gure auzokoak su-ziri eta guzi egiten badituzte, zergatik ez guk? Aiek olako ostatutan bazkaltzen badute, zergatik ez guk? Eztai ondore bezela aiek Ameriketara jotzen badira, zergatik ez gu? Oiek ainbeste ez ote gera, bada? Oiek baiño martxa ohea ez ote daukagu? Or baiño diru geiago ez al da sartzen gure etxean? Oiek onenbeste giza-emakume konbidatu badituzte, zergatik ez guk? Aal badute beiñepein, ots geiago atera besteak baiño. Zabal-kunde geiago egin. Oiek ez giñuzten gu konbidatu; guk bai, ordea, berak.

Or ez dago arrokeria besterik; beren maillatik jetxi nai eza. Beren auzoak baiño gorago igo naia; ospetsuago azaldu, berebiziko otsak atera. Urrengo egunean apaltzeko sardin zaarrak izango badituzte ere, egun ortan oillaskotik gora. Ori ez al degu, bada, egunerokoa? Batek au egiten badu, besteak ura. Alperrikako kastu ikaragarriak.

Ezkontzak ere nolako aldaketak ez ditu ekarri? Leen, beti elkarrekin txakurra eta katua bezela eztabaidaka bizi-ko baziran ere, etzeukaten berezi eta beste batekin ezkontzerik. Bakarka eta bizi-alargun iraun bearko zuten erioztzeraiño. Gaur, berriz, txaketa zaar bat utzi eta berria artzen dan bezela, kezka gutxirekin egiten dituzte lagun-aldaketak. Gizonak eta emazteak elkarrengana arrimatu eta

kito. Askotan, ama gaixoa umez inguratua ezin bizirik utzi eta aske geratu dan gizona, beste batengana bildu. Nik txakurrak ikusi izan ditut orrela. Moda berri ori sartu da, bada, gure gizartean, sinismena, lotsa eta pekatu egin beldurra ere erabat galduta, noski.

Kondairak egundoko eztaiak gogora arazten dizkigu. Neronek ere nere begiekin baditut batzu-batzuk geiegizkoak ikusiak: beren bizi-maillatik askoz goragokoak. Urrengo egunean barau egingo badute ere, egun ortan beiñepein leiotik kanpora bota aal dan guzia, erdaldunak dioten bezela.

Gure nagusi elkorrak ere alabatxo bat bazuen, «aitaren alaba» esan oi dan bezela, neska aundi uste oietakoa. Laiñeza geiegirekin ezi eta azitakoa, aren kutixi guziak ontzat artzen zituzten bere gurasoak, batez ere aitak. Seme geiago bazituen, baiña alabarik ez. Orren begiekin ikusten zuten aitarenak ere. Ama semeetara makurtuagoa zegoen, eta alabaren geiegizko ori etzuen askotan onartzen. Ala, gurasoak noiznai izaten zituzten olako eztabaidak.

Langilleak lanera zijoazen edozein egunetan ikusten zuten ura, erregin bat bezela jantzita: zapatatxoak danik-eta garestienak; belarritakoak, zer esanik ez; lepoko katea, urrezkoa; illea, beste iñork ez bezela jarria, urrezko orratz eta matxardez josia; burua dizdizlaria, usai gozoa zeriola... Etzuen lurrik ukuitzen ere, noski, anka-puntekin besterekin, zapatatxoak orpo luzedunak erabiltzen zituan eta. Baiña ez zenbaitek aiñakoak. Bera ere luxaxta zan, bai.

Bere emezortzi-emeretzi urterekin goxoa zegoen ura edozeiñi kaso egiteko. Txuri-txuri jantzia, bere bidean joango zan, eta bide egin bear ari. Etzan bera bezelakorik, bere ustez beiñepein. Baiña ikusten zuten guziak etzuten ala pentsatzen. Askok, beintzat, arrituta atzetik begiratzen zioten.

–Ez dek Euskal Errian neska ori bezelakorik –esango zuen batek.

–Bi igualik ezin litekek izan ere –besteak.

-Ik nai dekana esan, baiña au ikusgarria diagu.

-Dotore jazten, beiñepein, bai. Daramazkien aberas-tasunak berak baiño geiago balio ditek.

-Dotore jazteko arrazoi ere ba dik. Badakik zenbat milloiren jabe dan ori?

-Ezetzik ez diat esango. Baiña anaiak ere badizkik. Orrentzat ez dituk izango aitaren diru guziak. Langilleei emanta, berriz, etzaizkiok asko urrituko.

-Ori dena ezin ikusiaren lana dek. Berak ezin iritxi dituk ortaraiño, eta gaizki esaka ari bear.

-Bai; olakoak ere asko izango dituk. Baiña neri geie-gia dala orrenbesterañoko apainkeria iruditzen zaidak.

-Ikusten al dek orren gorputzaren eragiña? Aidean dijoala zirudik. Olaxe joango dek denen aurretik ezkutatu arte.

Baiña begira zeudenak gizonezkoak ziran. Entzun dezagun emakumeak nola mintzatzen ziran.

-Jesus! Nor dala uste du orrek? -zion batek.

-Olakoren alaba.

-Nere alabak dionez, elkarrekin eskolan ibiliak, den-en atzena geratzen omen zala. Iñongo maisurik onenak ekarri zizkiotela; eta azkenean, Jainkoak zekien gastuak egin ondoren, etsita utzi zutela.

-Iñozokeria erakutsi al ziotenen, bada? Zer din orrek guk ez degunik?

-Dirua, Maritxu, dirua. Guk, berriz, ortatik antzu bizi gaitun.

-Diruak bakarrak etzion iñori bere nortasunik ematen. Apustu egingo niken orrek ez duela guk bezin fameli ederrik azitzen. Jendearen aurrean urrez jantzita gorputz ori erakutsi; ori den guzia.

-Orrek aurrik egingo al din? Ori ere bestek erakutsi bearko zion.

-Ortarako aiña izango al den. Baiña ez umeak azitze-ko. Orren esku pin eta pitxiz beteak ez ditun seme-alaben kaka eta pixak garbitzen ariko. Seme-alabak garbitu eta

zaindu, ama baten aunditasuna eta maitasuna ortan zegoen. Aurra egin eta zaindu eta mantentzea besterentzat utzi, ori ez den ama izatea.

–Neskame bat ekarriko din eta bera lasai biziko den.

–Ez niken izan nai orren mendeko iñudea. Orrela bizi dan bat gizatxarra izango den.

–Orrek senarrari ere prakak bete lan emango zion. Orrekin burutzen ez den errexia izango.

Ura bakarrik denen aurretik bere gorputza erakutsiz igarotzen zanean, olako esamesak maiz izaten ziran. Arek zeraman bizimodua geiegia bazan ere, ezin ikusiak lan txarrak ematen zizkion.

Denak ikusten zuten mutil batekin. Ez erritarra, ez eta ere euskalduna. Andaluzi aldekoa, noski. Urtebeteren bat inguru igaro zuen neskak Andaluzian, erdera ondo ikasten eta euskera aztutzen. Orduan egindako senargaia izango zuen. Etzan mutil aldrebasa; baiña ez al zegoen Euskal Errian beretzat modukorik? Aita euskaldun garbia zuen; erderaz baiña askoz obeto itzegiten zuen euskeraz. Ama, berriz, baserritarra. Suia andaluza, norbaita ere.

Gipuzkoako egunkarietan azaldu ziran biak argazkian: olako egunean Donostiko Santa Marian ezkontzen omen ziralara; Burgosko arzobispa mutillaren osaba omen zala.

Obe zuten Burgosa joan eta an bertan ezkondu balira. Itxura ohea emango zuten, eta erri auetan esames eta zarata gutxiago.

Eztaiak ospatu bezperan etorri zan arzobispo ori, zartu, txalkor, baldartu samarra. Aren bizkar parra lasai egin zuten beiñepein donostiarrak. Begiratzailleak gutxi ziran, etzekiten noiz etorriko zan eta. Baiña ura kaleak barrera igarotzen ikusi zutenean, arritu ziran. Bost edo sei metroko isatsa bazekarren, bi edo iru beartsurentzat galtzak egiteko naiko gaia zana; eta atzean apaiz bat aren isatsari eusten, beste egitekorik gabe.

Nortaraiño irixten diran eliz-gizonak ere! Ez al da ori arrokeria eta aberats azaldu naia? Gizon txalkor kaxkar

ura jazteko alako kastuak? Bere burua agertu naia. Jainkoaren aurrerako apaiz baiño geiago al dira, bada, oiek? Etziran San Pedro eta San Pablo orrela ibiliko, ez. Aiek ere obispoak ziran, bada; eta bat Jesukristok berak Aita Santu sagaratua.

Noiztik sartu ote ziran Elizara eta eliz-gizonen biotzetara oitura baldar eta aundi-nai oiek, poliki-poliki, goraka-goraka, sinismenez betetako erri xumearen aurrean beste mundukoak balira bezela geratzeraiño?

Ala ere, nik bat ezagutu nuen isats aundi batekin erri elizkoi eta euskaldun batera etorria. Jakiña, bertako bikarioa bidera atera zitzaion, elkarrekin sartzeko.

–Ez dakit bear bezelako begirunerik erakutsiko dizun erri onek –esan zion obispoari.

–Zer dala-ta ori?

–Ez dakit. Erri au biurritzen ari da.

–Eta zer egiten dezu ez zuzentzeko?

–Aalegin guziak, baiña alperrik. Errespetoa galdu didate. Ez didate txapelik ere erantzten.

–Ezet? Ikusiko dezu neri nola erantzten didaten.

Erriko kanpaiak dilin-dalanka ari ziran. Aundienetakoak ere bai, gutxitan jotzen ziranak. Ixillago sartzen zan Jesukristo Judeako erri txiki aietan. Obispoa bazetorren eta arrera on bat egin bear zitzaiola agindua emana zegoen.

Gizon ori nolakoa zan ikustera, lanak utzita atera zan jendea. Obispoak, jendearen aurrera sartu zanean, bere kapelu aundi ura erantzi eta buru-makurtu bat egiñez agurtu zituen. Erriko jendeak ere orduan, bat-batera txapelak erantziz, ospatu zuten obispoaren sarrera.

–Ikusten al dezu nola txapelak erantzita agurtu nauten?

–Bai; zu obispoa izaki.

–Ez, bikario jauna, ez. Erri auek filosofi aundia daukate. Zuk ez dituzu errespetatzen, eta ez oiek ere zu.

Obispo ura, beiñepein, bere isats luze arekin zan, eta «Nor ote degu ori?» galdetzen zuen erriak.

Sar gaitezen genekarren gaiean. Iritxi zan eztaietako eguna. Jende asko zegoen bikotea etorri zai. Ordurako, arzobispoa elizara sartua zan, eta aal zuen dotoreena jantzia egongo zan sakristi aldean.

Jendea ugaritzen ari zan, bikote ura noiz etorriko, eliz-atarian. An zeuden gobernadore zibil eta militarra ere bai. Itz batean esateko, Donostiko aundizki guziak. Alkatea, zer esanik ez. Ministroren bat edo beste ere bai, frankistak, garai bateko abertzale sonatu baten alabaren eztaietara bilduak. Fameli orrekin zer ikusirik ez bazeukaten ere, denak zeuden konbidatuak eztaietara eta bazkaltzera.

Berebil eder batean etorri ziran. Ez dakit atzetik zenbat berebillek lagundu zieten. Barrenetik atera orduko, sekulako txalo-erasoa izan zuten. Geienak, besteren bizkar bazkari on bat izango zuten pozean; ez bikote arengatik ajola zielako. Bazan antxe ertzaiñetik ere. Baiña geienak, beste erritarrak bezela jantziak.

Txalo artean, neska, aitaren besotik, eta mutilla, amaren besotik. Aiek izango ziran eztaie aietako aitajaun eta amandre.

Guda igaro berria zan. Baiña gure aberriak odola zerrion oraindik, elkar iltzea bukatuta banaka-banaka aukeraturako giza-emakumeak iltzen jarraitu baizuen Frankok, jendeak zionez eun ta berrogeiren bat milla inguru, illobietako ixiltasunak urteetan iraun zezan España zabalean. Abertzaletasuna zapaldua zegoen, baiña azpi-janean aste-ko asmoan; eta, neskaren jazkera ikusi zutenean, sumindu ziran eta naigabetuak aldegin zuten andik. Inglaterrako erregiña baiño dotoreago jantzia, eskumutur eta lepoan ere etzekarren nolanaiko zama.

Aberastasun eta pitxi oiengatik ajola gutxi jendeari. Baiña andaluza balitz bezela jantzia zetorren, bere peineta eta guzi. Orregatik naigabetu zan euskal jendea. Aiek elizara sartu baiño leen txaloka artu zutenak, joan egin ziran. Bai bertako bere adiskideak igerrri ere. Ez omen zala jazkera ura bere gurasoen gogozkoa; baiña nai izan balute, etzan neska artara jantzia etorriko.

Sarreran etzan musuketarik izan. Neskak arzobispoak baiño ere isats aundiagoa ekarri zuen. Kale batetik bestera igarotzerakoan, bideko atzera-aurrera moztua geratu zan. Alderik alde estaltzen zuen aren isatsak bidea, eta mutil gazte batek eusten zion isatsari. Andaluza ura ere. Senargaiaren aldekoak gailendu ziran.

Aren atzetik aundizki jende asko sartu zan elizara. Jakiña, beren ertzain eta guzi, ez neska-mutilen beldurragatik. Beste zapaltzaille ziran zakur aundi batzuk ere sartu baiziran. Ertzaiñak kanpoan ere geratu ziran inguruak zaintzen. Baña erritarrak muzin egin zioten. Eztaï ori etzuten gogozkoa izan.

Elizkizuna luzea izan zan, bere meza eta guzi. Itzalditxo bat ere egin zuen gure arzobispo jaunak. Bukatu eta ateratzean, etzuten sarreran bezelako txalorik artu; baiña bai beren artean musuketa ugari, inguratu zitzaion guziari. Baita poliziei ere noski. Lerde jario gogotik aritu zan andre gaztea.

Elizara sartu ziran bezela, joan ere *Hotel María Cristina*-ra. Au bete-betea zegoen. Uste det arzobispoak eta neska ezkonberriak isatsak kendu zituztela.

Sekulako bazkaria egin omen zuten. Batzuek ziotenez, iru milloitik gora kosta omen zala. Txeetasun guzietara jota, ondotoxoz geiago. Iru milloi gaur ere dirua da; eta orduan?

Bitartean, bere langilleei ere etzien nagusiak jai eman, eta diru ori guzia aiei lapurtua zan. Sumindu ziran langilleak nagusiak egiten zituen alperrikako kastu oiekin. Berak, berriz, zeukaten sari eskas arekin, igande eta larunbat-arratsaldeetan, biziko baziran, lan egiten zuten beren adiskideen baserrietan.

Euskal Erriko bere langille guziak, beren izen eta guzi, eskutitz bat biali zioten nagusiari: benetan gaitzesten zutela alperrikako diru ondatze ori; berak, berriz, miseri gorrian bizi zirala; aiei ere jai emateko borondaterik etzuela izan; zerbaiten igurtzirik ere ez.

Bai nagusiak lotsarik gabe erantzun ere: milloi aiek bereak zituala, eta nai zuena egingo zuela aiekin. Leku onean geratuko zala, milloi aiek ezta artan kastatzeko eskubiderik ez balu eduki. Alaba ezkontzea ez al da, bada, fameliko arazoa? Eta langilleak ortan zer ikusirik bai al zeukaten? Aien egitekoa lana zala, gero irabazitako saria kobratzeko: eta ez nagusiaren biozkada on batengatik gaizki esaka aritzeko.

Gogor, isekaz eta lotsa gabe samar erantzun zien, bada.

Indarra lege

GURE nagusia bezelakoak ziran besteak ere. Sariak oso azpitik zeuden. Aberats jende orrek erruzko milloiak bota zituen, edo indarrez kendu guda irabazteko militar oiek. Baiña bukatu eta gero ere, kendutakoa itzuli bearrean, geroztik ere estu artzen zituzten. Bein agintearen jabe egin ziranean, etzien laguntzarengatik eskerrik eman. Baiña gero ogei ta amaika eskutik eman zien, eta etzuten joko gaalduko. Langilleak gaalduko zuten dena, eta auen bizkar aberastuko ziran, bada.

Joko orrekin Frankok adiskide onak egin zituen aundizki oien artean, aberasteko aukera ori eman zielako. Kristau lege eskasa, baiña bai al zuten sinismenik? Nagusiak, gaaldua ordaindu eta asi bearrean, aurrera jo zuten; eta langilleok gure larruan ikasi degu nolako biotza daukaten. Oiek diruzaleak izaki. Sekulako naigabea zegoen, bada, langilleen artean. Miseri gorrian ezin bizirik, sari txikia eta gauza goraka. Auek ere berea eskatzen zuten: ainbeste milloi edozertarako, eta bi pezeta sari geiago eskatu eta uko.

Nekazariak berak ere zerbait esango luteke. Langilleak baiño okerrago zeuden auek, noski. Ainbeste lan egin eta uzta bikaiña etorri edo txarra, berentzat berdin. Erdia ortxe, agintarien aginduz, errira zijoan ango jendearentzat, eta balioa ere berak jarri. Ori ez al da komunismoa?

Eta kontra itz bat bestea baiño altuago ateratzen bazenduen, Ondarretara. Orduan espetxe ori oraindik txutik zegoen; eta arako bidea artuko zuten askok, etzuten iñork erakutsi bearrik. Leenago ere ikasia zeukaten.

Karrrikako jendea, langilleak alegia, eziñean zebiltzan, bada. Alde batera, dirurik ez; bestera, berriz, gauza

ezin billatu. Eta, estraperloan asi ezkeru, ez dakit ez ote zan ala izango, bista-bistako lapurreta beiñepein bai. Gauza egiten duenak ere bizi bear du. Agintariak egillearen kalterako salneurria jartzen badio, ez du noski dena onek galduko; baiña langilleak, irabazten zituzten sos pixarrak ezertarako ez bazituzten ere, irabazle ateratzen ziran; eta nekazaria bakarra galduan. Auek pagatu zuten larrutik.

Txarra zan, bada, Euskadiko orduko egoera. Eta, protesta bezela biak bat eginta altxatzen baziran, laster zetorren gaiñetik eraso. Egoera au langille eta nekazariantzat eziñezkoa zan; baiña nagusiak berak ere, asko beiñepein, etzeuden kontentu. Ikusten zuten beren langilleak eziñean zebiltzala. Aietan ere baziran kristauak eta kristau bezela pentsatu eta legea bete nai zutenak. Beren kontzientziak kezkatzen zituen, batez ere geiago emateko modu pixka bat zeukatenak, eta ezin lagundu. Indarra zegoen lege.

Ala ere batzar bat egin zuten nagusiak, eta batzu-batzuk deabrua bera baiño ere okerragoak azaldu ziran. Denetan gaiztoena, noski, emen aipatzen degun nagusia. Batzarra egiteko ere onen iritzia omen zan, denak batera erabaki bat artu zezaten.

Etzuten batzar au oso leku txarrean egin: Donostiko *Hotel María Cristina*-n. Euskal Erriko nagusirik garrantzitsuenak an bildu omen ziran. Badaezbada, etziran, langilleak bezela, mendira joan; etzuten aiek bezelako bazkari arloterik egingo.

Batzar onen berri jakin zuenean, naastu zitzairen gobernadorea. Ori leentxeago jakin balute, etziran erdiak ere etorriko. Berdin bazekiten alperrik zala dena; gobernadoreak nai bezela bukatuko zutela. Arek agintzen zuen. Berak egingo zituen azkeneko itzak, probintziko nagusi eta jabe bera zan eta.

Sarreran ez omen zioten Espiritu Santuari argitasunik eskatu, arazoa ondo ikasi eta erabaki zuzen bat artzeko.

Zaldun aberatsak ziran eta ala jarraitu nai zuten. Iñork deitu gabe sudurra sartu zuen arek eta beste ba-

tzuek lagunduta batzarra egiteko baimena iritxi zuten. Aren berri gabe ezin zezaketela egin aurpegira bota zien. Gizonen eskubideak ederki zapaldu zituzten beiñepein orduan, eta gaur oraindik ere ala jarraitzen dute.

Leenengo itzaldia aipatutako nagusiak egin zuen. Asi eta buka, langillearen aurka. Agintariengatik etzegoen ezer esaterik. Aurrean zeuzkaten eta aiek dena ondo egi-ten zuten. Ura zan probintziko nagusien nagusia. Bestela, oiek ere astinduko zituzten. Orren beldurra izango zuen, noski, eta orregatik azalduko zan. Nai zutena itzegiteko askatasunik gabe utzi zituen.

Etzan izlari sutsu eta eraginkor oietakoa. Baiña polli-ki-polliki bere uste eta iritziak garbi-garbi azaldu zituen garai bateko abertzale mitin-egilleak. Diruak nola zeken-tzen duen baten biotza, bere langilleen estuasun eta la-riak ezin ulertzeraiño! Ori zan, gaiñera, batzar ori egiteko geiena saiatu zana. Oso apal asi zuen bere itzaldia.

An zeuden bat baiño geiago oroituko ziran urte ba-tzuk leenago erriz erri nola ibiltzen zan. Batzar artan ba-naka batzuk izango ziran ixillean abertzale ziranak. Zer pentsatuko ote zuten?

–Nere adiskide maiteak –ez du aipatzen ere goberna-dorerik–, ongi etorriak! Pakea eta osasuna! Denak jakingo dezute, edozeiñek bezin ongi ere, langilleekin erabiltzen genituen estuasun eta larriak. Baita agintari zeudenekin ere. Elkarrekin izan ditugun eztabaida eta auzi guzietan aiek gaillentzen ziran, eta ia irabazirik gabe jardunak gi-ñan lanean. Nagusia ez da oien jostallua besterik izan. Maiatzaren leenengoan, sari bikoitza eman bear zan, eta Eguberrietan ere berdin, eguneroko sariaz gaiñera. Ala ere, beti bagenituen matxiñada eta lan uzteak noiznai. Bu-kaeran, beti guretzat galera eta oientzat irabazia, eta guk ordaindu bearra. Nagusiak, beraz, agintari eta langilleen mende bizi giñan, beti beldurrak eta zemaipean.

»Gero, uda etorri zan eta gorriak jarri ziran. Leendik ere ala zeuden, bai, agintzen. Bitartean, geneuzkan gai guzien jabe egin ziran. Ez ori bakarra; nere lantegiko lan-

gilleekin eta nere gauzekin egiten zituzten bonbak eta granadak. Ala ere, nik ordaindu egin bear aien lana; eta egiten zutena eta nere gauzak kobratzerik ez. Gorrien mendeko bi illabete oietan, beiñepein, lur jota utzi niñuten. Ainbeste kamioi neuzkanak, denak eramán zizkidaten. Oiekin ere milloiak galdu nituen.

»Aiek joan eta etorri ziran bestea. Auen sarrera ere etzan, bada, lantegietako nagusientzat oso gozoa. Aiek eramaten beti, eta utzi zizkidaten pixarrak, auek kendu zizkidaten. Geratu zitzaizkidan kamioiak etzizkidaten eramán; baiña sartu berrien alde aritu ziran lanean, eta beren matxurak eta beste gaiñerako kastuak nik ordain bearrak. Garbi aitortuko det: goi-beak jota geratu nintzan.

»Nere negarrak kontatzen ari naiz ni. Baiña emen entzuten ari zeraten oiek, geienak nere antzeko zigorra artu zenduten; eta badakit martxa onean zijoazen batek baiño geiagok ez dutela geiago bururik jaso. Aiek utzitako lekuan beste batzuk sartu ziran. Orain auek ondo dijoaz, laguntza Jaurbatzak eman baizien.

»Oraintxe ari naiz zerbait indartzen. Baiña bai nere langilleak ere. Leenengo, bi pezeta jasotzeko lan-saria eskatu didate. Nik uko egin diet. Aiek baiño geiago arraikatatu nuela nik lantegi auekin, aiei bizimodua seguratzeko. Badakit asarre geratu zirala; baiña aien eskeari amor ematezkeroz, dena dagoen bezela utzi eta balijoazke. Guk ere bear degu gure irabazia. Lantegiak berritu eta daramatan martxan eusten ez ditugu nolanaiko kastuak egin bear.

»Etorri zan nere alabatxoaren ezkontza. Ez dutela ori ontzat artzen nere langilleak. Geiegizkoa izan dala ospakizuna. Inglaterrako erregiña ezkondu zanean, etzuela olako kasturik egin. Gutxieneko iru milloi txautu omen nituela bazkaria utsarekin. Ori ez da egia, langilleen iritzi bat besterik. Bi aldeak ordaindu genituen egindako zorrak, oitura ala dan bezela. Gu bezin aberatsa da beste aldea.

»Diru ori oiena omen dala; ez nerea. Gaur egun gutxi, langille guziak bat eginta, eskutitz bat biali didate, di-

ru txautze orregatik protesta egiñez. Aixa omen darabilkitela nik dirua, besterena alegia. Ori dena aiek irabazia da eta aiei tokatzen zaiela.

»Garbi aitortzen dizutet: lantegi ori ixteko ere nere zirikaldiak eduki ditut. Ez baidet ortik ezeren irabazirik ateratzen. Eskerrak besteari. Andik sortzen det bear detana, Baiña kristaua naiz; langilleak ez ditut kalean utzi nai. Nik ere, ordea, len esan dizutedan bezela, bear det nere irabazia. Orrenbeste arraixkatuta, ez diet dena langilleei emango. Alaba bati nola ezkontza egin oiek erakutsi bear al digute? Oien esku al dago zenbateraiñoko kastuak egin neurriak jartzeko?

»Orregatik nai nuke denok bat egin eta zenbat ordaindu bear diegun erabakitzea. Bestela, errepublikaren urteetan baiño okerrago geratuko gera.

Bukatu zuen eta gure izlaria eseri zan. Txalo batzuk egin zizkieten, baiña gutxi. Ala ere, an geienak bere iritzikoak ziran. Etzuten lan-saririk jaso nai.

Aurpegira ez bazioten bota ere, geienak bazekiten gezurra gezurraren gaiñean kontatu zuela. Bere langilleei uskeri bat emanta, sekulako kastuak egiten zituen, eta merezi gabeko erregaliak: Donostiko txaleta, Madridera eramandako ogei milloiak, bere negozioren errenta bezela... Etzitzen nolanaiko irabaziak egin. An geienak beerragotik zebiltzan.

Urrengo, arrasatear batek artu zuen itza:

–Aurrena itzegin digun orrek bota dizkigu izugarriko aleak: egiak gorde eta gezurrak. Orren ibilien berri ondo dakigu. Madrid alde ortan ere izana da. Uzta bikaiña jaso du. Ala ere, lan-saririk ez jasotzearen alde dago ori. Baiña, adiskide maitea, ez ezin dezulako. Geienok okerrago gabiltza, emen bildu geranotan beiñepein. Kristau omen zerala diozu. Errez esan dezu ori. Benetako kristaua izatea zailla da gero... Baiña barkatu, adiskide, au dena emen geratuko da eta. Nik pozik jasoko nuke langilleen lan-saria. Ainbeste fameli ikusten baiditut, ugari samarrak diranak beiñepein, larri dabiltzala. Baiña neroni ere larri

nabil, zenbat jaso ezin asmatu. Izan ere, agintarien eskariak betetzezkeroz, ia eziña da. Gaiñera, lantegiko martxari jarraituko bazaio, bear-bearrezko ditugun gaiak palta zaizkigu. Atzerrira gabe, ezin lortu. Agintariei eskatuta, berriz, baimenik ez didate ematen. Azkenean, kontrabandoan eskatu bearra izan nuen, eta arrapatu. Baitu eta bi illabete espetxean eduki naute. Kontrabandoa kendu eta zazpi milloiren multa ezarri gaiñetik. Zer egin bear denik orain? Nola ordaindu zigor ori? Nola jarri lana langilleentzat? Zerekin ez baidaukat, lantegia utzi eta kito! Iñork erosi nai badu, salduko diot. Artzen dedan diruarekin ordainduko det multa, eta langabeko bat geiago.

Batzarrean zeuden nagusi guziak bat-batean zutitu ziran.

–Adiskide maitea, eskerrik asko –oiu egin zuten–, salatzeke ausardia izan dezulako. Gu ere orrelaxe eta orregatik eziñean gabiltza. Ez badute lanerako bear deguna atzerritik ekartzeko baimenik ematen, etzera zu bakarra izango. Guk ere, zuk bezela, lantegiak itxi eta lantoki eske asi bearke degu geienok. Ezin gentyake, atzerrira gabe, lanik jarri. Mugatik sarrerako eskubideak edo lapurretak ordaintzeko ez daukagu kupirik; baiña sartzeko baimena eman dezaigutela. Bestela, esan degun bezela, dena utzi egin bearke degu. España barruan ez diran eta egiten ez dituzten puska asko bear ditugu, betiko martxan jarraitzezkeroz.

Auek bukatu zutenean, leengoak jarraitu zuen. Gobernadorea asarre zegoela igertzen zioten, baiña or konpon zedilla! Denak bat egingo zuten.

–Modua daukatenak, nai badute, geiago ordain dezatela. Nere iritzian ez dute gaizki egingo. Baiña nik, daukadan martxarekin, ezin nezake, eta badakit nere langilleak lan uzterik ez didatela egingo. Nola nabillen badakite, eta nere borondate onaren berri ere bai.

Gobernadorea zutitu zan.

–Ori ez da zuen egitekoa! Madridgo ministroen eskuetan dago ori! –oiu egin zuen.

–Gutxieneko zenbat eman sari-neurria jartzeko, bai; baiña ortik gora emateko moduak dauzkanak zergatik ez ditu kristau legeak bete bear? Neretzat, leenengo, langilleak dira. Oien lanarekin bizi gera oiek eta gu. Nik jasoko det eta beste gaiñerakoa aiei emango diet.

–Ez gora eta ez beera! Jarria dago neurri bat eta kito!

–Orduan, komunismoak eta emengo legeak zer be-reiztasun daukate, gurea dana langilleei ezin eman badi-gu? Ori bada agintarien azkeneko itza, onera bilduarekin ez degu ezer ere aurreratatu. Nik langilleei pixka bat geiago eman nai badiet, nork galerazi bear dit?

–Irabazi ortatik luzaiozu zerbait Estaduari eta kito!

–Baiña Estaduak zer ematen dit neri? Lana jartzeko erreztasuna ere kendu; espetxea eta gero multa ederra. Bestela ere, kontribuzio eta abar, bereak eta bost kentzen dizkigu. Irabazi ori langilleena da, eta ez Estaduarena.

Zutitu ziran berriro nagusiak, eta gobernadore erreari ortzak erakutsi zizkieten, benetako zemai au egiñez:

–Ez badiozute oni multa barkatzen eta guri lana jartzeko erreztasunak ematen, gaur seiean gaude, bi illabete baiño leen gure lantegiak itxi egingo ditugu.

–Denak espetxera joango zerate, bada!

–Ez digu ajolarik; baiña norbaitek pentsatuko du obeto.

Gure izlaria jetxi zan eta batzarreko guziak itun bat egin zuten. Denak izenpetu eta Madridgo ministroari biali. Baiña etzuten Gipuzkoan bota, gobernadoreak galerazteko beldurrak. Araban bota zuten.

Nagusietako batzuek, ixilka bederen, beren langilleei zerbait geiago ematea erabaki zuten. Baiña leenengo itze-gin zuenak, ez.

–Motell, modurik onena ik daukak. Estaduari dirutza oiek eman gabe, zabaldu akiek langilleei zerbait geiago.

–Ez, indarrean ari dituk eta.

–Zer egiten dekan edorrek ikusi. Bukatu ere, anbat indarrean egingo dezute.

Bazkaldu eta elkarri eskua emanez, serio-serio aldegin zuten andik.

Lan uztea

GUDA bukatu zala urte gutxi oraindik, España eziñean gzebillen. Goi-beeak jota geratu zan eta ezin bururik jaso. Gosea eta miseria erri txeearentzat. Goikoak, berriz, batez ere eskubitarrak, aberasten.

Kanpotik etzetorren dirurik. Emen indarkerizko Jaurbatza jarri zalako, ateaq itxi zizkioten, eta bertako dirua kanpora ateratzeko beldurra. Gudatean porrot eginta geratu baiziran. Emengo diruak, izan ere, atzerrian etzuen batere balio. Ala ere, agintzen zeudenak, militarretako zakur aundi oiek, gogotik patrikak betetzen ari ziran.

Franko eta bere adiskideak bete ziran leporaiño. Inguruko losintxa-zaleak ere bai. Berak aukeratzen zituen ministro eta beren laguntzailleak. Eskuak aske utzi zizkien, nai bazuten. Orrela on asko inguratu zitzaion: sekulako sarraskia egin zuten; milla milloika pezetan jabe egin; goi-beeak jota utzi berriz erria, amaika ezin bizirik jartzeraiño. Zorigaiztoko nepotismoak agintzen zuen Franko bizi izan zan urteetan. Oietakoak bizi dira oraindik, eta erriak begitan artuak dauzka.

Jaurbatzak aukera ori ematen bazien, nork egin bear zuen atzera? Geienak, berriz, agintzen jarri ziranak, kontzientzi gutxiko jendea zan, eta aietako iñori ezin egin aurka, berak agintzen zuten eta. Dena beren esku zeukaten. Españako gobernuari nork eman aurpegi?

Baiña nagusi batzuk larri zebiltzan, batez ere gure *jainkoaren* lagun etziranak. Betiko martxari ezin jarraitu. Nai eta nai ez, lana jarriko bazuten, gauza asko kanpotik ekarri bear, eta ekartzen galerazi. Ez baizuten emengo dirurik kanpora ateratzen uzten; eta, bizitzezkeroz, kontra-bandoan asi ziran.

Jainkoaren adiskide aolkulariak antz eman zioten ori martxa koxkorra zala. Bestela, langilledia laster aizkatuko zala eta Españako paradisoari izen txarra emango ziola orrek. Mugako sarrera, bada, aske utzi zuten, jarritako legeak eta ordain bearrak betetzen bazituzten. Ortatik ere, mugako sarreraren gora-beera zeukatenak ondo jantzi ziran urrez.

Baiña lan-sariak etzuen aldaketarik egin. Nagusiak diruz jazten ari ziran. Ori ere, noski, Españako *jainkoaren* biozkada izango zan. Guda irabazten asko lagundu zioten. Lantegi asko lur jota geratu ziranak, orain zuten aberasteko garaia. Langilleak, ordea, leengo neurrian zeukaten saria, eta gauzak goraka zijoazen. Benetako larriak ziran zenbait famelitan.

Amaika aldiz eskatu zuten langilleak ezin zitezkeela artara bizi; matxiñadaren bat egingo zutela eta etzala oso atsegiña izango; langilleak eta beren fameliak eziñean zebiltzala, eta oso akontsejatzaille txarra zala ori. Protestak asi baiño leen, beren neurriak artzeko; gero beranduegi izan zitekela, eta etzutela langillerik iruzurtuko, bazekite-la patrioiak diruz betetzen ari zirala eta.

Auen babesa etzan besterik: agintariak etzutela nai. Beren irabazi pixarrak Estaduak kentzen zizkiela. Ortan arrazoi ere bazuten, baiña ez osoa. Ondo zijoan oien negozioa.

Baiña gobernadore jaunak bazekien itz oien berri; eta, neurriak artzeko eskatu ziotenean, onek ala erantzun zien: orren kezketan ez bizitzeko; badaezbada, ez asteko matxiñadan; bestela, ondo probatuko zutela egia zion ala ez.

Langilleak, etsi zutenean, egin zuten batzarra. Ezin zitezken artara bizi. Beti itz goxoak nagusien aldetik, baiña beteko etziranak.

Nagusiak ere etziran atzera geratuko. Beren billera egin zuten. Bai aguro elkar artu ere: agintariak jasotzeko agindu arte, betiko-betiko neurrian jarraituko zutela. Nagusiak etzuten ortan arrazoirik. Iñork etzien galerazten, nai bazuten geiago eman.

Langilleak ere, elkar artuta, leenengoan bezela, bi aukeratu zituzten, eta nagusiarekin itzegitera biali, beren kezkek eta eziñak ari azaltzera.

Ortarako, aldez aurretik baimena eskatu zioten. Etzituela artuko eman zien leenengo erantzuna. Etzetozela beren kezkek azaltzera bestetara, eta ortarako elkarrizketa bat nai zutela.

–Zuek kontatu gabe ere, bazekiat zuen kezken berri.

–Ez bagaituzu artzen, zuretzat okerrago izango da.

–Nolako asmoak dakarzkizute, bada?

–Elkarrizketa garbi bat egitekoak, ea konpontzen geran.

–Zuek bakarrak zabilzate orrela?

–Guk ez daukagu, oraingo ontan, beste lantegikoekin zer ikusirik.

–Ezta nik ere zuen kezkekin.

–Badakigu, langilleak berak esanta, bi edo iru lantegietan bi pezeta gutxieneko jaso dutela saria.

–Azkenean, itxi araztera beartuko nauzute.

–Ondo kontentu zaude zu lantegi orrekin. Zemai ortan babesten zera, baiña badakigu ez dezula beteko. Beste lantegiak ondo badijoaz, au ez dago okerrago.

Noizbait artu zituen.

–Zer nai dezute, bada: milloiren bat ematea?

–Ez degu eziñik eskatzen.

–Zein dituk, bada, geiago ematen duten lantegi oiek?

–Ez esateko agindu ziguten.

–Oiek denak zuen ipuiak dituk.

–Ez, nagusi jauna, ez. Ondo jakiñaren gaiñean ari gera izketan.

–Goikoak agindu arte, nik ez dizutet, bada, jasoko.

–Denetan okerreana zu jarri zera. Ondoena zabilzana, berriz, zu zaitugu. Jainkoak daki zenbat milloi ari zeran Donostiko txalet artan kastatzen. Jainkoak daki zenbat diru eman diozun Frankori. Bitartean, diru ori zure langilleak irabazi dute, eta miseri gorrian dauzkazu.

–Goikoak agindu arte, ala bearako du.

–Ondo dago. Egin degun billeran, ez badiguzu entzuten, lan uztea erabaki degu, asteleenetik asita. Guk ez degu asko irabaziko; baiña ez zuk ere.

–Enkargatua ibiliko dek, bai, orain naaspil auek guzietan.

–Ura ez da bat geiago besterik gure saillean. Orduan, agur, nagusi jauna! Norbaitzuek emango al digute jateko aiña ogi!

Eta serio aldegin zuten andik. Beren saillera joan ziranean, kontatu zuten gertatu zana.

–Onela esan ziguk: «Beste lantegiak ez badute jasozten beren lan-saririk, nik ere ez diat egingo». Gure azkeneko itzak, berriz, auek izan ziran, bada: «Zuen batzarren berri badakigu: batzuek nai zutela, baiña ezezkoan zu zizñan egoskorrena». Onez onean ez dago arekin konponzterik.

Langilleak, bada, lan uzteari erasoko zioten. Bazekiten indarra zegoela lege eta gaizki ibiliko zirala. Gobernadoreak eman baizuen bere abisua: saria jasotzeko eskatzten bazuten langilleak eta txarrera jotzen bazuten, ez beldurtzeko; neurriak ondo artuak zeuzkala.

Etzeukaten ezer iritxiko zuten itxaropenik ere, orduan beiñepein. Nagusiak beste lantegietan nai zuen aiña irabazten zuen; eta langilleak, beren fameliko negarrak beartuta, lanari ekin bearako zioten berriro. Baiña luzatu gabe pentsatuko zuten nagusi eta agintariak joka eta indarrean okerretik okerragora joango zirala langilleen arazo oiek. Nagusi egoskorak bazekien, ordea, berekin zeuzkala, orduan beiñepein, bentaja guziak.

Azkenean, bada, langille guziak, beren enkargatuarekin, goizean joan ziran lantegira, baiña etziran sartu. Egoarte guzia an igaro zuten. Amabiak alde ortan, enkargatuak berak kartel aundi bat zabaldu zuen, ibildeunetan bezela. An garbi jartzen zuen zer eskatzen zuten. Ortarako, pareta eta kale-bazter guzietan jarria zeukaten kartel

aundi arek ziona: zenbat kobratzen zuten; ori etzutela oi-ñetakoentzat ere eta zenbateraiñokoa zan berak eskatzen zutena.

Amabiak alde ortan , bada, erriko karriketan barrena, kartel aundi ura enkargatuak aurretik zeramala, egin zuten beren agermena. Ikusi zutenei naiko larria sartu zien aien ausardiak. Garai artan, itz bat bestea baiño gorago egiteko beldurrak zeuden. Olako agermenik txikiena makillaz mozten zuten, eta batzuk espetxera. Nolakoak ziran estraiñatu gabe etziran geratuko. Auek, berriz, kalerik kale, beren protesta egiñez gaiñera. Sari-neurri geiago eskatzen zuten. Baiña ixilik eta pakean egiñagatik, orduko agintari berriak errotik moztu nai zuten ausardirik txikiena.

Ala ere, kartela irakurtzen zuten guziak arrazoi ematen zieten: zortzi pezetarekin ezin zitekela bizi. Guda aurretik ere gutxi zan ori; orain, berriz, gauza asko igo zan, eta diruaren balioa jetxi.

Lasai-lasai egin zuten beren agermena. Iñork etzien kargurik artu. Gobernadorearentzat uste gabekoa, noski. Neurri guziak artuak zeuzkala, baiña etzan egia izango. Bestela, ertzaiñak laster erasoko zieten. Beren kalejira eginta, etorri ziran ateratako lekura, eta andik txuxenean bazkaltzera, ez bazuten irabazi ere.

Nagusia benetan asarretua geratu zan. Etzuen uste langilleak ori egingo ziotenik. Zemaika ariko zirala, baiña dena ortan geratu. Jipoi ederra artu zuen bere arrokeriak. Bere izen onak ere bai. Askotan esan baizuen langilleak oso kontentu zeuzkala. Eta orain agermen ori? Zuzendariak albiste ori biali zionean, amorruz ala erantzun zion:

–Beren buruari arrika ari dituk. Alperrik erasoko zidatek txarrean neri. Lantegi au itxiko banu ere, ez lidakek batere ajolarik. Besteetan aterako nitek naikoa eta geiago. Nik amor ematerako aspertuko dituk.

Seta gaiztoa nagusiak zeukana eta ez eziña.

–Baiña, nagusi jauna –erantzun zion–, bazterrik geienetan, eta aitortu nezake denetan, zureetan izan ezik,

amar pezetaraiño igo dute lan-saria; eta, emen zortzi pezeta besterik ematen ez dala jakitean, oraingo agermen ontan lantegi bakarra izan da, baiña urrengoan denak eraso soko dizute.

–Bai, nai badute. Orduan pentsatuko det. Baiña orain auen laiñezak moztuko ditut. Langilleei nai dutena egiten uztekeroz, laster burutik beera kaka egingo liguteke.

–Or konpon. Zuk agintzen dezu, baiña Jainkoak nai dezala beranduegi ez damutzea.

–Eta nolako agermena egin dute?

–Pakean eta ixilik. Ez dute ezeren oiurik egin.

–Eta enkargatua or al zuten?

–Denen aurretik bera joan da, zenbat ordaintzen dezun kartel aundi bat eskuan daramala.

–Biali egingo det nik ori.

–Beste langilleak bezela kobratzen du, eta erantzunkizun geiago beretzat. Langille bat geiago besterik ez da ori.

–Baiña orrek aizkatzen ditu besteak.

–Ez, nagusi jauna. Fameliko ezin biziak aizkatzen ditu; eta, ori bialiarekin, ezer ez dezu aurreratuko. Arazo au okerrago jarri bai. Jendearen esamesak gogorak dira; eta, ori egingo bazendu, askoz okerragoak izango dira. «Zortzi pezetarekin nola biziko dituk, bada? Batentzat ere ez dek geiegi, eta eroak ere bazekik ori –dio jendeak–. Baiña gaiztoak eta zurrak ez. Besteren negarrak xamurtzen ez dituen biotzak dituk oiek. Jainkoak zekik nolako jauregia ari dan Donostian egiten. Ainbeste milloi eman zizkioken Frankori. Alabaren eztaietan ainbeste milloi txautu omen dituela. Ori dena langilleena dek. Sobratu zaionetik egin dik ori dena. Abertzalea omen zala. Ez dik bere erririk asko maite. Ori da ardangeletan jendeak diona». Neri ere galdetu didate ea zer gertatzen dan emen.

–Nai dutena esan dezatela. Baiña neri ez didate xentimo bat ere kenduko nere langilleak indarrez.

–Arazo ori pakean konpontzezkeroz, oraintxe dezu garaia. Gobernadoreak onuzkero badaki, eta urrengo agermena ez da paketsua izango.

–Badirudi zu ere oien alde zaudela.

–Ni ez nago ez alde ez aurka. Nik pakea eta zuzentasuna nai ditut. Orrekin denok irabaziko degu, eta leenengo zuk. Zer gertatu dan nik abisua eman dizut. Emendik aurrerakoa zure esku dago –eta urrutizkiña txintxilik utzi zuen.

Urrengo egoartean berriro atera ziran; baiña etzuten oraingoan ere ertzaiñen erasorik eduki. Arro samarra omen zebillela nagusia: gobernadoreari berari ere beldur ematen zion, eta agian indarkeririk gabe konpondu zite-kela ori.

Langilleak beren agermena egin eta lantokira etorri ziranean, azaldu zan nagusia; baiña egin zutena amorrüz aurpegira bota nairik. Suminduak zeuden, ordea, langilleak ere, edozertarako itxutuak, eta aurrean asarre azaldu zitzaienari erasotzeko asmoan. Ori esan zioten enkargatuari, eta onek egin zituen pakeak.

–Ez olakorik egin, mutillak. Ori kaltegarri uke denontzako eta.

Bera aurreratu zan eta, agurtu ondoren, ala esan zion:

–Nagusi jauna, obe dezu sail ortan ez sartu. Geienak onez eta pakean nai dute; baiña badira bakarren batzuk asarretu eta minduak daudenak, edozertarako prest. Obe dezu bi edo iru deitu eta aiekin itzegin.

–Ez aiz beiñepein i tarteko izango, emen gertatzen daren errurik geienak ik dauzkak eta.

–Ez nauzu ondo ezagutzen, nagusi jauna, eta oso gaizki epaitu ere. Langilleetako bat naiz ni ere, eta oietako batek bezela kobratzen det. Nik justizia nai det: bakoitzari berea eman, eta ez guda. Zu bakarra zera geiago ematen ez dezuna. Gurea besterik ez degu eskatzen, eta pakean konpondu liteken arazoa da au; baiña zure esku dago.

–Ez diat irekin nai, eta biar izango dituk emen kontuak. Makilla eta zigorra ekarriko dizkizute justiziak.

–Eta zu al zera guda aurretik ainbeste oiua egiña, agintzen zigutenak Madrid aldera bialia bear genituela eta bertako jendea oiuka jartzen aritzen ziñan ura? Orain zeoro oiuen mendeko. Orain ontzat artzen dituzu. Ez ori bakarria: justizia eskatzen degu ezin bizirik gabiltzan auek, eta zuk oiek botatzen dizkiguzu, otsoa artaldera bezela.

–Orduan beste bizimodu bat zegoken emen.

–Bai; ez dezu arrazoiaren paltarik. Goiko agintariak gure etsaiak ziran. Ea, esaidazu nondik atera diran oraingo auek ere.

–Orduan galdutako dirua nolabait irabazi bear diagu.

–Ori da dirua. Judasek Jainkoa saldu zuen diruagatik; eta zuk, berriz, aberria.

–Arrazoi txarrak ematen asi al aiz? Biar izango dituk emen ixtilluak.

–Ala ere, gu ez gera, bada, atzeratuko. Ez al dezu egundo entzun: zorionekoak zuzenagatik erasotuak, oiena data zeruetako erreinua?

–Bai. Orrekin jango dek.

–Ortaraxe goaz, bada: ogi kozkor baten billa. Baiña ala ere ez gera goseak ilko. Emendik bialtzen banauzu ere, lantoki geiago izango dira neretzat.

Ori esan eta aldegin zuen andik enkargatuak. Zai zeuzkan bere langille lagunak, eta ala galdetu zioten:

–Konpondu al zerate edo?

–Orrekin konponduko dan kristaurik ez dek jαιο.

–Indarrean erasoko zigutek orduan?

–Bai, garai bateko abertzaleak berak dionez. Zigorrek izutzen bazaituzte, nai ez duenik bada saillean, ez dedilla etorri. Ez diagu indarrean iñor beartu nai. Bakarrik geratuko banintza ere, ni aurrera joango niñuke, arrazoi diagu eta.

–Ez orixe. Bizkarreko batzuk gora-beera, gu or izango gaituk.

–Leen esan dizutet: galdua zeukagu. Guk maite ditugunak galduko gaitzitek. Badakizute astebetean saririk ja-

so gabe, nola geratuko diran gure fameliak. Orrek galduko gaitzik. Baiña beste lantegiak ere berotuko dituk.

Urrengo egunean ere betiko orduan atera ziran, beti bezela ixilik eta pakean. Enkargatua, berriz, kartel aundi arekin. Karrika batetik bestera igaro ziranean, itxumustuan gaiñera, erori zitzaizkien berrogeiren bat ertzain, tirabidean arrapatzen zutena joka, non jotzen zuten begiratu gabe. Bat bazan adin samarrekoa. Ari ere etzioten barkatu. Beren gomazko porra aundi aiekin burutik beera jota, bakarrik lurrera erorita, txirtxillatu zuten. Zauri txiki bat egin ere bai begi ondoan. Baiña langilleak etziran denak igesi joan. Ertzain bati bereak eman zizkioten. Baiña aietan geiena supritu zuena enkargatua izan zan; gizara-joa ebaki zuten.

Etortzerako jakiñaren gaiñean zeuden ertzaiñak: kartelarekin zijoan ura arrapatzeko, eta egiteko ari il ez bestekak. Iru edo lauk erdian artu zuten. Zeraman kartela kenduta, bere arekin jo eta lurrera bota zuten. Ebaki sakon bat egin zioten.

Ala ere, orregatik etzioten barkatu. Joka jarraitu zuten, eta karrikan utzi, ezin altxarik eta odoletan. Berebil billa joan ziran espetxera eramateko. Baiña bitarte ortan, abisatuta, sendagillea etorri zan etsaiak baiño leen, eta arek klinikara eramateko agindu zuen: buruko ebaki ura artara utzita ezin zitekela iñor espetxera eraman.

Etsaien iges sakabanatu ziran lagunak eraman zuten klinikara. Ertzaiñak, berebillarekin etorri ziranean, sumindu ziran, ea nork lagundu zion, amorruz. Sendagilleak bere klinikara eramateko agindu zuela esan zien emakume batek. Ara joan ziran; baiña sendagilleak gogor egin zien etaepailearen eskuetan jarri zuen auzi ori, eta arek sendagilleari eman zion arrazoi.

Urrengo arratsaldean, ikertxo bat egin zion sailleko bigarrengoak; eta etzuela buruko ebaki ura besterik. Baiña sendagilleari eskerrak. Bestela, espetxera eramateko asmoan omen zebiltzala. Jarraitzeko asmoan al ziran galdetu zion enkargatuak.

–Oraindik bai. Baiña i zaurituarekin asko beldurtu egin dituk. Biar joatekotan zeudek; baiña olakoren bat gertatzen bada, utzi egin bearko zioagu, gure fameliak ere larri eta beldurak bizi dituk eta.

–Neregatik, nai dezutena egin. Gu bakarrik aterearekin, indar gutxi emango zioagu lan uzte oni. Indarrean leertuko gaitzitek. Baiña urrengoan denak elkar artuta egingo diagu.

Onek bere lagunei kontatu zien enkargatuak esan ziona, eta beren esku uzten zuela jarraitu ala ez.

–Atera egingo gaituk orduan? –erantzun zioten.

–Gaur beiñepein bai. Ikusiko diagu nolako itxura arzen duen.

Kartel berri aundi bat, leengoa autsita, egin zuten, gazte batek artu zuen eta atera ziran, gertatzen zana gertatu. Bezperan jipoitu zituzten karrikara atera ziran, ixilik eta pakean, baiña erne. Berak zijoazen karrikan aterik geienak, noski, zabalik zeuden: atzoko astakume aiek etortzen baziran eta joka asi, ate aietan ezkutatuko zirala. Ori etxeakoandreen lana zan, bezperan beren senarrak gaizki ikusi zituzten makillapean eta.

Eraso zieten, gogor gaiñera. Gazteak iges egin zuten. Kartel aundi ura ere berekin eraman zuten. Zaarrak, berri, etxe aietan ezkutatu ziran. Aiek andik ateratzeko asmoan asi ziran; baiña atek barrendik itxiak zeuzkaten eta etzuten sartzerik izan.

Ertzaiñak etsita aldegin zutenean, atera ziran banakabanaka andik badaezbada, beste oiek zai zeuzkatenik etzekitelako, ixilik bere etxeetara joateko, bertakoak etziranak. Orrela bukatu zan egun artakoa. Etzieten utzi berak nai zuten bezela agermena egiten. Urrengoan ere egitekotan gelditu ziran, baiña beste karrika batean.

Nagusiak ikasi zuen, zuzendariak esanta, enkargatua zauritua klinikan zegoela, eta ari bisita egitea pentsatu zuen. Ortarako, sendagilleari galdetu zion ea bisitatzeko moduan zegoen ertzaiñak zauritutakoa.

–Zu zera noski oien nagusia?

–Bai; eta ori enkargatua det.

–Oraintxe noa gaixoa ikustera eta, nai badezu, etorri.

–Eskerrik asko. Ordu egokiagorik ezin nezakeen auke-ratu.

–Atzo erdi zorabiatua zegoen.

–Ezurrik autsi edo ezeren txarrik egin al diote?

–Ez. Gogotik jo zuten. Neronek ikusi nuen, gaiñera, deabrukeri ura: iru edo lau gizonak, iñori arrazoi txarrik eman etzion langillea bota eta lastoz betetako zaku bat bezela joka. Pertsonak orixe baiño begirune geixeago bear du. Bost seme-alaben gurasoa ortara tratatzeko eskubide-rik ez dago. Buruan dauka ebaki sakon bat; eta onera edo txarrera ematen duen jakin arte, emen geratuko da.

–Eta zorrak nork ordaindu bear ditu?

–Konponduko gera.

Sendagilleak, zaurituaren gelara sartu zanean:

–Nagusia zai zegok, irekin itzegin nai duela eta.

–Nagusia ala borreroa?

–Neri nagusia dala esan zidak. Aurrera edo atzera, zer esango zioat?

–Egoskor ori emen ikusteko gogo aundirik ez daukat; baiña aitzakiak jartzen asten bada, ikaragarriak esango dizkiot, ez nuke nai baiña. Esaiozu sartzeko, baiña baldin-tza onekin: ni espetxera gabe askatzeko. Bestela, dijoala bere txaletera.

–Nai badezu, sartzeko; baiña baldintza onekin: espe-txera gabe etxera joaten uztekotan.

–Bai, bai. Atzoepailearekin itzegin nuen. Etzegoela ori espetxera eramateko motiborik, eta ori utzi duten bezela jotzeko ere ez. Afrikako ertzaiñak baiño okerragoak ditu-gula emengoak. Abererik ere ez dala ola tratatzen. Epaile-aren itzak dira auek.

Ixil-ixilik sartu zan bada; eta sendagilleak, atea itxirik, aldegin zuen andik, eta biak bakarrik geratu ziran aurrez aurre.

–Egun on, Joxe Erramon –eta eskua luzatu zion.

Eta onek, nagusiaren eskua artuz:

–Baita zuri ere, eta ongi etorria. Nondik eta nola, magusi jauna, neregana agertze au?

Berez Joxe Erramon gizon jatorra zan; bakoitzari bere izenez deitzen zion oietakoa. Une batean berotuko zan, beste geienak bezela; baiña etzion gorrotorik artuko.

–Atzo epelak artuta, klinikan agola esan zidaken zuzendariak.

–Bai; orrixe esaten zaio lastaira zaar bat astintzea.

–Eta zer moduz? Ez dek autsirik izango?

–Ondo esan bearko. Sendagilleak dionez, biar bertan joan nintekela etxera, baiña agermen ortara ez azaltzeko.

–Baldinbetan ori. Eta buruan kolpe aundia eman al dittek?

–Ez da ainbestekoa. Sendagilleak, ezin zutiturik ikusi niñuanean, onera ekartzeko agindu zuen, ebaki au aitzaki. Espetxera ez eramateagatik ekarri niñuten ni onera.

–Eta martxa ortan jarraitu bear al dezute?

–Lan-saria jaso bitarte bai.

–Ni baiño leen aspertuko zerate.

–Ez dezu orduan amar emateko asmorik?

–Madridtik jasotzeko agindua artu arte ez. Atzo itze gin nian beste nagusi batzuekin, eta aiek ere ortan zeudek: nere iritzikoak dirala beti; jarraitzeko ortan.

–Bai, bai. Pertsonak gerala aitortzen dezutenean, zerbait egingo dezute. Baiña asto-mandotzat artu gaituzute: lan egin jan truke; eta, zerbait geiago eskatzen badegu, makilla. Jakiña, badakigu oraingo au galdu degula. Gure famelietako bizi eziñak menderatuko gaitu. Baiña gure ausardi onek berotuko ditu beste lantegietako langilleak ere. Zer egingo degu, bada? Batzuek alperrikako lanetarako esku bete diru darabilkite, eta batere pentsatu ez ori dena langillearena dala. Eta guk, bederatzi ordu lana eginta ere, seme-alabak azitzeko aiña ezin atera. Ori, nagusi jauna, ez da justizia, eta guk ori eskatzen degu. Ez degu besterenik nai.

–Nik zer alperrikako kastuak egiten dizkiat? Alabaren eztaiak?

–Maite dan bati oparo eskeintzea etzait gaizki iruditzen. Baiña Frankori emandako milloi oiek ez al ziran gureak? Eta Donostiko txalet ortan asi dezun kastua? Kristau baten kontzientziak ezin lezake burutu ori. Eta, bitartean, leen esan dizudana: ori irabazten degun langilleak miseri gorrian. Baserrira joan bear, jango badegu.

–Nere lekuan baengo, zer egingo uke ik?

–Ori ez dakit. Ni ere gizona naiz, nere griñak eta guzi egindakoa. Baiña zuk bezela egingo banu, pentsatu pekatu gaiztoa egingo nukela. Guk indarkeririk ez darabilkigu; eta, artara asi baiño leen, atzeratuko nintzake. Milagroak egin bearko ditu nere emazteak, gure mantenu eta jantziarekin zorrik egin gabe ateratzeko. Nik ez nuke orrenbeste egingo.

–Beste nagusiak ere nik bezelako martxa zerabilkitek. Langilleen laiñeza guziak ezin ontzat artuko dizkiagu. Bestela, lantegiak itxi eta alde egin bearko genikek.

–Ez dago orren beldurrik. Onenbeste milloi ara eta onera zabaldu dituzu. Langille batek ez ditu berealakoan jornaletik egingo. Gero, justizia eskatu eta makilla burutik beera. Jainkoak mundu au denentzat egin zuen, eta bazuk bakarrik jabetu dira.

–Ire iritzi oiek onak izango dituk, baiña betetzen ez diranak. Utziegun alperrikako kontu oiei, eta lan uzte oni jarraitzeko asmoan al zerate?

–Leen ere galdetu didazu ori. Ni ezin nintekena joan eta ez diet ezer esango. Egin dezatela berak nai dutena, berdin badakit galdua daukagula-ta, laguntza geiago gabe eta onenbeste etsairen erdian. Etxeko eziñak ikusita, ezin gentzake jarraitu.

–Martxa orri uzten badiok, iri jasoko nitek, enkargatu bezela, aitzaki orrekin.

–Polita izango lizake ori: denek lan egin eta neri bakarrik jaso. Ez, nagusi jauna. Denak suerte berdiña izango degu. Nik ez diet nere lagunei olako billaukeririk egingo.

Nagusi-enkargatuak, biak leengoan geratu ziran. Onen lagunak aste osoa igaro zuten beren eguneroko agermena egiñez. Makillapean baziran tartean zaurituak ere; baiña aspertuak eta etsita. Okerrena, berriz, etxeko negarra.

Larunbatean atera zan klinikatik Joxe Erramon, beren enkargatua, artean buru lotuarekin; baiña, garbi esateko, sendatua, oraindik ez bazioten lotura askatu ere. Eta, etxera baiña leen, bere lagunetara joan zan. Benetan nairagabetuak eta aspertuak arkitu zituen.

–Kaixo, lagunak! –agurtuz–. Aste au ondo pasa al dezute, bada?

–Bai; parrandan eta lo. Goizeko gure saioa bukatzean, etxera. An aspertzean, kalera. Ezin gentzake orrela jarraitu. Gure emazteak asarretu zaizkigu. Guk ortara jarraitzezkeroz, egunero kalerik kale eskera atera bearko dutela zemai egin zigutek. Baserritarren sendikoak ez dituk kale gorrikoak bezin larri bizi. Aurten gaztaiña eta babarruna oparo eman omen dik uztak; eta baserritarrei biltzen laguntzera joaten diranak naikoa zekartek andik. Baita kale gorrikoei laguntzeko ere beretzat eskas dakarrenetik, berak eziñean ibiliko badira ere. Ori dek maitasuna. Elkartasuna ere or zegok. Ostegunean ire emazteak lakari babarrun ekarri zidaken. Gertakari auen berri jakingo dek, noski. Eta i zer moduz? Itxura txarrik ez daukak.

–Kaskarreko ederra eman zidateken, baiña oiñazerik ez diat eduki. Nere buruari bakarrari begiratu ezkerok, ez dizkit egun oiek gaizki igaro. Baiña besteen negarraren berri banekiken, iñork kontatu gabe ere. Orko zorrak ordaintzen izango dizkiat kontuak. Baiña ik berri atsegiñak eman dizkidak. Orduan gure etxekoak etzebiltzak orren gaizki.

–Ez al aiz etxean izan?

–Ez oraindik. Zuzenean onera etorri nauk. Arratsaldean baserri alde ortara igo bear diat.

–Eta ez al dek iñora azaldu bear?

–Astelen alde arte ez. Sendagilleak ori agindu zidak.

–Guk, bada, zuzendariarekin itzegin diagu, eta astele-
nean lanera joatekotan geratu gaituk.

–Oso ontzat artzen diat ori. Etzeukagu beste erteera-
rik. Asterako ere bagenekiken galduko genduela. Baiña
berotuko dek jendea. Ni ere or azalduko nauk. Arro egon-
go dek nagusia.

–Baiña ez zuzendaria. Etziguken ezer esan, baiña triste
zegoela iruditu zitzaiguen.

–Badakik nagusiak ikertxo bat egin zidala?

–Eta diru-putzuren bat utziko zin?

–Ezta klinikako zorrak ordaindu ere. Martxa au uzten
banuen, enkargatua nintzan ezker, guk eskatua emango
zidala agindu zidaken.

–Orduan gu bakarrik utziko gaituk.

–Naiago nitek nere denbora guziko espetxean sartzea,
nere lagunei billaukeri ori egin baiño leen. Baiña ura leen-
goan zegok. Ura baiño leen aspertuko omen gerala gu.
Ala esan zidaken.

–Ori ikusia zegok, seta gaiztoak artua zegok eta. Or-
duan, agur, Joxe Erramon. Astelena arte. An azalduko gai-
tuk buru makur. Aste guzia piper eginta galdu, eta ezer
irabazi ez.

–Eta ni, ordainduko ez ditudan kastuak egin eta gero.

Etxean maitasunez artu zuten. Emazteak bi ikertxo
egin zizkion klinikan, eta bazekien larunbatean etortzekoa
zala. Poztu zan astelenean lanera asteko asmoan zirala ja-
kin zuenean. Galdu egin zuten. Zortzi pezeta gutxi ziran,
baiña utsa baiño obeak. Klinikako zorrak nolabait ordain-
duko zituzten. Urteko uzta ere ederra zan eta konpondu-
ko ziran.

Emazteak, jatorra, langillea eta etxeak bada, andik
edo emendik famelia aurrera aterako du. Baiña utzi, alper
eta narratsa bada, edo bere gorputzari geiegi eman nai
diona, etxe arek goi-beeak laster joko ditu.

Joxe Erramonen emaztea, azkeneko xentimoari ere begiratzeko zion oietakoa zan, eta ez apain-zaleegia. Gizona narratsa bada ere, baiña emaztea txintxoa, ez da fameli ura galduko. Baiña gizona txintxoa bada eta emaztea narratsa, lanak izango ditu fameli arek aurrera ateratzen. Joxe Erramonena txintxo oietakoa zan, bada; eta, urte artan uzta ona egin zuen ezkerero, ezin zutenei laguntzeko ere ekarri zuen baserritik.

–Orduan, astelenean bazoaz lanera? –galdetu zion emazteak.

–Nai eta nai ez. Eskerrak etxe ontan ez dala asko ezagutu gure alperkeria. Baiña batzuk oso gaizki dabilta. Proba txiki bat egin degu beiñepein, eta urrengoan beste lantegietakoak ere batuko dira.

–Zuri gorrotoa dizu, noski, zure langille lagun batek. Batek baiño geiagok esan didate ori.

–Bai, noski. Ertzaiñak jakiñaren gaiñean jarriak zeuden ni nor nintzan, eta basapizti batzuek bezela eraso zidaten.

Gertatua gertatu, famelian kontentu geratu ziran.

Astelenean

ETORRI zan egun ori ere. Zuzendariarekin itzegiñak zeuden astelenean asiko zirala lanean. Astebete galdu, ezer irabazi ez, sendiak larritasun gorrian geratzeraiño, lanean asteko arrazoirik onena ori zuten, bada: etxeko eziña eta negarra.

Banaka-banaka eta buru makur, serio-serio, izketarako gogo aundirik gabe bildu ziran aspaldiko txerri-toki artarra. Aste guzian ukuitu gabea zegoen.

Enkargatua zan leenengo joan zana; eta, ura ikusi zutenean, poztu ziran. Etzan aren zauria esaten zuten aiñakoa. Jakiña, oraindik ondo lotua zeukan sendagillearen aginduz, lantegi zikin artan gaixotu etzetzaien. Bereala asi zitzaizkion galdezka. Larunbatean ez baizuten geienak ikusi, eta itzegiteko aukerarik ain gutxi.

–Zer moduz joan zaik aste ori?

–Bapo, atsedenean, ezeren oiñazerik gabe. Gaixozaia oso maitalea. Nere eskari guziak betetzeko beti prest. Nere eder nola egin ezin asmatu. Emazteak berak ez luke senarra obeto zainduko. Neri lagundu zidatenak, denak gure alde zeuden. Itxurak, beiñepein, ala egiten zituzten. Sendagilleak etzeuden, batzuk beintzat, guk artu genduen bide edo martxaren alde. Baiña nai ditek lan-sariak jasotzea. Goitik, ordea, Madrid alde ortatik alegia, eta oiek nai dutenean.

»–Ez al zerate eroarena egiten ibili zuek? –galdetu zidaken batek.

»–Ezin bizitzeraiño etorri geralako egin degu ori –erantzun nioken–. Eguneko zortzi pezetarekin konformatuko al ziñake zu? Zer egin bear dezu zortzi lagun bizi

geran etxe batean orrekin? Pezeta pare bat jasotzeko besterik ez degu eskatzen, eta orren milloien berri badakigu.

»—Ori ondo ulertzen dizut, eta nai nuke lan-sariak jasotzea. Baiña indarrean ez; obe degu pakea.

»—Eta langilleak goseak edukitzearekin al dator pakea?

»—Langille jendea ez da orren gaizki bizi.

»—Nik zortzi pezetarekin utziko ziñuzket, ea etxean pakean bizitzen ziñazteken.

»—Ez; ori parregarria da.

»—Guk egun guzia lanean pasa eta ori artzen degu, bada. Aurrera ere, zuek baiño laguntzaille oberik ez badegu, bageundeke pixka baterako. Urrengoan agian tiroka asiko zaizkigu. Aste guzia galdu det, eta xentimorik jaso ez. Emengo zorrak nola ordaindu bear ditut?

»—Bazenekiten ebainduko ziñuztela.

»—Bai; baiña kristauak izan balira ez.

»Ori erantzun nion. Ala ere, geienak alde dizkiagu, an zeudenak beiñepein.

—Komeni zaiguk urrengorako jendearen iritziak jakitea.

—Au ontzat artu ez dutenak, guda-ondore gaizto ontan ausardi geiegia izan degula pentsatzen dutelako da, eta arraixku txarrekoa dala lan uztea. Ortan arrazoi pixar bat baditek. Eta erriko jendeak zer dio?

—Frankista amorratu batzuk izan ezik, oiek beti gaiñean bizi nai ditek eta, txalo egin zigutek beste gaiñerakoak. Ez al intzan mezetan izan?

—Bai; baiña klinikan.

—Gure erriko apaizen jarrerarekin arrituta geratu dek jendea. Gure bikario jaunak lege zaarreko iritziak zeuzkak. Agintzen dauden katoliko berri auen ilketak ontzat artzen dizkik. Kristau dotriñaren aurka jokatu degula, pakean zegoen errira guda ekarriz. Joan dan guda bukatu berri ortan erru aundia omen zutela beekoak, goikoei begirune geiago ez izana. Oiek Jainkoak aukeratzen dituela aginteko aulkirako, eta oien aurka joatea Jaungoikoaren

borondatera ez makurtzea omen dala, eta obeditzera bear-
tuak gaudela kristauok. «Españari pakea ekartzeko ain-
beste odol ixurita –esan zuen—, orain berriro pasatako
martxak artzen? Ez degu alperrik supritu guda gogor eta
odoltsu artan! Laga lan uzte ori, Madridtik zuzenduko
gaituzte eta. Lan-sari txikia dala? Bai; ez da geiegia. Baiña
guda ortan egindako zorrak ordaindu bearco dituzte.
Igendero mezetara datorren jendea ortan asten bada, las-
ter beste gerra odoltsuren baten bearrean arkituko gera».
Olako arrazoiak jaulki zizkiguken banaka-banaka pulpi-
totik apaizak. Ez giñun atera, parregarri ez geratzeagatik.
Baiña meza bukatu eta erten giñanean, bikarioaren aurka-
ko gaizki esaka ugari entzun genin. Emakumeak eta oke-
rragoak noski:

»—Zer uste du orrek: guk ez degula bizitzeko eskubi-
derik?

»—Ez den, ez, ori, gu bezela, zortzi pezetarekin bizi, ez!

»—Beti aberatsen alde ateratzen ditun oiek.

»—Nik zekiñat etxeko berri: senarrak ia amar orduko
lana eginta, zortzi pezeta besterik ez, eta ez din orrek
errurik. Utsa baiño ohea den, eta jarraitu egin bear lan-
tegiari.

»—Bikario zaar au beti izan omen den aundizalea. Ne-
ronek entzuna: nagusi orrek limosna onak egiten omen
dituela.

»—Berriz ere egingo dizkin, bestek irabazitako diruare-
kin.

»—Ortan jarraitzen badu, auzoko errira joango naun
mezetara.

»—Ni ez; baiña ez zentimorik eman ere oni.

»—Pakearen aurka joan dirala gure gizonak? Batzuk
ondo bizitzeko, besteak goseak il bear al diñagu?

»Tankera ortatsuko esaerak jaulki zituzten gure ema-
kumeak. Gizonak aundiagoak, noski, baiña tabernan.

Urrengo mezan, bi izaten baiziran errian, arrunt beste-
lakoak egin zuen sermoia apaiz gazte batek:

–Langilleak lan uztea egin dutela? Nola ez dute egingo? Argitik illuneraiño ari dira lanean, eta eguneko zortzi pezetagatik; eta bi geiago eskatu dituztelako, or dago bat klinikan zauritua, iru edo lau basapiztik burutik beera jo-ta. Nagusiaren berri badakigu: bost edo sei lantegi badauzka, emengoaren berdiñak. Guk pezetak bezela darabilzki orrek milloiak, eta bi pezeta zorritsu eman nai eza. Nik dakit, nik, nola dabil-tzan emengo fameliak: eziñean, azkeneko xentimoari ere begiraturaz. Ezagutzen det sendi bat: gizona or ari da lanean; bost seme-alaba dauzka, eta oraindik gurasoak, xaarrak, bizi ditu, lanerako gauza ez diranak. Zortzi pezetarekin nola mantendu bear ditu oiek denak? Langilleak ez dijoaz iñoren kontra. Berena dutena eskatzen dute: justizia. Langillearen eskubideak ez badira geiago zaintzen, laster gaituk berriz ere matxiñada eta ixkanbilletan naastuak. Aberatsa aberasten ari dek; bear-tsua, berriz, gero eta beartsuago.

Olaxe itze-gin zuen apaiz gazteak. Zaarra elizan bazan, zer pentsatuko ote zuen? Erriko aberatsak joaten ziran meza zan ori. Goxoak atera ziran:

–Sotana jazten utzi zioteken, bada, orri! Urrengoan ere meza ontara etorriko nauk; baiña ez dik geiago nik eman-dako bost durokorik artuko. Gure bizkar bizi dek, eta itzetik ortzera lapurrak etziguk, bada, deitu?

Auek ere asarre atera ziran elizatik. Asma ezazu oiekin!

Izketan-izketan ari ziral-a, noizbait jo zuen ordua lantegiko erlojuak. Sartu ziran lanera. Zuzendaria an zeukaten zai. Zer egin moldatua zegoen eta asi ziran lanean. Enkar-gatua ikusi zuenean, itzegitera urbildu zitzaion zuzendaria:

–Ondo al zaude, Joxe Erramon?

–Bai, bai, aste guzia atsed-en egin eta gero.

–Eta ebaki aundia al zenduen?

–Ni espetxetik libratzeko sendagillearen aitzaki bat.

–Eta zor-rak ordaindu al dituzu?

–Ez oraindik. Zenbat dan ere ez dakit. Aurten base-
rrian uzta ona dute eta konponduko gera.

–Nik nagusiarekin itzegingo nuke ortaz...

–Eskerrik asko biotz-biotzez. Baiña nere lagun en suer-
tea izango da neretzat ere. Olakori betaurrekoak autsi ziz-
kioten. Nola erosi bear ditu orrek berriak? Eskaiozu orren-
tzat.

–Eskatuko zizkiot, bada,

–Arritzekoa da: gizona alperrik zenbat milloi ematen
ari dan edozeiñi, eta diru ori sortzen degunok bi pezeta
eskatu eta uko. Miseri gorrian jarraitu bear.

–Olakoxea jarri zaiguk, bada, eta egunen batean obeto
pentsatuko al dik.

Ezin ikusia

LAN-SARI kaxkar arekin fameli askotara sartu zan ezin bizia, eta aal zuenak aal zuenari eltzen zion. Tirabidean ikusi ezker, pekatu egin-beldurrak utzita, besteren gauzetaz ere jabetzen asi ziran langilleak. Eta pekaturik egiten al zuten? Bizitzeko eskubidea denok daukagu mundu ontan, emengo aberastasunak ez baidira bakar batzuentzat soilki egiñak. Lantegi artan ere puska batzuk iñoizka paltatzen zirala oartu ziran ango sar-erteeren kargua zutenak. Bazekiten eguneko zenbat egiten ziran, eta aietatik noiznai bakarren baten utsuna arkitzen zuten. Nagusiak galdetu zien eraman-ekarrien gora-beera zerabilkitenei:

–Egia al dek lapurretan ere asi dirala?

–Bai. Ori seguru badakigu: zenbat puska egiten ditugun eguneko eta zenbat eramaten ditugun almazenera; eta tarteka-tarteka beti bakarren bat gutxiago ateratzen zaigu, palta dala.

–Eta puska oiek garestiak al dituk?

–Eun pezetan saltzen degu bakoitza.

–Alajainkia! Ez dik mauka txarra ari!

–Ez dira asko or lapurretan ari diranak; bakarra da, noski, orko lapurra.

–Arrapatzeko moduak egin bear dituzute. Ori txuxenean espetxera joango dek, eta ez dik geiago nere lantegian ankarik sartuko.

–Langilleak oartu dira eta beldur naiz ez ote dan besteren bat asiko, fameliren batzuk estuasun larrian bizi dira eta.

–Ori ez dek lapurretarako arrazoia. Goikoak agintzen dutena kobratzen dezute.

Jarri zituzten zelatariak, baiña alperrik. Leen bezela, tarteka-tarteka puska ori eramaten zuten. Orduan enkargatuari esan zion zuzendariak zer gertatzen zan, eta nagusia oso aserre zegoela.

–Ez al aiz oartzen zuen artean badala lapurra?

–Besterik itzegiten al da langilleen artean? Ala ere, ez da nagusia goi-beeak jota geratuko.

–Orduan, ontzat artzen dek ik lapurreta ori?

–Nik ez det sekula lapurretarik ontzat artuko.

–Zertarako esan dek, bada, nagusia ez dala ala ere goi-beeak jota geratuko?

–Nere kontzientzirako, ori ez da lapurreta. Daramanak berea daramaki. Miseri gorrian bizi dira emen fameli asko, eta goseak il baiño leenago zerbait egin bear du.

–Orduan ez dek ori arrapatzen saiatu bear?

–Nik daukadan lanarekin zailla da ori.

–Ez nekiken orren lanpean bizi intzanik.

–Badakizu: zortzi talde ari gera emen lanean, eta denetarako nik bakarrik nago enkargatu. Nik, besteak bezela, nere saillean lana egin bear det, eta denak zaindu bear ditut. Ortaraiño zapaldua nauka nagusiak. Sinista nazazu: leengo batean azterketa bat egitera etorri zan nagusia; eta, ni lan eta lan nere saillean arrapatu ez niñulako, erritan eman zidan. Nik nola zaindu nezazke sail guziak orrela?

–Orduan, beste enkargatu bat txintxoagoa jarriko diagu.

–Munduan dan ogei durokorik ederrena baiño naiago nuke ori. Baiña muzin egingo diote lantegi oni. Ni langille arruntak bezela saritzen nau eta, jakiña, oiek bezela egin bear det lana. Ezer gertatzen bada, berriz, erantzunkizuna nerea da. Norbait berandu etorri edo lan-iges badabil eta zerbait esaten badiot, deabru baten arrazoi eta erantzunak artzen ditut. Norbaitek min artzen badu, langilleak ulertzen dute; baiña goikoak erru guziak neri emango dizki-

date. Nere bizkarrera ez dator eztabaida, zema eta liskarra besterik. Baiña irabazbiderik ez.

–Orduan, ire naiaren kontra ago enkargatu?

–Etzazutela zalantzarik egin ortan. Ala ere, norbaitek bear du.

–Besteren batean pentsatu bearko diagu orduan.

–Ez badiozute beste langilleei baiño igurtzi ohea ematen, laster muzin egingo dio karguari.

–Ori nola arrapatu liteke? Ire iritziak izango dituk.

–Baditut, baiña ontzat artuko al dituzute?

–Zergatik ez, emengo martxaren berri ondo dakik ik eta?

–Leenengo, talde bakoitzak bere enkargatua bear du. Ango erantzunkizuna aren bizkar geratu dedilla. Bigarren, ea nongo sailletik lapurtzen duten puska ori. Agian elkar artuak egon litezke, orrekin artzen dana denen artean zabaltzeko asmoan. Auek dira nere iritziak. Orain, oien denen gaiñetik beste enkargatu bat izatea ez legoke gaizki. Baiña ez bada gaiñetik ezeren igurtzirik, denak arrazoi osoarekin muzin egingo dute. Saillean gaizki ikusia ez du iñork izan nai.

–Eta uste dek orrela obeto zainduko litzakela?

–Entzun zaidazu eta orduan epaitu. Nik baditut emen etsaiak. Nere taldean ere eztabaidak izaten ditugu, bereala konpontzen bagera ere. Baiña beste taldeetan ere baditut «*ese chulo*», *esaten* didatenak, eta gero ala erantzuten didate: «I sartu adi ere praketan! Emengo martxa guk eramango diagu!».

–Orduan, etzeudek irekin konforme denak?

–Ez nerekin eta ez Aita Santuarekin ere. Baiña ezta ni ere denekin. Orregatik, bakoitzak berea bear du. Leen esan dizudan bezela, ni begitan naukate askok. Lapurreta ori izan liteke, gaiñera, talde batena. Arekin artzen dutena talde osoaren artean zabaldu. Zoaz talde artara galdezka. Ea zer erantzuten dizuten. Ori da nere iritzia.

–Begitan autenak badituk orduan?

–Jakingo ez det, bada? Bestela, ez lidateke ain gogor eta purrustadan erantzungo. Eta ez naiz batere arritzen: lantegi guzietan gertatzen dana da ori.

–Ez adilla i langille oien protestan naastu; eta, enkargatua aizen aitzakitan, eskatzen dezuten ori jasoko ditek.

–Badakizu: nik ori ontzat artuko banu, eta langilleak ikasi, oien aurrerako nola geratuko nintzake?

–Bai. Ez didazu bi aldiz esan bearrik. Emendik alde egin bearko uke.

–Orrekin gure nagusia konten geratuko litzake. Biali egin nai nau ni orrek emendik, eta ez da ausartzen.

–Ez baidu ortarako mutil oberik arkitzen.

–Alazankoa! Oiek ire buruko gogoetak izango dituk? Baliteke naizen baiño geiago naizela uste izatea ere. Ikusiko dezu nola ni salatuko nauten.

–Ik nagusiagatik egiten dekan susmur ori ez diat sinisten egia izan litekena. Baiña talde bakoitza bere enkargatua edukitzea, iritzi ori ez dek txarra. Atsegin zaidak.

–Estuasun larrian jarri naute ni ere. Emengo lapurreta pixar orrek oso kalte gutxi egin dio nagusiari. Baiña ortik ondoren txarrak aterako ote dituen beldurrak nago. Orain urte batzuk gizon au ezagutu zuenak eta geroztik egin duen aldaketak, arrituta nauka. Zerk egin erazi ote dio ori?

–Diruak, zalantzarik gabe. Au guda aurrean eziñean zebilleken. Makina zaarrak zeuzkaken eta, martxa ona jarriko bazuen, nai eta nai ez berritu egin bear, eta etzioken ortarako iñork ere dirurik aurreratu nai. Dena saltzeko asmoan zebillela, asi uan gerra gaizto ura. Asi uan gudarako lanean, eta gure gizona ederki moldatu uan. Ezin saldu zituen puskek gudazaleak modu onean erosi zizkioteken, eta Madridko laguntzari esker artu zin gaur daraman gorako martxa au. Badakit zenbat bonba eta granada egin zuen orrek euskotarrak zapaltzeko. Bai Jaurbatzak ondo ordaindu ere ori.

–Entzun detanez, badirudi tituloren bat ere eman nai diotela. Ez dakit: markes edo olakoren bat.

–Ez dik orrekin gilbor aundirik aterako. Orrek arrokeri puska bat emango zioke. Beste gaiñerakoan, alperrikako kastua, titulu ori ordaindu egin bearke baidu.

–Ortarako badu dirua, eta ogei durokoren batengatik sartuko luke bat espetxera.

–Ni ere aurrean ibilia nauk; baiña ez auen alde, eta beldur nauk gu bota eta beste oietakoak ez ote dituen artu naiko. Garai batean bere adiskide giñunak eta bere begitan gaur erori geran auek orrela! Nik au dena esango diot; baiña beldur naiz, lapurreta ori aitzaki artuta, ez ote duen lantegi ontan garbitasunen bat egin naiko.

Eta urduri alde egin zuen andik gure zuzendariak. Pentsakizunez betea geratu zan enkargatua. Egun ura ola-xe joan zan.

Arrats artan kontatu zizkion enkargatuak emazteari zuzendariaren susmurrak.

–Orrela al dabil ura ere? Ez al da ori Madrid aldeko bultzadaren bat izango?

–Uste det erdiz erdi asmatu dezula, noski. Ni, beiñepein, lantegi ortan jarduteagatik ez naiz iñoren iritzietara makurtuko. Neregandik losintxa gutxi artuko du, madarikatzen lanean ari eta bizitzeko aiña ezin degu irabazi eta.

–Baserrian geiago saiatuko bagiña, zuk ortik dakartzuna baiño geiago kenduko genioke. Ez genduke orko pezeta zikin oien bearrik.

–Ortan ere arrazoi dezu, noski. Baiña ez banaute bialtzen, ez det alde egingo. Gure aurrak ere eskolan dabilta. Gu baiño jantzixegoak izatea nai genduke, eta ortarako ere diru asko bear da.

–Oraindik, beiñepein, etzaituzte beartu, eta orduan pentsatuko degu.

Arratsaldean, bostak alde ortan, deitu zuten enkargatua, nagusiak berak itzegin nai ziola eta. Etzion biotzean zarrasta txarrik egin. Zetorrena zetorrela, andik edo emendik bizitzeko aiña sortuko zuten. Emazteari ere, bada, etzion naigaberik emango. Jakiñaren gaiñean jarri

zuen eta ala zion berekiko: «Ori markes egingo balute bezela nabillek ni ere: titulu ederra, baiña irabazirik ematen ez dizuna. Ni nagusiak aukeratu eta enkargatua naiz, eta nere buruaren kaltetarako bestetarako ez det titulu ori».

Atean txintxarria jo zuen. «Aurrera!» deitu ziotenean barrundik, txapela erantzi eta sartu zan aurrera.

–Jainkoak arratsalde on –agurtu zuen.

–Baita iri ere –erantzun zion, irripar zeken baten ondoren–. Eseri adi.

–Eskerrik asko.

Enkargatuak laster antz eman zion nagusia etzegoela jolaserako; eta, eseritzeko agindu zionean, galdera bat baiño geiago egin naiko zizkiola. Muturje gogorra eta begiratu traketsa. Beti izan zan olakoa, guda ezkeroztik, bere langille geienekin.

–Nere lantegi ontan zer zabilzate? –galdetu zion itzetik ortzera.

–Pake-pakean ari gera gu lan da lan, Jainkoak eskatu bezela; eta sekula baiño geiago sortzen degu gaiñera –erantzun zion.

–Ortan balitekek. Ez nagok asarre. Baiña nere belarrietara okerragoko berriak iritxi dituk.

–Zuk jakingo dezu.

–Eta ik ez?

–Zerbait entzun det; baiña berri oiek ezeren eusgarri-rik bai al daukate?

–Lapurretan zabilzatela alegia, zuzendariak esan didanez. Noiznai paltatzen omen dituk balio aundiko pus-
kak. Ori esan zidaken atzo.

–Bai. Neri ere ala esan didate.

–Eta ik zer egiten dek orduan?

–Beste edozein bezela, lana galanki, asto baten gisa. Nik ori daukat agindua. Eguneko, gutxienez, onenbeste daukagu neurria jarrita, eta nere taldea ezin utzi laguntzarik gabe.

–Eta ez al aiz, bada, i enkargatua?

–Bai; izen ori ematen didazute, eta ori ez da zailla. Baiña ez badidazute erreztasun geiago ematen, nik ez nezake deus egin dagidana baiño geiago.

–Etzekiat, bada, egia dan ori. Emen salatzaile batzuk bazeudek, eta ez aute oso leku onean uzten.

–Salaketa oiek dira ni zuzen nabillela seiñalerik one-nak. Ez dakit ori egia dan; baiña nik ere noiznai lapurretak badirala salatu bearra daukat, eta ori arrapatzeko nere iritziak eman nizkion zuzendariari.

–I aizela lapur ori, iru edo lauk esan zidatek.

–Ortaraiño ere erori al zera? Nor dira salatari oiek?

–Etzeukat esateko baimenik.

–Litekena da; baiña emen ez du iñork nere aurka salaketarik egin bere borondatez.

–Eta nork beartu bear zizkin?

–Nor diran esaten ez didazun arte, nik zure susmurra egingo det, biotz-ximiko aundirik gabe egiten didazuna. Gure lagunartean oso bat egiñak gaude, bata bestea salatzen aritzeko. Salatu nautela egitan ari bazera, zuk beartu dituzu, eta ez beste iñork.

–Zer diok? Erotu al aiz edo? Orduan ni nauk lapurra?

–Lapurra zeranik ez dizu iñork esan. Eramaten badezu ere, zurea daramazu. Zurekin baiño askoz konfiantza geiago daukat nere lagunekin. Nik iñori ez diot ni lapurtzat jotzeko motiborik eman; eta, zuk min artuko zenduken bezela, min artzen det ni naizela zalantzan jartzea ere, eta benetan maite det izen ona.

–Ondo zegok. Illuntzerako igerriko diok.

–Ni salatuta espetxera bialtzeko asmoan zera orduan?

–Ori dek. Erorrek diok.

–Orrekin, nagusi jauna, oso-osorik arrazoi ematen didazu. Ni ixil-ixilik joango naiz, eta or konpon zure kontzientziarekin. Oraindik ori dena zerorrek galduko dezu.

Agurtu ere gabe atera zan andik. Bere lagunetara joan eta kontatu zien dena.

–Urdea aleena! Orduan i jotzen au lapurtzat?

–Bai; baiña berak ni ez naizela lapurra seguru dakiela. Emen ez dek lapurrik. Edo besteren batek edo berak aginduta paltatzen dek puska ori; eta, lana utzi orduko, emen izango dizkiat guardia zibillak.

–Zertarako etorri bear ditek oiek?

–Musu ematera ez, beiñepein. Lapurtzat salatu nauen ezkerero, ni espetxera eramatera bai.

–I andik atera arte, ez diagu, bada, lanik egingo.

–Ez olakorik. Jarrai zazute lanean, zuentzat eta nerezat ere ohea dek eta. Baiña ar zazute elkar, Lapurrik bada, arrapatu eta espetxean daramazkidan egun guziak ordaindu bear ko zizkidak. Olako taldetik paltatzen dek zorioneko puska ori; eta, nere iritzi apalean, elkar artuta egi ten ditek, aren balioa denen artean zabaltzeko.

–Ondo zegok jakitea. Baiña berriro lapurtuko al ditek?

–Leenengo egunetan agian ez; baiña gero bai. Ogei du ro balio omen dizkik puska orrek. Ez dituk gaizki ari. Ik abisu emango diok, noski, nere emazteari.

–Bai, motell, bai. Arek ere gizarajoak...

Arratsalde guzian lana eginta, illunabarrean, ateratze-rakoan, guzardiazibil bibote aundi bi etorri ziran, Joxe Erramon nor zan galdezka.

–Ori ni nauzute. Zer dezute nere aurka?

–Guk ezer ez. An esango ditek.

–Baiña expetxera al naramazute?

–Guk agindu ori artu diagu.

–Itzegin al nezake lagun oietako batekin, zer gertatzen zaidan nere emazteari abisua bialtzeko?

–Bai, motell. Ori ezin gentzakek ukatu.

–Ez aiz, noski, aztuko? –esan zion lagunari.

–Ez, motell, ez. Espetxera aramate orduan?

–Bai; eta zuen esku zegok nere askatasuna.

Bi guardia zibillan erdian, baiña lotu gabe, espetxera eramane zuten enkargatua, lapurtzaille bat bezela.

Langilleen sumiña

LAGUNAK, enkargatuak eskatu bezela, onen emazteari Leman zion gertatuaren berri. Au benetan naigabetu zan.

–Erra gaiztoa dio nagusiak Joxe Erramoni. Biali egin nai luke eta ez du, noski, motiborik arkitzen. Eta zergatik sartu duten bai al dakizu?

–Lapurretagatik, berak esan didanez.

–Ori gezur borobilla da, lapurretara joan baiño leen goseak ilko litzake eta. Leen esan dizut biali egin nai due-la lantegitik, eta ezin arrazoirik billatu ortarako –erantzun zion emazteak.

–Langille guziak zurekin bat gatoz ortan. Ez banu eza-gutuko, ez nuke ortara itzegingo. Nagusiak eskeiñi aundiak egin dizkio beste langilleekin bat ez egitegatik; baiña dena alperrik. Denen suerteak batera joango dirala erantzuten dio beti; justizia egin arte ortan jarraituko duela. Orain espetxeratze au ere orregatik izan liteke: izutu erazi eta bere asmoetara makurtzen ote dan. Lasai joan da bi guardiazibillen erdian. Neri ere lasai egoteko esan dit. Zuzentasuna nai degu; nagusiak, berriz, ez du olakorik entzun nai ere. Ondo irabazten ari da eta, oraingoz beiñe-pein, ortan jarraitu nai du. Langilleak erdi goseak edukita, irabazi guzia beretzat jaso.

–Eta, ortik ez badatorkit irabazirik, nik zer egin bear det?

–Ori da benetan tristea eta beldurgarria; ez arek an pasako dituen egunak. Ari etzaio ezer paltako; bear duena emango diote eta atsedena artuko du. Or ere zuk ibili be- arko dezu atzera-aurreraka, an daukaten arte. Lana utzi

eta zalaparta eta ixkanbillak ateratzeko asmoak genituen. Ori denentzat da kalte. Guk, bada, lanean jarraituko degu. Joxe Erramonek ala eskatu digu. Lapurrik bada —ori ere zalantzan jartzen det nik—, laster eroriko da, eta nagusiak oso-osorik ordaindu bearko dizkio espetxean igarotako egunak. Guk, beiñepein, aalegiñak egingo ditugu.

—Berri gaiztoa da ori neretzat —zion emazteak—. Baiña nola edo ala jan eta jatzeko aiña nonbait billatuko al degu. Eskerrik asko abisua ematera etorri zeralako, eta bere pekatua zer duen esateagatik ere bai; baiña ori dena gezurra da.

Langilleari benetako naigabea ematen zion emazte gaixoak. Bost seme-alaba, oraindik koxkorrak, etxe aurrean an zebiltzan jolasean, amaren buruaustean asko pentsatu gabe.

Urrengo goizean ikasi zuten langille lagunak ere zer gertatzen zan eta nolako aitzakiak jartzen zituen nagusiak, egin zuenaren arrazoi bezela. Amorruez artu zuten berri gaizto ori, eta etzuten lanera sartzeko asmorik.

—Enkargatuak lanean asteko esan zidaken; lan uztearekin denok galduko genduela eta.

Zuzendariak ere ikasi zuen astakeri aren berri; eta goizean, lan-ordua baiño leen, an azaldu zan eztabaidaka ari ziran lekura; alegia, lan uzterik ez egiteko, bestela geiena berak galduko zutela eta.

Zuzendariaren eskariz, ixil-ixilik sartu ziran lanera, serio-serio, nagusiaren asmoak nolakoak ote ziran ezin asmaturik. Bolara batean etzuten itzegin elkarrekin, lanari lotuak, palta zuten lagunaz oroitzuz eta zer erabaki artu ote zezaketen pentsatzen.

—Olako billaukerietan geiena galtzen dutenak etxekoak izaten dituk. An ikusi diat emazte gaixoa, bost aur koxkorren ama, xentimoren bat nonbaitik ekarriko dioten itxaropenik gabe. Aurrak bikaiñak denak; atarian an zebiltzaken jolasean. Aiek asko bear ditek, eta nondik atera jakin ez.

–Erra gaiztoa zioz nagusiak enkargatuari, pozik bialiko likek gurekin bat egiten duelako: baiña langille aparta eta enkargatutzarako asko balio duena.

–Egia ote da lapurretan arrapatu dutela? –esan zuen batek.

–Ez; baiña lapurreta norbaitek egiten duela konturatu dituk, eta bateonbateg enkargatua salatu du. Nagusiak, besterik gabe, gobernadoreari salatuko ziozen, lagun maitteak dituk eta.

–Zakur aundiak zaunkari, baiña ondo kopontzen dituk. Txikiak pagatu bear larrutik.

–Lapurreta esaten diagu? Ez diat uste Jaungoikoaren aurrerako errudun izango litzakenik, gure nagusi zur oni olako puska batzuk eramanagatik. Ala ere, ez nauk gordean ezer eramatearen alde.

–Enkargatua leenago goseak ilko uke, lapurretan asi baiño. Baserritik ere asko ateratzen dik orrek. Baiña norbaitek lapurtu duela eta gizon jator baten izena aotan arzea, ori dek neretzat lapurretarik gaiztoena: baten izen ona ostu. Guk bazekiagu ori dena gezurra dala; baiña norbaitek ez. Laster asiko dituk emengo tabernetan gaizki esaka:

»–Aizak: aurreko lantegi ortako enkargatua espetxera eraman omen ditek.

»–Eta zergatik?

»–Nik entzun detanez, lapurretan arrapatu omen ditek.

»–Ez diat sinisten. Joxe Erramon ez dek olakoa,

»–Ez nitek beste ainbesterik esango. Lan-sari eskasa zeukak, eta famelia aundia, berriz; eta, gauzak eroso ikusi ezkeru, prakagorriaren zirikaldiak iruzurtu duenik ez niñuke arrituko.

»–Egia edo gezurra, susmur txarra beiñepein, eta aren izen ona zalantzan.

»–Dana dala, egiak laster azaldu bear dik, lapurtu duela egia bada beiñepein.

»–Gezurretan ezin ariko dituk, iru edo lauk ori salatu omen ditek eta.

»–Orain arte lapurretan aritu bada, enkargatu ori bazegok puska batera.

Lapurra

DENAK, batez ere enkargatuaren taldea, erne zebiltzan. Baiña au espetxean zegoela illebete luze bat igaro zan, eta ezeren aztarrenik ez. Etsi zuten etzutela puskak eramaten zituena arrapatuko. Enkargatua zan lapurra edo egitazkoa izutu egin zan.

Asi ziran, geienak beiñepein, zalantzan, eta batzuk nagusiari arrazoi ematen: an etzala lapur bat besterik eta ondo lotua zegoela.

Ogei baiño geiago lapurto zituena eta eun pezetatik gora balio zituela bakoitzak, auzitara deituko zutela; eta guzia zergatik? Beste langilleekin bat egiten zuelako. Bera zala zirikatzaile. Bestela, langilleekin etzerala eske asiko; ain gutxi matxinadarik egin. Besteak aurrera bota eta ederki ari zan sakelak betetzen. Urte batzuetarako espetxea emango zioten, eta biali gabe. Ori zailla zan orduan ere. Langilleak bazeukan bere babesa. Aitzaki orrekin itxi-ko zizkion betiko lantegirako atea.

Ustez seguru zegoen, bada, gure nagusia, erdiz erdi asmatu zuela. Bein arro-arro langilleetara etorri eta ala esan zien:

—Etzenidaten sinisten eta orain garbi-garbi azaldu dek nik neukala arrazoi: susmur nuena izaki.

—Zuzendariarekin itzegin al dezu?

—Oraindik ez.

—Zertan zatoz orduan guri iseka egitera? Arek esango dizu zuk diozuna ez dala egia.

—Zer diozute? Ez dala egia?

—Errugabea espetxean daukazula, eta lapurra aske.

Atzo paltatu zan beste puska bat betiko taldetik.

–Egia al diozute?

–Galdetu zuzendariari, eta denaren berri emango dizu arek.

Txuxenean, baiña urduri, arekin itzegitera joan zan. Arek garbi esan zion baietz: bezperan puska bat gutxiago azaldu zala.

–Sartu didate epela, nik auzitarako salatua daukat ori eta.

–Zerorrek galduko dezu, bada. Langilleak, azkeneko-raiño, aren alde aterako dira. Baita leengo salatari ura bera ere. Eta, ni ez banintz garaiz etorri, gaur etziran lanera sartuko ere.

–Lekutan uzten nauzute.

–Ori, nagusi jauna, ez da gure pekatua. Zerorri sartu zera buruz beera. Begitan artua daukazu enkargatu ori, eta ez dizu lasai pentsatzen uzten. Biali nai zenduke, baiña langilleak ere badituzte beren eskubideak. Ondo daki-tu ori ere *excombatiente* dala, borondatezkoa ez bazan ere.

–Eta nor izan liteke lapur ori?

–Oraindik ez nago seguru; baiña nere iritzian iñor ez. Taldeak lagun bat darabilkite erdi gaixo, eta baditu lanean ondo ezin jarraitu dituen egunak. Besteak aalegiñak egiñagatik, ez dira irixten eguneroko neurrira, baiña ez dute salatu nai, zuk bialiko zenduken beldurragatik.

–Eta zer egiten zuen enkargatuak?

–Beste guziak bezela lan egin eta zortzi taldeak zaindu. Gizon batentzat geiegia da ori.

–Badirudizu, oiek bezela, zu ere nere aurka zaudela.

–Zuzendaria naizen ezkerro, nik ez det besterik eskatzen: zuzentasuna.

–Langille-talde ori, bat utzi gabe, biali egingo det, iruzurtu egin naute eta.

–Kontuz, nagusi jauna. Enkargatuak arrasta polita egingo dizu. Espetxean igarotako egun guziak azkeneko xentimoraiño ordaindu bearko dizkiozu. Auzia galdutako

ordain bear guziak ere zure bizkar joango dira. Agian, ari izen ona galdutako zigorra ere bai. Orain oiek biali nairik asten bazera, kontuz.

Enkargatuak alde egin zuen espetxetik. Nagusiak bere langille eta mendeko guziak aurka zeuzkan. Kastatu bearrak etzuen beldurtzen; auzia galtzeak bai, etaepaileak be-
ra gezurtizat artzeak ere bai. Zer uste zuen, bada: langilleak etzirala batuko? Eta berarentzat okerrenea, enkargatua berriro artzera beartuko zutela.

Auzia asi zan eta banaka-banakaepaileak deitu zituen langilleak. Iñork etzuen nagusia babestu. Eta, onen zoritxarrerako, zuzena izakiepailea. Eskeiñitako diruak etzuen iruzurtu. Gobernadorearen losintxak ere ez. Arek justizia egingo zuen, eta gero gerokoak, aitzaki-maitzaki lantegitik botako bazuten ere.

Illebeteren bat ortxe ibili ziran auzitan atzera-aurrera; baiña azkenean, agintari guzien aurka, justizia egin zuen: enkargatua lapurra etzala, eta jakiñaren gaiñean sartu zutela espetxera.

Beraz, nagusiak ordaindu bearke zituen auzitako kastu guziak; eta espetxean igarotako egun guziak ere bai txintxo-txintxo enkargatuari; eta, onek nai bazuen beiñepein, berriro lantegian artu bearra zeukan.

Erremindua geratu zan, bada, gure nagusia; eta, ego-kierarik izaten bazuen, epaile ura kentzeko moduak egingo zituela zin egin zuen.

Txalet berriaren bedeinkatzea

AINBESTE milloi kostatako txaleta ere noizbait bukatu zan; eta, jakiña, aundikiro ospatu nai zuten bera bedeinkatzea. Ortarako etzebiltzan kastu egin beldurrak. Nagusia katolikoa omen zala, eta bere ustez oso piña. Kristautasun aundirik agertzen ez bazuen ere, mezetara joaten zan beiñepain. Itxura geiago, noski, eraspena baiño. Diru zaletasunak irentsia zeukan. Ezin zuen ortatik bere bururik askatu. Oso diruaren morroi bizi zan. Meza entzutea aberats sinisgabekoen laiñeza omen da; ala daukat entzuna.

Leenengo, bada, bedeinkatu egin bear zuen txaleta. Baiña ortan ere goitik jo zuen. Ordurako bazan Donostian gotzai jauna, eta bera katalana, Elizak ontzat emana. Baiña, gobernadore zibilla bezela, dena zezakeen Frankok aukeratua. Elizaren gora-beera asko ere onen eginkizunak baiziran. Gotzai jaun ori espaiñolista amorratua bezela ezaguna, eta Euskadi eta euskeraren etsaia, laster erakutsiko zuen bezela.

Gotzai berriak, bere jauregia bere naiera zerbait antolatatu, konpondu eta edertzeko, ots aundiko irudigille on bat deitu zuen, lan batzuk egiteko. Irudigille ori oso ezaguna zan, langille eta euskaldun bezela. Gotzai jauna espaiñolista bezela nabarmena bazan, baita bestea ere euskaldun eta abertzale bezela.

Gure gotzai jaun orrek bere serbitzariak katalanak zeuzkan; eta, jakiña, katalanez itzegiten zuten, eskubide osoarekin. Ortaz oartu zanean, irudigillea ere euskeraz asi zan bere lagunekin itzegiten. Bai gotzai jaunak aguro asko kargu artu ere. Laster agertu zuen bere biotzeko ozpiña.

–Ez dago ondo guk ez dakigun izkuntza batean mintzatzea.

–Gotzai jauna, zure ejemploari jarraitu besterik ez diogu egin.

–Eziera on batek, al badu beiñepein, denak ulertzeko moduan mintzatzea eskatzen du.

Irudigillea txorrotx oietakoa zan, eta itzetik ortzera ala erantzun zion:

–Barkatu, gotzai jauna. Zu ondo azi eta ezia zeundelakoan, zuk erakutsiari jarraitu besterik ez diot egin. Ni erderaz asi naiz, baiña zu katalanez; eta nik ez det ulertzen, euskalduna naiz eta.

–Ni nere etxean ari naiz.

–Alajainkia! Zuk besteren lurrean katalanez itzegiteko eskubidea badaukazu, zergatik nik ez euskeraz, bertakoa izanta?

Bere trasteak artu eta «Agur, gotzai jauna!» esanta, lana utzi eta alde egin zuen andik.

Gotzai jaun au deitu zuten, bada, txaleta bedeinkatze-ko, eta bakar batzuek lagundu omen zioten. Bitartean, txaletaren barrunbeak ikusi zituzten. Barrun eta kanpo aztertu zuten etxe ori. Nik ez det ikusi eta aren barrunbeak nolakoak diran azaltzen ez da erreza izango. Bakoitzak, iruditu bezela, al zezakeen ederrena pentsa dezala, eta nik uste det ala ere azpitik geratuko dala.

Berri-zaleen aurrerapen guziak bai omen zituela, eta gorputzaren atsegiñerako txeetasun guziak. Lurpean etxe bat ederra, leen esan degunez, gaiñetik zijoazen berebillen otsik ere entzuten etzan lekua. Ezetasun izpirik ere ez omen zala sartzen. Au negurako, eta beste bat gaiñean udarako. Kapilla txiki bat ere bai –nola ez?– garai bateko abertzale eta elizkoi arek. Ordurako, kapillaua ere izendatua omen zeukan. Gotzai jaunak etzion ezer ere ukatuko ari. Eskupeko on bat emango baizion.

Orduko berebillik ederrenean etorri omen zan gotzai jauna. Etxeko nagusia bere emaztearekin goiz xamar eto-

rri zan, banaka-banaka zetorren aundi-jende ori agurtzeko. Semea eta erraiña geroago iritxi ziran. Madrid aldeko iru ministro ere an omen ziran. Donostiko gobernadoreak ere bai, zibilla eta militarra, biak.

Ezin omen zan urrats bat ere eman, ertzaiñen batekin topo egin gabe. Aiek denak nagusiaren bizkar mantentzekeroz, etzan bazkaria merkea izango. Bertako jendeak muzin egin zion, Euskadiren etsai aiek aurrez aurre ikusita.

Leenengo, kapilla bedeinkatu zuen; gero, etxea. Baita banaka-banaka saloia, arleku, jangela, sukalde, lo gelak eta abar. Oso jende gutxik lagundu zion.

Lan ori bukatutakoan, zerbait artu zuten an bertan, eta txuxenean *Hotel María Cristina*-ra joan ziran. Bedeinkatzerakoan gutxik lagundu bazioten ere, *hotela* leporaiño bete zan. Geienak, noski, nagusiak konbidatuak izango ziran, besteren bizkar zakua betetzera, ministroak, gobernadoreak eta erabat aberats jendea... Lantegiko zuzendaria ere bai. Baiña langillerik ez, epailearen aurrean denak beraren aurka aitortu zutelako. Beraizik ere etzien sari geiago eman; xentimorik ere ez, eta bazkaritan botako zan geiena aiek egiña. Ori da zuzentasuna!

Aitagure batekin asi zuten bazkaria. Amaika jaki goxo eta garestienetakoak sartu ziran aien urdailletan, eta bitartean langilleak miseri gorrian. Egunaren buruan amaika olako zuzengabekeri egiten da mundu zabalean.

Bedeinkatzea baiño bi egunez leenago atera zuten espetxetik Joxe Erramon enkargatua.

Bazkaria bazijoan aurrera. Ixkanbil eta zalaparta ere goraka. Asi ziran brindisak onengatik eta arengatik; bai an etzeudenengatik ere. Gotzai jaunak, nagusiarekin, bien kopaxkak elkar joaz, Frankoren alde egin zuen brindisa:

–Espana pakean zaindu eta separatismoari indarra kentzeko aalmena izan dezan Frankok! Aupa Franko!

–Aupa! –erantzun zioten bazkaldar denak. Bai ederki txalotu ere.

Nagusia ere, jakiña, goratu zuten, alako bazkaria eman zielako, jale eskertsuak. Aren aldeko brindisak ere izan ziran.

Banaka-banaka beren itzalditxoak ere bai. Ia denak Frankoren alde eskertsu zeuden, aberasteko aukera jarri zielako. Arrazoi ere bazuten.

Arratsa gaiñean zuten, eta azken orduan bazebillen jan-edaritik aukera, eta onenetik, gaiñera. Batzuk ordurako katu-erdian zeuden. Angoa bukatua zegoen, eta banaka-banaka asi ziran alde egiten, denak nagusiari esker emanaz eta beste olako bat noiz izango zuten galdetuz.

Jaunaren abisua

BAZKARI luzea bukatu zan, bada. An etzegoen zer egiñik geiago eta jan-edanez aseak aspertu ziranean, aitzaki-lege batzuk asmatuz, gorputzaren atsegiña ere luzeegi egiten danean nekegarri izaten da-ta, oraindik an geratzen ziranak agurtuz, jaleak bakantzen ari ziran. Geienak, berriz, beren emazteekin ziran, eta auen berri badakigu: etxean zer egiñik ez badaukate ere –aberatsen etxeoandreak ez dute edukiko noski–, bereala asiko ziran beren senarrei tiraka:

–Zer egiten degu? Emengoa bukatu zan.

Emakumeen etxera min ori nabarmena da, berak ere aitortzen dute eta.

Nagusiaren semea ere an zan bere emaztearekin, eta aitarengana joan eta ala eskatu zion:

–Goazen, aita, emendik. Uste det naikoa eman diegula. Or konpon bitez.

Denak ontzat artu zuten semearen eskaria, eta biak batera atera ziran, jakiña, kotxe banatan, berebil eder banatan alegia. Ordurako illunbista zan. *Hotel María Cristina*-tik Ernaniko bidea artu zuten aita-semeak, an bizi ziran eta, ordura arte beiñepein. Laster aldatuko ziran Donostiko jauregi berrira.

Ez dakigu nola gertatu zan. Euri asko egin zuen egun aietan, ibaiak eta errekek gaiñez egiteraiño zetozen gainbeera. Urumearen ondotik igarotzerakoan, au leku askotan gaiñezka egiña zettorren. Illun zegoelako ere bai noski. Nagusia ere aspalditik lausotu xamarra zegoen, nekatua eta agian katu erdian joango zan.

Dana dala, uste gabean berebilla txirristatu zitzaion, eta bidean trabeska jarri. Zuzendu nairik asi zanean aurreko bi kurpillak, baita motorra ere, uretan azal xamarrean oraindik, baiña zoritxarrez motorra geratu zitzaion, eta argiak itzali. Berebilla ez atzera eta ez aurrera gelditu zitzaion, osin sakon batera ixurian.

Aalegiñak egin zituzten atek zabaltzeko, baiña alperrik. Osin zulora sartzeko arraixku aundian, gaiñera. Egoera larrian geratu ziran, bada, egun aundi baten ondoren, gure senar-emazte aberats eta zurrak.

Berebilla bere kargak zeraman polliki-polliki ixurian beera. Egiten zuen pixarra ibai aldera, eta urak gain-beera zekarren indarrak trabeska jartzen ari zuen, azpikoz gaiñera jira eta ibai barrura eramateko arraixkuan.

Txoperrak, leen esan degunez, aalegin guziak egin zituen, baiña alperrik, motorra geratua zeukan ezkerero. Ateratzea eziña zan. Ateak, berriz, ezin zabaldu; eta berebilla, berriz, egiten zuena, geldi-geldi beti aurrera.

–Gizona, gizona! Zerbait egin zazu! Bestela bertan itoko gera! –zion oiuka, urduri, emazteak, ondoren tristea zetorkiela igerriz.

–Indarka eta gogorrean ez dago asterik, ondora joango zaigu eta! –gizonak.

–Ederki geratu gera oraintxe! –emazteak, gero eta urduriago.

–Motorra geratu zaigu! Au ez dago ateratzerik, kanpoko indarrarekin izan ezik! –gizonak.

–Izan ere, ainbeste aldiz esan dizut etxera etorri bear degula!

–Leenago atera bagiñan ere, berdin gertatuko zitzaigun! Urak beren amatik atera eta indarrean beera datoz!

–Argi izan balitz, norbaitek ikusiko giñun. Orain iñork ez.

–Baliteke, bai, orain illun dago eta.

–Ainbesteri alperrik bazkari ederra eman diegu, eta geron buruak galdu. Laguntzera ez da iñor etorriko.

–Auxe tristea! Oraindik sasoiko, osasun bikaiña, dene-
tik aukera eta, agoni luze baten ondoren, ementxe bukatu
bear gure egunak, urean itota!

Emazteak, bere baitara bildu zan eta etzion erantzun.
Etsia zegoen. Sinismen berokoa zan eta, Jainkoaren aurre-
ra azaldu baiña leen, barkamen eske otoitzean ari zan.
Nagusi jauna, berriz, eriotzaren aurrean berekiko izketan:

–Testamenturik ere egin gabeak, norentzat izango ote
dira gure diruak? Oraintxe oroitzen naiz bein enkargatuak
gogora erazi zidan alako ebanjelioko alegi ura: gizon batek
egundoko aberastasunak bildu omen zituen; eta ain zurra
zan eta berekoia, dena beretzako nai zuen. Etzion iñori
eman nai. Ondo pentsatu ondoren, erabaki au artu zuen:
almazen zaarrak bota eta berri aundiagoak egingo zituela,
eta ala esango zion nere buruari: «Jan, edan eta atsedan
adi; urteetako naiko gauza badaukak eta». Baiña Jainkoak
ala erantzun zion aberats berekoari: «Zoroa aleena! Gaur
bertan eskatuko ditek ire bizia. Pillatu dituken oiek noren-
tzat geratuko dituk?». Orixe gertatuko zaigu guri ere. Ain-
beste langille badauzkat miseri gorrian. Bi pezeta geiago
eskatuta, ez diet eman nai izan. Langilleen zirikatzaile be-
zela, gezurretan espetxean sartu erazi nuen nere enkarga-
tua. Irabazi ori dena ematen didaten langilleak ez ditut
maite. Bitartean, milloiak eta milloiak alperrik kastatu di-
tut. Beartsuak baztertu eta aberatsei lagundu diet.

Nagusia aitortza bat egiten ari zan ametsetan bezela,
eta dena bertan utzi eta esku utsik aurki denaren kontu
ematera Jaunarengana joan bearra. Emazteak dena entzu-
ten zuen, baiña entzungo ez balu bezela, etzion erantzun-
ten. Au ere, bere baitara bilduta, negarrez zegoen.

–*Socorro!* –oiu egiten zuten, baiña alperrik. Garai ar-
tan, urak zeraman otsarekin eta leku itxitik, ezin ziteken
entzun.

Berebilla, berriz, geldi-geldi beera zijoan. Egiten zuen
pixarra, beti ibai barrura; eta, jakiña, ura goraka.

Nagusiak etsi nai ez eta berriro aalegiñak egin zituen,
aterik zabaldu edo austen ote zuen. Alperrikako lana. Be-

rebilla, berriz, putzuan aurreratu aiñean, urez betetzen ari zan. Ia okotzeraiño estali zituen. Bereala bukatuko zan beren agoni triste ura. Nork pentsatu bear zuen alako egun baten ondoren?

Izuak menderatuak, biak beren baitara bilduak, ixilik geratu ziran, laster urak estaliko zituela eta Jaunaren aurrera azaltzeko beldurrak. Ixilik zeuden. Etzuten kejak emanez elkar mindu nai. Beti elkar maiteak izan ziran eta alaxe joan nai zuten mundutik.

Ura iritxi zitzaien ezpaiñetaraiño, eta burua jasotzerik ez, goian jotzen zuten eta.

Aingeru guardakoa

AZKEN larri artan beren aingeru guardakoa Joxe Erramon izan zuten, enkargatua alegia. Leen esan degunez, etxe bedeinkatzea baiño bi egunez leenagotik biali zuten espetxetik etxera. Jaungoikoaren bideak bai ezku-tuak dirala! Arek salbatuko zuen bere nagusi egoskor ura. Beartsuak ankapean eduki zituen beti, aberatsei on egin zien eta, azkenean, aietako batzuek salbatuko zuten.

Joxe Erramon Erreran bizi zan; baiña Loiolan, Urumearen ondoan, garai bateko Paskualdegi etxearen alboan zeukan anai bat ezkondua baserri txiki batera. Onek ere kanpoan lan egiten; baiña aske geratzen zitzaizkion orduak, baserrian.

Joxe Erramon ere, libre geratzen zanean, anaiari laguntzera joango zan, eta beti zerbait ematen zion. Bedeinkatze egun aundi artan, aberats jende ori ikusi zuten Donosti aldera joaten, lanean ari ziran lekutik, bi anaiak. Baita nagusia eta bere emaztea ere.

–Orra or non dijoan gure nagusia, oraindik goiza dek baiña –zion enkargatuak bere anaiari–. Bi pezeta zorritsu eskatzen geniolako, orrek artu zidan gorrotoa, zirikatzaile nintzan aitzakitan! Ala ere, etziot txarrik opa. Egun atsegin bat igaro dezatela.

–Ez al dek berriz orrekin lanean asi bear?

–Eskubide osoarekin, nai banu; eta langilleak ez ditek besterik nai. Baiña nik ez. Ala ere, oraindik beartu litekek nitzaz.

–Eta joango al intzake langille bezela ere, lan-saria pixka bat jaso ezkerro?

–Enkargatu bezela baiño naiago nitek.

Olaxe, elkarrizketan, igaro zuten bazkal ordura arte. Arratsaldean ere leku berera joan ziran lanera, andik bazkaldarren erretira ikusiz. Baita bere nagusia eta semea ere. Au joan zan leenengo, ogei bat minuturen aurrearekin, bere emazte eta guzi. Ondoren nagusia, au ere bere emaztearekin.

Arraixku txarrekoa zegoen Urumea bazter ori. Euri asko egin zuen eta ibaiak anpatuak, aziak baizetozen, eta illuna gaiñean. Txoperra, berriz, gaztetatik asi, urte mordoska bat gaiñean eta lauso xamarra. Egun guzian lagunartean, atsedetik artu gabe, guri-guri oitutako gizona, joan al ziteken geldi eta erne.

–Aingeru guardakoak lagun dezaiela egunari bukaera on bat ematen.

Joxe Erramonek-eta ere bukatu zuten beren baratzako lana, eta sartu ziran etxera. Bi anaiak, pazi bana eskuan, beiak jeztera zijoazela, oiuka eta lasterka etorri zan etxe-koandrea, Joxe Erramonen koiñata alegia:

–Automobil bat urean sartu eta atera eziñik geratu da!

–Aizak: ea gure nagusia dan! Aristian pasa dek emendik!

–Baiña illuna da eta ez degu ezer ikusten. Bistan geratu al da?

–Ni etorri naizenean, beiñepein, bai!

Bi anaiak joan ziran eta koiñatak erakutsi zien non zegoen.

–Oraindik bistan zegok. Baiña ori gure indarrak ez dituk aterako.

Leenengo, bizi ziran ala ez jakin nai zuten. Etziran alperrik lanean ariko. Urbildu zan Joxe Erramon. Barrukoak etzuten noski ikusiko; berak bai, ordea. Bizi ziran eta bere nagusia zan. Okotzeraiño estaliak zeuden urez, eta beren buruak babesterik ez. Sapaia jotzen zuten.

–Bizi dituk eta gure nagusia-ta dituk. Ia minutu gutxi-ko bizia zeukatek. Gure indarrak alperrik dituk or. Lagun-

tza ekartzeko ez diagu denborarik. Emen itotzen bazaizki-
gu, berriz, gaizki erabiliko niotek.

–Eta utzi egin bear al dizkiagu?

–Ez olakorik! Baiña nola atera gentzazkek?

–Atzetik, kristala autsita. Bestela, indar geiago gabe,
eziña dek ori.

–Ondo pentsatua! Zuek eutsi kotxeari, aurrera egin ez
dezan! Nik kristala autsi eta aterako dizkiat atzetik!

Arri-kozkor bat artu eta begiratu zuen barrura. Azkar
zeukaten ibili bearra. Azken puntan zeuden. Berebilla pol-
lliki-polliki beeraka, eta barruan zeudenentzat leku gu-
txiago. Senar-emazteak eusten zioten berebillari. Barruko-
ei abisatu ondoren, Joxe Erramonek, billatu zuen arri-koz-
kor arekin, zulatu edo autsi zuen kristala, bere buru eta
gorputza sartzeraiñokoa. Gazte indartsua nola zan, bere
gorputza erdiraiño sartuz, andik emaztea arrapatu zuen
leenengo, galtzarpetik artuta, egokiena ere bera zegoen
eta. Otzak daldara, baiña bizirik. Arek gorputzean zera-
mazkien pitxiak balio zuten milloika mordoska bat.

–Nor bait zera ere, eskerrik asko! Ez neukan bost mi-
nutuko bizirik! –eta besarkada bat eman zion, zoriontsu–.
Baiña senarra barruan dago eta oraindik bizirik! Mesedez
atera ezazu!

–Merezi al du?

Orduan ezagutu zuen emakumeak gizon ura nor zan.

–Joxe Erramon zera zu? Badakit, bai, gaizki portatu
zaizula nere senarra. Baiña, Jainkoagatik, eskatzen dizut:
atera ezazu!

Emaztea atera zuen zulotik sartu zan eta galtzarpetik
atera zuan. Une berean, berebilla irauli eta putzura sartu
zan.

Biak, senar-emazteak, artu eta sukalde berora eraman
zituzten. Joxe Erramon, berriz, bidean geratu zan, leenen-
go kotxeari abisatzeko. Etxekoandrearen esku nagusia eta
bere andrea utzita, bi anaiak bidean jarri ziran. Sukaldean,
nagusiak ala galdetu zuen:

–Nor zan gizon ori?

–Joxe Erramon, zure enkargatua; eta lagundu diotenak, bere anaia eta koiñata.

–Leku ederrean utzi nau!

–Baiña berak salbatu gaitu!

–Bai; ori ala da.

Etxekoandreak jantzi legorrak eman zizkien, ez erantziko zituztenak bezin eder eta dotoreak, baiña bai garbi eta legorrak. Beartsuen bizitza nolakoa zan ikasi zezatela, ea lan-saria jasotzen zien.

Kapesne beroa ere eman zien, eta norbait billa etorriko zan arte, suaren epelean sukaldean geratu ziran.

Urrutizkiñez itzegin zuten, eta ala erantzun zieten: Donostitik elkarrekin atera zirala, eta luzetetsirik zeudela. Semea billa aterea zala.

Bi anaiak bidearen bi aldeetara zai zeudela, azaldu zan berebil bat; eta zetorrenak, zai zeudenak ikusi zituanean, berebillaren argira bai ezagutu ere aietako bat Joxe Erramon beren enkargatua zala. Lagun batekin zetorren eta ala esan zion:

–Ez diagu gauza onik.

–Zergatik diok ori?

–Gure enkargatua dek bat, zai daukaguna.

Aien parera etorri zanean geratu zan, leio batetik galdetuz:

–Zer egiten dezute emen?

–Ongi etorri, motell! Eskatu baiño obeto atera zaiguk, alajainkia!

–Zer esaten ari aiz? Gurasoen billa nebillek. Donostitik batera atera gaituk, eta ez dek aien aztarrenik.

–Lasaitu adi! Gure sukaldean zeudek! Alde artara zijoan kotxe baten zai geundeken, beren etxera bialtzeko. Zure etxean bazekitek, urrutizkiñez abisatuta, emen daudela.

–Bejondeizutela! Leen esan dizutet Donostitik batera abiatu gerala, eta kezkatuak atera gera etxetik.

Joxe Erramonek txeetasun guziekin gertatuaren berri eman zien: aiek atera orduko berebilla ibaira sartu zala eta abar. Eta semeak ala erantzun zien:

–Lezio polita eman diozute, nai badu ikasi. Berebilla biar aterako ditek.

Zai zeuden bi anaiei millana pezeta eman zizkien. Beste bat, berriz, emaztearentzat.

–Baiña ez diat aitak jakitea nai. Au, nere partetik. Berak ordain dezala bere zorra.

–Eskerrik asko. Ez diat nere denboran olako asko ikusi.

Luzetetsirik, ukuilluan beiak marruka ari ziran, eta Joxe Erramonek ala esan zion bere anaiari:

–Auek eraman itzik sukaldera, eta an emaztearekin konponduko dituk. Beiak jeztera goazela gertatu dek ori, eta gaixoak marruka ari dituk.

Aiek sukaldera eraman eta bi anaiak ukuillura joan ziran. Bitarte ortan alde egin zuten arrotzak.

Ukuilluko lanak egin ondoren, apaltzerakoan, eman zion senarrak milla pezetakoa emazteari, semearen partetik.

–Aitak ere zerbait emango al du!

–Oraindik, beiñepein, egoskorra zegoen.

–Gertatuaren berri biar zabaltzean, ez da esanaren paltarik izango.

–Jainkoaren eta gizonen aurrerako lan on bat egin degu, bai, eta atsedeen gaitezen.

Urrengo goizean, egunerokoak azaldu ziranean. leenengo orrian eta letra aundiekin zekarten gertatuaren berri.

Bazan bazterretan zer kontatua. Nagusi jaunaren pekatuak laster azaldu ziran. Batzuek deabru baten modura jartzen zuten. Besteak, gertatuaren berri soilki eman eta kito. Baziran aldekoak ere.

Lotsagarrian utzi zuten nagusia. Aste bat osoa igaro zuen etxetik atera gabe. Ala ere bi pezetakoa igo zien. Eskerrak emaztearen zirikatzeari: ori Jainkoaren abisu bat zala; urrengoan etzuela agian salbatzerik izango.

Bein baiño geiagotan deitu zuen Joxe Erramon, baiña au etzan azaldu. Aldameneko arrobi batean asi zan lanean. An amalau pezeta irabazten zituen.

Lengo abertzale piñarentzat Madrid zan, bada, leenengo. Arek agintzean, bera ere makurtuko zan aren esanera.



Lau anai: ezk.: Joakin, Juan Jose, Salvador eta Manuel
Zapirain, jaiotetxeko atarian.
Gaur egun Joakin bakarrik bizi da.

Aurkibidea

Itzaurrea.....	7
Markesgaiak	13
Kai aldean.....	15
Bi lagunak elkarrekin.....	21
Nere erregalia.....	25
Ondarribi.....	29
Gizontxo.....	31
Prantziako laguna.....	35
Markes baten bisita.....	39
Gizontxoren larriak.....	43
Diruak ez du biotzik.....	53
Lapurreta.....	55
Ondorenak.....	59
Lapurren asmoa.....	63
Markesa.....	67
Etxean.....	71
Epaillea bere lanean.....	75
Lapurrak beti lapur.....	79
Bi deabru burruka.....	83
Txabola zar bat sutan.....	87
Aurtxo.....	91
Gizontxoren aldaketa.....	97
Oiñordeko berria.....	101
Joantxoren kalbarioa.....	105
Markesaren kezka.....	111

Etxeko miseria.....	121
Joantxo alderrai	125
Etxeko tristura.....	131
Azpi janean	137
Bakoitz-burruka.....	141
Arraia pasa eta gero sarea	147
Osaba-illobak	151
Igesa.....	157
Ondarribian.....	163
Markesaren etxean	167
Batzarra.....	169

Dirua Jainko

Berekoiak	181
Batzarra.....	191
Baserri uts baten billa	203
Mendiko batzarra	209
Diru-zalea	213
Aurpegiz aurpegi	217
Emakumeen agermena.....	225
Erasoa	233
Eztaiak.....	239
Indarra lege	247
Lan uztea	255
Astelenean.....	271
Ezin ikusia	277
Langilleen sumiña.....	285
Lapurra	289
Txalet berriaren bedekatzeta	293
Jaunaren abisua	297
Aingeru guardakoa.....	301

Auspoa-ren azken liburuak:

- 269 **T. Gerrikagoitia:** *Arantza eta larrosa*
- 270 **A. Basterretxea:** *Ene Ondarru*
- 271 **Ataño:** *Jesusen bizitza*
- 272 **M. Aizpurua:** *Hasi, Azpillaga*
- 273 **E. Larre:** *Ene artzain etxolak*
- 274 **J. M. Aranalde:** *Xalbadorren barrua*
- 275 **Joxe Lizaso:** *Ene aldiko kronika*
- 276 **Jose Insausti:** *Beti bertsoa buruan*
- 277 **Manuel Matxain:** *Uste gabean*
- 278 **I. Olea:** *Ostiraleko kronika Segura Irratian. (1988-1992) I*
- 279 **I. Olea:** *Ostiraleko kronika Segura Irratian. (1988-1992) II*
- 280 **S. Zapirain:** *Markesgaiak. Dirua jainko*



Ataño (1913-2000) zanaren beste bi nobela eskeintzen dizkiogu gaur irakurleari: *Markesgaiak*, antziñako kontaera edo aoz aoko tradizio batean oiñarritua; eta *Dirua Jainko*, gerra ondoko giro latza eta nagusi-langilleen arteko arrema txorrotzak agertzen dizkiguna.

Euskera dotore eta aberatsa, legun eta garbia, jatorra eta errikoa arek bere idazlanetan erabiltzen duana. Liburu oiek gure erri-izkuntzak igo dituan gaillurrak dirala esan genezake.

Bestetik, berriz, arrigarria da Ataño idazle ixil onen ugaritasuna. Orain arte argitara emandako lanak asko badira ere, mordo bat degu oraindik ere illunpetik atera gabe, txandaren zai alegia.

Zeruko opari bat dira, dudarik gabe, beren erriari olako altxorra uzten dioten gizonak.

ISBN 84-95378-61-2



9 788495 378613

